

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Harritik herrira. Gabriel Arestiren paperak euskal kultura eta gizartean, 1954-2014

Doktore gradurako aukera izateko memoria

Doktoregaia:
Asier Amezaga Etxebarria

Tesi zuzendariak:
Iñaki Martínez de Albeniz Ezpeleta,
Elena Casado Aparicio

Leioa, 2015

LABURPENA

Gabriel Aresti Segurola (1933-1975) euskal literaturako idazle nagusietako bat dela inork gutxi ipiniko luke dudatan gaur egun, bere obra eta posizio-hartzeek astindu eta iskanbila ederrak sortu bazituzten ere. Hainbat kale eta erakundek izena zor diote Arestiri eta urtero, gutxienez, omenaldi publiko pare bat eskaintzen zaizkio. Ikerketa honek Arestik gaurko euskal kultura eta gizartean jokatzen duen papera ulertu nahi du, horretarako bere bizitza eta obra zelan egokitzen diren aztertuko ditut, interpretazio aniztasunari arreta berezia jarritz, aniztasuna baita, hain zuzen ere, moldagarritasunaren berri eman dezakeena.

Zentzu horretan, ikerketa honek galdera hauek erantzun nahi ditu: Zenbateraino eta zeren bitartez osatzen du frankismo garaiko euskal literatura eta kulturaren gaineko narratiben bitartekaritza? Zerk bihurtu du Aresti euskal kulturaren ordezkari, adibidez, bere koroatzean, Espainiako Erregearen aipamenaren duin izateko? Zelan mantentzen dute hainbat eragilek *bizirik* bere obra? Obraren *bizirik* mantentze horretan, zer alde dago batzuen eta besteen interpretazioen artean?

Literatura eta kulturaren soziologiak tresna egokiak eskaintzen dituzte Aresti euskal kultura legitimoan txertatzeko igarotako prozesua aztertzeko. Baina ahalbidetzen dituen interpretazio anitzei erreparatzeko, komunikazioaren soziologiak bere egin dituen zenbait kontzeptu ezinbestekoak suertatuko zaizkit, komunikazioa bitartekaritza, performatibitate eta artikulazio-prozesu gisa ulertzen duen neurrian. Azken batean, produkzio kulturalaren harrera ulertzeko *ikerketa kulturalen* aportazioekin elikatu da neurri handi batean. Arestiren gaineko omenaldiak eta aktualizazioak izango dira harreraren polora gerturatuko didatenak, hauek hizketa-ekintza gisa aztertuko ditut, idazlearen adierazleen errepikak eta erreplikak dialogismoaren bitartez analizatuz.

Objektu anitza da ikerketa honetan aztertzen dudana, interpretazio-aukera zabalen eskaintza aztergai dudana neurrian. Horrek interpretazioen interpretazioa egiteko tresna teorikoen aniztasunera eraman nau. Lau gizarte-topologia edo soziala irudikatu eta ulertzeko modutan bereiztu dut ikerketa-objektua.

Lehen topologian, Arestiren obra esparruaren kontzeptuaren bidez kokatuko dut, 1959tik 1979era. Euskal literaturak euskal kultura esparruaren baitako norgehiagoken baitan funtzionatzen zuen neurrian ez zuen autonomiarik. Zentzu horretan, Arestiren obra euskal kulturaren norgehiagoka zabalagoen baitan ulertu beharra dago. Aresti esparru horren transformazioan aktibo nagusienetakoa izan zen, bilakaera hori gauzatu zuen *belaunaldiaren* posizio-hartze eta disposizio estetikoekin bat eginez. Hala ere, bere posizio-hartzeek poeta madarikatua bihurtuko zuten zentzu bikoitzean, berak bere buruari ezartzen zion arau gisa (poeta *outsider*), baina baita esparruko bestelako eragileek bere heterodoxia juzkatzeko esleitzen zioten papera zen neurrian. Hala ere, errekonozimendu zabala jasoko zuen, bereziki hura hil eta euskal literatura esparru propio bat sortzen joan zen neurrian, bere posizio-hartze polemikoak azertu bihurtuz.

Bigarren topologian, poetaren memoria zertu eta moldatzen dituzten tokien bitartez aztertu dut, interpretazio-gune sinbolikoen bitartez. Orokorrena modernitatea bera da, *hausturaren belaunaldiari* euskara eta euskal literatura modernizatzea esleitzen zaizkio, horrek dakartzan nazio-eredu eta desharagitze-prozesuekiko kritikekin. Euskara ere gune gisa aztertu dut, Aresti egungo ereduaren aldekoa izan zelako, *euskara klaro* baten aldeko apustua egin eta *h*-aren inguruko ika-mikan murgildu zen neurrian. Baina horretaz gain, bestelako mundu batean ere parte hartu zuen, La Concordia tertuliaren inguruan ezaugarritu zena. Bertan, espainiar esparruetan jokatzeko zuten antifrankisten mahaikide izan zen. Horretaz gain, beste bi gune ageri dira, Arestiren poesian garrantzia handia izango dutenak, Arantzazu, Zerua, eta Bilbo, Infernua. Interpretazio-gune horiek, Arestiren presentzia bermatzeaz gain, forma ematen diete Arestiren biografiari zein bere obren gainean egiten diren interpretazio nagusiei.

Hirugarren topologian, Arestiren omenaldietan honek jokatzeko duen objektu-izaera aztertuko dut, hainbat instituzioei izena eman eta, omenaldietan, eragile ezberdinei topagunea osatuz. Totemaren antzera, gurtu beharreko objektua izan ohi da, horretarako dagokion liturgia jarraituz: batzuk bere testua probokatuko dute, honen izaera inaugurala indartuz; besteek testua inbokatuko dute, honen gaurkotasuna aldarrikatuz. Horretaz gain, branding-erabilerak ere izango ditu, hainbat instituzioen izendatzaile eta, batez ere, Bilboko Udalak –Miguel de Unamuno, Blas de Otero eta Ángela Figuerarekin batera— eskaintzen dizkion Saria eta Egun Instituzionaletan.

Laugarren topologian, poemen aktualizazioak edukiko ditut aztergai, hau da, hauen adierazleen errepikak, hizketa-ekintzetan osatzen diren transformazioei erreparatuz. Adierazle horiek ritorneloak osatzen dituzte, haragitutako afektuak katalizatzen dituzten neurrian. Honela, *Nire aitaren etxea* poema ezagunaren ritorneloak *topikan* eragingo luke, gorputzak lurraldearekin osatzen duen harreman ezberdinak katalizatzen dituen neurrian. Hainbat poemetan eta poema-liburuen izenburutan ageri den *harriak*, *ostera*, *fonika* mobilizatuko lukete, herriarekiko duen ahoskera eta entzuera gertutasuna dela eta. Bukatzeko, *Egun da Santi Mamina* poeman, hainbatetan musikatua izan den neurrian, *melodikak* egingo luke bitartekaritza.

Bukatzeko, ikerketa honek egin ditzakeen ekarpenei erreparatuko diet. Euskal kulturari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan zertutako autonomia markoan, Arestiren belaunaldiak euskara erdigunean kokatzea lortu bazuen, egun horrek dituen inplikazioei erreparatuko diet. Horretaz gain, ikerketa osoan zehar agertu den bilakaeraren kontakizun historikoa egingo dut, euskal gizartearen bilakaerak Arestiren aktualizazio eta omenaldiekin duten harremanari erreparatuz. Bukatzeko, gogoeta soziologikoa plazaratuko dut, ezinbesteko papera jokatzen duten baina azaltzeko irudikapenen logikatik aldendu behar izan diren afektuei buruz.

RESUMEN

A día de hoy, son pocos los que ponen en duda que Gabriel Aresti Seguro (1933-1975) es uno de los principales autores de la literatura vasca, a pesar del alboroto que generaron sus obras y tomas de posición. Varias calles e instituciones le deben su nombre a Aresti y todos los años se le ofrecen al menos un par de homenajes. Esta investigación trata de entender el papel que actualmente juega Aresti en la cultura y sociedad vascas, para ello analizaré cómo se acomodan su vida y obra, atendiendo especialmente a la diversidad de las interpretaciones, ya que es la diversidad la que puede dar cuenta de su maleabilidad.

En ese sentido, la investigación trata de responder a las siguientes preguntas: ¿Hasta qué punto y a través de qué mecanismos realiza Aresti la mediación de las narrativas en torno a la cultura y literatura vascas durante el franquismo? ¿Qué convierte a Aresti en representante de la cultura vasca, por ejemplo, para hacerlo merecedor de una mención del Rey de España en su coronación? ¿Cómo mantienen *viva* su obra un conjunto de actores? ¿En ese mantenerse en *vida*, qué diferencias hay entre unas y otras interpretaciones?

La sociología de la literatura y la cultura ofrecen herramientas adecuadas para analizar el proceso de inclusión de Aresti en la cultura vasca legítima. Pero para poder atender a la diversidad de interpretaciones que posibilita, una serie de conceptos desarrollados recientemente por la sociología de la comunicación van a resultarme imprescindibles, porque permiten entender la comunicación como un proceso de mediación, performatividad y articulación. También se va a nutrir de las aportaciones de los *estudios culturales* en torno a la recepción. Los homenajes y actualizaciones de Aresti serán las que más me aproximen al polo de la recepción, estos serán analizados como actos de habla, analizados a través de las repeticiones y réplicas de sus significantes, asumiendo carácter dialógico de la comunicación.

En esta investigación voy a trabajar con un objeto diverso, en la medida en que son las opciones interpretativas abiertas las que voy a tratar. Para realizar las interpretaciones de las interpretaciones voy a recurrir también a herramientas teóricas diversas. He dividido el objeto de estudio en cuatro topologías sociales o modos de representar y entender lo social.

En la primera topología, situó la obra de Aresti a través del concepto de campo, para el periodo 1959-1979. El campo literario vasco carecía de autonomía suficiente, en la medida en que funcionaba dentro de la lucha por la definición que se producía en el seno del campo de la cultura vasca. En ese sentido, la obra de Aresti debe entenderse en una disputa más amplia. Aresti fue uno de los principales activos en la transformación de ese campo, compartiendo tomas de posición y disposiciones estéticas con la *generación* que propicio dicha transformación. Fue un poeta maldito en el doble sentido, en la medida en que conformaba una regla autoimpuesta (poeta *outsider*), pero también como el papel que otros agentes le otorgaban para juzgar su heterodoxia. Aun así, lograría un amplio reconocimiento, especialmente, después de fallecer, cuando la literatura vasca pasa a formar su campo propio, convirtiendo sus tomas de posición en aciertos.

En la segunda topología, voy a analizar la memoria del poeta a través de los lugares que la efectúan y adaptan, mediante los lugares de interpretación simbólica. El más general es la propia modernidad, se le atribuye a la generación de la ruptura la modernización del euskera y la literatura vasca, precisamente por eso son también objeto de críticas por sus modelos de nación y el proceso de desencarnación que implican. También he analizado el euskera como uno de esos lugares, Aresti era partidario del modelo unificado actual, hizo una apuesta a favor de un euskera claro (*euskara klaroa*) y participó en las vivas polémicas en torno a la inclusión de la *h* en la ortografía vasca. Pero además de este lugar, participó también en otro mundo, en la tertulia bilbaína de La Concordia, compartiendo mesa con tertulianos antifranquistas que se situaban en diferentes campos de la cultura española. Otros dos lugares tienen gran importancia en la poesía de Aresti: el Santuario franciscano de Aránzazu, el Cielo, y Bilbao, el Infierno. Estos lugares de interpretación simbólica, además de garantizar la presencia de Aresti, le dan forma a su obra y a las principales interpretaciones de la misma.

En la tercera topología, voy a analizar el carácter de objeto que toma Aresti, especialmente como denominador de instituciones y, en los homenajes, punto de encuentro de diferentes actores. Como el tótem es objeto de culto habitual, siguiendo una liturgia dada: algunos provocarán su texto, reforzando el carácter inaugural del mismo, otros lo invocarán, reivindicando su actualidad. Además, tendrá usos de branding, denominador de varias instituciones y, sobre todo, en el Premio y Día

Institucional—junto a Miguel de Unamuno, Blas de Otero y Ángela Figuera— le brinda el Ayuntamiento de Bilbao.

En la cuarta topología, analizaré las actualizaciones de los poemas, es decir, las repeticiones de sus significantes, atendiendo a las transformaciones que se producen en los actos de habla. Estos significantes forman ritornelos, en la medida en que catalizan los afectos encarnados. Así, el ritornelo del célebre poema *La casa de mi padre (Nire aitaren etxea)* incidiría en la *tópica*, en la medida en que refleja diferentes relaciones que establece el cuerpo con el territorio. Las *pedras (harriak)* que aparecen en varios poemas y títulos de poemarios, sin embargo, movilizarían una *fónica*, debido a la cercanía de pronunciación y escucha con *pueblo (herria)*. Para terminar, el poema frecuentemente musicalizado *Hoy es San Mamés (Egun da Santi Mamina)* mediaría a través una *melódica*.

Para terminar, retomaré las aportaciones que esta investigación podría realizar. En cuanto a la cultura vasca, en el marco de autonomía desarrollado en la Comunidad Autónoma del País Vasco, si la generación de Aresti logró situar el euskera en el centro, voy a atender a las implicaciones que ese proceso tiene a día de hoy. Además, voy a realizar un relato histórico de la evolución de las actualizaciones y homenajes que han ido apareciendo a lo largo del trabajo. Concluiré con una reflexión sociológica en torno a los afectos, que juegan un papel fundamental pero que requieren explicaciones alejadas de la lógica de la representación.

ABSTRACT

Today, it is hardly questionable whether Gabriel Aresti Segurola (1933-1975) is one of the most important writers in the Basque literature, despite the commotion generated by his writings and his stances. Several streets and institutions owe their name to Aresti and every single year at least a couple of public tributes are paid to the honor of the author. This research deals with the comprehension of the role Aresti plays in the Basque culture and society, aiming so, I will analyze how his life and work are performed, paying close attention to the variety of interpretations as it is the very same variety which accounts for his malleability.

In this regard, the research aims to respond the following questions: In what degree and through which mechanisms does Aresti accomplish the mediation of narratives on the Basque culture and literature during Francoism? What makes Aresti the representative of Basque culture, for example, deemed worthy for being referred by the King of Spain during his crowning ceremony? How does a group of actors keep his work *alive*? In those attempts of keeping alive, what are the differences between one and other interpretations?

Sociology of literature and culture could provide with appropriate tools to analyze how Aresti has become a member of the Basque legitimate culture. However, in order to deal with the variety of interpretations which make a set of recently developed concepts by sociology of communication possible will be indispensable, as they allow to understand the communication as a process of mediation, performativity and articulation. Furthermore, the contribution made by Cultural Studies on Reading-response will turn out to be quite useful. Tributes paid to Aresti and re-enactments of his writings are supposed to be the best approach which gets me closer to the pole of reading-response. These will be considered acts of speech, analyzed through repetitions and replicas of its signifiers, assuming the dialogist character of communication.

In this research, I will work on a multiple object to the extent that these are open-ended interpretative options with which I will deal. In order to make interpretations over interpretations I will also turn to diverse theoretical tools. I have divided the

subject of this study into four social topologies or ways to represent and understand the social.

At the first topology, I place Aresti's work through the concept of field, which corresponds to the period between 1959 and 1979. The field of Basque literature lacked enough autonomy to the extent that it operated to define itself within a larger struggle, which took place in the core of Basque cultural field. Aresti was one of the main actors boosting the transformation of that field, sharing stances and esthetical dispositions with the *generation* who led this transformation. He was a damned poet (*poeta madarikatua*) in a double sense, in the sense that he followed a self-imposed rule (*outsider* poet), but also due to the role that other agents assigned him to judge his heterodoxy. Even so, he would be recognized largely, particularly, after his death, when the Basque literature stepped forward to build up its own field, converting its earlier stances into successful assets.

At the second topology, I will analyze the poet's memory through points, which display and shape it through the points of symbolic interpretation. The most general one is the modernity itself, modernization of *Euskera* (Basque language) and of the Basque literature is attributed to the breaking-up generation (*hausturaren belaunaldia*) and, precisely for this reason, they are subject to criticism for the national model they propose and the disembodiment process they implicated. I have also analyzed Basque language as one of those points. Aresti was a supporter of current Basque unified model; he stood up for clear Basque (*euskara klaroa*) and took part in ferocious discussions on inclusion of the consonant *h* in the Basque orthography. But apart from this point, he had also been involved in another cultural world, in *La Concordia* public gatherings of Bilbao, sharing table with other anti-Francoist fellows positioning in different Spanish cultural fields. Furthermore, there are two other highly important points in his poetry: Franciscan Sanctuary of Arantzazu, the Heaven (*el Cielo*), and Bilbao city, the Hell. These symbolic interpretation points, in addition to ensure Aresti's presence, shape his work and the main interpretations of it.

At the third topology, I will focus on the object character which Aresti holds, especially as denominator of institutions and, during the tributes, as the meeting point of different actors. Like totem being the object of habitual cult, following a given religious liturgy: some of the actors provoke his texts, reinforcing the inaugural character of it,

whereas others make an appeal, enacting it. Additionally, it also acquires the use of branding, denominator of variety of institutions, especially the Institutional Day and Award, along with Miguel de Unamuno, Blas de Otero and Ángela Figuera, deemed by the City Hall of Bilbao.

At the fourth topology, I will examine re-enactments of the poems, that is to say, the repetition of their signifiers, dealing with the transformation produced during those speech-acts. These signifiers work as ritornellos insofar as they catalyze embodied affects. Thus, the famous *My father's house (Nire aitaren etxea)* poem would be a *topical* ritornello as it reflects different relations between body and territory. However, the stones (*harriak*) which appear in the plenty of poems and poetry book's titles would mobilize *phonetics*, due to the proximity in its pronunciation and hearing with country (*herria*). Finally, the frequently set to music poem *Today is Saint Mammes (Egun da Santi Mamina)* work through *melodics*, joining people in secular celebrations.

To sum up, I will take up the contributions this research might provide with. Regarding the Basque culture, within the frame of the Autonomous Community of the Basque Country, if Aresti's generation achieved to place the Basque language in the center of Basque culture, I will pay attention to the consequences of this process in today's context. I will also make a historical account of the evolution of re-enactments and tributes in recent years, which have appeared, throughout my field research. My final conclusion based on a sociological reflection will eventually be on affects, which play an essential role in any communication process, but necessarily require explanations away from the logic of the representation.

ESKERRAK

Iñaki Martínez de Albeniz eta Elena Casadori, hasiera-hasieratik eskainitako sostenguagatik, gidari paregabeak izan dira.

Richard Kearney irakasleari, Boston Collegen egonaldia erraztu eta bertako eztabaidetan parte hartzeko aukera emateagatik.

Ikerketa burutzeko ezinbesteko laguntza eskaini didaten Xabier Monasterio, Leonor Bilbao, Mikel Martinez eta Edorta Jimenezi.

Marrako Ana eta Iñakiri, txosten honi haien gustu bikaina eskaintzeagatik.

Foru Aldundiko, Euskaltzaindiako eta EHUko liburutegiko langileei, ikerketarako iturriak behin eta berriro erraztu dizkidatelako, eta Saileko zein Euskal Herriko eta Madrileko Complutense Unibertsitateetan izan ditudan hainbat irakasle eta ikasleei, begirada garatzen lagundu didatelako.

Afektuen tenplu diren tabernetan ere itxura hartu du honek, beraz asko zor die hurbil eduki ditudan lagunei. Kuadrillako Jabi, Moñi, Luis, Jon, Hasier, Ander, Emilie, Adrik eta Pablo. Txomin Barullo eta Hika Ateneoko Oihana, Kerman, Javi, Jose eta beste askori. Aldiro-aldira txapa-txostena jasaten ibili diren Barish, Olatz, Aitor, Aiala, Leo, Xabi, Tere, Gorka eta Albertori, bidezidor ezberdinak saiatzeko lagunak izan dira. Likuefakzioaren zaindari lanetan ibili den Kristobali. Madrileko lagunei ere, *Indagako* Javi, Christian, Carlos, Miguel eta Francescari, elkarrekin martxan jarri dugun proiektu hori tesi honekiko arrotz ez delako eta niretzako eredu izan direlako, baita Adri, Raul, Álvaro, Sara eta beste lagun askori ere, egonaldietako bakoitzean afinitateak eguneratzen ditugulako.

Aliciari ere eskerrak, oinak lurrean izaten irakatsi eta bidailagunik gozoena delako.

Eta, noski, ama, aita eta Endikari, beti behar izan dudan horretan laguntzeko prest egon direlako.

AURKIBIDEA

Sarrera.....	19
Marko analitikoa	24
0.1. Abiapuntua	28
0.1.1. Zergatik Aresti	28
0.1.2. Soziologia, harrera eta komunikazioa	30
0.1.3. Ikerketaren helburuak	33
0.2. Kokatutako jakintza: Epistemologia	34
0.3. Lehen topologia: Euskal literatura esparrua	36
0.3.1. Aurrekariak: Euskal kultura, literatura eta nazioa	37
0.3.2. Esparruen teoria	38
0.3.3. Euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio guneak	40
0.4. Bigarren topologia: Tokien memoriak	41
0.5. Hirugarren topologia: Objektua	45
0.6. Laugarren topologia: Aktualizazioa	47
0.6.1. Irakurketa prozesua: Mimesia	47
0.6.2. Aktualizazioak	49
0.7. Metodologia eta teknikak	53
0.7.1. Norabide metodologikoa	53
0.7.2. Argitalpenen espazio soziala	54
0.7.3. Omenaldi eta aktualizazioen analisirako teknikak	59
1. Kapituluak. Esparru literarioaren egituraketa, 1953-1979.....	61
1.1. Euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio guneak	63
1.2. 1953-1963: Lehen hastapenak	67
1.2.1. Forma eta edukia	68
1.2.2. Euskarazko produkzio eta erreprodukzio guneen bila	71
1.2.3. Euskararen kulturbidea	74
1.2.4. Arestiren lehen idatziak	80
1.3. 1964-1973: Hausturak	88
1.3.1. Lur taldearen emergentzia	94
1.3.2. Harri eta herri	95
1.4. Belaunaldien ethos euskalduna	106
1.4.1. Hausturaren belaunaldia	107

1.4.2. Euskalgintzako genero-espezializazioa	113
1.5. 1974-1979: Autonomia eta literatura esparru autonomoa	114
1.5.1. Berrargitalpen eta omenaldi garaia	116
1.5.2. Lehen abangoardiak: haustura bikoitza eta aitaren heriotza	118
2. Kapituluak. Interpretazio-gune sinbolikoak	123
2.1. Marko kritikoa: Modernitatea	126
2.1.1. Hezur-haragirik gabeko gizona	127
2.1.2. Nazionalismoaren adierazpide	128
2.2. Euskara	129
2.2.1. Aresti, euskaldunberri	129
2.2.2. Euskara eredia: mordoiloa eta garbia	133
2.2.3. Hatxe	138
2.2.4. Euskararen hasperena: Mektub!	146
2.3. La Concordia	150
2.3.1. Tertuliakideak	150
2.3.2. Gatazka-guneak	153
2.3.3. Aresti, zubi eta bidegurutze	157
2.4. Arantzazu	161
2.4.1. Arantzazuko Andre Maria	161
2.4.2. Gordailu	163
2.4.3. Nondik dator harria?	168
2.4.4. Arantzazuko poetikak	172
2.4.5. Zeru eta Infernu	175
2.5. Bilbao	176
2.5.1. Hiriaren kodifikazio literarioa	176
2.5.2. Bilboko seme prestua	187
2.5.3. Bilboko kartografia eguneratua	193
2.6. Ondorioak	197
3. Kapituluak. Aresti, totem eta brand	201
3.1. Santutegia eta hagiografia	203
3.2. Euskal kulturako totem	206
3.3. Unamuno, Otero eta Aresti Bilboko hiri-brandingean	215
3.4. Zinikoen Maskarada	222
3.5. Ondorioak	225

4. Kapituluak. Poema aktualizatuak	229
4.1. Nire aitaren etxea	231
4.1.1. Estatutuko Ideologia Aparailuak	231
4.1.2. Aitaren etxearen mitologia akustiko-bisuala	240
4.1.3. Punk desafioa: aitaren etxetikan alde egin, hil ezazu aita	248
4.1.4. Gernika, 50 urte	258
4.1.5. Amaren sua	278
4.1.6. Prekarietatearen ironiak	287
4.2. Harria	290
4.2.1. Aresti harriztatua	296
4.2.2. Peruharri	297
4.2.3. Harri, hiri eta irri	299
4.3. Egun da Santi Mamina	306
4.3.1. Kantu herrikoi	306
4.3.2. Bilboko Aste Nagusiko Txupina	307
4.4. Ondorioak	314
Ondorioak	317
Euskal kulturaren histeresia	319
Hartzaileen eta aktualizazioen historia bat	323
Irudikapenetatik afektuetara	326
Bibliografia	330
Eranskinak	369
Estatistiko eta grafiko deskriptiboak	371
Korrespondentzien analisi anizkoitza	377
Kritika-sareak	387
Grafikoen aurkibidea	387
Taulen aurkibidea	388
Irudien aurkibidea	389



Sarrera

Testu honi azken ukituak ematen ibili naizen bitartean, Oskorri taldeak bere ibilbide luzeari agur esan dio, Bilboko Arriaga Antzokian azken kontzertua eskainiz. *Furra, furra* abestiak liluratu egiten ninduen, kotxean gindoazela, gurasoei etengabe eskatzen omen nien kantua ipintzeko, hizketan ikasi berriaren ahoskera traketsen. Horrekin batera, *Gora eta gora beti*, *Guretzat* edo *Bizkaiko aberatsak* bezalako kantuen bitartez orain aztergai dudan poetari hurbilduko nintzaion, kantuen atzean poetarik zegoenik pentsatu aurretik. Ikerketa honek Arestirekin ezartzen ditugun harremanak aztertu nahi ditu, gure kotxeko kasetean sartuz, elkarren bitartekari nola egiten duen eta bitartekaritza horretan nola guretu egiten dugun. Gabriel Aresti erdigunean kokatzen badut ere, berak eskaintzen dituen konexioak dira aztertuko ditudanak. Noski, horretarako bere idatzietatik igaro beharko naiz, beste arloetan zertu egiten den igarobide gisa. Azken batean, Aresti ez zen soilik hildako idazle bat, euskaltegi baten eta kale mordoren izendatzailea ere bada, e-postan aktibatu nituen Interneteko abisuetan luzez izendatzailea gaineratzen zaio idazleari –izen bereko kaleko edo euskaltegiko berriak, hain zuzen ere-. Oskorriren agurrarekin batera, Aresti komikiko pertsonaia ere bihurtu da, Adur Larrearen eskutik, agortua egotetik urrun, bitartekaritza berriei bidea ematen die etengabe.

Ikerlanari *Harritik herrira. Gabriel Arestiren paperak euskal kultura eta gizartean, 1954-2014* izenburua eman diot, idazlea hainbat arlotan zelan txertatzen den ulertu nahi duelako. Agerian denez, kronologikoki, bere lehen idatzietatik abiatzen banaiz ere, bere heriotzetik hiru hamarkadaren ondoren gertatutakoaren berri ere eman nahi dut. Azken batean, publikoak bere bizitza eta obraren bitartekaritza egiteko moduak ulertu nahi ditudalako. Ikerketa-objektuaren definizioa ikerketa beraren emaitza izan da, testualitatearen nagusitasunaren eta ikertzailearen bozeramailetzaren gaineko gogoetaren ondorio. Horri aurre egiteko aukeratu dudan estrategia hartzaileek eta publikoak Arestiren obra eta bizitzarekin egiten duten horri erreparatzea izan da.

Ohizko arauak jarraituz, marko analitikotik abiatuko naiz gaia epistemologikoki, teorikoki eta metodologikoki kokatzeko. Bertan, objektuaren aniztasuna azpimarratuko dut, aniztasun horretatik uler litekeelako hurrengo kapituluetan jorratuko ditudan gaiak. Kapitulu horiek gizarte-topologia edo soziala irudikatu eta ulertzeko modu ezberdinekin datoz bat.

Lehen kapituluan, Arestik bizi eta eragin izan zuen testuinguruan kokatuko dut, esparruaren teoriarekin bat datorren topologia erregionalaren bitartez, bere lehen idatzietako testuingurutik abiatuko naiz 1953an, bere heriotza eta, Gernikako Estatutuaren garapenarekin batera, euskal literatura esparru baten garapeneraino, 1979an datatu dut hori. 1953tik 1979ra doan aldian transformazio ugari eman ziren euskal kultura esparruan, aldaketa sozioekonomiko eta politikoekin batera. Gerraosteko isiltasunetik abiatuta, euskal kultura lantzeari ekin ziotenen artean dago Aresti, horretarako gerraurreko garaiarekin jarraikortasuna ziurtatzen zuten belaunaldiarekin hainbat haustura suertatu behar izan ziren, testuingurura molda zitekeen euskara erdigunean jarriz. Poesian, Arestiren *Harri eta herri* (1964) izango zen belaunaldi berriaren garaikur nagusietako bat, nagusituko ziren disposizio estetikoetan eragin eta partekatu zituen Arestik. Hala ere, poeta madarikatuaren papera jokatu zuen, belaunaldi zaharreriko zein berriarekiko ika-miketan parte hartuz. Euskal kulturako ardi beltza izatea egokitu bazitzaion ere, euskal literatura esparru autonomo bat garatu ahala euskal kultura eta literaturako igaro beharreko puntu bihurtuko zen Aresti.

Bigarren kapituluan, Arestiren heriotzaren ostean, hura eta bere obra mantendu eta forma ematen dieten interpretazio-gune sinbolikoak aztertuko ditut. Intepretazio-gune sinbolikoak iraganeko gertaerak zertzen dituzten guneak dira, aktore ezberdinen parte hartzeaz osatuta, interpretazioetarako aukera ezberdinak zabaltzen dituzte. Modernitatearen interpretazio-gunetik abiatuko naiz, horixe izan baitzen hausturaren belaunaldiak hizpide zuen asmoa, euskara eta euskal literatura berri baten aldeko saioa. Honek noski, beste aspektu batzuk utziko zituen bazterrean, euskal kultura gizonen aginpean suertatutako desharagitze prozesu batekin batera garatuko zen, eskriturizazioaren nagusitasunaren bitartez. Euskara da, hain zuzen ere, beste interpretazio-gunea, egungo euskara ereduarekin bat datoz Arestiren idatziak, eredu honen alde egin zuelako. Gainerako guneak espazio konkretuekin bat datoz. La Concordiako tertulia, Arestiren euskalgintzaren beste aldea da, Espainiako esparruetan ari ziren idazle eta artistekin harremanetan jartzen duena, euskara *formari* nolabaiteko *edukia* eskaintzen diona. *Gizonaren aldeko* apustuan, Arestik euskal literaturan txertatu zuen Bilboz –Bilbaoz— arituko naiz. Bilbok hainbat gune eta omenaldi eskaini izan dizkio Arestiri, trukean. Berak deskribatutako infernu gris horretatik aldendu bada

ere, hiribilduaren kartografia eguneratua egiteko aukerak eskaintzen ditu oraindik. Arantzazuko Zerua izango zen hain zuzen ere Bilbori kontrajarriko zitzaion gunea. Euskal kulturaren gordailua egingo zuten fraide frantziskotarrek Andre Maria agertu omen zen lekuan eta euskal kulturako erakusleihoa garatuko zen, eraberritze polemikoan. Bertan izango ziren ere euskararen batasunaren inguruko *h*-aren inguruko eztabaida sutsuak.

Hirugarren kapituluan, Aresti zirkulazioan den objektu baten gisa ulertuko dut, instituzioen izendatzaile edota omenaldien duina den aldetik. Aurreko interpretazio-guneetan parte hartzen duten aktoreek eskaintzen dituzten eguneratzeez gain, objektu gisa dihardu Arestik, totem eta brandari gerturaten zaizkion formen bitartez. Erljiioaren soziologiatik abiatuta, literatura esparruaren jardueretatik haratago koka liteke poetaren *kontsakrazioa*. Urtero omenaldiak jasoko ditu, urteurren berezietan jasotzen dituen ezohizko omenaldiez gain. Batzuk Arestiren testua probokatuko dute, hitz eginaraziko diote, honen izaera inaugurala indartuz eta interpretaziorako itxiera bat eskainiz. Besteek testua inbokatu egingo dute, hura errepikatuz material eta sinbolikoki eguneratu egingo dute. Euskaltegia, Institutua, kalea eta Kultura Elkartearen izendatzaile ere bihurtuko zen Aresti, Bilbotik Internetera barreiatzen diren agerpenak ziurtatuz. Bilboko Udalak Sariak eta bere omenezko Egun Instituzionalak ere eskainiko ditu, Blas de Otero, Miguel de Unamuno eta Ángela Figuerarekin batera, Guggenheim Museoaren hiri-brandingean ikasitako trebetasunak idazle hauetara desplazatuko dira.

Laugarren kapituluan, poemen aktualizazio gisa izendatu dudana aztertuko dut, *reenactment* lako kontzeptuaren faltan, zenbait poemek hizketa-ekintza zehatzetan jasaten duten eguneraketa eta materializazio prozesuei erreferentzia egiteko. Bere poemarik ezagunenetik abiatuko naiz, *Nire aitaren etxea*. Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo gobernuak zein Euzko Alderdi Jeltzaleak *aitaren etxea* biztanleak hiritar gisa interpelatzeke erabiliko zuten. Hala ere, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenaren inguruan antolatutako jarduerak agerian jarriko duten moduan, nazionalismoko joera ideologiko ezberdinak janzteko erabili izan den poema dugu, bitartean, Euskal Rock Erradikalak *kalea* kontrajarriko dio *aitaren etxearen* ordena sozioekonomiko, politiko, kultural eta sinbolikoari. *Euskaldunon Egunkariaren* itxierak ere *aitaren etxea* tropa eztabaiden erdigunean kokatuko zuen berriro, euskal kultura

esparruak politikoarekiko izan beharko lukeen harremanaren harira. Bukatzeko, poemarekiko zenbait gerturapen ironikok bere funtzionamenduaren gaineko gakoak zein tropoaren eragina gainditzeko aukerak eskaintzen ditu.

Ondoren, Arestiren poesian maiz ageri den eta herriarekiko duen gertutasun fonetikoagatik bere poesia liburuei izenburua ematen dion *harriaren* aktualizazioak aztertuko ditut. Aresti harriari loturik ageri da, Atxagarekiko kontrastean, azken honi *harea* esleitzeraino. Harriak dituen inplikazio semiotiko zein fonetikoek desplazamendu berrietarako tarte zabaltzen dute: euskal hiria eta euskal irria aztertuko ditut.

Kapituluari bukaera emateko, *Egun da Santi Mamina* poema musikatura joko dut. Santa Agedaren omenezko kantu herrikoi bihurtua, hainbat doinuren bariazioak jasan ditu. Eskaintzen dituen berreinterpretazio-aukera horien adibide gisa, 2011ko Bilboko Aste Nagusiko pregoia izango dut hizpide.

Bukatzeko, ondorio batzuk plazaratuko ditut aurretik agertutako elementu amankomun batzuren harira. Batetik, euskal kulturak lehenengo kapituluan aztertutako transformazioak bere egin ditu eta orduan ezarri ziren hainbat postulatu nagusitu egin dira. Horrek euskararen transformazio eraberrituak bahitu egiten ditu, arlo diferenteetan. Bestetik, hartzailleek Arestirekin osatzen dituzten harremanen historia bat osatzen saiatuko naiz. Euskal gizartean suertatutako bilakaerarekin batera, bere obraren interpretazioak eta poetaren gaineko erabilpenak aldatu egiten dira. Bukatzeko, eguneraketa horiek guztiak posible egiten duten afektuei buruz arituko naiz. Afektu izena eman diodan horrek zailtasunak ditu irudikapenen logika hutsetik ulertzeko, nolabait, irudikapenen hondarra eta, aldi berean, irudikapenen bitartekaritza ahalbidetzen duen elementu paradoxikoa da eta.

Lan hau garatzeko ezinbestekoa suertatu zait Espainiako Hezkuntza Ministerioak eman zidan FPU beka. Pribilegioa izan da, bekarik eskuratu barik geratu direnak gogoan izanda. Horren aurretik ere, honaino heldu ahal izateko hezkuntza-ibilbide oso batetik igaro izan naiz, unibertsitate sistema aldaketarekin batera etorri diren murrizketek honelako saiakerak are pribilegiatuagoak bihurtzeko mehatxua dira.



0. Marko analitikoa

Ikerlan honek Gabriel Arestik eta bere obrak egun jokutzen duten paperak aztertu nahi ditu, kapitulu honetan gai hau analitikoki aurkeztuko dut. Gaiaren abiapuntua azaldu ondoren, ikerketa-objektuaren definizioa posible egiten duen marko epistemologikoa azalduko dut, jarraian marko teorikoa eta erabili ditudan metodologia eta teknikak azaldu ahal izateko.

Ikerketa-objektuak izaera anitza du, Arestiren bizitza eta obra ikuspegi ezberdinetatik osatzen den fenomeno gisa hartzen baitut. Zentzu horretan, *kokatutako jakintzak* objektu oro ikertzeko ikertzaileak dituzten baldintzapen, aukera eta pribilegio multzoak eta hauen inplikazio politikoak azpimarratu ohi ditu, horregatik objektuaren izaera partziala eta honetara gerturatzeko proposamen transdisziplinarra egiten du. Teoria eta teknikak, objektura gerturatzeko protesiak dira, objektua norabide batean edo bestean bideratzen dutenak. Aniztasun horren berri eman ahal izateko, protesien anitzak ere erabiliko ditut. Ildo horretatik, lau helburu espezifikoekin ikerketarako beste horrenbeste topologia proposatuko ditut. Lau topologia horiek bereizita ageri badira ere, lauren arteko lotura osatzen du kokatutako jakintzaren paradigma epistemologikoak.

Lehen topologian, balizko euskal literatura esparru baten identifikazioa eta analisia egiteko kontzeptu nagusiak azalduko ditut, euskal literatura eta nazionalismoaren gaineko ikerketetatik abiatuta eta esparru kontzeptuak errealitate honetan aplikagarri egiteko zailtasunak ikusita, *euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio guneak* kontzeptua proposatuko dut. Bigarren topologian, Arestiren obra eta bizitza toki jakin batzuen memoriarekin duten lotura aztertzeke kronotopo kontzeptura joko da. Hirugarren topologian, Aresti aktore eta erakundeen praktikan osatzen den objektu gisa definituta, aktore-sarearen teoriak zein zenbait ekarpen klasikoekin egin ditzakeen aportazioak azalduko dira. Laugarren topologian, *aktualizazio* kontzeptua proposatuko da, mimesi, errepika eta *re-enactment* kontzeptuetatik abiatuta, analisirako oso erabilgarria suertatu zaidan *ritornelo* kontzeptuarekin batera. Arestiren poemak *aktualizazioak* izango dira, hain zuzen ere, topologia honetan aztertzeke proposatuko direnak. Topologietako bakoitzak hurrengo kapituluetan aurkezten diren emaitzekin bat egiten dute.

Topologia horietatik abiatuta, ikerketak edukiko duen norabide metodologikoa azalduko da, analisi soziohermeneutikoak zein laborategiaren etnografiak eskaintzen dituzten aukerak eta mugak arakatu ostean, bi mailatan banatuko dira teknikak. Batetik, lehen topologiarekin bat datorren espazio sozialaren analisirako egokiak diren teknika kuantitatiboak. Bestetik, gainerako topologiak aztertzeke erabiliko diren behaketa parte-hartzailea eta, honakoa egiteko ezintasuna ordeztzeko, dokumentazioa.

0.1. ABIAPUNTUA

Ikerketa honek eskaini nahi dituen aportazioetatik abiatuta, gainerako epigrafeetan jorratuko den gaia kokatu nahi dut hemen. Izenburuan ageri diren bi hitzen zergatiak eta zertarakoak azaldu nahi ditut: Aresti eta aktualizazioa. Aurrena, Arestiren gaineko ikerketaren pertinentzia jorratu nahi dut. Jarraian, soziologiak jorratutako lan-ildo eta proposamenetan txertatuko dut Arestiren gaineko ikerketa hau, Arestiren bizitza eta obraren harreraren gaineko ikerketa bihurtuz. Bukatzeko, ikerketa honek dituen helburuak azalduko ditut, jarraian jorratuko dudako kokatutako jakintzaren markoan, lau kontrobertsia-maila edo topologietan bereiztuko dira, hurrengo kapituluetan garatuko ditudan emaitzetara heltzeko kontzeptu teoriko ezberdinak proposatuz.

0.1.1. ZERGATIK ARESTI

Gabriel Aresti Segurola (1933-1975) era entziklopedikoan definitu beharko banu, euskal idazle, poeta, euskaltzale eta euskaltzaina izan zela esatearekin hasi beharko nuke, euskal poesiaren berritzaile eta euskara batuaren bultzatzaile nagusietako bat izan zela. Poesia sinbolista eta sozialaren aroetan bereiztu ohi da bere obra. Lehen aroari *Maldan behera* (1959) dagokio, saritua izan bazen ere, ez zuen arrakasta handirik eskuratu, baina egun euskara batuaz "*avant la lettre*" (Ibon Sarasola in Eguzkitza et al. 2000, 136) idatzitako obra gisa epaitua izan da. Bigarren aroan, *Harri eta herri* (1964) obrak harrera beroa eduki zuen, garai hartako hausturaren sinbolo poetiko bihurtzeraino.

1950 eta 1960 hamarkadetan diskurtso nazionalistaren eta euskal kulturaren eraberritze prozesuak era bateratuan eman ziren (Tejerina Montaña 1992, 126–127). Euskal literatura nazionalismo zaharraren erretolika eta iruditeriaren mende egon bazen, idazle berrien belaunaldiak menpekotasun horrekin hautsi egingo zuten literatura arloan, poesian Arestiri egokitu zitzaion hausturaren gidaritza (Sarasola 1971, 84–87). Arestiren obrak gaien, hizkuntzaren zein edukien eraberritzea ekarriko zuen, belaunaldi politiko berriaren bertsio literarioa haragituz (Gurrutxaga 1985, 258).

Maldan behera euskara batuaz euskararen batasunaren aurretik idazteaz gain, honen sustatzaile nagusietako bat izan zen Euskaltzaindian, *h*-ren iskanbila agerian utziko zuen 1968ko Arantzazuko batzarra egiteko proposamena egin zuen, besteak beste.

Honela, Sabino Arana XIX. mende bukaeran eta *Lauaxeta* gerraurrean izan ziren bezala, Juaristik gerra osteko euskal nazionalismoaren mito sortzaile nagusizat dauka (J. Juaristi 1997, 17–18). *Harri eta herriren* mito-berrikuntza literatura arloan urte bete arinago argitaratu ziren *Quosque tandem...!* obrak arlo estetikoan eta *Vasconiak* arlo politikoan egiten duten mito-berrikuntzaren era analogoan ulertu daiteke. Hala ere, Aresti eta haren inguruan aritutako asko “espainolista” gisa irainduak izango ziren. La Concordiako tertulian “beste mundu” batekin zuen harreman estua, Euskadiko Alderdi Komunistako kide ziren hainbat idazle eta artistekin.

Gabriel Arestiren *bizitza eta obra* honela laburbildu daiteke, haren gainean apur bat irakurri eta gero. Baina Arestirekiko hurbilketa hain konbentzionalak ez diren atarrietatik ere iragan litezke. Etxean gurasoen biniloen artean Oskorriren bilduma ia osoa zegoen, horien artean bi idazleen omenez argitaratuak, Gabriel Arestiren eta Bernat Etxepareren omenez hain zuzen ere. Txiki-txikitatik etxetik Algortako San Nikolas eliza inguruko bidean, Euzko Gaztedik sinatutako murala zegoen Algortako batzokian, “Nire aitaren etxea defendatuko dut” leloak hitza ipintzen zion fusilarekin etxetik alde egiten zuen aitari, seme eta amak agurtzen zuten bitartean. DBHko Euskara jakintzagaiko artikulua bat azaltzea esleitu zitzaidanean, Aresti “hausturaren poeta” gisa ageri zen. Garai horietan *Harri eta herri* erosiko nuen irakurtzeko, ez dakit ondo zergatik, euskal poesian kanon bat zelako ziurrenik. Bertan, kantatzen genituen

hainbat abestiren bertsiotzatuz topatuko nuen: ez zegoen sarbide literario pururako itzulbiderik, ez zegoen *Egun da Santi Mamina* kantu-poemaren poteoetako ohizko doinurik gabeko prosodia egiteko modurik.

Ikerketa hau hasi nuenetik, hainbat agerraldi publikoetan, beste hainbat atari osatu dira: 19. Korrika, *Harri eta herriren* 50. urteurrenaren ondotik antolatutako hamaika jarduera, Espainiako Felipe VI. Erregearen Koroatzeko aipamena, bere omenezko kultura elkarte berriaren sorrera, Oskorrik bere omenez eskaini zuen azken-aurreko bira, e.a. Hainbat eragile eta erakundek konformatzen dute Arestiren gaineko irudia, arduratzen dira pertsona gehiagoren eskura sarbidea erraztuko dieten atari berriak prestatzen. Ikerketa honetan atari horiek igaro nahi ditut, bere poesiaz edo adituek egin dituzten ikerketetatik haratago, iraganeko idazle bati eskaintzen zaizkion meritu eta norabideak.

Are gehiago, Arestiren atari horiek zabaltzen diren neurrian, euskal kultura eta nazioa osatu ziren garaiarekiko denborazko sarbidea ere atzeman liteke. Susmoa daukat garai horrek hainbat arlotan duen izaera fundazionalak ezinbestez garamatzala garai hartako terminoetan eztabaidatzera: nazio eta gizarte afera, euskararen *normalizazioa* eta honen aldeko borroka, euskal kultura eta literatura zer den zehazteko ika-mikak... Iragan hurbil horrekin harremanetan jartzen gaituzten bitartekariak argitzeko aukera zabaltu nahi dut ikerketa honekin.

0.1.2. SOZIOLOGIA, HARRERA ETA KOMUNIKAZIOA

Bourdieu eta Passeronek, eskola-sistema aztertzeo *kultura legitimoa* kontzeptua erabiltzen dute ikasleek barneratu beharko lituzketen edukietan dominazio sistemaren eskuhartzea azaltzeo (Bourdieu eta Passeron 1996, 63–65). Egun Gabriel Arestik euskal kultura eta gizartean jokatzen duen papera aztertzeo lehenengo erreferentzia nagusia literaturaren soziologia izan daiteke, kultura legitimoaren erreferente bihurtu den aldetik. Aurrerago, Bourdieuk berak esparruen teoriaren baitan, literatura esparrua garatueo zuen (Bourdieu 1995), bertan literatura kontsakrazioa esparruaren baitako dinamika eta posizioetatik ulertzeo aukera ematen zuen. Marko honetatik

abiatuta, ikerketa batzuk idazleek esparruekiko izan duten elkarrekintzan zenbaiten arrakasta literario erraztuko zieten ezaugarriak identifikatzeko gaitasuna izan dute: Flauberten ikuspegia (Bourdieu eta Ferguson 1988), Sartreren saiakera intelektuala (Boschetti 1988) edota Bernardo Atxagaren autonomiaren aldarrikapenean (Apalategi Idirin 2000), batzuk aipatzearen. Honela, Aresti *euskal kultura legitimoan* zelan txertatzen den jakiteko honek euskal literatura esparruan eskuratu duen posizioa aztertu beharko genuke, euskal literaturak beste esparruekiko eduki duen harremanari ere erreparatuz.

Hortik abiatuta, kultura dominazioak jakintzen asimetria bat erreproduzitzeko joera du eta, zentzu horretan, gizartean zein esparruetan okupatzen den posizioaren arabera dispozizioek produktu kultural batekiko harremanean eragingo lukete. Are gehiago, produktu kultural baten nagusitasuna honen interpretazioen anbiguetateari esker emango liteke (Bourdieu 2006a, 58), azken batean testuaren eraginkortasuna baino dominazio kulturalaren eraginkortasuna da ikuspegi honen oinarria (Butler 1997, 141–157). Dominazioaren eta produktu kulturalen legitimitatearen arteko automatismoa onartuta ere, beste inon bilatu beharko litzateke produktu kultural horretatik eratortzen diren interpretazioak. Ikerketa honen erronka Aresti kultura legitimoan zelan kokatzen den ulertzeaz gain, dominazio horrek ahalbidetzen dituen irakurketa anitzak ere aztertzea da. Zentzu horretan, *cultural studies* delakoetatik gertuago kokatuko litzateke.

Masa-hedabideetako eduki eta formak *cultural studies*-en ikerketa-objektu nagusietako bat izan da, Frankfurtoko eskolako ikerketetatik abiatzen badira ere, maiz hauek baztertu izan duten *harrera* ere ikertu dute. Zentzu horretan, masa komunikazioa egon ahal izateko igorleak kodifikazio lan bat egin behar badu, beste poloan, hartzaileak dekodifikazio lana egin dezan. Stuart Hallek kodifikazio eta dekodifikazioaren produkzio harreman eta egitura adierazgarrien arteko aldeari ipini zion arreta, produktu kulturalen harreraren (Hall 2005) eta irudikapen-lanaren —*work of representation*— (Hall 1996) garrantzia azpimarratuz.

Arreta bertan ipiniz gero ikerketa hau gehiago gerturatuko liteke komunikazioaren soziologiara. Elena Casadok soziologian komunikazioa ulertzeko bi tradizio bereizten bazituen, komunikazioa “komunitate kultural baten errekreazio erritual gisa” hartzen duen tradizioarekin bat egingo nuke, komunikazioa informazioaren transmisio huts ulertzen duenarekin baino. Horretaz gain, komunikazioaz barra-barra ari den gizarte baten ohizko ereduak gainditzeko proposamenak egin ditu: komunikazioa elkartruke gisa hartzen duen joeraren ordez itzulpena, irudikapenaren ordez performatibitatea eta antropozentrismoren ordez artefaktualismoa. Komunikazioa elkartruke gisa ulertzeko joera nagusiaren kontra, komunikazio orok itzulpen prozesu bat behar duela azpimarratzen du, testuinguru, formatu edota interes jakinen bitartez garatzen delako komunikazio-itzulpena. Irudikapenaren *–representación–* ordez, performatibitatea proposatzen du, Austin eta Butlerren lanak oinarri hizkuntzak gauzak ordeztu baino gauzak eraikitze gaitasuna ere duelako eta, beraz, irudikatu-ordeztu baino hizkuntza irudikatzen duen hori egiteko gaitasuna duelako. Komunikazioa gizakien arteko harreman gisa ulertzeko joeraren aurrean *–antropozentrismoa, hain zuzen ere–* Donna Harawayk landutako artefaktualismoa proposatuko du, komunikazio orok elementu anitzen *–gizatiarrak zein ez gizatiarrak–* arteko interkonexioan oinarritzen delako, hauen arteko interkonexioa kontingentea delarik (Casado Aparicio 2007).

Gabriel Arestiren eta bere obraren adierazleak komunikazio-egoeran erabiltzen diren *zeinu ideologiko* gisa hartuko ditut, Voloshinoven lana abiapuntu (Voloshinov 1992). Komunikazio orok duen izaera gatazkatsutik abiatuta, zeinu ideologikoa zirkulazioan den hori da, gatazkan ageri den neurrian, ezin du adierabakarrekoa izan, *klase dominanteak* hura egonkortzeko egiten dituen saiakeren gainetik *–hiztegiak dira horren adibide argiena–* bestelako erabilerek ziurtatzen dutelako bere zirkulazioa. *Zeinu ideologikoak* izaera polifonikoa du, beti ematen delako hizketagai eta esanguraren arteko dialektikan. Hizketagaia “enuntziatu oso baten zentzua” bada, hizketa ekintzan bertan ematen dena, esangurak “enuntziatuaren errepiketako bakoitzean harekiko errepikakorra eta identikoak diren aspektuak dira” (Voloshinov 1992, 138–139). Ikuspegi honen bertutea hizketa-ekintza oro (*hizketagaia*) bakarra eta errepikaezina dela azpimarratzean datza, hizketa-ekintza hauek konplexu foniko edo

ikonikoen erreplika eta elkarrizketetan errepikatu ahala komunikazio prozesua ahalbidetzen duten elementu amankomunak osatuz (*esangura*). Beraz, Gabriel Aresti eta bere obra etengabe *itzultzen* da erabiltzen den bakoitzean.

Komunikazioa honela ulertuz gero, zilegi dirudi galdetzea prozesu horietan suertatzen diren modulazioengatik, hartzailea instantzia produktibo gisa hartuko dut, Aresti eta bere obra *komunikatzen* duten bitartekariei erreparatuz. Era berean, bitartekaritza lan hori egiten duten instituzio zein eragileek betetzen dituzten *funtzioak* ere aztertuko ditut, *komunikatzea* komunitatea sortzea ere delako.

0.1.3. IKERKETAREN HELBURUAK

Hartzaileen izaera produktibotik eta produkzio horretan parte hartzen duten bitartekarien eraginetik abiatuta, ikerketa-proiektu honek Gabriel Arestiren eta bere obraren adierazleen agerpen publikoak aztertuko ditu. Agerpen publiko hauek, batetik, testuaren eguneraketa bat osatzen dute hizlari edo egile batek irakurketa bat proposatzen duen neurrian. Bestetik, gizarte-maila ezberdinetan –irakurle zein ez irakurleen artean– testuaren gaineko interpretazioak zabaltzeko gaitasuna dute. Beraz, honek Gabriel Arestiren interpretazio eta erabilera zabalduenak aztertzeko aukera emango du. Zentzu horretan, adierazleek zeinuen izaera material eta errepikakorrari esker korpua osatzeko aukera ematen badute, adierazle horiek unean-uneko testuinguruan adierazten dutena aztertuko dut. Hala ere, adierazleak sortu eta zirkulazioan hasi ziren unea ere aztertuko dut, abiapuntu gisa, literaturaren soziologian oinarrituta. Beraz, honela formula daiteke ikerketaren helburu nagusia:

Gabriel Arestiren obra bere produkzio-testuinguruan kokatu eta honen eragina eta errekonozimenduaren azterketatik abiatuta (1), egun bere obrak gizarte-maila ezberdinetan duen harrera ezagutzea, idazlearen gaineko memoria (2) eta bere presentzia publikoa bermatzen duten aktoreen praktikei (3) zein bere obraren berrinterpretazioei erreparatuz (4).

Honako helburu hauetako zenbakiak ikerketa osatzen duten eta teorikoki bereiztu ditudan lau topologiekin bat egiten duten helburu espezifikoak osatzen dituzte:

H1: Frankismo garaiko balizko euskal literatura esparruaren egitura eta eboluzioan Gabriel Arestiren posizio-hartze eta posizioaren baldintzak eta eragina ezagutzea.

H2: Arestiren obra eta bizitzaren memoriarako bitartekari nagusiak identifikatu eta hauek osatzen dituzten konfigurazioak deskribatzea.

H3: Aktore nagusiek Arestirekin, objektu gisa, egiten dituzten gizarte-erabilerak aztertzea, bere presentzia publikoaren euskarri diren neurrian.

H4: Arestiren poemak aktualizatzen dituzten hizketa ekintzak aztertzea.

0.2. KOKATUTAKO JAKINTZA: EPISTEMOLOGIA

Ikerketa burutu ahala hainbat jakintza-eremu eta korronteren superposizioan murgiltzen joan naiz. Aresti zenbait kontrobertsien inguruan kokatu ahal izan dut, baina horretarako paradigma ezberdinetatik eratorritako teoriak erabili behar izan ditut. Paradigmen arteko tentsio horrek ikerketa-objektuaren izaera anitza islatzen du, objektuak paradigmei ihes egin nahiko balie bezala. Annemarie Mol eta John Law objektuen izaera iheskorra gizarte-topologiaren bitartez azaldu dute (Mol, Annemarie y Law, John 1994). Anemiaren gaineko zientzia eta teknologiaren gizarte-ikerketetatik abiatuta, hiru topologia ezberdinek jaurtikitzen dituzten objektuaren izaera menderakaitza azpimarratzen dute. Lehen topologia *erregioarena*, ohizkoena litzateke, objektuak mugen arabera multzokatzen ditu. Zer esanik ez dago honakoa topologia egokia dela Aresti esparruen dinamikaren baitan kokatzeko, Bourdieuren teoria jarraituz (ikus 0.3. Lehen topologia: Euskal literatura esparrua, 36-41. orr.). Bigarren topologia *sarearena* da, honetan distantzia elementuen arteko harremanaren bitartez eta diferentzia harreman-ezberdintasunen bitartez aztertu litezke. Erreplika (ikus 0.4. Bigarren topologia: Tokien memoriak, 41-45. orr.) zein aktore-sarea (ikus 0.5.

Hirugarren topologia: Objektua, 45-47. orr.) izan litezke topologia honetara gehien gerturatzen diren kontzeptuak.

Baina horren ohizkoa ez den beste topologia bat ere bada, fluxuarena hain zuzen ere. Hirugarren topologia hau muga zein harremanen diferentziak azaltzeko gaitasunik ez dutenean suertatu daiteke erabilgarria, ez du kanpoalde eta barrualde argirik, gauzak nahastuta ageri dira, mutazio prozesu batean baleude bezala. Aurrerago azalduko ditudan *poemen aktualizazioak* azaltzeko topologia hau izango da ezinbestekoa (ikus 0.6. Laugarren topologia: Aktualizazioa, 47-53. orr.), aurrekoetako zenbait elementu mantentzen badira ere.

Kontrobertsia-maila ezberdinetako objektuaz ari naiz ezagutza kokatuaren epistemologiatik abiatuko naizelako. Teoria feministek zientziei egindako kritiken ildotik, epistemologia honek disziplinen arteko bereizketak naturalizat hartzen dituen objektuen izaera pasiboa dudatan jartzen du. Deskubrimenduaren paradigmaren kontra elkarrizketaren paradigma proposatzen du, munduak ez baitu berez hitz egiten. Horregatik ikerketa-objektua aktore semiotiko-material baten gisan hartzea proposatzen du:

“Erabiltzeko zaila den termino honek [aktore semiotiko-materiala] ezagutza-objektuaren izaera soslaiatu nahi du: bere izaera aktiboa, produkzio gorpuztuaren aparailuaren esangura-sortzailearen atala, objektu horien presentzia *inoiz* aintzakotzat eman barik edo, gauza bera dena, koiuntura historiko jakin batean ezagutza objektibo gisa har daitekeena bere determinazio azken eta bakarra aintzakotzat eman barik. (...) Beren [objektuen] mugak mapagintza praktiketan irudikatuak dira; “objektuek” ez dute bere horretan aldeztirik existitzen. Objektuak muga-proiektuak dira. Baina mugak bere baitatik desplazatzen dira; mugak amarruak dira. Mugek probisionalki eusten

dieten zera horiek sortzaile jarraitzen dute izaten, esangura eta gorputzen produktore.” (Haraway 1988, 595)¹

Hurrengo atalean, bada, produkzio gorpuztuaren aparailuetako batzuk azalduko ditut, ikerketa-objektuarekiko harremana erraztuko duten protesiak dira azken batean jarraian deskribatuko ditudan tresna teoriko eta metodologikoak. Noski, protesi horiek nik *jantziko* ditudan neurrian saiatuko naiz baliabide erretoliko objektibistek aniztasuna lausotu ez diezadaten. Horretan gal ez nadin, lehen pertsonako singularraren idazketa-protesia erabiliko dut erruz, ikerketa honek ez duelako agortzen jorratzen duen objektu partziala. Azken batean nire baldintza eta pribilegioetatik eta hauek eskaintzen dituzten muga eta aukeretatik ari bainaiz idazten.

Ohar hau egin ostean, ikerketa hau egituratzen duten lau topologiaren oinarri teorikoak azalduko ditut. Topologietako bakoitza lehen aipatutako helburu espezifikoari dagokio, hauek gogorarazten ditut tituluaren ondoko epigrafean.

0.3. LEHEN TOPOLOGIA: EUSKAL LITERATURA ESPARRUA

Frankismo garaiko balizko euskal literatura esparruaren egitura eta eboluzioan Gabriel Arestiren posizio-hartzea eta posizioaren baldintzak eta eragina ezagutzea.

¹ “This unwieldy term is intended to portray the object of knowledge as an active, meaning-generating part of apparatus of bodily production, without *ever* implying the immediate presence of such objects or, what is the same thing, their final or unique determination of what can count as objective knowledge at a particular historical juncture. (...) Their *boundaries* materialize in social interaction. Boundaries are drawn by mapping practices; “objects” do not preexist as such. Objects are boundary projects. But boundaries shift from within; boundaries are very tricky. What boundaries provisionally contain remains generative, productive of meanings and bodies.”

Gai honi heldu aurretik, euskal kultura, literatura eta nazioaren gaineko ikerketek jorratzen dituzten zenbait ildotik abiatuko naiz, neurri handi batean atal honetan jorratuko dudan analisi horietan oinarritu delako. Behin gaia kokatuta, esparruaren teoriak eskaintzen dituen aukera eta mugak haztatuko ditut, balizko euskal literatura frankismo garaian kokatzeko. Ondoren, *euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio guneak* kontzeptua proposatuko dut, euskal kultura eta literatura esparruak dituzten berezitasunei eusteko bilbe bat eskaini nahian.

0.3.1. AURREKARIAK: EUSKAL KULTURA, LITERATURA ETA NAZIOA

Ikerlana atal bakar honetan agortu ez bada aztertuko dudan garaia gaineko beste ikerlan askok elikatu dutelako izan da. Hasteko, Arestiren gaineko ikerlan monografiko ugari eduki ditut abiapuntu, biografikoak (Zelaieta 1976; Kintana 1998), literatura-azterketak (Arkotxa 1993; Aldekoa 1998; Aldekoa 2013) zein biak uztartzen dituztenak (Kortazar 2003a). Horretaz gain, frankismo garaiko literatura-testuingurua ulertzeko ezinbestekoak suertatu zaizkit euskal literaturaren gainean idatzitako *historiak* (Aldekoa 2008; Urquizu Sarasua et al. 2000; J. Juaristi 1987b; Kortazar 2003b). Aresti eta testuinguru orokor horren arteko harremana aztertzeko literaturaren soziologiaz baliatuko naiz eta, zentzu horretan, historia hori literaturaren soziologiatik aztertu dituzten lanak (Torrealdai 1977; Sarasola 1971) ezinbesteko erreferentzia izango dira.

Ikerketa hauek guztiek euskal literatura euskaraz idatzitako literaturarik abiatuta ulertzen dute (Lasagabaster Madinabeitia 1983, 38–39), zentzu horretan, aztertuko dudan garaia zordun dira. Euskarazko literaturaren berpizteak egoera politikoaren bilakaerarekin duen harremanaren jakitun, euskal nazionalismoaren bilakaerari begira ibili behar izan dute argitalpenen nondik norakoak ulertu ahal izateko. Euskal nazionalismoaren gaineko ikerketek ere bat egiten dute frankismo garaian euskal nazionalismoan suertatu zen eraberritze prozesuan, Euskadi Ta Askatasuna erakunde armatuaren sorrera eta bilakaera izango litzateke eraberritze horren lekuko, Euzko Alderdi Jeltzalearen nagusitasunaren kontra (Gurrutxaga 1985; Pérez-Agote 2008). Zentzu horretan, euskal literaturak nazionalismoaren sorkuntzan (Elorza 1978; J.

Juaristi 1987a) zein berpiztean (Aulestia 1981; Olaziregi Alustiza 2009) edukitako eragina ere luze jorratu da, gizarte irudikapenak sortzeko duen gaitasunagatik. Literaturaren era analogoan, arte plastikoen esparruan Ana María Guaschen ikerketa soziologikoak (Guasch 1985) euskal artea nazionalismoa eta sozialismoaren arteko ikamikaren agerpen gisa aztertzen du. Luxio Ugartek ere Chillida edo Oteizaren gaineko ikerketa monografikoetan hauen obrak euskal nazioa berpizteko saiakera gisa ulertzen ditu (Ugarte 1996).

0.3.2. ESPARRUEN TEORIA

Ikerketa abiatzeko ezinbestekoa zait aurrena Arestiren obra dagokion testuinguruan kokatzea, dialogismoa izango bada gainerako atalen ardatzetako bat, lehenengo erreplikak Arestiren obran txertatu beharko nituzke. Horretarako kodifikazio literariotik kanpo geratzen diren hainbat bitartekari kokatu beharko ditut aurrena. Soziologiaren literatura azpidisziplina emankorra da obra jakin bat gizarteko beste arloekin duen bitartekaritza aztertzerakoan.

Bere aurrekariak marxismotik abiatutako teorian koka litezke, zeinak produkzio-moduaren eta produkzio-harremanen baitako posizioaren bitartekaritza aztertu duten (Hauser 1998; Lukács 2010), betiere edukiak erarik biluzienez islatzen dituzten literaturaren aldeko joera normatibo argiaz. Durkheimen lanaren espezializazioaren ildoari jarraituz ostera, literatura arlo propioa egiten duten gizarte egitateak ikertu dira (Escarpit 1971), literatura instituzioen sorrera eta garapena alegia. Honakoak teoria emankorrak izan dira euskal literaturaren bilakaera aztertzerakoan. Lehenaren ildoari jarraituz, Ibon Sarasolak euskal literaturaren bilakaera aztertu zuen belaunaldi zahar atzerakoi eta elizkoia belaunaldi berri aurrerakoi eta akonfesimalari kontrajarriz (Sarasola 1971). Bigarrenaren ildoari jarraituz, ordea, Joan Mari Torrealdai literatura eta euskara instituzioen eragina nabarmendu zuen euskarazko literaturaren garapenean (Torrealdai 1977).

Pierre Bourdieuk bere gizarte-teoria literatura eta arte arloetara zabaltzeko, beste zenbait tresna kontzeptual erabilgarri garatu dira, aurreko teorien muga batzuk

gaindituz, maila ezberdinetan ematen diren fenomenoak harremanetan jartzeko aukera ematen dute. Maila orokorretik hasita, esparrua (*le champ*) bertan parte hartzen dutenen “posizioen arteko harreman objektiboen espazioa da”, dinamika horri zein beste esparruekiko (ekonomikoa, politikoa, erlijiosoa, e.a.) dinamikari esker autonomia eskura lezake, lege propioak dituen esparru gisa arituz. Bourdieuk esparru politiko eta ekonomikoarekiko esparru autonomo baten agerpena aztertu bazuen XIX. mendean *l’art pour l’art* leloaren inguruan osatua (Bourdieu 1995), Gisèle Sapirok Pétainen Frantziako literatura esparrua aztertuko zuen bestelako erantzuna emanez, *littérature engagée* alegia (Sapiro 2003; Sapiro 2011).

Dinamika horietatik abiatuta, esparruaren baitan ematen diren posizio hartze diferenteak aztertu litezke, errekonozimendua edota bestelako propietateak eskuratzeko borroka baten gisan. Errekonozimendua kapital sinbolikoan objektibaturik ageri zaigu. Talde eta korronteez bultzatzen dituzten dinamikak idazleen posizio eta ibilbide sozialak osatzen dituzten afinitateen ondorio lirateke, *habitusari* hain zuzen ere. Habitusak gizabanako multzo batek partekatzen dituen praktika, disposizio –estetikoak, kasu honetan– eta pertzepzio-moduen afinitateari (*egitura egituratzailea*) izaera bateratu bat eman diezaioke, azken batean, gizabanakoen esparruetako posizio eta ibilbideen gorpuztea delako (*egitura egituratua*) (Bourdieu 2006b, 170–171). Zentzu horretan, esparrua idazleen estilora eta posizio-hartzeetara itzul daiteke. Honela, Gabriel Arestiren obra, esparruko beste obrekiko posizio hartze baten gisan uler daiteke, bere posizioaren zein disposizioaren ondorio.

Hala ere, teoria honek kritikak jaso ditu, besteak beste, esparruaren mugak irudikatzen dituen autonomia definitzeko zailtasunak direla eta, Bourdieuk oinarrian dituen Durkheimen gizarte-espezializazioa eta Weberren jarduera-esferetara bueltatzeko proposatuz (Lahire 2002). Teoria honen erabilgarritasuna kolokan jartzen duen beste aspektu bat estatu agentzia eta eskenatokirik –merkatu ekonomiko eta linguistiko amankomuna– gabeko testuinguru baten aurrean gaudela da. Are gehiago, literaturaren suspertzea estatu-nazioaren sorkuntzari loturik ageri da, estatuak hizkuntza nazionala zabaltzeko saiakerekin (Lasagabaster Madinabeitia 1983, 42–43). Hala ere, Anton Figuroak (2010) literatura galegoa azaltzeko erabilgarri egin du. Are

gehiago, euskal literaturaren kasuan Ibon Egañak (2013) zein Ur Apalategik (2000) euskal kritikagintza eta Bernardo Atxaga azaltzeko erabili duten markoa dugu. Baina biak abiatzen dira estatu lako tresnak dituen Euskal Autonomia Erkidego eta euskal literaturak nazioarteko errekonozimendu minimo bat eskuratzen duen testuingurutik, hau da, *euskal literatura sistema* egonkor batetik (Olaziregi Alustiza 2014).

Arestiren egoera nahikotxo aldentzen da testuinguru honetatik: diktadurako zentsura, hizkuntza bateratu baten gabezia, irakurlego oso eskasa, e.a. Zentzu hertsian hartuta, ezin esan liteke euskal literatura esparrurik dagoenik, baina hala ere, euskal literatura esparru autonomo baten aldeko borroka ematen da eta, bertan ematen diren posizio eta transformazioak, euskal kultura esparru eta era paraleloan garatuz doan euskal politika esparru autonomoetatik uler litezke. Horregatik esparru politiko zein kulturalera jo beharko dut etengabe, bertatik uler baitaiteke euskal literaturaren indartzea, baita hura definitu eta baloratzeko parametroak ere. Baina horretarako arreta handiago ipini beharko diet, estatuaren agentzia eta eskenatokiaren faltan, euskal kultura eta literatura sostengatu duten instituzioei. Euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio guneak izango dira esparruen teoria aplikagarri egiteko baliatuko ditudanak.

0.3.3. EUSKAL KULTURAREN PRODUKZIO ETA ERREPRODUKZIO GUNEAK

Euskal kultura, *estaturik gabeko esparrua*, estaturik gabeko nazionalismo baten indartze eta bilakatzearen era analogoan aztertu liteke. Horretarako erabilgarriak izango dira oso euskal nazionalismoa soziologiatik ulertzeko saiakerak. Alfonso Pérez-Agoteren ikerketek transformazio horiek bultzatu zituen gizarte-aldaketetara jo du, belaunaldi-aldaketari eta gizartearen industrializazio eta sekularizazioaren testuinguruan, nazionalismoari gizarte-onargarritasuna (*plausibilidad*) ematen dioten egiturei erreparatuz (Pérez-Agote 1986b; 1986a; 2008). Hemen ere nolabaiteko afinitatea topa liteke bi ikerketa arloen artean, euskal literaturaren haustura belaunaldi berriaren modernotasuna, sekularizazioa eta hiriaren gaineko literaturarekin harremanetan jarri den neurrian. Ildo beretik, Ander Gurrutxagak

frankismoan zehar gerraostean isilpean mantendu zen kode nazionalistaren berpiztea ikertu du, posible egin duen komunikazio-egitura baten sorkuntza eta sostenguari erreparatuz (Gurrutxaga 1985). Euskal nazionalismoaren kodea, besteak beste, euskara izango du oinarri eta haatik berebiziko garrantzia izango dute honen erreprodukzio zein produkzioan euskararen berpiztean eragina izan zuten hainbat instituziok: ikastolen mugimendua, Euskaltzaindia, argitaletxeak, e.a.; Torrealdairen lana da honen lekuko (1977).

Nazionalismoari gizarte-onargarritasuna ematen dioten egiturek zein kodearen erreprodukzioa bermatzen duten komunikazio egitura horiek izango liriateke euskal kultura esparruaren eskenatoki eta eragile nagusiak. Ikerketa honetan, bada, *euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio guneak* izendatuko ditut, azken batean euskal kulturaren izaera diferentziala sortu eta mantentzen dituzten instituzioak direlako. Hauen artean sare bat osatzen dute, hainbat eragilek gune ezberdinetan parte hartu edota guneen artean era askotariko harremanak eratuz. Guneak ere badira, parte hartzaileek bertan elkartu eta, maiz autoritateen kontra, hauek babesten dituzten neurrian.

Horretarako, gune horien eta euskal nazionalismoaren arteko harremana jorratu duten beste ikerketetara ere joko dut, besteak beste: bereziki erakunde erlijiosoek (Iztueta 1981; Pérez-Agote 1986b; Itçaina 2007), jaiek (Homobono Martínez 2009; 2012) eta, noski, euskararen aldeko mugimenduek jokatutako papera (Tejerina Montaña 1992) aztertu duten horietara.

0.4. BIGARREN TOPOLOGIA: TOKIEN MEMORIAK

Arestiren obra eta bizitzaren memoriarako bitartekari nagusiak identifikatu eta hauek osatzen dituzten konfigurazioak deskribatzea.

Behin Aresti dagokion esparruan kokatuta, bera eta bere obraren irudia publiko zabalarari zelan proiektatzen zaion azaltzen saiatuko naiz. Horretarako, euskal kultura

eta literatura esparruetako zenbait kidek egiten duten bitartekari lanetara joko dut. Azken batean, arlo ezberdinetako adituek eskola edota euskaltegietako kurrikulumean sartzeko narratibak eraiki ahalko dituzte, dagokien disziplinen arauetara jarraituz. Horrek kultura legitimitatearen partaidetza ziurtatuko luke (Bourdieu eta Passeron 1996, 63–65). Beraz, Arestiren kultura-zilegitasunaz gain haren gaineko memoria osatzeko bitartekariak ere sortuko dira.

Topologia hau garatzeko abiapuntu izango dudan hipotesia Arestiren gaineko memoria bestelako tokien memorian txertatzen dela da. Publikoaren eta haren gaineko memoriaren bitartekariak bilatzeko, Aristotelesek erretorikaren gainean egindako azterketa da abiapuntua. Publikoaren zein Arestiren obra eta bizitzaren arteko intersekzioa *topoi* (tokiak) izan litezke. Entzuleei arrazoiketa jakin bat helarazteko hizlariak bi aldeetan partekatzen diren *tokietara* joko du, Barthesek honela azaltzen du Aristotelesek metafora honen alde egin zuen hautua:

Ororen gainetik, zergatik tokia? Gauzetaz gogoratzeko nahikoa delako dauden tokia gogoratzea, dio Aristotelesek (tokia, beraz, ideien asoziazio baten elementua da, baldintzapen batena, trebakuntza batena, mnemonika batena); tokiak, beraz, ez dira argudioak berak, baizik eta hauek ordenatu egiten diren konpartimentuak. (Barthes 2009c, 178)²

Metafora espazialari jarraituz, topikaren dimentsioetako bat hizlariak jorratzen duen gaia paseatuko luke, zentzu horretan “formen sare bat da, diskurtso pertsuasibo bihurtu nahi den gaiari ezartzen zaion ibilbide ia zibernetikoa” (Barthes 2009c, 179), beraz topika gai ezberdinen bidegurutzera litzateke, konexio batzuk erraztu egiten dituen, beste batzuen kaltean.

² “Ante todo, ¿por qué lugar? Porque, dice Aristóteles, para acordarse de las cosas basta acordarse del lugar en que se encuentran (el lugar es, pues, el elemento de una asociación de ideas, de un condicionamiento, de un adiestramiento, de una mnemonica); los lugares no son, pues, los argumentos mismos sino los compartimentos donde se los ordena.”

Hemendik abiatuta, Arestiren obra eta bizitzan gurutzatzen diren *topoi* horiek bilatu eta analizatzea izan liteke lan-ildoa. Baina memoria jarduera narratiboa ere bada, zentzu horretan, historia narratibarekin nahastuta ageri zaigu, kontraera historiko orok duen egitateen zein fikziozko elementuei erreferentzia egiteko *faction* (fikzioa + egitatea) terminoa proposatzen du Hayden Whitek (2009). Izaera narratibo hori txertatzeko, Teresa del Vallek Bajtinen kronotopo kontzeptura jo du zenbait errituali lotutako genero-memoriak aztertzeko estrategia metodologiko gisa, bestek beste, gaueko kale ilunek emakumeen opresioaren memoria kaletik ibiltzeko beldurrera zelantizultzen den azaldu lezake (del Valle 2000). Zentzu horretan kronotopoa memoria diskurtsibo zein ez diskurtsiboen katalizatzailea izan daiteke. Maila orokorrago batean, Fernando García Selgas eta Antonio García Olivaresek gizarte-jariakortasunaren (*fluidez social*) kartografia osatzeko kronotopoetara jo dute (García-Selgas 2007; García-Selgas eta García Olivares 2014):

“... edozein (fluxuzko) errealitate sozial zentzu semiotiko eta baloratiboez betetako espazio-denboralitate batek osatua dago ezinbestean, haren konponenteen (eragile, instituzio, e.a.) posizionamendu bereiziei markoa eta euren artean produzitzen diren harreman eta desplazamenduei pautak eskaintzen die (...) Zentzu honetan, adibidez, ez dugu soilik esango kronotopoak agentziaren aukera eta mugak konfiguratzeko dituela, baizik eta konponenteen eskumena era osatzen duela.” (García-Selgas eta García Olivares 2014, 186)³

³ “Si la cartografía de la fluidez social tiene su primer asiento en la noción de cronotopo es porque da una importancia fundamental al hecho de que cualquier realidad social (fluida) está irremisiblemente constituida por alguna espacio-temporalidad cargada de sentidos semióticos y valorativos que enmarca los desiguales posicionamientos de sus componentes (agentes, instituciones, etc.) y pauta las relaciones y desplazamientos que entre ellos se producen (...) En este sentido diremos, por ejemplo, que el cronotopo no solo configura muchas de las posibilidades y limitaciones de la agencia, sino que, en parte, constituye a los agentes competentes.”

Beraz, kronotopo kontzeptuak arlo ezberdinetara gerturatzeko gaituak aurrera daitezke. Batetik, memoria-ildo jakin batzuk aktibatu edo katalizatu egiten dituen sarea da. Bestetik, aktoreak sare horretan kokatzen ditu, haien eskumenak konfiguratzeko.

Ikerketa hauek guztiek Bajtinek literatura generoen historia bat osatzeko proposatu zuen kronotopo kontzeptua dute abiapuntu. Kronotopoak “literaturak era artistikoan bere egiten dituen denborazko eta espaziozko harremanen konexio esentzialei” erreferentzia egiten dieten eduki eta formak dira (Bajtin 1989, 237). Kronotopoak literatura generoei zein bere aldaera eta obra partikularrak hartuko lituzke bere gain, hau da, Voloshinovek (1992) zein Bajtinek (2004, 371–394) berak garatutako dialogismoa oinarri (García-Selgas 2007, 128), historian zehar eman diren hainbat obren ezaugarri amankomunak (kronotopo orokorrak: *topaketa*, *bidea*, *gatzelua* e.a.) zein obra jakin batenak (kronotopo zehatzak: Stendhal eta Balzacen *harrera-gela*, Dostoievskiren *ataria*, e.a.) deskriba litzake.

Egiten duen analisiak nobelak –zentzu oso zabalean– hartzen baditu ere, bestelako mundu kronotopikoekin harremanetan leudeke –egilearen mundua, interpretearena–, baita literaturaz haratago doazen eta gizarte- eta komunikazio-egitura jakin batzuei loturik dauden bestelako kronotopoekin ere: bere abiapuntua *topaketaren* kronotopoa bada, zientzian *kontaktu*a, erlijioan *agerpena* eta bizitza zibil eta estatalean *topaketa publiko antolatua* honen analogoak lirateke. Azken batean, kronotopoak hainbat elementuren espazio-denborazko harreman zehatza osatuko luke eta horiek nobelaren garapena bideratuko lukete. Adibidez, Antzinako Greziako nobelari jainkoek gizakiei ipintzen dizkieten *probetan* –kosmogonia– heroiek beren buruekiko identitatea mantendu beharko dute –gizakiaren irudia, esaterako, oztipoen gainetik maitasuna probatzeko–. Antzerkiak osatzen zuen harreman publiko-pribatu zein eskenatokiaren izaerak –komunikazio-baldintzak– ere denbora eta espazio abstraktuetan –itsasoa orokorrean, zehaztu gabeko herrialdeak, e.a.– kokatzen ditu pertsonaiak. Ondorioz, *topaketaren* kronotopoa da nagusi, heroiak topatu-banandu, bilatu-aurkitu, elkar antzeman-mozorrotu egiten direlako, azken batean topatu ala ez topatzeak definitzen duelako nobelaren garapena: banaketa, ezkontza, ihes egitea, galtzea, e.a.

Zentzu horretan, Arestiren memoria osatzen duten kronotopo zehatzetara bideratuko dut topologia honen azterketa, kronotopo horiek interpretazio-guneak lirateke, honen gaineko interpretazioetarako katalizatzaile gisa diharduten neurrian. Kontzeptu honetatik abiatuta, interpretazio-gune (kronotopo) horiek identifikatuko ditut, errepikatu egiten diren guneak hain zuzen ere, bestelako nodoekin osatzen dituzten harremanei erreparatuz, beste nodo horiek bere gain hartzeko gaitasuna dutenak hain zuzen ere. Ondoren, interpretazio-gune horiek sostengatzen dituzten aktoreak identifikatu beharko ditut, lotura horiek osatzen dituztenak. Gune-aktore sare hori irudikatu ondoren, kronotopoez osatzen dituzten konfigurazio-aukerak deskribatu ahalko ditut.

0.5. HIRUGARREN TOPOLOGIA: OBJEKTUA

Aktore nagusiek Arestirekin, objektu gisa, egiten dituzten gizarte-erabilerak aztertzea, bere presentzia publikoaren euskarri diren neurrian.

Kronotopoen bitartez, Arestiren gaineko memoria bat osatuta, oraingoan bere objektu izaera aztertuko nuke. Euskal idazlea, pertsona, objektu gisa hartu badut, bere izaera subjektiboa, aktiboa nolabait parentesi artean ipintzen dudalako da, bestelako eragileek harekin egiten duten hori identifikatu ahal izateko. Hasteko, zientzia eta teknologiaren objektuen era analogoan azter dezaket, aktore-sarearen teoria jarraituz. Batetik, bestelako objektuetan gauzatzen den objektua litzateke: batik bat, iraunkor izateko asmoa duten inskripzioetan (liburu, plaka, kartelak, irudi, e.a.), baina baita une batez hainbat lagunek osatzen dituzten erritoetan ere (omenaldiak, hitzaldiak, e.a.). Bestetik, objektu horien arteko kontsistentzia osatzen dituzten harreman semiotikoen bitartez gauzatuko da. Hortik datorkio objektuari bere semiotiko-material izaera (ikus 0.2. Kokatutako jakintza: Epistemologia, 34-36. orr.).

Aktore-sarearen teoriaren erronka, zientzialarien diskurtsoak edo instituzioak ikertu beharrean, zientzialarien praktiken kutxa beltza zabaltzea da. Horretarako, ikertzen ari

diren objektuak aktore gizatiar eta ez gizatiarrek osatzen duten sareari erreparatzen dio. Honela, erreferentzia –Aresti eta bere idatziak– ez da hitzei gehitzen zaion zeozer, etengabe eransten zaizkion hitzek funtziona dezaten ezin du salto bakar batek oztopatua izan (Latour 2001, 137). Kate horretako arrastoei jarraitzeko aktoreek objektuekin egiten dutena jarraitu beharko litzateke. Objektua osatzen duen aktore-sarea azaltzeko, eragileen artean sortzen diren kontrobertsiei erreparatu beharko nieke, kontrobertsiak baitira kutxa beltza une batez zabaltzeko aukerak (Latour 1992, 23–35; Latour 2008, 42). Bide batez, aktore-sareen bila ibili ahala, kultura produkziogunea ez da polo bakar batean kokatuko –Aresti edo nolabaiteko elite intelektuala– elkarrekintza horietan guztietan parte hartzen dutenen asoziazioan baizik. Adierazleaz gain, Aresti zirkulazioan den nolabaiteko objektua da, azken batean hainbat idatzi utzi zuen pertsona izan zen eta.

Arestik beste objektuekiko jarraikortasuna eduki dezan, hauetan artikulatua egon behar du (Latour 2001, 172), horregatik hauek konektatu eta sostengatu egiten dituen aktore-sareari erreparatuko diot: instituzioak (euskaltegia, Bilboko Udala, Euskaltzaindia), adituak, idazleak, aktore ez gizatiarrak (inskripzioak), e.a. Hauen arteko asoziazioan, Aresti *igaro beharreko puntu –Obligatory Passage Point* (Callon 1986)– bihurtzen den neurrian bermatuko litzateke honen presentzia zenbait arlo artikulatzeko duen gaitasunagatik, euskal kultura eta literatura arloetan bereziki. Honi esker, objektu aktiboa ere bihur liteke, igaro beharreko puntu gisa ezartzen den neurrian, aktore-sarea bere inguruan osatu eta objektuarekiko harremana botere-harremanetara itzultzeko aukera ematen du, erreferenteek –idatziek, batik bat– osatzen dituzten problematizazio-moduen ondorioz.

Horretaz gain, euskal kultura eta literaturari hertsiki loturik dagoen objektu honek gizartean hedatzen dituen efektuetan geratzea ere komeni da. Zentzu horretan, badira praktika eta sinesmenek objektu jakin batzuei nolabaiteko boterea zelan esleitzen dioten aztertzen duten teoria klasikoagoak ere. Durkheimek (2008) *erlijio elementalen* totemaren izaera sakratuan topatu zuen gizarte-erregulaziorako bideak zein gizarte-kategorien oinarriak, *totemak* gizartea ordeztzeko gaitasuna duten objektuak diren neurrian. Ez dirudi bide okerra denik idazle eta artisten *kontsakrazioaz* esparru

ezberdinetan zein gizarte mailan eskuratzen duten aitopenerari erreferentzia egiteko erabiltzen den neurrian.

Garai berean, Marxek kapitalaren funtzionamendua aztertzerakoan, aberastasunaren produkzioaren izaera kolektiboa agerian jarrita, *merkantziak* lanaren produktua janzteko duen gaitasun mistikoa azaltzen du (Marx 2008, 87–113). Objektua merkantzia gisa funtzionatzen duela esan daiteke ez soilik liburuak merkatuan saltzen direlako, Arestik euskal kultura eta literaturako *brand* gisa funtzionatzen duelako.

Idazle eta artisten gaineko objektu izaeraren gaineko ikerketen gabezia, hiru kontzeptu teoriko hauetatik abiatuta eta haien arteko tentsioan, Arestiren objektu izaera azaltzen saiatuko naiz.

0.6. LAUGARREN TOPOLOGIA: AKTUALIZAZIOA

Arestiren poemak aktualizatzen dituzten hizketa ekintzak aztertzea.

Oroz gain, Arestik poeta gisa jardun zuen, halakotzat zuen bere burua eta *Maldan behera* zein *Harri eta herri* hartuta, bere poesiaren berritasuna azpimarratzen da egun. Bere poesia mailua zela ere esan zuen eta hura hil eta hilabetera argitaratutako elkarrizketa batek honako titularra zekarren: “Poesia masen hezkuntzarako hedabidea da” (Haranburu-Altuna eta Aresti 1975),⁴ horretarako liburuez gain bere bertso-molde eta ekintzek erraztasunak ipini zituen euskal kanta berriak bere poemak musikatu zituan. Gauzak honela, jorratu zituen generoen artean, bere poesia aukeratu dut jasan dituen berrinterpretazio, apropiazio edo eguneraketak aztertzeko.

0.6.1. IRAKURKETA PROZESUA: MIMESIA

Irakurketa ezberdinek edonolako diferentziarik sortzeko gaitasuna badute, testuren baten identitatea eta subjektuen arteko diferentzia ematen delako da. Ikuspegi

⁴ “La poesía es un medio de comunicación de masas”.

fenomenologikoak testuaren eta subjektuaren arteko dialektika azpimarratu du, irakurketa prozesua eman dadin ezinbestekoa baita irakurleak testuarekin korrelazioak osatzea (Iser 1987).

Linguistika estrukturala eta honako konstatazio hau oinarri, testuak berak bestelako sistema semiologikoekin osatzen duen harremana aztertuz, honen baitan dauden barne harilketa azertu liteke, Barthesek Balzacen *Sarrazine* nobela laburrarekin egin zuen bezalaxe (Barthes 2001). Neurri handi batean, hau da Aurelia Arkotxak Arestiren *Maldan beheraren* iruditeriarekin egin duena (Arkotxa 1993). Semiologiak tresna analitiko erabilgarriak baditu ere, beste inon ipiniko dut arreta, harreratik gertuago dagoen poloan hain zuzen ere, poema horiek interpretatu, apropiatu edo haragitu egiten diren unean. Hau da, semiologoak testuan irakurlearen fenomenologia tentuz eta era arrazoituagoan erreproduzitzen badu ere (Barthes 2009b, 273–274), testuaren identitatea berrezartzea du emaitzat, subjektuaren diferentzia semiologoaren bozeramailtzan disolbatuz. Kontrara ere, Lacanen ildo psikoanalitikotik, testuaren aurrean subjektuak bere oinarrizko abiapuntua (Edipo konplexua, e.a.) errepikatu baino ez luke egingo (Morley 2005, 154), subjektua litzateke beraz diferentzia hutsaren sortzailea. Bi joera hauen erdibidean kokatuta ere, subjektua zein testua irristatu egiten zaigu eskuetatik:

Liburu baten mugak ez dira sekula garbiak eta modu zorrotz batean marraztuak: izenburuaren gainetik, lehen lerroez eta puntu eta amaieraz gainetik, bere barne konfigurazioaz eta autonomia ematen dion formaren gainetik harrapatua dago beste liburu, testu eta esaerekiko erreferentzia-sistema batean: sare bateko korapilo bat da. (Foucault 2003, 52)

Identitate-diferentzia harreman hori problematizatzeko kontzeptu egokia da Aristotelesen *Poetika* jarraituz Paul Ricoeurrek proposatutako *mimesia*. Testu-konfigurazioak “esparru praktikoaren prefigurazioaren eta obraren harreraren araberrako birfigurazioan bitartekaritza egiten du” (Ricoeur 1987, 1:119). Zentzu horretan, irakurketaren bitartez mimesiaren zirkulu hirukoitza ematen da: “kontatu

izan nahi den gure [irakurlearen] bizitza-munduaren *prefigurazioa*; testuaren *konfigurazioa* kontatua den ekintzan; eta gure existentziaren *birfigurazioa* testu narratiboa ekintzara bueltatzen den neurrian” (Kearney 2001, 133). Narrazioaren innobazioa korapiloaren asmakuntza bada –ardatz sintagmatikoa–, metaforarena “pertinentzia semantiko berriaren sorkuntza da ez dagokion esleipenaren bitartez” (Ricoeur 1987, 1:3; Ricoeur 1980) –ardatz paradigmaticoa–.

Narrazio zein metaforan funtzionatzen duen mimesiak agerian jartzen duena zera da: poemak edo narrazioak imitatu egiten du, baina imitazioak berak osatzen du imitatzen duen hori. Mimesia harreraren eta testuaren bidegurutzean ematen den prozesua da, bi dimentsioak bereiztezinak diren unea, jatorrizkoa eta imitazioa –simulakroa, kopia– disolbatu egiten ditu. Abiapuntu honetatik zilegi dirudi Arestiren poetika irakurleek egiten dituzten interpretazio, apropiazioetatik ulertzea. Noski, interpretazio hauek irakurketa prozesu berbera aktibatzen dute –birfigurazio berriek konfigurazio berriak osatuko dituzte– eta, beraz arestian aipatutako arazo eta tresna berberekin aurre egin beharrean kokatuko nau, baina arreta beste inon jarrita.

0.6.2. AKTUALIZAZIOAK

Apropiazio edo interpretazio prozesu hauek aztertzeke egin dudana apustu analitikoa, poemak *aktualizazioak* aztertzea izan da. Aktualizazioarekin tradizio anglosaxoian aztertu izan den *reenactment* kontzeptuari erreferentzia egin nahi diot. Erabilera zabalduna *errekreazioa* bada, Judith Butlerren ildotik, *apropiazio* edo *birsignifikatze* prozesuen ildotik ere uler liteke.

Katie Kingek jakintzen aktualizazio saretuak aztertu ditu (*Networked reenactments*), Estatu Batuetako gerra zibilaren, dokumental eta telesailek zein Interneten osatutako aktualizazioak (*reenactment*) aztertzeke, arlo transdisziplinari eta posthumanista berria inauguratzeko asmoz: *reenactment studies* (King 2012, 273). Aktualizazioek “*afektu* eta *zentsazio* ezberdinek ulertze-modu interesatu ezberdinetan pizten dituzte adituen *epai* multzoa elkarrekin hartuz” (King 2012, 14). Horregatik ageri dira saretuak, sarrera-atari ezberdinak dituzten aktualizazioak diren neurrian.


Aktualizazio hitza erabiltzen dut hizketa-ekintzei izaera unitarioa ematea ahalbidetzen didalako, espazio-denbora zein analisi –eta beraz, zentzu-unitate gisa–. Hizketa-ekintza hauek Arestiren obra egin egiten dute (*enact*). Horregatik bi zentzu dituen hitza da: eguneratzea, obra eraberritu egiten delako, denbora-espaziozko testuinguru batera doitzen den neurrian eta, *actual* erro anglosaxoira jota, era materialean gauzatzen delako, hizlariak haragitzen duelako hizketa ekintza edo euskarri materialak inskripzioa.

Testu baten errepikarako baliabiderik ohizkoena erreproduzio industrialaren moduan, aktualizazio-ekintza orok izaera materiala du. Hizketa ekintza gorputzaren bitartekaritzaren bitartez egiten den neurrian gorputzak beti gaindituko du (*excess*) hitza bera eta, horregatik, etengabe birregokitu daiteke testuinguru berrira. Horrek eskaintzen dizkio birsignifikatzeko aukerak (Butler 1997, 155-156). Gorputzu gabeko komunikazioak soilik sines dezakeen isladaren (*erreflexua*) paradigmari aurre egin nahian, Voloshinovek (1992, 49) zein Bourdieuk (Bourdieu 1997b, 58-60) zeinuen izaera errefraktarioa azpimarratu dute, izaera objektiboa lituzketen existentzia-baldintzak zein esparruaren bitartez. Errefrakzioa ere bada kanal orok komunikazioarekin egiten duena, soinu zein argi uhinek aldaerak jasoko dituzte puntu batetik bestera igarotzeko. Honakoa fisika edo biologiaren erreinuetan badagokie ere, honelako *zaraten* izaera produktiboa azpimarratu nahi dut. Apur bat haratago, Donna Harawayk difrakzioaren eredua proposatzen du bere artefaktualismo semiotiko-materialaren norabide berean. Argi-uhinen eredua ere abiapuntu, “difrakzioak ez du «berberaren» desplazamendu bat sortzen, isladak edo errefrakzioak egiten duen moduan”, interferentzia bera aztertzen du, *zarata*, diferentziaren efektuak bilatuz (Haraway 1999, 126).

Hizketa-ekintza errefraktarioa edo difraktarioa bada komunikazio haragitua delako, zelan atzeman daiteke *jatorrizko* testuaren eta testu *aktualizatuaren* arteko harremanik? Zein da diferentzia eta zein da errepika? Deleuzek aztertu bezala, errepika diferentzia sortzen delako ematen da. Errepika batek beti janzten du erabat harrapatu, izendatu ezin den kontzeptu bat. Identitate nominalaz haratago –errepikapenaz aritu ahal izateko konplexu fonikoen edo hitzen identitateaz haratago–, ezin liteke errepika

abstraitu edo bereizi osatzen den errepikatik. Errepika jantzi egiten den maskara moduko bat litzateke, baina aldi berean errepika da jantzi arazten duena. Traumaren sintoma errepika bada, errepika bera delako erreprimitu arazten duena, errepikatzen delako ahaztu egiten da, beraz erreprimitu, eta ez aldrebes (Deleuze 1968). Difrakzioaren eredua jarraituz, diferentzia sortzen duen hori *aitzindari iluna* (*précurseur sombre*) litzateke, bi serie bereizten dituen hori, bata bestearekiko diferente eta, beraz, errepika osatuz (Zizek 2006, 101–102).

Agian horregatik aktualizazioak ez du itxitura argirik, fluxuen topologian kokatu badut, bere hasiera eta amaiera, jatorrizkoa zein kopiaren arteko mugak ezartzea zaila suertatzen delako izan da. Deleuze eta Guattarik garatutako mesetetako batera joko dut, aktualizazio ezberdinak harremanetan ipin ditzakeen meseta hori *ritorneloa* da (Deleuze eta Guattari 2002, 317–357). Liburuaren ostean idatzitako artikulu batean, Guattarik (Guattari 1996) ritorneloa afektuak katalizatzen dituen dikurtsoaren sekuentzia errepikakor gisa definitzen du. Afektuak, gizabanakoen aurretik eta intersubjetibitatearen azpitik, “inorena ez diren intentsitate libre” gisa ulertuta (Zizek 2006, 53), ritornelook hauek pizten dituzten sekuentziak lirateke.



Iturria: (Guattari 1996, 163)

Hjelmsleven eskemari jarraituz⁵, ritorneloa enuntziarioaren eta espresioaren formaren arteko bitartekaria litzateke. Era analogoan, denotazioak [*f(den)*] edukiaren formara eta erreferentziara bidaltzen bagaitu, edo diagramak [*f(diag)*] espresioaren formara eta erreferentziara; ritorneloa enuntziarioa espresioaren forman txertatzen duen proposamen kontzeptuala da. Afektuak lirateke ritorneloaren lehengai, enuntziarioaren materia desterritorializatu gisa, aktualizazioan bueltatuko lirateke territorializatuak.

Jatorriz, musikatik datoren terminoa bada ere, forma ritmikoak, segmentu prosodikoak, enblemak, sinadurak ere izan litezke. Txorien kantutik abiatuta, ritorneloa “lurralde bat markatzen duten espresioaren materia multzoa da, lurralde-motiboetan eta lurralde-paisaietan garatu egiten dena” (Deleuze eta Guattari 2002, 326–329). Konponente anitzek osatzen badute ere, konsistentzia lortzen duten neurrian dira ritorneloak. Behin konsistentzia eskuratuta, autonomia ere eskura lezake –beste paisaia batean konsistentziaz funtziona lezake– agentziaritza berrietarako zabalik dagoelako.

Ikerketa honetara itzulita, poemek afektuak katalizatzen dituzte, barne-konsistentzia bati esker afektu horiek bertso nagusi batzuetara birbideratu litezke eta afektu horiek mobilizatzeko aukera dute bertso horiek aipatze hutsarekin, bertso zein poemak autonomo diren neurrian, errepikatu ahal izango dira paisaia berrietan jarririk.

⁵ Eskema ulertzeko jarraibide egokia da Barthesek Hjelmsleven gainean egiten duen irakurketa. Zeinua bi mailatan banatzen du: espresioaren plano (adierazlea) edo edukiaren planoaren (adierazia) arabera, zein forma (linguistikaren bitartez uler litekeena) edo substantziaren (ezin dira ulertu linguistikaz kanpoko premisetara jo barik) arabera. Beraz, honela sailkatu litezke: 1) espresioaren sustantzia: “sustantzi fonikoa, artikulagarria, ez funtzionala, fonetikak du ikergai, baina ez fonologiak”; 2) formaren espresioa “arau paradigmatico eta sintagmatikoek osatua (forma batek sustantzia ezberdinak eduki ditzake, bata fonikoa eta bestea grafikoa)”; 3) edukiaren sustantzia: “zentzu *positiboan*, adieraziaren aspektu emozional, ideologiko edo soilik kontzeptualak direnak”; 4) edukiaren forma: “adierazien antolaketa formala da, marka semantiko baten ausentzia edo presentziaren arabera (...) plater horiek egoera bat adierazteko balio dute, baina baita elikatze ere.” (Barthes 2009a, 53–54)

Ritorneloa –gogora dezagun: sekuentzia errepikakor hori– aktualizazio ezberdinetan errepikatzen den hori da, aldi berean, era errepikaezinean osatuz.

0.7. METODOLOGIA ETA TEKNIKAK

Ikerketaren kontzeptu teoriko nagusiak azalduta, bestelako protesi metodologiko eta teknikoetara joko dut oraingoan. Oro har, analisi soziohermeneutikoa testu eta gizarte baldintza eta bitartekariak aztertzeko tresna erabilgarria bada ere, aktore-sarearen teoriak proposatzen duen asoziazioen soziologiak elikatu behar du ikerketaren norabide metodologikoa.

Teknikei dagokionez, lehen topologiako esparruaren dinamika argitalpenen espazio sozialaren bitartez irudikatuko dut, analisi kuantitatiboan oinarrituta baina betiere kualitatiboki hainbat iturri eta ikerlanetara jotz. Gainerako topologietarako, omenaldi eta aktualizazioen analisirako, etnografiak iradokitako behaketa partehartzailea izango da teknika-eredurik egokiena, baina zenbait kasutan dokumentazio-lanaren bitartez berreraiki beharko da.

0.7.1. NORABIDE METODOLOGIKOA

Jakintza kokatua abiapuntu edukita, eta batik bat testuen ganean diharduten teoria eta helburuak azaldu ostean, argi dago ikerlan honek *biraketa linguistikoaren* ildotik eratorritako gizarte-zientziak edukiko dituela abiapuntu. Dagoeneko, ez dirudi ikuspegi metodologiko honen zilegitasuna lar azaldu behar denik. Soziologiaren kasuan, analisi soziohermeneutikoaren ekarpena azpimarratzekoa da, tradizio hermeneutikoa eta soziologiaren aniztasun teorikoa ezkontzen jakin izan dituelako: testua analisi-unitate gorena bada ere, hizketa-ekintzak gurutzatzen dituen botere harreman sozialak ere aintzat hartzen ditu (Alonso 2013). Ikuspegi honen ekarpen nagusia, beraz, aztertuko ditudan hizketa-ekintza horietan bilbe-sozial zabalagoak daudela etengabe gogoraraztea izango da. Gainera, teknika kuantitabo zein kualitatiboen arteko

integraziorako zenbait ildo ere zabaldu ditu –Bourdieuaren espazio soziala izan liteke teknika kuantitatiboen bitartez analisi kualitatiboa egiteko adibide paradigmaticoa.

Analisi soziohermeneutikoaren praktikak pribilegiatu dituen irudikapenetan topologia erregionala izan da nagusi, laginketa zein analisisian ezker-eskuin gora-behera harremanak, testuak gizarte-egituretan txertatu nahian. Lehenengo topologian salbu, gainerakoetan bestelako irudikapenetera joko dut, azken batean testuek bestelako testuekin osatzen dituzten erreplikak aztertuko ditut eta. Zentzu horretan, Latourrek proposatzen duen eta sarea analisi-dispositibo nagusi duen asoziazioen soziologiatik gertuago ibiliko naiz, erregioaren analisi-dispositiboa nagusi duen soziohermeneutikaren gizartearen soziologiatik baino (Latour 2008, 24–29).

Erregioetan oinarritutako laginketa baino, laborategi-bizitzaren soziologiak objektuen arrastoa jarraitzen du. Zentzu horretan, kontrobertsiak jarraituz ikertuko du. Objektu anitz batetik abiatzen naizen neurrian, ezingo dut aurrez landuko dudako korpua ezarri, aztertzen ditudan kasuek emango baitidate hurrengo kasuen arrastoa. Gainera, ikerketa-objektua komunikazio prozesutik bereiziezina den neurrian, testuen komunikazio-baldintza materialei ere erreparatu beharko diet, neurri handi batean hizketa-ekintzak bere materialtasunari zor baitio bere iraunkortasuna edo errefrakziorako zein difrakziorako baldintzak.

Hala ere, une eta gune jakin bateko egoerak bata bestetik espazialki zein denboralki bananduak ageriko zaizkidan neurrian, ezinbestekoa izango zait analisi soziohermeneutikoaren zenbait jarraibideetara jotzea. Azken batean, hizketa-ekintza bakanetan gizarte-bilbe zabalagoak topatzeko gaitasuna duelako.

0.7.2. ARGITALPENEN ESPAZIO SOZIALA

Lehen azaldu bezala, esparruen topologia erregionala da, honen barne egitura irudikatzeko espazio soziala erabili da, eguneroko existentziako espazio praktikoa irudikatzeko hain zuzen ere (Bourdieu 2006b, 169–172). Bourdieuk berak erabili izan du Korrespondentzien Analisi Anizkoitzaren teknika estatistikoa irudikapen hori egiteko

(Saint-Martin eta Bourdieu 1976; Bourdieu 1999; 2006b; 2008a), bere teoriarekin oso harreman estua osatuz (Baranger 2004, 59–88). Teknika honek⁶ aldagai nominalen arabera sailkatutako kasuen arteko harremana ardatz euclideanretan laburbiltzen du – gehienetan azaltzeko gaitasun handiena duten bi edo hiru ardatzetan. Aldagaien balioen korrespondentziaren bitartez, aldagaiak zein kasuak hurbiltasun-urruntasun harremanetan kokatzen dira, esparruen barne egitura eta espazioa *makurtzen* duten bestelako esparruen eragin latentea azaltzeko aukera emanez.

Iraganeko garaia izanda, datuak lehen mailako iturrietatik osatzeko ezintasuna dela eta, bigarren mailako iturrietara jo dut euskal argitalpenen espazio soziala aztertzeko. Garaiko euskal argitalpenen espazio soziala irudikatuko dut, argitalpenen datu base batetik abiatuta. Noski, euskal argitalpenak zer diren esparruen norgehiagokaren baitan kokatzen dira. Euskal literaturaren mugak definitzerakoan, aztertuko dudan garaian, euskaraz idatzitako literatura gisa ulertzeko joera nagusitu egiten da. Oraindik ere, honakoa gai polemikoa bada, euskal kulturako esparruaren baitan funtzionatzen jarraitzen zuen garaian are eragin nabarmenagoa du. Beraz, euskal kultura definitzeko erdarazko saiakerak –*Quosque tandem* besteak beste– zein euskal literatura erdaldun baten alde egiten duten obrak nola edo hala unibertsoan txertatu beharko nituzke, euskal literaturaren definizioaren gaineko norgehiagokan zuzenean parte hartzen dutelako. *Euskal* euskarazko idatzi gisa definitu ezin bada ere, euskal kultura definitzeko zailtasunak eta ikerlanaren asmoa euskal literatura esparrua aztertzea dela kontutan hartuta, euskarazko idatzietara makurtuta definituko dut euskal kultura: euskarazko aldizkarietan iruzkinak jasotzen dituzten zein euskarazko liburuak ere argitaratzen dituzten argitaletxeen erdarazko argitalpenak ere gehituko dizkiot euskarazko argitalpenei. Gauzak honela, unibertso osoaren datu basea osatu dut:

Euskarazko literatura aldizkarietako artikulu (1) eta euskarazko liburuak (2) zein esparru bereberetan kokatu litezkeen argitaletxeek argitaratutako erdarazko

⁶ Teknika honen gaineko literatura eskasa dago, nik honako ibilbide hau jarraitu dut: Korrespondentzien Análisi Sinpletik abiatuta (Joaristi Olariaga eta Lizasoain Hernández 1999), honen logika espaziala (Duval 2010) eta estatistikora (Greenacre 2008) jo dut.

*liburuak, euskarazko liburuak ere argitaratzen dituztelako –hogei behintzat–
(3) zein euskarazko aldizkarietan hiru iruzkin baino gehiago jaso dituztelako (4).*

Datu base hori osatzeko ezinbestekoa suertatu zait beste ikerlari eta erakundeek, euskal literaturaren egitatea performatiboki osatzeko hain zuzen ere, osatu dituzten eta Interneten eskuragarri dauden datu base hauek (1 eta 2):

- (1) *Literatura aldizkarietan argitaratutako artikulak*. Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta Susa argitaletxeak eta Gorka Arrese, Monika Bengoetxea, Mikel Elorza, Joxan Elozegi, Patxi Gaztelumendi, Juanjo Iribar, Koldo Izagirre eta Josu Landak osatutako Ibinagabeitia proiektuaren webgunea⁷. Bertan honako aldizkari hauetara jo dut: *Gernika* (1945-1953), *Egan* (1948-1979), *Euzko-Gogoa* (1950-1959), *Olerti* (1959-), *Igela* (1962-1963), *Ustela* (1975-1976), *Pott* (1978-1979)
- (2) *Euskaraz argitaratutako libururak*. *Jakin* aldizkariaren webgunean⁸ Joan Mari Torrealdai osatutako XX. mendeko euskarazko liburuen katalogoa.

Horretaz gain, gainerako baldintzak betetzen dituzten liburuak (3 eta 4) bildu ahal izateko, honako iturri hauetara jo dut:

- *Argitaratutako liburuen iruzkinak*. Lehen aipatutako literatura aldizkarietaz gain, *Jakin* aldizkariak zein *Anaitasuna* eta *Zeruko Argiak* argitaratutakoak. Lehenengo biak Interneten eskuragai⁹, hirugarrenean paperezko aldizkarietara jo dudan bitartean.

⁷ Iturria: <http://andima.armiarma.eus/>

⁸ Iturria: <http://www.jakin.eus/liburu-behatokia>. Sarasolarekin batera, Torrealdai izan zen euskal literaturaren soziologia egiten aitzindaria, *Euskal idazleak gaur* liburuarekin (1977), hura egiteko liburuen datu basea egin zuen aurrena, euskal idazleei egindako inkestarekin batera. Horretaz gain, urtero argitaratzen du *Jakin* aldizkarian euskaraz argitaratutako liburuen txostena.

⁹ Iturriak: <http://www.jakin.eus/aldizkaria> eta *Anaitasuna* Euskaltzaindiaren webgunean, <http://www.euskaltzaindia.eus/>

- *Beste hizkuntzetan (gaztelaniaz eta frantsesez) argitaratutako baina esparru berberean kokatzen diren liburuak.* Vital Kutxak diruz lagundutako Sancho el Sabio Fundazioak osatu duen *Euskal Kulturaren Dokumentazio Zentroko* katalogoan¹⁰, euskaraz gutxienez hogeit hamar liburu argitaratu dituzten (3) edo euskarazko aldizkarietan behintzat hiru aipamen jaso dituzten (4) argitaletxeetako liburuak.

Iturri hauetatik abiatuta, elkarrekin harremanetan dauden baina analisi-unitate ezberdinetan oinarrituta dauden datu base ezberdinak osatu ahal izan ditut:

- *Literatura aldizkarien datu basea.* Ibinagabeitia Proiektuan erabilitako aldagai gehienak mantendu baditut ere (aldizkaria, zenbakia, hizkuntza, egilea, urtea), generoak multzo zabalagoetan sailkatu ditut (artikulua, kritika, poesia, narrazioa eta bestelakoak). Aldizkariak lehen aipaturakoak dira (1).
- *Kritiken datu basea.* Literatura zein kultura aldizkarietan (*Jakin*) eta astekarietan agertutako iruzkinez osatuta, iruzkinaren egilea zein liburu iruzkinduaren informazioa txertatu ditut, liburuaren datu basetik abiatuta.
- *Liburuaren datu basea.* Euskarazko (2) zein erdarazko (3 eta 4) liburuez osatua. Hauxe izan da Korrespondentzien Anlisi Anizkoitza egiteko erabili dudana datu basea. Bertan, analisirako honako aldagai hauek erabili ditut:
 - Urtea; argitaletxea; egilea; liburuaren hizkuntza
 - Generoa, analisirako erabilgarria suertatzeko sortu ditudan kategorietatik abiatuta: antzerkia eta pastorala, bertsolaritza eta bertsopaperak, Euskal Herriko gaiak, eleberria, erlijioa eta teologia,

¹⁰ Iturria: <http://www.fsancho-sabio.es/eu/index.asp>

euskal filologia, euskal literatura eta klasikoak, euskera eskuliburu eta hiztegiak, ipuin eta narrazioak, poesia eta bestelakoak.¹¹

- Argitalpen zenbakia: lehen argitalpena edo berrargitalpena ote den.
 - Astekarietan (*Zeruko Argia* eta *Anaitasuna*) jaso duen iruzkin kopurua: iruzkinik ez, iruzkin bakarra edo iruzkin bat baino gehiago.
 - Aztertzen ari naizen garaian era jarraituan argitaratu diren literatura (*Egan*, *Euzko-Gogoa*, *Olerti*) zein kultura (*Jakin*) aldizkarietan jaso duen iruzkin kopurua: iruzkinik ez edo gutxienez iruzkin bat.
- *Egileen datu basea*. Izen eta abizenak euskal zein erdal grafiaz topatu ditudanez eta askok ezizen bat edo ugari erabiltzen zituztenez, egileak identifikatu ahal izateko datu basea osatu behar izan dut. Horretarako oso erabilgarria suertatu zaizkit Juan San Martinek osatutako euskal idazleen katalogoa (San Martín 1968) zein Eusko Ikaskuntzak Interneten eskuragai dituen Auñamendi Entziklopedia zein beren funts propioak.¹²

Analisi deskriptibo eta Korrespondentzien Analisi Anizkoitzaz gain, kritiken sare analisia (Requena Santos 2003) ere erabiliko dut, idazleek euren artean osatzen dituzten harremanak adierazle horren bitartez irudikatu ahal izateko.

Erabilitako teknikek kasuak kategorien arteko harremanaren arabera irudikatzen badituzte ere, ezinbestekoa dute harreman horiek *kualitatiboki* azaltzea. Horretarako

¹¹ Genero kategoriak eraikitzerakoan hiru irizpide nagusi jarraitu ditut: 1) irizpide *etnikoa*, espazio soziala eraiki ahal izateko propietateek kideen pertzepzio-moduekin bat egin behar dute, kategoriek ezin dute beren zentzu komunetik lar aldendu, horregatik ohizko genero-sailkapenak eduki ditut abiapuntu; 2) irizpide teorikoa, ikerketan plazaratzen diren hipotesien adierazle gisa funtzionatu behar dute, azalpen holistiko bat ahalbidetu dezaten; 3) irizpide numerikoa, analisi estadistikoa emankorra izateko –taula gurutzatuak edota Korrespondentzien Analisi Anizkoitza egin ahal izateko– ezinbestekoa da kategorien arteko banaketarik ahalik eta homogeneousna lortzea, oso kasu gutxiko kategoriak saihestuz.

¹² Iturria: <http://www.euskomedia.org/>

ezinbestekoa izango zait, arestian aipatutako ikerketekin (ikus 0.3. Lehen topologia: Euskal literatura esparrua, 36-41. orr.) zein bestelako lehen mailako iturriekin (literatura aldizkari edo astekarietako artikulak, bileretako aktak, literatura lanak, e.a.) etengabe kontrastatzea, esparruen dinamiken azalpenari begira.

0.7.3. OMENALDI ETA AKTUALIZAZIOEN ANALISIRAKO TEKNIKAK

Gainerako topologietarako informazioa bildu eta sortzeko bestelako teknikak erabili beharko ditut, adierazle jakin batzuen erreplikak aztertuko ditudan neurrian. Batik bat, behaketa partehartzailea eta bigarren mailako dokumentuen analisia izango dira teknika nagusiak.

Adierazleen errepliken artean, omenaldiek tarte berezia edukiko dute, publiko zabal samar bati Arestiren balio sozialaren errekonozimendua eskaintzen zaion erritua den neurrian. Honek tradizio antropologikora zuzendu beharko ninduke eta, horren baitan, ohizkoena duen teknikara: etnografiara hain zuzen ere. Aktore-sarearen teoriak diseinu teorikoan pisu handia izanda, Latour eta Woolgarren laborategiaren etnografia jarraitu nezakeen eredu metodologiko gisa (Bruno Latour eta Woolgar 1995), adierazleen agerpenerako prozesu osoa jarraituz. Baina planteamendu honetatik apur bat aldendu beharra dago ikerketa-objektuaren izaerara doitzeko.

Alde batetik, hemen ez da laborategi batean agerrarazi den hormonarik ikertuko, aktore-sare dispertsoek idazle bat agerrarazten dituzten uneak baizik, publikoki egiten den *performance* batean. Omenaldi edota aktualizazioek ez dute talde sozial baten bizitza osoa bere gain hartzen, ordu pare batez egiten dira. Horregatik, behaketa partehartzailea da egingo dudan hori (O. Guasch 2002, 50). Talde sozial baten eguneroko bizitzan murgildu baino, murgilduta nagoen bizitza sozialetik noizbehinka joko dut landa-lan puntualak egitera.

Parte hartzailea izango da behaketa, jarduera publikoetara entzule gisa hurbilduko naizelako, eragileek parte hartzera luzatzen duten gonbita aprobetxatuz. Jardueretako zentzu eta praktikak ulertu nahi ditudan neurrian (A. A. García eta Casado 2008) eta ez

horrenbeste jarduera hauek dituzten arau implizituak, praktika etnometodologikoak baztertuta (Garfinkel 2006), parte hartzaile-entzuleei dagozkien arauak errespetatuko ditut. Entzule gisa izango naiz interpelatua (Althusser 2003), horrek entzule-ikerlari gisa era gatazkatsuan ditudan zentzazioen oharrak ere hartzera behartuko nau, azken batean, interpelazio-prozesu horren baitan ematen baitira aktualizazioak berak.

Beste aldetik, jarduera batzuetan ez dut behaketa parte hartzailea egiteko aukerarik edukiko. Aktualizazioak era diakronikoan aztertu nahi baditut, batak hurrengoarekin osatzen duen harremana argitze aldera, ezinbestekoa zait ikerketa honi hasiera eman aurretik gertatu diren jarduerak ere aztertzea. Beste horrenbeste gertatuko zait aurretiaz Arestiren omenaldi gisa agertu ez baina bere poemaren baten aktualizazioa egiten duten jarduerekin. Batzuk susmoz edo ezustez bertan harrapatu banaute ere, gehienetan ez dut bertaratzeko aukerarik izan. Horregatik, ezinbestekoa izan dut bestelako iturrietara jotzea, posible izan zaidan neurrian, bertako praktika eta zentzuak berreraikitze asmoz. Beraz, maiz erabiliko ditut egunkariak, bideoak, testigantzak, grabazioak, e.a. Berreraiketa horretarako, zenbait informatzaileei elkarrizketak egin diet, aktualizazioen berri edo hauen gaineko datu edo iturriak ezagutzeko aukera eman badit ere, ez dut haien diskurtsorik aztertu, orainalditik egiten diren iraganeko interpretazioek aztertu nahi nituen aktualizazioetatik aldentzen didatelako.



1. Kapitulua.

Esparru literarioaren egituraketa,
1953-1979

Kapitulu honetan, Arestiren obra eta posizio hartzeak euskal literaturaren egituraketa prozesu zabalago batean kokatuko ditut. Horretarako, euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio gune gisa izendatu ditudan erakundeetatik abiatuko naiz, hauen bitartez egoera politikoa, kultura eta literaturaren arteko harremana azaldu ahal izateko. Hortik abiatuta euskal kultura esparruaren baitan euskal literaturak duen bilakaera aztertuko dut hiru alditan –1953-1963, 1964-1973 eta 1974-1979–, Arestiren obrari arreta berezia eskainiz.

1.1. EUSKAL KULTURAREN PRODUKZIO ETA ERREPRODUKZIO

GUNEAK

Euskal literatura termino irristakorra da oso. Maiz honen gaineko eztabaidak piztu eta berpiztu egiten dira, *euskal* horrek euskarazkoa, Euskadikoa-Euskal Herrikoa edota estilo jakin bati ote dagokion definitzeko. Mugarria batean zein bestean jarrita ere, ezin liteke aztertzen dudan garaian euskal literaturak esparru autonomo bat osatzen zuenik esan. Eztabaida nagusia *euskal* adierazleak adierazten duenaren gainekoa da eta horrek, noski, euskal literatura darama harekin herrestan. Nazionalismoaren sorreran, *euzkoa* arraza eta erlijioari loturik ageri bazen, garai honetan apurka-apurka bestelako elementuei erreparatuko zaie, euskara elementu zentrala bihurtu arte (Tejerina Montaña 1992, 109). Euskal kultura eta harekin euskal literatura definitzearen inguruko lehia horren lekuko dira euskal argitalpenak (ikus 0.7.2. Argitalpenen espazio soziala, 54-59. orr.). Analisisirako erabili dudatu basean euskal kultura esparruko euskarazko publikazioen eragina nabarmena da, azken batean gaztelaniazko publikazioak argitaletxe elebidunak eta euskarazko aldizkarietan oihartzuna eduki duten horiekin osatu direlako.

Euskal kultura esparruaren transformazioen berri emateko beste nonbaitera begiratu beharra dago. Euskal nazionalismoaren ikerketa ugarik gizarte egituraren suertatutako aldaketetara eta hauek erdi-mailako instituzioetan edukitako eraginerara jo dute frankismo garaian *euskal nazionalismoaren kodearen* erreprodukzioa ulertzeko (Gurrutxaga 1985; Pérez-Agote 2008). Kode hori, neurri handi batean, euskal kulturaren izaera diferentzialari lotuta dago, bere sinbolo eta zeinuei hain zuzen ere.

Ikerketa horietan oinarrituta, euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio guneei erreparatuko diet, hau da, euskal kultura propio, autonomo, diferente baten transmisioan ari diren erakundeei.

Garai honi ekin aurretik, gerra aurreko euskal kulturaren egoera soslaiatzea komeni da. Sabino Aranaren formulazioen ondotik, euskal nazionalismoak hazkunde ikaragarria izan zuen XX. mende hasieran zehar, hainbat instituzioen inguruan ehundutako “mikrogizarte” bat osatu zuen –ELA-STV sindikatua, Emakumeen Batza, Euskaltzaleak, e.a.–. Honekin batera euskara elementu zentral gisa balorizatua izaten hasiko zen, bereziki Jose Ariztimuño *Aitzol* idazle, apaiz eta ekintzailearen aldetik (Tejerina Montaña 1992, 110–111). Prozesu horretan euskal literaturak paper zentrala jokatu zuen, poeta nazionalen egitekoa ekintzaile nazionalistarenekin nahastuz (Apalategi Idirin 2000, 62–63).

Gerra zibilak, ordea, prozesu hori geldiarazi zuen. Aurreko urteetan nazionalismoaren inguruan sortutako erakundeak debekatu ziren, eragile nagusiak espetxeratuak–Koldo Mitxelena–, erbesteratuak –*Orix*– edo erailak –*Aitzol*, *Lauaxeta*– izan ziren bitartean. Espazio publikoan garaituen kodearen –sinboloak zein hizkuntza– transmisioa debekatu egin zen (Gurrutxaga 1985, 393) eta espazio pribatuan eten: deuseztatutako erakundeez haratago, familien baitan ematen zen debekuaren barneraketa zein 50. hamarkadako industrializazioak ekarritako immigrazioaren ondorioz (Tejerina Montaña 1992, 112–114).

Gerra zibilak publikazioen beherakadan izan zuen eragina agerikoa da, esan bezala, oinarri zuten produkzio eta erreprodukzio gune horiek txikituak izan zirelako. Hala ere, 40. hamarkadatik gorakada etengabea izango zuten euskarazko publikazioek, 1962an 30. hamarkadako urterik oparoena gainditu arte: 1940 eta 1952 artean 252 liburu atera baziren, 1953 eta 1963 artean liburu kopurua bikoiztu egingo zen (485), 1964 eta 1973 artean berriro ere bikoiztuko (1.042) eta 1974 eta 1979 artean erdia gehituko zitzaion (1.692). Balio bereziki adierazgarriak dira epealdiak gero eta laburragoak direla kontutan hartuta (ikus Taula 3. Liburuak genero eta argitalpen epearen arabera, 373. orr.). Zentzu horretan, Gurrutxagak hiru fasetan banatzen du frankismo garaiko garaituen kodearen egoera: gerraosteko isiltasunak (1) gerra egin ez zuen belaunaldi berri bati irekiko zion bidea, euskara elementu zentraltzat hartuko zuen mugimendu

kultural eta politikoarekin batera (2), 70. hamarkadan zehar espazio publikoa hartuko zuena (3) (Gurrutxaga 1985, 133).

Euskal kultura esparruari dagokionez, gorakada hori euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio guneen zabalketari zor zaio neurri handi batean. Erreprodukzio gune horiek euskal kulturaren adierazpenerako erakundeak dira, horiek izango baitira euskal kultura esparruan suertatuko transformazioen katalizatzaile nagusiak. Generoen eboluzioa, kasu, erreprodukzio gune horien eskaerarekin lotuta ageri da. Hasieran, euskarari bidea ireki zion gune nagusia Eliza bazen –elizgizonen interesaren zein erlijiosoek zuten babesari esker– liturgiari zuzendutako liburuek pisu handia edukiko zuten. Ondoren, baina, erlijio-liburuen joera beheranzkorra euskal kulturaren sekularizazioaren erakusgarri da: 1940 eta 1952 artean liburuen %39,7a teologia eta hagiografia zein meza, liturgia, otoitza eta musika erlijiosoari buruzkoa bazen, argitalpen hauek behera egingo zuten 1974 eta 1979 urteetan liburuen %4,8a izan arte. Euskarazko hezkuntza sistema bat zabaldu ahala beharrezko korpua ere handitu egin zen. 1963ra arte natura zientzietako liburu bakarra argitaratu den bitartean, 1974 eta 1979 artean liburuen %7,2a izango zen honi buruzkoa. Haur eta gazte literaturak ere joera berbera eduki zuen, lehen aldiko liburuen %2,4tik %14,8a izatera pasa zen azken aldian. Beste horrenbeste gertatu zen euskara eskuliburu eta hiztegiekin, %2,8tik %9,9ra pasatuz. Publikazioen goraldiek ere behartuta, folkloreakin bereziki lotuta zeuden euskal kanta, musika eta dantza liburuek ere behera jo zuten. Hemen hiru epealditan banatu baditut ere, pausoz pausoko aldaketa da suertatutakoa.

Euskarak euskal kulturaren zentraltasuna indartu ahala, kultura idatzian bizi ziren erakundeen beharrei erantzuteko honen eskriturizazioari garrantzia handiagoa emango zitzaion. Balizko euskal literatura esparruak ere bere erakunde propioak beharko zituen autonomia eskuratzeko, eta pauso handiak emango ziren norabide horretan: argitaletxeak, sariak, aldizkariak, idazleen elkarteak, e.a. Hala ere, euskal literatura esparru autonomoa ez zen estatu-erakundeak sortu arte emango, 1978ko Espainiako Konstituzioarekin eta 1979ko Gernikako Estatutuarekin batera. Bitartean, Ipar Euskal Herrian baldintza demokratikoak ematen baziren ere, euskal kulturak ez zuen Euskal Autonomi Erkidegoan eskuratutako errekonozimendu instituzionalik, ezta horren alde egin zezakeen mugimendua aktibatuzeko industrializazio eta hirigintza prozesurik eman.

Jarraian azpiesparru horren egitura eta bilakaera aztertuko ditut. Horretarako, publikazioei erreparatuko diet. Hauen egitura ulertzeko argitalpenen korrespondentzien analisi anizkoitza erabiliko dut batik bat (Greenacre 2008; Joaristi Olariaga and Lizasoain Hernández 1999), genero, hizkuntza eta aldizkari eta astekarietako aipamen kopurua abiapuntu hartuta. Teknika estatistiko honek aldagai kategorikoen arteko harremana dimentsio batzuetara murrizten du. Bete behar dituen baldintza estatistikoez gain, azalpen estrukturalerako tresna izan behar du, neurri horretan publikazioen espazio soziala irudikatzeko baliagarria suertatuko zait.

Euskal kultura esparruaren analisi honen asmo nagusia Gabriel Arestiren obra historikoki kokatzea da. Bere obraren gaineko literatura ikerketa monografiko ugari egin badira ere (Arkotxa 1993; Aldekoa 1998; Kortazar 2003a), hurrengo kapituluetan jorratuko ditudan aspektuen testuingurua ezagutzeko tresna kontzeptual eraginkorra da Bourdieuren *esparrua*, literatura eta arte arloan bereziki. Frantziar sortutako kontzeptua izanik, Frantziako literaturan bereziki erabili bada ere (Bourdieu eta Ferguson 1988; Boschetti 1988; Bourdieu 1995; Sapiro 2003), aldaera batzuekin estaturik gabeko errealitatean ere agertu du eraginkortasuna (Figuroa 2010). Ur Apalategi (2000) eta Ibon Egañak (2013) euskal literatura esparruaz baliatu dira Bernardo Atxaga eta euskal kritikagintza aztertzeko, baina aztertu duten garaia euskal literatura autonomo baten garaia da, hemen jorratuko dudanaren ondorengo aldiari dagokiona.

Kapitulu honen asmoa, zentzu horretan, Aresti esparruan kokatzea da. Esparruaren egitura eta transformazioek zein bertan duen posizioak Arestiren posibleen unibertsoaren berri emango digu: bere idatzi eta epaiak besteekiko posizio-hartze gisa ulertuko ditut; azken batean esparruan ematen diren norgehiagokak esparruaren arauak definitzeko norgehiagokak direlako. Honi esker, Arestiren errekonozimendurako baldintzak ulertu ahal izango dira, bere lanak euskal kultura esparruaren definizioan izandako eraginak zein euskal literatura esparru autonomo baten aldeko saiakerak igaro beharreko puntu (Callon 1986) gisa agertuko dute ezagutza arlo horietan.

Garai hartako euskal kultura eta literatura epe ezberdinetan banatu badira ere¹³, ikerketa honen helburuekin bat etor daitezten, Arestiren obraren bilakaera zein euskal kulturako gertaera eta eztabaida nagusien inguruan mugitzen diren honako epe hauetan banatu ditut:

- 1953-1963. Arestiren lehen idatzietatik (1954a; 1954b) abiatuz, *Maldan behe* (1960e) eta *Zuzenbide debekatua* (1961d) bere gain hartzen ditu. Euskal kultura esparruan bi mugarririk ematen diote amaiera aldi honi, *Vasconia* eta *Quosque tandem* liburuen argitalpenarekin.
- 1964-1973. Arestiren Harriaren zikloarekin bat egiten du: *Harri eta herri* liburuarekin errekonozimendua zabala eskuratuko zuen, *Euskal Harria* eta *Harrizko herri hau* obrekin batera. Honetan ematen dira ETAREN lehen atentatuak, batasun prozesua, alfabetatze-kanpainak, gau eskolak eta ikastolen mugimendua.
- 1974-1979. Aresti gaixotu eta gutxira hil egingo zen. Euskararen ofizializazio prozesua martxan jarri eta lehen abangoardia literarioak sortzen dira –*Oh! Euzkadi* eta *Pott banda*.

1.2. 1953-1963: LEHEN HASTAPENAK

Euskal kultura gerra zibileko bando galtzaileak landu bazuen, gerraostean erreproduzio eta produkzio gune berrien sorrera beharko da aurreko lanari berriro ere ekiteko. Euskaltzaindiak egoitza bere horretan mantendu ahal izan zuen, Pedro Sainz Rodriguez Ministroak konfiskatuta zegoelako ustea zabaldu zuelako, falangistek eta erreketek eraso ez zezaten. Hala ere, Euskaltzaindiak bere jarduera geldiarazia zuen, Azkue zen Bilbon zegoen euskaltzain bakarra. Apurka-apurka kide berriak sartu ziren eta lanari ekin zioten, tentuz, 1954an estatutuak berritu, lehen literatura sariketa,

¹³ Paulo Iztuetak lan monografikoa dedikatu dio euskal idazleen belaunaldien taxonomiei, bertan literatura historia liburuek osatutako periodizazioak aztertzen ditu (Iztueta 2005, 73–121).

kongresu eta jaialdiak antolatu eta *Euskera* aldizkariaren zenbaki bat ateratzeko baimena eskuratu zituzten (Torrealdai eta Murua Uria 2009, 58–65).

Liburuek hazkunde ahul baina iraunkorra izan zuten urte hauetan (ikus Grafikoa 10. Liburuak hizkuntzaren eta argitalpen urtearen arabera, 1930-1978, 371. orr.), hala ere *Orixeren Euskaldunak* (Itxaropena, 1950) eta Salvatore Mitxelena *Iñurritzaren Arantzazu. Euskal sinesmenen poema* (Editorial Franciscana de Aránzazu, 1949) agertu ziren, zentsuraren oztopoei aurre egin ostean. Gauzak honela, Euskal kultura komunitate baten sorkuntzarako ezinbestekoa suertatu ziren literatura aldizkariak sustatu ziren. Erbestetik, 1945ean *Gernika* aldizkaria sortu zen Donibane Lohizunen –gero Buenos Airesera aldatuko zuen egoitza–. 1953an azken zenbakia argitaratu bazuen ere, 1948ean Donostiatik bertatik *Egan* eta 1950ean Guatemalatik *Euzko-Gogoa* argitaratzen hasi ziren. 1953an bi aldizkariak euskara hutsez argitaratzeari ekin zioten.

Gerra zibileko geldialdiaren ostean, 1954an kaputxinoek *Zeruko Argia* aldizkaria argitaratzeari ekin zioten berriz ere. 1953an *Anaitasuna* sortu zuen Imanol Berriatuak, frantziskotarren babespean. Biak prentsa katoliko gisa ekin bazioten ere, ildo aldatuz joango ziren ohizko prentsa astekaria bihurtu arte. Hazi guzti horiek aldi honetan hasiko dira ernatzen.

1.2.1. FORMA ETA EDUKIA

Gainerako aldietan gertatuko den bezala, *euskal* adierazlearen inguruan kokatuko litzateke argitalpenen kultura esparruaren ardatz nagusia, 1953-1963 aldirako analisian. Lehen dimentsio honek bariantzaren %33,2a azaltzen du, hizkuntza eta generoa islatzeko duen gaitasunagatik batik bat. Hizkuntzari dagokionez, euskarazko eta erdarazko argitalpenak bi muturretan kokatuko lituzke. Generoak hizkuntzarekin duen lotura agerian jartzen da: Euskal Herriko gaiak erdarazko argitalpenen muturrean leudeke, euskal filologia eta bestelako generoek jarraituta. Batik bat euskaraz landutako generoak, ostera, ipuin eta narrazioak, bertsolaritza eta bertsopaperak eta poesia dira. Beste genero batzuk erdibideko posizioak islatzen dituzte.

Hizkuntza eta generoaren arteko harreman estuak lehen dimentsio honetan euskal kultura esparruaren egitura duala islatzen du. Literatura esparruaren gaineko

bestelako ikerketek (Bourdieu 1995, 175–192; Sapiro 2003) agerian utzitako “produkzio murriztuaren” eta “produkzio handiaren” arteko bereizketaren analogoa ematen da. Bi etiketa hauek, ordea, hobeto doitzen dira irakurlego zabala eta merkatuaren santzia duten esparruei. Gainera, honi diktaduraren zentsurak argitalpenei ipintzen zizkion oztopoak gehitzen bazaizkio, argi dago liburuak asko aldentzen direla ohizko merkatu egoera *libre* batetik. Argitaletxe gehienek harpidetzen bidez funtzionatzen zuten, “produkzio murriztuaren” egoerarekin bat datorren joera da argitalpen guztiena –euskarazko zein erdarazkoena—hau da, elkarri irakurtzen dioten komunitate batena ia. Kontsumo-pautak harpidetzaren inguruan antolatzen dira eta ez “produkzio handian” ohizkoa den liburu-produktuen merkatu-salmentan. Nolabaiteko mezenazgo kolektibo bati esker finantzatzen dira publikazioak, beraz, ez da logika artistiko eta logika ekonomikoaren arteko oposizio argirik ematen.

Grafikoa 1. 1953-1963, publikazioen korrespondentzien analisi anizkoitza, kategorien puntuazioak



Hala ere, euskarazko irakurlego potentziala oso eskasa da gaztelaniazkoarekin alderatuta. Berez, euskal hiztun gutxi badaude, are irakurle alfabetatu gutxiago. Gainera, euskal irakurlegoak gaztelaniazko testuak irakurri ditzakeen bitartean, erdal

irakurlegoak ezin du kontrakoa egin. Honetan datza euskal kultura esparruaren dualitatea. Oraindik urrun dago euskara idatzi baten batasuna eta euskaraz idaztea *formaren* gaineko lana dakar, idatzitakoaren *edukiaren* gainekoa baino. Batetik, euskal kulturaren *edukiak* lantzen dituzten argitalpenak daude, gaztelaniaz, publiko zabalgoxeari zuzenduta; bestetik euskal kulturaren *formen* gainekoa, hau da, euskara beraren, komunikazio-kodearen gaineko lana. Mezenazgo kolektiboa nagusi den testuinguru batetan, argitalpenaren inbertsioaren errentagarritasunaren bitartekaritzaren orde, idazketaren inbertsioaren errentagarritasuna da nagusi: euskal edukiei buruz idazteko historia, kultura, folklorea, eta abarren gaineko apustua egiten da modu segurugoan; euskaraz idaztearen aukera egiterakoan, oster, inbertsio arriskatua egiten da, komunikatzeko tresna bera da apustu. Zentzu honetan, idazketa-inbertsioa epe luze eta laburraren artean bana liteke (Bourdieu 1995, 213–218), forma eta edukiarekin bat etorritik. Aldizkarietako kritikei erreparatuz gero, gaztelaniazko eduki-ikerketen berehalako balioari euskarazko forma-lanketaren bitartekari-balioa kontrajartzen zaio. Euskarazko testuak euskarari egiten dioten ekarri gisa juzkatzen dira, egin egiten ari zen prozesu bati begira. Apustua bera euskaraz idaztea da, horregatik kritika akritikoak dira nagusi, egilea zoriondu eta euskaraz hau ala bestea idatz litekeelako berri onak ematera edo aberastasun lexiko edo gramatikoa azpimarratzera mugatuz

Ardatz honen konformazioan, astekarietako aipamenek eragin eskasa badute ere, esanguratsua da aipamen bakarra edukitzeak euskarazko argitalpenen espazioarekin bat egitea, aipamen batek baino gehiagok aipamenik ez dutenen balioekin bat eginik. Hau da, euskarazko liburuek iruzkina ziurtatuta badute ere, gaztelaniazkoek soilik pizten dituzte iruzkin bat baino gehiago behar duten eztabaidak. Honen adibide da Jorge Oteizaren *Quosque tandem, Zeruko Argian* eztabaida luzea suertatu baitzen liburuaren gainean.

Generoen korrespondentzian topa daitekeen joera hau, zenbait erakunde eta autoreen posizio-hartzeetara itzultzen da. Lehen aldizkari elebiduna bazen ere, Antonio Arrue, Aingeru Irigarai eta Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen (*Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*) eranskin gisa ageri zen *Eganez* euskara hutsez argitaratzeari ekin zion 1953an. 1950ean Jokin Zaitegik Guatemalan sortutako *Euzko-Gogoa* aldizkariak hasieran pare bat artikulua gaztelaniaz

argitaratu bazituen ere, gutxira erabat elebakarra bihurtuko zen. Aldizkarien euskaraz idazteko autoinposizio hau egileetara ere bihurtuko zen. Beste idazle batzuk, ostera, kanpoan geratuko ziren, oiartzun handia eskuratuko zuten Blas de Otero, Luis de Castresana zein Gabriel Celayak *Gernikan* eta *Eganen* lehen idatziak argitaratu bazituzten ere, beste inora jo beharko zuten. Aldi honetako euskarazko idazle nagusiek euskaraz idatziko dute batik bat, bereziki literatura generoak lantzen dituzten kasuetan.

1.2.2. EUSKARAZKO PRODUKZIO ETA ERREPRODUKZIO GUNEEN BILA

Lehen ardatza *forma* eta *edukien* arteko bereizketaren arabera osatzen bada, bigarrenean errekonozimendua izango du oinarri. Bigarren honek bariantzaren %26,9a azalduko luke, generoaren eragin nagusiaz gain, argitalpen zenbakiarekin du harremana, aldizkarietako aipamen kopuruarekin batera. Generoari dagokionez, eleberria kokatzen da mutur batean, euskal literatura eta klasikoak eta euskera eskuliburu eta hiztegiek jarraituta, berrargitaratutako eta astekarietan aipamen bat baino gehiago jaso duten obrekin bat egiteko joera dute honakoek. Beste muturrean, ordea, poesia, antzerkia eta pastoral eta bertsoaritza eta bertsopaperak daude: ahozkotasanari lotuago dauden generoak dira honakoak, irakurketa indibidualari baino. Bereizketa honek, hasierako urteetako egoera laburbiltzen du: euskararen ikasbidea lan indibidualari lotuta ageri da, produkzio eta erreprodukzio gune kolektiboak sorreraren lehen hastapenetan.

Oraingoan, kapital sinbolikoarekin bat egiten duen ardatza da honakoa. Kapital sinbolikoa esparru honetan zein honen azpiesparruetan pilatzen den errekonozimendu-harremanak dira, objetibatze modu asko badaude ere –sariak, omenaldiak, salmentak, e.a.– aldizkarietan jasotako aipamen kopuruaren eta berrargitalpenen arabera neur litezke. Berrargitalpen zein aipamenek errekonozimenduarekin bat egiten dute, aldizkarietako irakurleek irakurri beharko lituzketen obrak eta argitaletxeko harpidedunek irakurtzeko berrargitaratzen dizkietenak islatzen dituztelako. Aldi berean, honek orduko balorazio-irizpideen berri ematen digu, euskaraz idatzitako edo euskara bera gaitzat duten argitalpenei dagokionez. Batetik, plazan zertzen diren ahozko generoen aurrean, era indibidualean kontsumitzen diren generoak hobetsi egiten dira. Euskara plazaz kanpo dago. Bestetik,

euskarazko oinarrizko korpusera jotzen da: Euskal literaturari buruzko lanak, euskarazko klasikoak eta euskaraz ikasteko materiala batik bat. Genero literarioei dagokionez, are argiago da joera hori: mutur bitan kokatuko dira poesia eta eleberria: lehena hizkuntzaren gaineko inflexioa bada, bigarrenak hizkuntza istorioaren zerbitzuan ipintzen du. Gainera, berrargitalpenaren eta astekarietan zita bat baino gehiago jasotzearen arteko harremanari erreparatuta, obra berrien santzio eskasa suma liteke. Tradizio idatzia bereganatzeko garaia da, ondare bakana gerra aurrekoa dute, are gehiago, euskaraz ikastekoa.

Hala ere, garai honetan euskararen produkzio eta erreprodukzio gune berriak hasiko dira, eta honetan Euskaltzaindiak bere lanari ekin izana azpimarratzekoa da. 1956ko irailean Euskaltzaleen Biltzarra antolatu zuen, puntu ezberdinetan lanean zebiltzan euskaltzaleek elkar ezagutzea erraztuz (Torrealdai eta Murua Uria 2009, 58–65). 1958an Bizkaiko Bertsolarien Txapelketa antolatuko zuen, 1960an Euskal Herrikoa (J. R. García 2000, 443–444). Haren egoitzan, hain zuzen ere, entseatzen zuen Txinparta antzerki taldeak (Zubikarai et al. 1999, 104). Bitartean, Arantzazun *Jakin* aldizkaria sortu zen 1956an, euskararen *kulturbidea* jorratzeaz gain —hau da, euskara teologia eta filosofia gaiak jorratzeko tresna eraginkorra izan dadin—talde antolatu bat sortuko da haren inguruan Arantzazun bertan.

Euskararen eskriturizazioak berak erronkak planteatzen zituen. *Auspoak* 1961an ekin zion bertso eta bertsolaritzari buruzko liburuak argitaratzeari. Antonio Zavala eta Balentin Zamora apaizek “euskera errezez idatzitako liburuen premia” ikusi zuten eta 1961ean *Auspoa* argialetxea sortu. Oso esanguratsua da haien saiakera nagusia herri-euskaraz idatzitako liburuak argitaratzea izatea, apurka-apurka herri-euskara hori bertsolaritzara mugatu zen. Haien prosa-lanen harrera eskasaz gain, baserrietako alfabetatu gabeko euskaldunengana jotzen zutenean euskara zuzenik ez zekitela erantzuten zieten:

Zergatik, bada, utsune ori? Alde batetik, erri jendea artara jartzen erreza etzalako. Parregarri geldituko zirala uste zuten. Leen esan dedanez, oker-iritzi bat bazuan buruko muiñetaraiño sartua. Obeto esateko, jende eskolatuak sartu erazia. (Zavala 2000, 119–120)

Honek balorizatutako euskara idatziaren eta herri-euskararen aldea zenbaterainokoa zen islatzen du. Bigarren ardatzean irudikatu dudana literatura idatzi eta ahozko literaturaren arteko banaketa agerian geratzen da, joera honek herri-hizkuntza euskalkien aldaeren gaineko tratatu eta bertsolaritzaren sinonimo bihurtu izana azaltzen du.


Euskal gaietara dedikatu ziren batez ere *Ekin* eta *Auñamendi* argitaletxeak, gaztelaniaz batik bat. Lehena 1941an sortu zuten Isaac Mendizabal eta Andrés María de Irujok, Buenos Airesen. Bigarrena Estornés-Lasa anaiek Donostian, 1958an –1962ra arte Itxaropenaren bitartez argitaratu behar izan zuten, baimen falta zela eta–.

Bi ardatz hauen arabera irudikatutako espazio sozial honek korrespondentzia du apurka-apurka sortuz eta zabalduz doazen argitalepenekin. Analizatutako obra hauek argitaratu zituzten argitaletxearen arabera kokatzen baditugu, *Itxaropena* argitaletxearen nagusitasuna agerian dago, kapital sinboliko nagusiko euskarazko obren espazioa betetzen duelarik. Zarautzen bertan berrargitaratu zituen Axularren XV. mendeko *Gero* (1954), Mogelen XIX. mendeko *Peru Abarka* (1956) Txomin Agirrereren XX. mende hasierako *Kresala* (1954), edota Etxaideren *Joanak joan* (1955) eleberri garaikidea.

Itxaropena argitaletxeak lan luzea egin zuen 1932tik eta Patxi Unzurrunzaga editoreari esker frankismo garaian publikatzen jarraitu zuen hamaika trikimailu erabiliz –lizentzia-data faltsuak, besteak beste–, besteetan elizgizon edota autoritate politikoengana joko zuten oztopoei itzuri egin nahian. Frankismoak kutsu nazionalistako adierazpenak debekatzen bazituen ere, garaileen botereak bere zirrikituak zituen jokaera kapritxosoetarako. Honela lortu zuten Orixeren *Euskaldunak* (1950) oso-osorik argitaratzea, Jose Arteche gerran garaileen alde aritutako euskaltzaleak Prentsa eta Propagandako Zuzendariarekin egindako bitartekaritzari esker. Beste liburu batzuk atal osoak ezabatzea behartuak izan ziren –*Arantzazu*, 1949– edo argitalpenak luzatu edo bertan behera utzi behar izan ziren (Unzurrunzaga 1999, 9–20). Auñamendik ere bere trikimailuak erabili zituen, autozentsuraren bitartez edota liburuak Madrilera bidaliz, Gipuzkoako Delegazio egoskorra saiestuz (Estornés Zubizarreta, d. g.).

Horretaz gain, aurreko urteetatik ordena erlijiosoen babespean argitaratzen zituzten jesuitek *Mensajero* eta frantzizkotarrek *Editorial Franciscana de Aránzazu* (EFA), azken hauek *Jakin* aldizkari berriaren inguruan bildutakoenei argitalpenak erraztuko zizkieten baimena eskuratzeko arazoak eduki zituzten urte horietan (Guerra 2003) Hauetaz gain, *Euskaltzaindiak* argitalpen gutxi batzuk egin zituen euskaraz, besteak beste, *Txillardegiren Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eleberri berritzailea.

Grafikoa 2. 1953-1963, argitaletxeen espazio soziala



1.2.3. EUSKARAREN KULTURBIDEA

Liburuei erreparatzea ez da aski orduko kultura esparruaren gaineko irakurketa bat egiteko. Obren harreran eragin zuzena zuten aldizkarietako kritikei erreparatuko diet horretarako. Koldo Mitxelena eta Manuel Lekuona euskaltzainak ziren kritika gehien *Egan* aldizkaritik idazten zituztenak. Biak ziren euskaltzainak eta filologian adituak, baina hala ere biek Euskaltzaindiako joera bereziak ordeztzen zituzten: Mitxelenak euskal literaturaz idatzi zuen erruz –Villasanterekin batera garaiko lehen *Euskal literaturaren historiak*–, Lekuona ahozko literaturan aditua zen bitartean. Arestik euskal literatura tradizioa deskribatzeko erabili zituen kategoriak mailegatuz (Aresti

1986k), Mitxelenaren *kulternismoari* Lekuonaren *populismoa* kontrajarri dakiok. Lehenak euskara kultura unibertsalaren komunikazio-tresna gisa erabili nahi bazuen, eta horregatik literaturaren genero komunikatibo goren eta modernoenean arituko zen zorrotzen, eleberrian hain zuzen ere (Egaña Etxeberria 2013, 200–201). Bigarrenak, ordea, herri-euskararen bilatuko zituen sustraiak, euskal kulturaren jatorrizko adierazpidean. Horretan, noski, balizko euskal jatorrizko nekazal inguruneari lotutako komunikazioa hobetsiko zen, *euskaldun-fededun* iruditeriarekin bat.

Oposizio hau euskara ereduaren gaineko posizio-hartzeetara itzuliko zen. Honetan *populismoak* joera garbizalearen alde egin zuen, euskarak berezkoa zuen unibertso kulturala ulertzeko tresnak zituen eta unibertso kultural arrotzen eragina erauzi beharra zuen. Kontrara, *kulternistek* garbizaleek mordoilo gisa batailatu zuten euskararen alde egingo zuten, unibertso modernoa barneratzeko euskarak hitzak mailegatu behar zituelako gainerako hizkuntzetatik. Hala ere, bi joerek kale egin zuten herri-hizkeraren eskriturizazioari begira, honela uler daiteke Auspoak aurrez aurre eduki zuen arazoa: bertsolaritza izango zen herri-hizkeraren adierazpide bakarra –Lekuonak bereziki bultzatu eta landu zuena–. Euskara idatzian ezindu sentitzen bazen ere, bertsolaria ziur ibil zitekeen bertsotan genero-literario propio bat haragitzen zuelako. Honela, Gipuzkoako lehen txapelketan, 1959an, bertsolariak epaimahaiak eskatu zieten bederatzi puntukoa kantatzeari uko egin zioten, nolabait literatura generoen *forma* lanketaren estetizazioari uko egiten zieten, bertsolaritza-generoaren ohizko joera ezarriz:

“Batetik bertsolaria dago, bere helburu nagusia, esan bezala, entzuleen artean emozioen bat sortzea da. Bestetik, lehiaketaren antolatzaileak, ikasiak eta ilustreak, hauek, dirudienez, bertsolaritik berarentzako bigarren mailakoa den zeozer atera nahi diote: testu landu, zail eta, ahal bada, bikaina. (.../...) Bertsolarismoan bere esentziari ez dagokion zeozer bilatu nahia etengabekoa izan da bertsolaritzaren historia hurbilean.”(J. R. García 2000, 444)¹⁴

¹⁴ “Por una parte está el bertsolari, cuya única meta es, como hemos dicho, ser eficaz, es decir, provocar alguna emoción en los oyentes. Por la otra parte, los organizadores del ceramen, gente letrada e ilustre, que, por lo visto, desean extraer del bertsolari algo qe al mismo tiempo

Mitxelenaren eragina handituz joango zen euskal literatura esparruan, berak plazaratutako *Historia de la literatura vasca* (1960) izango zen “euskal literaturako lehen historia oso eta sistematikoa” eta 1958tik Salamancako Unibertsitateko Larramendi katedratik, euskal kulturako unibertsitate-frakzio berrien aitzindari eta sustatzailea izango zen (Egaña Etxeberria 2013, 202–203). Mitxelenak belaunaldi berriari bidea irekiko zion eta euskara idatziaren erdigunean kokatuta ezarriko zen *euskara batua*, euskara idatzian soilik atzeman litekeen *h*-ak erabiliko zituena. Manuel Lekuonak, ostera, ahozko euskaran ezer gutxi aporta zezakeen *h-ren* kontra oldartuko zen.

Noski, urrun gaude euskal kritikagintza autonomo eta profesional batetik, beraz kritiko gehienak idazle ere badira. Agian, honetan ere Lekuona, Mitxelena eta Villasante ziren salbuespen, idazle gisa ari zirenean kritiko edo ikerlari gisa ere ari zirelako euskal literaturaren gainean.

Eleberria kapital sinboliko gehien pilatzen zuen generoa izanda, *Txillardegia* izango zen iruzkin gehien jasoko zituena, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957, Euskaltzaindia) eta *Peru Leartza'ko* (Itxaropena, 1960) liburuek bazterrak astinduko zituzten. Batetik, *Leturiarena* lehen eleberri modernotzat hartua izan da, auzi existentzialak tartekatzen zituelako, nolabait Mendebaldeko literaturarekin homologa zitekeen obra idazteagatik (Aldekoa 2008, 252; Olaziregi Alustiza 1999, 523) edota ordura arteko eleberri kostunbristen artean, lehen pertsonaien nobela izateagatik (Sarasola 1971, 87–89). Bestetik, bigarren liburua euskaraz idatzitako liburu batek iruzkin negatiboak jaso zituen lehena izan zen –hurrengoa, noski, *Harri eta herri* izango zen– euskarazko obrekiko testuinguru oso konplaziente batean, eta nondik eta bizirik zirauen gerra aurreko euskal poeta kanonikoaren aldetik: *Orixek* kritika zorrotza idatzi zion *Jakin* aldizkarian, haren “filosofia ustelarekin” liburuak gazteei eragin ziezaiekeen kaltea salatzen zuen. Objekzio filosofiko-moralak filologikoei gehitzen zitzairen kritika hartan (Ormaetxea 1960).

al bertsolari le resulta secundario: un texto elaborado, dificultoso y, a poder ser, brillante (.../...) Esa pretensión de encontrar en el bertsolarismo algo que no corresponde a su esencia ha sido permanente en la historia reciente del bertsolarismo. Aunque no todos sus efectos han sido negativos, ha producido tensiones quizá innecesarias.”

Euskal literatura esparruaren autonomia-ereduen gaineko ika-mikan kokatu behar da obra hau, Orixeren *Euskaldunak* (Itxaropena, 1950) liburuaren antipodetan. Azken hau euskaldunen nekazal-komunitatearen idealtasunaren elegia bazen, zeinetan moral garbitasuna euskara garbitasunarekin bat egiten zuen (Azurmendi 1976), Leturiarena *mordoiloa* zen guztiz: atzerriko filosofiek eta hiri-bizitzak kutsatutako edukia, euskara mordoiloaren forman. Hasieran aipatu dudan *forma* eta *edukiaren* arteko banaketan sakondu egiten zuen obra da, Arestik euskal literatura zaharraren gaineko kategoriak erabiliz: *Orixeren* joera *populistak* morala eta euskara elkarrekin nahi zituen bitartean, *Txillardegiren* joera *kulturnistak* atzerriko edukiak –“unibertsalak”– ekarri nahi zituen euskararen formara. Gerraondotik abiatu berri zen euskal literatura esparruaren autonomiaren afera agertu egin zen aurrenekoz.

Kritikak alde batera utzita eta bi ardatzetako grafikora bueltatuz, autore nagusiak espazio sozialean koka litezke. Okupatu zituzten posizioak haien obrak genero, hizkuntza, aldizkarietako aipamen eta argitalpen zenbakiaren arabera dira. Hala ere, ohar bat egin beharra dago: autoreak batazbesteko posizioan ageri dira, zentzu horretan, asko eta era askotako liburuak publikatzen zituztenek posizio zentralagoa edukitzeko joera edukiko dute.


Lehen aurreratu bezala, bereziki baloratuak ziren obra klasikoak, aipatutako Mogel, Txomin Agirre eta Axularren joera goranzkorra da horren lekuko. Horretaz gain, lehen aipatutako Txillardegiren eleberriak eta *Amabost egun Urgain'en* (1955, EFA) eleberri polizialkoa zeuden euskal kultura esparruko produkzio murriztuaren baitako errekonozimendu gehienarekin, *formaren* eskualdearen baitan alegia. Edukiaren eskualdeari dagokionez, ostera, Jorge Oteiza eskultorea dago puntu gorenean Añamendik argitaratutako *Quosque tandem...! Ensayo de interpretacion del alma vasca* (1963). Bereziki esanguratsua da obra eta pertsonaia hau euskal kulturako definizioaren gaineko norgehiagokan.

Bertan, *euskal estiloan* topatuko zituen euskal kulturaren sustraiak, basati alaiaren bertsio berri bat eskaintzen zuen: euskaldunek beren osotasun estetikoak eskuratu zuten paleolitoan, baina kultura latinoak ahaztuarazi egingo zien. *Euskal estilo* hori topatuko zuen bere eskulturen forman eta proiektu artistikoa amaitutzat emanda, oraingoan euskal kulturaren edukia zen lantzen zuena. Oteizaren meritua, joera

populista eta *kulternisten* arteko sintesia bilatzean datza, baina horretarako *euskal estiloaren* metafisikan murgildu zen. Zentzu horretan, ez da harrizkoa ahozko literatura generoarengana jotzea. Topologia honi jarraituz gero, mugimendu diagonal egiten du, *Auspoa* argialetxeak argitaratu ohi zituen bertsolaritzan topatzen du lurpean gordetako kromlecha bezalaxe, euskal arima zaharraren erakusgarria:

Baina koherentzia ematen bazaigu denborazko, entzumenezko trataera subjektiboaren bidez, orduan artelan bat da euskal tradizioaren barruan (artista ez dago jada artearen barruan, bere ondorio artistikoa lortu du eta orain bere estiloa da bizitzatik egiten duela): hauxe de *bertsolariaren* gaia, argitasuna, koherentzia, bere poesia ez baitator bertsotik, gehiago dator kantutik eta ez da kantatu ere, kantatu izpiritual da, barneko ahotsa, barneko denbora, buruko denbora. Gure *bertsolaria* bere herri eta kultur isolamenduan, gure barneko kultur egiaren agerpen garbien eta koherenteena da. (Oteiza 2007, 545–546)

Grafikoa 3. 1953-1963, autoreen posizioak espazio sozialean



Zentzu horretan, Oteizak kontra egingo zion hurrengo garaietan zertuko zen euskara batuari, honakoa artifiziala suertatuko zaio ahozko tradizioaren aurrean (Oteiza 2003,

132). Pio Baroja eta Unamunoren tradizioa aldarrikatuko zuen euskal estilo bati begira: idazkera eta pentsakera dira euskal estetika definitzen dutenak, eta ez horrenbeste hizkuntza bera. Ugarteren ustez, Oteizak mito estetikoak fundatu egiten du liburu honen bitartez (Ugarte 1996, 176).

Lehia horren lekuko da urte berean Muxikak *Zeruko Argian* argitaratu zuen artikulua, bertan Unamuno, Xabier Zubiri eta Baroja euskal idazle ote ziren erantzuten saiatzen zen (Muxika 1963). Haiek euskal kulturaren zenbait aspektu adierazi izana ez zuen dudatan jartzen, identitatea, ideologia eta pentsamenduari dagokionez, baina hizkuntza arrotz batean, erdaraz, egin zuten. Euskal kulturaren adierazpen osoa izateko euskaraz adierazi behar zela gaineratuko zuen: euskarak kulturaren espresabide izan behar zuen, *kulturabidea*, hain zuzen ere. Kontrako joeran kokatzen zituen *Orixe*, *Lauaxeta* eta *Lizardi*, euskararen *kulturabidean* saiatu izan baziren ere, unibertsalaren adierazpena falta izan zitzaien haien literatura lanei.

Konformatzen ari zen euskal literatura azpiesparruaren barru eta kanpoaldeek bi mugarri hauen inguruan definituz joango dira: *kulturbidea* eta *erdara*. *Erdara*, euskaraz idatzita ez dagoen hura kanporatzerakoan –Unamuno, Baroja eta Zubiri–, eta *kulturbidea* unibertsala adierazteko beharragatik *Lauaxeta*, *Orixe* eta *Lizardi* kanporatzen dituenen. Honakoa, hurrengo urteetan ezarritik joango zen joera dugu, *Aitzolek* euskararen balio indartze aldera, aranismoa berrinterpretatu egin bazuen ere, euskarak komunitate-loturarako tresna izaten jarraitzen zuen, praktika estetiko eta zientifiko *unibertsalerako* tresna baino:

Hizkuntza baten helburu nagusia ez da zientziaren goi-enuntziatuak zabaltzea, ezta sorkuntza artistikoaren filigrana estetikoak ezagutzera ematea ere. Hizkuntza baten oinarri-oinarrizko helburua herri baten lotune eta adierazpenerako balio izatea da, kolektibitate etniko batena hain zuzen ere.¹⁵ (Jose Ariztimuño «Aitzol» in Tejerina Montaña 1992, 110)

¹⁵ “La finalidad primordial de una lengua no es difundir los elevados enunciados de la ciencia, ni revelar las filigranas estéticas de las creaciones artísticas. El objeto, fundamentalísimo, de un

Garai honetako saiakera lanik inportanteenak ere gai bera jorratzen zuten. Salvatore Mitxelena *Iñurritzak Unamuno ta Abendats* (1960, Darracq) saioan Unamunoren pentsamenduaren analisia egiten zuen, euskal kulturaren egoeraren gaineko paralelismo eta harremanak ezarriz. Unamunok euskal edota espainiar kulturaren osatzen zuen ondarearen gainean, euskal literaturaren zereginak perfilatzen zituen: Unamunoren orokortzeko joerari, *euskal arimaren* garapenari trabak ipintzen zizkion euskarazko idazketa arbuiatzen zuen, euskaltzaleen singularitasunerako joera kontrajarriko zion, zeinak literatura unibertsalarekin homologa litezkeen obrak idazketa arbuiatzen zuten.

Bitartean, indartuz joango zen eragile berria agertu egiten da: ETA. Aranismoarekin egingo zuen apurketan, euskararen izaera definitzailean indartu egingo zuen –*Txillardegi* zegoen fundatzaileen artean–. Norabide horretan joan zen euskal kulturaren edukien mito fundatzaile berria, *Quosque tandem* urte berean Federico Krutwigek Fernando Sarrailh de Ihartza ezizenez argitaratu zuen *Vasconia* (1963), aukeratutako laginak analisi estatistikoan alboratzera eramanez ere (ikus 0.7.2. Argitalpenen espazio soziala, 54-59. orr), bere oihartzunagatik aipatu beharrekoa, nazioa fundatu eta nazioan funditu egiten baitzen egilea (J. Juaristi 1997, 291).

1.2.4. ARESTIREN LEHEN IDATZIAK

Arestik aldi honen hasieran egin zuen bat Bilboko gune euskaltzale nagusiarekin, Labaien eta Irigoien bitartez Euskaltzaindiako egoitzara joaten hasi zen 1953an. Urte hartantxe joan ziren hirurak *Orix*e maisuaren bila, Hegoameriketako erbestetik bueltan zetorrela (Zelaieta 1976, 16). Lau urte beranduago euskaltzain urgazle izendatuko zuten. Garai horretan ere argitaratu zituen bere lehen poemak (Aresti 1954a; 1954b) *Euzko-Gogoa* aldizkarian. Bertan egingo zuten topo aurrenekoz hiri ezberdinetan isolatuta zeuden idazle gazteak, hauexek izan ziren hausturaren belaunaldiaren lehen hastapenak (J. Juaristi 1987b, 108–109). Hala ere, ez zuten Zaitegi eta *Orixerekin*

idioma es el que éste sirva de lazo de relación y expresión de un pueblo, de una colectividad étnica.”

batera luze iraungo, handik gutxira *Egan* izango zen belaunaldi horren adierazpide nagusia.

Gabriel Aresti 1933an jaiotako zen Bilboko Barroeta Aldamar kalean, bere burua “euskaldun galdutzat” zuen bere gurasoen belaunaldian, Bilboratzearekin batera, euskara transmisioa galdu baitzen. Bilboko Merkataritza Eskolan merkataritza-peritu ikasketak egin zituen. 1956an Compañía Vasco Africanan hasi zen lanean, zamen kontrolatzaile gisa. Bitartean, euskara ikasteari ekin zion bere kabuz (Zelaieta 1976, 6–14). Aurrerantzean, enpleguz aldatuko zuen etengabe, euskara landu eta idazteko tarterik handiena atera nahiean. Aita frankista bazuen ere, hasieran *Euzko Gaztediren* inguruan ibili zen, baina gutxira suertatuko zen haustura, nazionalismo burgesari uko egingo zion. Honetan bere eragina izan omen zuen zortzi euskal abizenik ez zuen Meli Esteban leondar jatorriko emakumearekin maitemindu izana (Kortazar 2003a, 42-44).

Eganen argitaratuko zituen Arestik bere *Bizkaitarrak* (Aresti 1959a; 1959b; 1960c) eta hantxe bertan emango zuen aurreko belaunaldiaren sinesmenen erlijioso eta ideologikoen hausturaren berri (J. Juaristi 1987b, 116–117), bertsolarien erritma herrikoietik abiatuta. Gero garatuko zuen ahots poetikoaren elementu nagusiak ageri dira poema honetan: gizarte kritika, bereziki euskal kultura eta nazionalismoarena; krisi erlijioso, erretolika erlijiosoarekin batera, Jainko urrunari erreferentzia eginez; esperientzia pertsonala nahastu egiten duen “ni” poetikoa; “otso bakartiaren” izaera; mendi eta baserrietako paisaia idilikoa (Kortazar 2003a, 56–58).

Hala ere, oso bestelakoa izango zen Euskaltzaindiaren Loramendi Saria jaso zuen *Maldan behera* (1960e). Ez da kasuala lehen euskal literatura esparruan euskara ereduak bitan banatzeko erabilitako kategoria horiek –*kulternista* (sic) eta *populista*– Arestik beranduago erabili izana (1986k). Lehen Arestik erabili zituen kategorietara jo badut, euskara batuaren konformazioan izango zuen domeinuak gaur egunetik garaia aztertzeko bere ikuspegia erabilgarria delako izan da. *Habitusaren* bitartez uler daitekeen domeinua da honakoa (Bourdieu 2006b, 170–171). Egitura egituratzaile gisa, literatura tradizioaren pertzepzioa antolatzen du habitusak eta, honekin batera, Arestiren idazketa-praktika orientatu egiten du. Egitura egituratu gisa, esparruan okupatzen zuen posizioari zor zaio, besteekin batera, suspertzen ari zen belaunaldia, gero dominantea izango zena. *Harri eta herri* osatu aurretik ildo kulternista zein

populista esploratuko zituen, bi ildoak gainditzeko prestatuz. Kortazarrek honela deskribatzen ditu bere lehen poemak:

Izaera esperimentaleko poemak dira, formari zein hizkuntza ereduari dagokionez, herri-lirika edo lirika kultuaren artean aukeratzeko aparteko dudarekin kulunkan. Honela, adibidez, Eliot eta J. P. Sartreri egindako erreferentziak kultuak dira, baita titulu eta irudikapen sinbolikoak ere, baina bere lehen poemen tonu-erreferentziek *Kopla zaharra* deitutakoari erreferentzia egiten diote. (Kortazar 2003a, 54)¹⁶

Ildo populistari ekingo zion *Bizkaitarrak* osatzeko orduan. Oteizaren tesietatik oso gertu, Arestik bertsolarien artean topatuko zuen euskal literatura tradizioz sendoena, *Basarri* bertsolariarekin *Zeruko Argian* eduki zuen eztabaidan:

Artikulu labur honetan gauza bakar bat esan dezaioket Basarri, bertsolariak ere poetak direla, poeta baserritarrak, (nire lagun on batek dio bertsolariak direla egiazko poeta sozial bakarrak) eskolarik gabeko poetak, baina nire iritzian euskaldun poetarik hoberenak, olerkari guztiak baino hobeak. (Aresti 1963)

Bi espazio sinbolikoetatik idazten zutela onartzen zioten elkarri, Arestik *Nire ofcinatik* epigrafea erabiltzen zuen bitartean *Basarrik Nire bordatxotik* epigrafea erabiltzen zuen. Honetan, *Basarrik* agertzen zuen bi espazioen artean ematen zen paradoxa:

Bi “premio irabazitako poeta bat”, bertsolariak bezelako poetarik eztagola esaten, eta inoiz poeta izan eztan eta izango eztan bertsolari apal bat, euskal poetak beren tokian jarri asmoz. (Eizmenditar 1963)

¹⁶ “Son poemas de carácter experimental, tanto en la forma como en el registro lingüístico, con un balanceo, con una especial duda entre optar por el camino de la lírica popular o por el de la lírica culta. Así, por ejemplo, las referencias a Eliot o a J. P. Sartre son cultas, así como las de los títulos o representaciones simbólicas, pero las referencias tonales del primero de sus poemas hacen referencia a la llamada *Kopla zaharra*.”

Basarrik poetek euren bide propioari eutsi behar ziotela esango zuen bitartean, Arestik euskal poetek bide zaharrak iragan behar zituztela esango zion, bide berriak ibili aurretik. *Bizkaitarretako* igaroaldia izango zen hori Arestiren kasuan, handik gutxira *Maldan beherak* beste ildoari ekingo ziolarik.

Ildo kulternista, hain zuzen ere, *Maldan beheran* tradizio sinbolista eta postsinbolistako metrikak zerabiltzalako (J. Juaristi 1987b, 122), “poema zaila” zelako *Bizkaitarren* aldean (Aldekoa 1998, 438) eta Mendebaldeko goi-literaturazko erreferentziaz josita ageri zelako –T S Eliot, Nietzsche, besteak beste–. Euskara batuaren aitzindaritzat jotzen da aho batez *Maldan behera*, batasunaren aurretik, eta neurri handi batean euskara batua ildo honi lotuta egon zelako, ezin da ahaztu Arestik aurretiaz Verlaine (Verlaine 1954), Baudelaire (Baudelaire 1954; Baudelaire 1957a; Baudelaire 1957b), Juan Ramón Jiménez (Jimenez 1955) edota T S Eliot (Eliot 1983) itzultzen aritu zela.

Edukiari dagokionez, *Maldan beherak* Zaratustraren supergizonaren eredua jarraitzen du, honek Jesukristoren eredua jarraitzen duen bezalaxe. Euskal gizartearen eboluzioa du abiapuntu (Sarasola 1971, 63-77; Kortazar 2003a, 60-62), zentzu horretan, liburua *Vasconia* eta *Quosque tandem* zein *Arantzazu: euskal sinesmenen poema* eta *Euskaldunak* obren parean koka liteke: mito berri baten beharra dago eta bakoitzak mitema ezberdinen inguruan osatu nahiko du mitoa. Bere ildo propioa zabalduz, hurrengo idatzietan erabiliko zuen “iruditerien museoa” sortzen hasi zen (Kortazar 2003a, 64–66). Horretarako Baroja eta Barandiaranen euskal kulturaren gaineko ikerketak jarraituko zituen (Arkotxa 1993, 90). Bestela esanda ere, *Maldan beherak* dei berbera jarraitzen du, Sarasolak aztertu bezala, erreferentzia kriptografikoa egingo dio euskal literaturaren bilakaerari, obra *Hariztia*, *Lizardia*, *Loramendia* eta *Iratz ederra* ataletan bereiztuz (Kortazar 2003a, 60-62). Bilakaera horretan, inguru hiritar eta industrialera eroriko zen euskal gizartea, Juaristik infernurako jaitsiera gisa definitu du bidaia:

Alde batetik, Arestik «munduan erorketa» sahiestezina igartzen du; bestetik, kosmobisio tradizionalari lotuta dagoen moduan egonda, hori onartzeari uko egiten dio. *Maldan beherak* krisi bikoitza islatzen du: poeta berarena eta euskal gizartearena –edo, agian, zehatzago, euskal

komunitate nazionalistarena– berrogeita hamar hamarkada bukaeran. (J. Juaristi 1987b, 118)¹⁷

Haustura partziala da, beraz, *Maldan beherak edukien* arloan egiten duena: infernu hiri-industrialaren etorreraren berri ematen du baina naturako metaforak erabiltzen ditu, hiri-metaforen kaltean. Hala ere, desagertzen ari den euskal komunitate horri tresna baliagarria eskainiko dio: kultura modernoaz aritzeko egokia den euskara batua.

Zuzenbide debekatuarekin ildo berri bati ekin zion Arestik, oraingoan ez zen saritua izan eta “Lizardi-saria irabazi etzuen poema” gisa argitaratu zuen *Eganen* (1961d). Mitxelenak aurkeztutako hitzaurrean bertan poesia sozialtzat hartuko zuen obra:

Aresti'ren poema egungo gizarte-poesia edo poesia sozialaren bideetan barrena dabil (gogora, esaterako, Figuera, Aragon, Nezval, Hikmet) eta eztitu, beste apaingarririk artzen badu ere, erriaren izkera eta jazkera gutxien, ezpailukete bospasei irakurle ikasirentzat bakarrik ari nai. Dei berri bat Dakar berriz ere, zorionez, euskal-idazle gazte batek eta geure kaltean egingo genioke entzungor zaaragoek, entzungor egin bagenizaio. (Koldo Mitxelena in Aresti 1961d, 10)

Maldan behera eta *Harri eta herriren* bitartekari gisa hartua izan da obra hau, Arestiren bilakaera bi arotan banatuko den neurrian: aro sinbolista eta aro soziala (Kortazar 2003a, 60–62) Hala ere, *Zuzenbide debekatua* saritua suertatu ez zenean, poesia idazteari uztekotan egon zen eta hala jakinarazi zuen *Jakinen* eskela moduan argitaratutako *Azken poeman* (1961a; Azurmendi 1991, 140).

Lehen urte hauetan, narrazio ugari argitaratu zituen Arestik *Eganen: Umezurtz aberatsak gabonetan jokatu nahi* (1957), *Olerkaria* (1959c), *Abertzalea* (1960a), *Andre Madalen enamatua* (1960b), *Gure eguneroko beharra* (1961b), *Jainkoa jaio da*

¹⁷ “Por una parte, Aresti siente esa «caída en el mundo» como inevitable; por otra, apegado como está a una cosmovisión tradicional, se resiste a aceptarlo. *Maldan behera* refleja una doble crisis: la del propio poeta y la de la sociedad vasca –o, quizá, más concretamente, la de la comunidad vasco-nacionalista— a finales de los cincuenta.”

Otxarkoagan (1962b)¹⁸. Sarasolak idazkeraren berritasuna azpimarratzen du, garaiko narratiba zahartzaleen aldean (Ibon Sarasola in Aresti 1986l, 165-166). Poesiari eusten zion bitartean, antzerkigile ibili zen ere, baina bere obra gehienak hurrengo epealdian argitaratu zituenez, bertan aztertuko ditut.

Ipuin gehienek eskenatokiak auzo eta herri ezberdinen arteko kontrasteak osatzen dira, bertan agertzen dira aurreneko langile auzoetako miseriak: Arnotegi, Zorrotzaurre, Otxarkoaga, Santurtzi, e.a. Eskaintzen duten berritasun nagusia, auzo horietan barneratu egiten diren pertsonaiak ageri direla, aurreko euskarazko ipuin eta eleberriak baserri giroetara –Txomin Agirre– edo iraganera –Martin Ugalde, Jon Etxaide– jo zuten bitartean, (Sarasola 1971, 74-78) joera honekin apurtu zuten *Txillardegia*, Mirande eta Saizarbitoriak (*Egunero hasten delako*) ere atzerrira jo zuten hiri-giroa euskaraz islatu ahal izateko, erdal hirietan euskararen arrotasunak ematen zion sinesgarritasun faltari aurre egiteko (J. Juaristi 1987b, 113–116).

Hala ere, narrazioetan gizonezko burgesaren ikuspegia da nagusi, gainera korapiloan beste funtziorik ez badu ere, literaturazale eta euskaltzalea da. *Jainkoa jaio da Otxarkoagan* Oihenarten aipuak erabiliko ditu bere burua zuritzeko. Euskal literatura ideologiaz –zentzu marxistan– josita dagoela, alegia. Ikuspegi eta tonuan *Harri eta herrin* erdituko zuen bidea asma liteke.

Horretaz gain, euskal literaturari buruzko hainbat artikulu eta hitzaldi eman zituen, lehen aipatutako bertsolaritzaren gaineko eztabaidaz gain, Barrutiaren *Gabonetako ikuskizun* zaharraz (1959d) zein antzerki gaurkotu baten beharraz (1962c), euskarazko (1960f) zein gaztelaniazko (1960d) poesiaren gainean. Literatura eguneratu baten beharra ikusita, genero ezberdinetan jokatuko zuen Arestik. Bestela ere esan liteke: apustuak egin zituen genero ezberdinetan, bere euskara ezagutzari zein edukien berritasunari errentagarritasuna aterako ziolakoan:

¹⁸ Hauek argitaratu aurretik narrazio labur batzuk ere idatzi omen zituen: *Prélude a la musique de la dance*, *Haserre-dantza*, *Urkatuaren oinetara: ez ziren argitaratu, lehen garaikoak dirudite* (1986l, 41–49). Aipatutakoetaz gain, *Mundu-munduan* nobela laburra argitaratu zuen beranduago (1965).

Ipui hura, nik eskribitzen ditudan gauza guztiak bezalaxen, etzen gauza haundia, baina euskeraz zein gauza apurra eta gehienetan balio-gabekoa eskribitzen den ikusirik, eztut uste lotsatu beharrik daukadanik. (Aresti 1960f, 150)

Zuloak betetze beharrak ere euskalgintzan aktiboki lan egitera eraman zuen, Euskaltzaindian besteak beste. Honetan ez da salbuespen, idazle zaharrak euskaltzain ziren –*Orixe*, Irigarai, Labaien, Lekuona, *Basarri*– eta berriak hamarkada honetan egingo ziren euskaltzain –*Mirande*, *Txillardegi*, San Martin, Krutwig, Aresti bera–. Zentzu horretan, euskalgintza eta euskal literatura hertsiki lotuta zeuden. Horregatik diot euskal literatura euskal kultura esparruaren azpiesparru gisa ari dela, idazleak euskal kulturako instituzio gorenetan ari direlako idazketaren oinarri den hizkuntzan lanean.

Beraz, Aresti euskal kulturaren hutsuneak betetzen ziharduen literatura-arloan, beraz euskal kulturako ekintzailea da literatura-ekintzailea baino. Eta hala ere, poetatzat dauka bere burua: honela atzematen du behintzat *Maldan beherak* Lizardi saria jaso zuenetik, Basarrirekin edukitako eztabaidan edota *Poesia eta euskal poesia* hitzaldian, “poeta naiz” adierazten duenetik (Aresti 1960f). Poeta identitatetik abiatuko zuen bere euskalgintza. Honetan euskal pizkundeko poeta nazionalen irudiaren jarraikortasuna atzeman daiteke: poesiatik abiatzen zuen kultura eraberritze-prozesua.

Hitzaldi horretan “mandatua” izango zen bere poesiaren posizio-hartzeak artikulatuko dituen hitza, *mandatua* dakarren poesia izango zen benetako poesia. Batetik, “forma” eta “funtsaren” arteko oposizioa dugu, atal honetan aztertutako forma eta edukiaren ardatzaren analogoa da. Lekuona da formaren adibide, berak idatzitako poemek duten “musikalitate” handiagatik. *Otsalarrek* –Juan San Martinek, ordea, funtsa menperatuko zukeen, “zerumuga zabalekoa” baitzen berak idatzitakoa. Arestiren poetikara itzulita, forma bertsolariek utzitako ondarrera bueltatuz landu liteke –Lekuona, ahozko literaturan aditu– baina funtseko gaiak jorratuz, hau da, “gizonen egia” kantatuz –Juan San Martin, berrikuntzaren belaunaldiaren kideko–, poetak “forma” eta “funtsa” ezkondu behar ditu.

... euskal herrietako bertsolaririk habilena izanen da, giza-legez beterik euskal jakituriar horniturik, inungo bertsoak botako ditu, eta hala ere gerta liteke poeta eztena. Zergatik? Mandaturik ezta karraleko, barnean poematikarikan ezta amalako. Hori da hitza: Mandatua. Nundik eta norako mandatua. (1960f, 151)

Funts eta formaren arteko ezkontza horretan, tresna egokia litzateke euskara, Unamunok zioenaren kontra¹⁹. Orain artean ez bada egokia izan, euskaldunek erabiltzen jakin ez dutelako izan da, euskara-forma funts eskaseko egiak botatzeko erabili izan direlako –eta honetan, berriro ere, zenbait bertsolari izan dira salbuespen–. Are gehiago, Arestiren mandatuaren hizpidea da euskara:

Euskera nire pentsamentuen bidetzat hautatu baldin eta badut, horregatik izan da, erreztasun haundiagoa ematen didalako, nire mandatu apurra adierazteko. (Aresti 1960f, 166)

Bestetik, “mandatuak” uko egin beharko lioke *mundu honetako* ordainsariei, *poeta outsiders* da mandatua dakarrena eta ez *poeta laureatusa*, bere poesiak ez duelako jendearen gustuko izan nahi, poeta higuindua izango da bere burua saltzen ez duelako:

Pertsegitua izanen da, harmaz ezpada, orduan gezurrez edo bortxaz, edo lausenguz, baina mundo honetatik aparte egonen da, zerren kantatzen dien gizonak ezta dukaten entzuteko belarririk, ezta dukaten, konprenitzeko bururik, eta entzun eta konpreni dezaketen eguna datorrean, orduan ezta premiarik (Aresti 1960f, 162)

Zeri jarraitzen dio baina Arestik, euskal kulturaren mandatuari ala euskal literaturaren mandatuari? Euskal kulturaren egon behar duen iraultzaren berri ematen digu, baina bere poeta-gorputzaren bitartekaritza. Gizonen egiarekin bat datozen edukiak (*funtsa*) erabili beharko ditu euskara (*forma*) goldatzeko. Euskaraz jokatu duela dio, poesiatik egingo du apustua mandatu hori betetzeko. Oteizaren *euskal estiloak* bizitza sozialeko esparru ezberdinak

¹⁹ Honako poema hau aipatzen du: “Recreador de la lengua / Anapoeta serás / Quien librándola de mengua / Su caudal conservará”.

subsumitzen bazituen –erlijioa, artea, politika, e.a. Arestik *egian* bilatuko zuen poesiaren funtsa, mandatua, horrek abiatuko zuen euskal kultura esparruaz haratago, oso maiz, bertan ezarritako definizioen kontra.

1.3. 1964-1973: HAUSTURAK

Aldi honetan aurrekoan abiatutako transformazioa indartu egingo zen. Kategorien arteko korrespondentzian zenbait aldaketa ematen badira ere, nahikoa mantentzen da ardatzen egitura aurrekoaren era analogoan aztertzeko, baina ardatzen baitan ematen diren zenbait aldagaien desplazamenduek joera batzuk adierazten dituzte. Lehen dimentsioak bariantzaren 30%a azaltzen du, oraingoan ere hizkuntza eta generoa islatzeko gaitasuna du batik bat. Genero kategorietan suertatutako posizio-aldaketek *forma* eta *edukiaren* arteko oposizioa agerikoago bihurtzen dute, Euskal Herriko gaiak eta poesia bi muturretan kokatuz. Genero ezberdinek ardatz honetako segidan zuten posizioaren arabera multzoka litezke *forma* eta *edukiaren* arteko oposizioa jarraituz. Euskal Herriko gaiak eta euskal filologia –epelago– euskal kulturaren edukia definitzera zetozen, aurreko aldi bezala. Erdibidean forma historia baten menara ipintzeko trebezia erakusten duten generoak –eleberria, ipuin eta narrazioak–, erlijioa gaitzat duten liburuak. Poesiatik gertu samar, ostera, hizkuntza-forma bera eduki gisa duten generoak –euskara eskuliburu eta hiztegiak, euskal literatura eta klasikoak– eta plaza edo taulan zertzen diren genero literarioak –antzerkia, bertsolaritza– ageri dira. Kontrako muturrean, Jakobsonen komunikazio-funtzioen klasifikazioan faktore dominantea mezuaren forma bera duena, poesia bera.

Euskal mugimendu antifrankistaren hegemonia eskuratuz zihoan ETAk hizkuntzaren zentraltasuna erabiliko zuen nazionalismo tradizionala birformulatzeko (Tejerina Montaña 1992, 121), baina euskal kultura euskararekin berdintzen zen arlorik bazegoen, hura literatura zen. Euskal literatura azpiesparrua gero eta tinkoago definituago dago *forma* lanketa horren lanabesa euskara izanik. Lehen aipatutako euskaraz idazteko autoexigentziari, euskal literaturaren definizioaren zaindari ibiliko dira idazleak. Juan San Martinek, kasu, honela definitzen zituen Unamuno, Zunzunegi,

Maeztu, Baroja eta erdaraz idatzi zuten eta euskal kulturako ondaretzat hartzen ziren horiek:

Haiek vascoak ziran (V ta Ogaz) izen trixte ta eskasa benetan, euskaldun izen oso ta ohoregarria eduki ahal zezaketenentzat. Kanpoan zuten burua ta biotza ta etxera zetorkiguzanean negar faun eta herrimiñezkoa ixuri, geure herstasunagatik. (Kintana 1967)

Aurreko aldian azaldutako eztabaida errepikatzen zen, ondare berbera abiapuntu hartuta. Anjel Lertxundik Barojaren euskaltasunaren gaineko eztabaida berriro ipiniko zuen mahai gainean (Lertxundi, 1972). Baiezkoan zeudenak, Oteizaren *euskal estilotik* abiatzen ziren, euskal kulturako *edukien* eskualdean kokatzen ziren –Arteche, Pelay Orozco, Aizarna, Pilar de Cuadra–. Ezezkoan zeudenak, osterā, hizkuntza zela euskal kulturaren ardatza, euskaraz idazteko autoexigentzia zorrotz betetzen zuten horiek, euskal kulturaren *formen* eskualdean kokatzen ziren –*Txillardegi (Larresoro)*, Kintana, *Jakineko* kideak–. Lertxundik ez zuen inoren alde jokatzeko baina literaturari zegokion eztabaidan Oteizaren tesiak defendatzeko zailtasunak onartzen zituen:

Ni ados nago Oteizarekin Barojak euskal estiloa duela frogatzeko erabiltzen dituen argumentuekin. Bainan Oteizak bere intuizioa ez du literaturan bertan finkatu, artearen gainontzeko mailetan baizik. Eta gainontzeko maila hauek ez dute hizkuntza baten beharrik. (Lertxundi, 1972)

Garai honetan argia da euskal kultura esparruko bi eskualdeen eta *euskaltasunaren* arteko posizio-hartzeen korrespondentzia. Baina hala ere esparru berebanean ari ziren oraindik biak, eta horren lekuko izan zen 1965ko azaroko Durangoko Euskal Disko eta Liburu Azokaren lehen edizioa –aurreko edizio bat 1935an egin zen–, bertan orduan euskal kultura esparruaren indarrean zerraien definizioa egonkortu egiten zuen: Euskal Herriari buruzko (*edukia*) zein euskarazko disko eta liburuak (*forma*) multzoek osatzen zuten Durangoko Azokako unibertso posiblea.

Azoka euskal kulturaren erakusleihoa izan zen, Azokarekin batera Bizkaiko Bertsolarien Txapelketa eta *Ez dok amairuren* emanaldia egon ziren; euskal kulturaren

erreproduzio eta produkzio guneak zabalduz eta plazaratuz zihoazelaren zeinale. Horretaz gain, liburuak erosteko aukera ere bazen. Liburuetatik jabetzea euskal kultura esparruan kapital sinbolikoa pilatzeko saiakera egiteko bidea ere bada, kontsumitzaileen jokabidea islatzen du. *Zeruko Argiak* Azokari eskaini zion erreportaia galdeketa txikia egin zuten bertan gehien saldu ziren liburu zerrenda bat osatzeko (Aranburu 1965, 9), kontsumitzaileen apustuak agertzen dituzten hamahiru liburu aipatzen zituzten. Haietatik, zazpi euskal historia, lurralde edo ohiturei, *edukiei*, buruzko erdarazko liburuak ziren. Euskaraz irakurri ezin edo nahi ez dutenen apustua da euskal kulturarekiko atxekimendua *edukien* aldetik agertzeko. Euskarazko bi kantutegiek (*Eguberri abestiak*, *Cancionero vasco*) eta txistua jotzeko partiturek (*Concierto de txistu*) antzeko apostua adierazten dute. Literatura liburuei dagokionez, Txomin Agirrerren *Ondarrak* eta Lauaxetaren liburuak –ez zen izenbururik ageri– izan omen ziren bakarrak: *formen* eskualdeko apustu ortodoxoa (Bourdieu 2006b, 230) baina ziurra: klasikoak. Horretaz gain, *1965'ko Bertsolarien Txapelketa* ere ageri zen. Harpidedunen mundu txikitik haratago –eta mundu txikia zen oraindik Durangoko Azoka–, euskal literaturako joera berrien berririk ez.

Bigarren dimentsioak ere antzeko irakurketa eskaintzen du, inertiaren %26,3a azalduz. Oraingoan aipamen kopuruaren azalpen-gaitasuna indartu egiten da, berrargitalpenen kaltean, honek antzeko joera badu ere ez du horren era argian kapital sinbolikoa azalduko. Aldizkarietako aipamen kopuruak zein generoek ardatz honi oso lotuta jarraitzen dute. Kapital sinbolikoaren ardatza astekariaren aipamen kopuruan eta generoan oinarrituko litzateke batik bat. Oraingoan, kanonetik aldenduta, kapital sinbolikoa argitalpen berrien gainean egituratzen da. Aldizkari berriak agertu izanak berebiziko eragina dauka kapital sinbolikoaren inguruan egituratutako esparrua marrazterakoan. Oraingoan puntu gorenean dauden generoak eleberria, euskal literatura eta klasikoak eta poesia dira, beste muturrean erlijioa eta teologia, euskera eskuliburu eta hiztegiak eta ipuin eta narrazioak daudelarik. Horrek diferentzia argia markatzen du aurreko kapital sinbolikoaren ardatzarekin: generorik literarioenak dira puntu gorenean kokatzen direnak, literatura esparru autonomo baten antzera.

Argialetxeei dagokionez, *La Gran Enciclopedia* eta *Lur* dira nobedade nagusiak. Bilboko *La Gran Enciclopedia Vasca* argialetxeak euskal gaien ezagutza-arlo ezberdinak jorratzeaz gain haurrei zuzendutako ipuinak eta zenbait euskal klasiko aterako zituen.


Idazle berriei dagokionez, Xabier Letek argitaratutako liburu bakarrak, *Egunetik-egunera orduen gurrpilean* (Hegosa/Cinsa, 1968) alegia, produkzio murriztuko posizio nagusietan kokatuko zuen. Gainerako idazleen posizioak epeldu egiten dira liburu gehiago argitaratu izanagatik. Hauxe da Sarasolaren kasua, zeinak *Poemagintza* (Lur, 1969) poesia liburu argitaratu zuen euskal literaturari buruzko beste liburuekin batera, *Gerraondoko euskal poesiaren antologia. 1945-1964* (Lur, 1973) liburuaz gain, azpimarratzekoa da *Euskal literaturaren historia* (Lur, 1971). Bertan belaunaldi berriaren literaturaren soziologian oinarrituta, euskal literaturaren eraberritze performatiboa gauzatu zuen. Inoiz baino argiago kotsakratuko zuen idazle gazteen harrobia. Bi talde sozialetan banatuko ditu idazleak: belaunaldi zahar, elizoki, errural, kontserbakor eta euskaldunzaharrari belaunaldi berri, laiko, urbano, aurrerakoi eta euskaldunberria kontrajarriko zion. Belaunaldi berri horretan, Saizarbitoria eta Aresti kokatuko zituen hausturaren idazle gisa, nobela eta poesian. Arestiren kasuan, *Maldan behera* kotsakratuko zuen bereiziki. Bertan, baliozko euskal literatura 50. hamarkada bukaeran kokatuko zuen eta belaunaldi zaharraren meritua gerra aurreko literatura mantentzera mugatuz. Esanguratsua da, oso, liburu hau iruzkindu zutenak belaunaldi berriko Juan San Martinen eta Luis Haranburu Altuna izatea, Joxe Azurmendiren hiru aleetan banandutako iruzkin luzearekin batera.

Erdigunean errekonozimendu zabalarekin, Saizarbitoria eta Peillen daude. Lehenak, *Egunero hasten delako* (Lur, 1969, 1972) eleberria idatzi zuen, *Leturiaren egunkari ezkutuarekin* batera oraindik eztabaidatzen da bietatik zein den lehen euskal nobela modernoa (Sarasola 1971, 116-117). Bigarrenak nobela poliziakoak publikatuko zituen: *Gauaz ibiltzen dana* (Itxaropena, 1967), *Itzal gorria* (Itxaropena, 1972) eta *Gatu beltza* (Gero, 1973).

Une hartan ez zuen iruzkinik apenas jaso izan Gabriel Arestik prestatutako Miranderen *Haur besoetakoa* (Lur, 1970) liburuak. Arestik berak egin zuen liburuaren iruzkinean orduko euskal literatura esparruaren autonomiaren alde egiten zuen:

Gaurko hau literatur-kritika bat izateko da. Beraz, literaturarekin eta liburuarekin berarekin zer-ikusirik ez duen gauzarik, ez dut hemen ukituko. Alde batera utziko ditut, beraz, idazlearen pertsona bera eta

beraren pentsa-moldea; haren gainean harrotutako esamesak, hitz-erdiak eta uste ustelak. (Aresti 1970b)



Jon Mirande bera eztabaidagarria suertatzen bazen bere joera ideologikoengatik –euskal nazionalismoaren kontra, eta nazismoarekiko hurbil ibili izana leporatzen zitzaion–, honako nobela hau ez zen euskal kultura garbi baten aldekoen gustuko izango, *Lolitaren* antzeko pederastia jorratzen zuelako. Hasieran jarritako ohar honek Arestiren aldarrikapena zekarren: ez juzkatu liburua bere balio moralagatik, balio estetikoagatik baizik.

Txillardegi horren nabarmen agertzen ez bada ere, bere publikazioen oparotasuna zela eta, beren liburuak 12 iruzkin eduki zituzten urte hauetan. *Elsa Schelen* (Lur, 1969) nobela argitaratzeaz gain euskal saiakeran mugarri inportanteak izan ziren *Huntaz eta hartaz* (Gozitiri, 1965) eta *Hizkuntza eta pentsakera* (Gero, 1972) liburuak ere idatzi zituen.


Autoreen posizioak ikusita, argi dago belaunaldi berriak gero eta errekonozimendu zabalagoa eskuratzen zuela, belaunaldi-hausturaren kontzientzia zabaldu ahala. Haustura hori 1968ko Arantzazuko biltzarrean eszenifikatu zen, euskara batuaren eta *h*-ren aferaren inguruan (ikus 2.2.3. Hatxe, 138-146. orr.). Honela, *belaunaldi berria zaharrarekiko* gero eta aldenduago ageri zen.

1.3.1. LUR TALDEAREN EMERGENTZIA

Lur argialetxe bat baino gehixeago dela esan badut, bere kideek besteekiko bereizten duten disposizio eta posizio-hartzeak partekatzen zutelako da –gutxienez, hori ematen zuen aditzera kanpotik osatutako definizioek, talde bat osatzen zutela, alegia–. Autoreen arteko publikazioen kritika-sarea osatuz, talde horren harremanak irudika litezke, autoreek osatzen zituzten afinitate-sareen arabera multzoka litezke. Horretarako, multzoak kolore ezberdinetan irudikatu ditut, bitartekaritza-balio handiena duten autoreen izenak identifikatuz (nodoaren gainean, ezkerretara). Iruzkina kopuruari erreparatuta hiru ziren kritiko nagusiak, hirurak euskaltzainak (ikus Taula 26. 1964-1973, aldizkarien kritika-sareko autore nagusiak, 387. orr.). Batetik, Juan San Martinek hainbat aldizkaritan idatzi zituen kritikak (*Anaitasuna, Egan, Jakin, Zeruko Argia*). Multzo berean ageri ziren, urdinez tintatuta, *Anaitasunaren* inguruan zebiltzan Gereño, Lete, Kintana eta Aresti eta *Jakinen* Joxe Azurmendi. Bestetik, Nikolas Alzola *Bitañok Eganen* inguruan, belaunaldi zaharreko literatur-generoei bereziki lotuta ageri zen. Bukatzeko, *Egan* eta *Zeruko Argian* kritikak idazten zituen Koldo Mitxelena, berdez irudikatuta, bereziki eleberriak iruzkintzen zituen.

Gainerako nodoekiko duten hurbiltasuna neurtzen duen bitartekaritza balioei erreparatuz gero (Requena Santos 2003, 485-486), San Martinen multzoaren inguruko eragina da nabarmenezkoa: San Martinen ostean, Gereño eta Kintana dira balio handienak dituztenak. Bitartekaritza balioek bestelako sare-multzoekiko hurbiltasuna adierazten badute, honako talde honen inguruan daudenak dira joera ezberdinetako autoreak iruzkintzen dituztenak. Eta horretan Arestiren eta Sarasolaren gaineko iruzkinak dira gainerakoekiko gehien bereizten dutenak. Honetan Lurren talde izaera argia da, batzuk beren liburuak iruzkintzen ez dituzten bitartean, Arestik salatuko zuen moduan.

Grafikoa 6. 1964-1973, autoreen kritika-sarea



1.3.2. HARRI ETA HERRI

Belaunaldi berria nagusitzen doan garai honetan bihurtu zen Aresti hausturaren poeta. Aurreko aldian eman zioten *Orix*e Poesia saria Tolosan, 1962an, baina liburuaren argitalpena ez zen 1964ra arte gauzatu. Mitxelenak *Zuzenbide debekatua* poesia sozialean kokatu bazuen aurretik, *Orix*e Sariko epaimahaikide zen Antonio Arruek *Harri eta herri* poesia sozialaren baitan kokatzen zuen, bertsolaritza zaharraren forma baliatzen zuela gaineratuz (Zelaieta 1976, 78). Arestik lehenago “mandatua” zekarren poesiaren alde egiten bazuen, oraingoan Arestik ere bere egin zuen *poeta sozialaren* kategoria.

Honetan eraginik edukiko zuen José María Castelletek performatiboki sortutako kategoria berri horrek, poeta sozialaren identitatea haragitzeko aukera zabalduz. Castelletek “paper erabakiorra jokatu du poesia hau «jaurtikitzen» aurrena eta definitzen ondoren” (Blanco Aguinaga, Rodríguez Puértolas, eta Zavala 1979, III:181), bertan kokatuko ziren Blas de Otero eta Gabriel Celaya, besteak beste. Oraingoan ere, Arestik bere egiten zuen literatura espazioa bere itzulpenen bitartez antzeman liteke. Otero, Celaya, Figuera eta Basaldua itzuli zituen *Erderazko lau poeta, bi gipuzkoar eta beste bi bizkaitar* (Figuera Aymerich et al. 1960) *Eganen*, handik bi urtera Oteroren *Majoria haundiarekin* bildumako zenbait poema ere argitaratu zituen bertan (de Otero 1962), eta 1966an Blas de Oterok Kubatik bueltan Arestik bere etxean ostatu eman zionean (Zelaieta 1976, 135), elkarrizketa egin zion *Zeruko Argian* (de Otero 1966).

Euskal kulturaren produkzio eta erreproduzio guneetan parte hartzeaz gain, Arestik La Concordiako tertulakideekin harreman estua zuen urte horietan, Otero, Vidal de Nicolás, Ibarrola eta abarrekin elkartuz, bertan elikatzen zituen poesia sozialarekin bat egiten zuten disposizio estetikoak (ikus 2.3. La Concordia, 150-161. orr.). Espainiako literatura eta politika esparruetako posizio goranzkorrekin harreman estua zuen honen bitartez, Bilbon bertan. Literatura esparruan, produkzio murriztuko posizio dominanteetan zegoen poesia sozialarekin. “Etengabeko iraultzaren” (Bourdieu 1997b, 68-70) eskemari jarraituz, posizio dominante hori gainbeheran zegoen eta poesia soziala agortze bidean zegoenean ekin zion Arestik ildo honi. Esparru politikoan, Espainian frankismoaren kontrako borrokan eta etortzeke zegoen iraultzaren buruzagitza hartuko bide zuen Alderdi Komunistarekin²⁰.

Lau idazleen lehen itzulpen horretan zein Oteroren elkarrizketan *euskal* adierazlearen izaera dualaren gaineko afera atzeman liteke. Izenburuan poeta bizkaitar eta gipuzkoarrak dira, baina erdarazkoak, Arestik gertu baina urrun bizi ditu. Oterori egin zion elkarrizketan bere euskal izaerari buruzko hainbat galdera zuzentzen zizkion eta honek euskalduntasuna haurtzaro eta poesiaren oinarrian kokatzen zuen bitartean, honela bukatzen zuen Arestik elkarrizketa:

²⁰ Kontrako bidea ere egin zuen, Euskadiko Alderdi Komunistak, Ibarrolaren bitartez, Arestiren iritzia biltzen zituen euskal kulturaren gaineko posizioa erabakitzerakoan.

Zigarroa amatatzen dut. Kearen artean munduan dagoen poetarik haundiena dakusat. Hala eta guztiz ere, ez diot inbidiarik edukitzen. Nik behintzat etxe bat daukat, trumoiak ez badit behera botatzen, alegia! Lur bati nago itsatsirik, itsasoak irunzten ez badit, alegia! (Gabriel Aresti in de Otero 1966)

Arestik, azken batean, euskal kultura esparruan jokatzeko jarraitzen zuen eta euskararen zentraltasunari uko egin barik, Espainiako literatura esparruetako zenbait disposizio euskal kultura esparrura itzultzen ditu. Otero eta Celayaren poesiarekin dituen antzekotasunak azpimarratu dira maiz (Giménez Pericàs et al. 1999). *Harri eta herriko* poema ezagunetakoa da *Zorrotzako portuan aldarrika*, bertan amaiera ematen zion poeta beti paratuko dela gizonaren alde aldarrikatuz, hori izango zen bere mandatu, Oterok esandakoa ederto doitzen da mandatu horri:

Berriro ere gizona da interesatzen zaidana, baina ez gizona norbanako isolatu baten gisan, baizik eta egoera historiko jakin batean txertatutako kolektibitate baten kide gisa. (Blas de Otero in Castellet 1960, 85)²¹

Espainiar poesia sozialaren disposizio estetikoak, formari dagokionez, Arestiren “euskara klaroan” itzultzen dira. Poeta sinbolistak ez bezala, poeta sozialak hitzaren komunikazio-funtziora bueltatu behar du, berehala benetako esanahia transmititzeko, burgesiarentzako produkzioa baztertuz, herri xeheari zuzendutako produkzioa egiteko asmoz (Castellet 1960, 35). Arestik *Maldan beheran* abiatu zuen ildo *kulternista* alde batera utziko zuen, ildo *populistari* berriro ekiteko. Honetan, bertsolaritzaren formak erabiliko zituen, euskara garbizaletasunetik aldenduz.

Harri eta herriko zenbait kritika zorrotz jasoko zituen, baina esparrua transformatzen ari zen eta belaunaldi berriak bere egin zuen, “gazteen poeta” izendatuz (Santamaria 1967). Belaunaldi berriaren konfigurazioan izan zuen eragina Sarasolak liburuaren harreraren gainean idatzitakoari erreparatuz atzeman daiteke:

²¹ “Una vez más es el hombre lo que me interesa, pero no ya el hombre considerado como un individuo aislado, sino como miembro de una colectividad inserta en una situación histórica determinada.”

Orduezkero “idazle txar baten liburu debekatua” da euskaldun askorentzat. Euskaldun gazte askok ez dute ordea hola pentsatzen: Donostiako Biblioteka Probintzialera joaten naiz estudiantzera. Harri eta Herri da han estudiantzen duten unibertsitarioek ateratzen duten euskal-liburu bakarra (euskal-liburuak, euskerazko liburuak dira). Ba dira unibertsitarioak euskal-literaturan liburu hau bakarrik ezagutzen dutenak. Euskera jakin gabe liburu hau erosi duten unibertsitarioak ere ezagutzen ditut. Norbaitek euskal-literaturataz zerbait galdetzen badit, Harri eta Herri lagatzen diot. Orain arte arrituta gelditu dira danak, ez baizuten usten euskal-literatura mailla ortara iritxi zanik. (Sarasola 1966)

Euskal irakurlegoaren transformazioak ere liburuaren harrera erraztu zuen. Desarrollismo garai hartan, langile jatorriko ikasleak unibertsitatean ikasteko aukerak apur bat zabaldu ziren, gazteak lehen apaiztegietan euskal kultura eta politikaren berri bazuten, oraingoan unibertsitatean ematen hasten dira kontaktu horiek. Euskararen inguruan suspertu egin zen kontzientzia nazionala zabaldu ahala, gazteen euskararekiko interesa zabalduko zen. Sarasolak dioen bezala, erdaldunek ere *Harri eta herri* zeramaten besapean. Honetan ere eraginik edukiko zuen *Harri eta herri* gaztelaniazko itzulpenarekin publikatu izana.

Zentzu horretan, Arestik liburu elebiduna publikatu izana modu ezberdinetan uler daiteke. Publiko zabalenari heldu nahian eta euskaldunen gutxiengoaren jakitun, irakurlego erdalduna erakar zezakeen euskal literaturari uko egin gabe, euskaraz idazteari utzi gabe alegia. Gainera, euskarazko bertsoa gaztelaniazkoaren parez pare ipinita, euskara ikasten hasteko edota erdibididean zeudenei ikasten laguntzeko aukera ere eskaintzen zuen. Honek ere La Concordiako tertulia lagunei bere idatziak irakurtzeko aukera ematen zion, azken batean euren *erreferentzia talde* gisa egiten baitzuten Espainiar literatura eta arte esparruetan. Bukatzeko, itzulpenak ere, Sarasolak inori entzun ziona ahalbidetzen zuen, euskarazko poema horiek gaztelaniazkoek bestelako balioa eduki zezaketela, alegia. Beraz, ez da harritzekoa euskalgintza mundutxotik kanpo, Aresti ezagun samar egitea.

Beste era batera esanda, Arestik obra elebidunaren bitartez egiten dio aurre euskal kultura esparruan zegoen anbibalentziari. Batetik, berak bat egiten zuen euskal

literatura euskaraz idatzia egon behar zuelako ustearekin, Artecheren *El abrazo de los muertos* liburuaren kritikan agerian uzten zuen hura ez zuela euskal literaturatzat hartzen (Aresti 1970c). Are gehiago, euskal kulturaren funtsa euskaraz zela zioen eta euskararik gabe ez zegoela Euskal Herririk²². Bestetik, baina, apenas euskaldunik zuen Euskal Herriaren arazoa planteatu zuen *Baiña zergatik eta zertarako euskaldun* Azurmendik piztutako eztabaida luzearen gainean (Azurmendi 1967). Euskal Herri euskaldun baten alde eta gizonaren alde ekitearen kontraesan islatzen zuen bertan:

Behin gizonaren alde paratu nintzen. Orain, askok, ideia ederren izenean, lur honetan, ez daduzkate kontuan gizonaren interesak. (Aresti 1967c)

KRISELU ANTZERKI-TALDEA

Aurreko epealdian ekin zion Arestik antzerkia idazteari. Logikoa dirudi herri xeheari zuzendu nahi zion mandatu apurrerako tresna egokia antzerkia izatea, masa hedabide handien faltan. Ipuinen eredu tematikoa jarraituz –antzerkietako batzuk ipuin bihurtuko ziren– 1961an Toribio Alzaga Saria irabazi zuen *Mugaldeko herrian eginikako tobera* lanagatik (1961c), eta hurrengo urtean zuen *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua* (1962a) obrarekin batera eskuratu zuen famak obrak idazteko enkarguak jasotzera eraman zuten. Arantzazuko pasioaren eguneraketa Aste Santuan antzezteko eskatu zioten eta berak *...eta gure heriotzeko orduan* obra prestatu zuen (1964a). Bertan, Afrikako misiolari katolikoek pairatu zuten pasioa, deskolonizazio egoerako gerra eta sarraskien testuinguruan. Antza, ez zioten antzezteko egoki iritzi eta saioa bertan behera geratu zen. Donostiako Jarrai antzerki

²² “Una Vasconia sin lengua vasca no es Vasconia (...) dos personas que hablan en lenguas diferentes no pueden llegar a entenderse. Y el pretender demostrar tan gran verdad en castellano sería tiempo perdido. La tendría que demostrar en vascuence, y entonces la demostración estaría de más, ya que hablando en vascuence, vasco es el que habla vascuence, y pueblo vasco es el que habla vascuence, hasta tal punto que para indicar en lengua patria una Vasconia que comprenda la totalidad de la Vasconia histórica ha habido que inventar un palabra, palabra por otros motivos entrañable, pero únicamente considerando éste verdaderamente deleznable.”(Aresti 1986k, 73)

taldeak, ostera, enkargu egin zionean *Beste mundukoak eta zoro bat* (1973c) 1964an antzeztu zuten (Zubikarai et al. 1999, 114).

Arestiren poesiako posizio-hartze homologoak hartuz, Arestik abangoardia eta teatro herrikoia nahastu nahi zituen. Horretarako, Kriselu taldearen sortuko zuen beste lagunekin batera, 1966an:

... bere luma gazte-talde haien beharretara jarri zuen. Euskal eszenarioetan teatroa eraberritu nai zuten gazteen beharretara eta ahalmenetera egokitu zen. Teatro berri bat behar zen eta Aresti hura eskaintzen ahalegindu zen. (Saizarbitoria 1973, 9)

Taldeak Ugo Betti, Bertold Brech eta Richard Salvaten obrak taularatu zituen –lehenengo biak Arestik berak itzulita (Aresti 1986i, II:231–286)–. Hala ere, ez zuen luze iraun, handik bi urtera ETA V. Asanbladaren banaketarekin taldea ere bitan bananduko zen taldea, eta 1968an deklaraturako salbuespen egoerak obrak taularatzea izugarri zaildu zuenean, Arestik taldea berregiteko egin zituen saiakerak zapuztu ziren (Zelaieta 2000, 32). Kriseluko taldekide izan zen Saizarbitoriak arrazoi hauei abangoardia eta herrikoitasuna uztartzeko zailtasunak ere gehitzen dizkio (Saizarbitoria 1973, 11).

Edozelan ere, aukera gutxi egon zen berak idatzitakoak taularatzeko, *Jarrai* taldeak antzeztutakoaz gain, Lartaun taldeak Oiartzunen *Justizia txistulari* 1965ean eta Hernanin *Mugaldeko herrian eginikako tobera* 1971ean.

EUSKAL KANTA BERRIKO LETRISTA

Antzerkigintzak ez zion bere mandatua zabaltzeko aukera handirik eman, beraz. Baina garai berean, *euskal kanta berriaren* etiketapean produkzio eta erreprodukzio gune berriak zabaldu ziren musikagintzan, euskal kultura esparruaren produkzio handiko azpiesparruan euskarazko edukiak –letrak, alegia– zabalduko zituen. Antolatutako kantaldietan euskal kultura zabaldu egiten zen, maiz autoritateei desafio irekiak eginez (Amezaga Albizu 1995, 220–221). Arestik harrietan idatzitako poema ugari kantariak kantatuak izatera pasa ziren, kantu zahar eta berriaren aurrean Arestiren eduki eta formen arteko oreka egokiak ziruditen. Aurrena Mikel Laboak *Harri eta herriko* kutsu herrikoieko *Apur dezagun katea* eta *Egun da Santi Mamina* poemak bere bigarren diskoan musikatu zituen (Laboa 1966) –azken kantu honen aktualizazioei atal bat

eskaini diot: 4.3. Egun da Santi Mamina, 306-314. orr.– Xabier Letek *Euskal Harria* liburuko *Euskalerrri nereia* (Lete 1968) –Aresti aipatu barik, aurrena (Zelaieta 1976, 164)– eta liburu bereko *Urrilaren 28 egun* (Lete 1969) kantatu zituen, Lourdes Iriondok, berriz, jatorriz gaztelaniaz idatzi zuen *Nereari* (L. Iriondo 1969). Pako Aristik honela deskribatzen du *Ez Dok Amairuren* giroa:

“Hortik aurrera jaialdiz beteta agertzen dira urteak Ez Dok Amairuentzat. Madrid, Zaragoza edo Barcelonako unibertsitateetako ikasle euskaldunek jaialdiak antolatzen dituzte. Ez Dok Amairu joaten da, Jorge Oteiza eta Gabriel Arestik hitzaldiak ematen dituzte, 68ko erreboluzioa hurbil dago.”(Aristi 1985, 35)

Rafael Castro musikariarekin ere elkarlanean ibili zen Aresti Iruñeko *Coral de Cámararekin* interpretatuko *Nora* idatziz (Agirreazkuenaga et al. 2000, 108). 1971ean Natxo de Felipe ezagutuko zuen, Oskorri talde sortu berriari hamaika kantu prestatu zizkion. Handik aurrera, Oskorriekin ibiliko zen Aresti, Baionan kontzertua eta hitzaldia eskaini zituzten elkarrekin (Aresti 1986e). Hil ostean ere, Imanol Larzabal (Imanol 1976; 1977; 1982; Imanol eta Klabelin Komik 1981) eta Urkok (Urko 1976; 1977b; 1977a) bere poemak musikatzen jarraituko zuten. 60 eta 70. hamarkadetan, Joxean Artze edo Telesforo Monzónekin batera, Aresti euskal musikako letrista nagusia.

EUSKALDUN HETERODOXOA

Harri eta herriren ildoari jarraituz, 1966an *Euskal Harriak* Lizardi Saria irabaziko zuen, jasotako diruarekin liburua argitaratuko zuen, bere kabuz (Zelaieta 1976, 106), Agustín Ibarrolaren grabatuak txertatuz. Honakoa ere liburu elebiduna izan zen, baina oraingoan lau zatietatik bat, Ibarrolari eskainitako hirugarrena –*Tercera parte: poesía para Agustín Ibarrola*–, gaztelaniaz idatzi zuen jatorriz eta ondoren euskaratu. Edo behintzat hori zen aditzera ematen zuena gaztelaniazko bertsioa eskuineko orrian agertzen zenean, euskarazkoa ezkerrean kokatuz, *Harri eta herrin* eta *Euskal Harriko* gainerako zatiekiko aldrebes.

Hala ere, euskarazko bertsioak ordura artean erabili zuenarekiko berria zen ortografiarekin argitaratu zuen: *c* *tz*-ren ordeztu eta *x* *ts*-ren ordeztu. Arantzazuko Biltzarraren atarian, Arestik ortografia eredu baten faltan, euskararen gaineko

ikerketek markatzen zioten norabideari jarraituko ziela azaldu zuen epilogo gisa argitaratutako oharrean:

Nire eskiribuzko lanetan arrazoirik gabeko anarkia izugarri bat ikusten dutenei esan behar diet, nire idazteko molde eta tendentziak aldeztu aurretik pentsatutako programa bati obeditzen diotela, nire ezagumentuak handitzen ziren araura aldakorra urrats espaziatuetan burura eramaten dudana, eta Altube maisuaren azken fin bateko irakatskintzekin nire «Don Kixoteren bizitzea» buka dezadanean osatuko dudana. Orduan erabakiko dut, Azkueren eta Altuberen eskola nagusian, euskeraren ortografia behin-eta-betikoa, gure ortologia kultural baten ezagugarri berezia eta zehatza. (Aresti 1967a, 171)

Bere ikerketen ildoekin bat zetorren ortografia erabiltzeaz gain, askok probokazio gisa ulertu zuten ortografia ildo berria. Ildo horretatik behintzat zihoan Karlos Santamariari bidalitako gutunean eman zion azalpenean, bere ortografiaren arbitrariedadearekin irizpide bateratuaren gabeziari erantzunez (Zelaieta 1976, 139). Euskara bateratu baten faltan, honelako posizio-hartzeak euskal kultura esparruan jokatzen du, literatura azpiesparruaren irizpideak aldarrikatuz:

Politikoeak euskera «garbi» bat nahiago dute, nahiz eta horrela pobretzen den, bainan eskritoreak euskara aberats bat behar du, naiz eta horrela «zikintzen» den. (Aresti 1967a, 171)

Hala ere bere ardura nagusia oso bestelakoa zela gaineratzen zuen, hala ziotzan Santamariari aipatutako gutunean:

... nire liburua, eta argitara atera ez dezadan eman didaten gerra. Euskal editoreen interes zikina eta kobardetasuna; legeak ematen dituen «erreztasunak» (Ministerioak ez argitaratzea akonsejatu dit –gaur egunean senzurarik ez omen dago, baina lapitz gorriak ez dira abolitu–); liburua ateratzeko lukurrero modernoekin kontraditu ditudan zorrak (ez hain interes handikoa, baina tira!). Eta zer gertatuko zait baldin eta nire liburutik lapitz gorriaz markatutako 25 poemak kenduta ere, aterako dudanean, Ministerioak sekuestratzen badit? Nola pagatuko dut

Kajarekin hartu dudan zorra? Hori da inportantea niretzat, Santamaria jauna, eta ez Hak harmatu duen iskanbilla edo C-ak harmatuko duena. (Gabriel Aresti in Zelaieta 1976, 139)

Indarrean jarri zen 1966ko prensa legearekin, aurrez ezarritako zentsuraren orde, erantzukizun penal eta zibila ezarri zen. Hala ere, Arestik kontsulta *boluntarioa* egin zion Informazio eta Turismo Ministerioari, jatorrizko bertsioa argitaratu ote zitekeen jakiteko. Bertan, 120 poemetatik 82k ezezko gomendio jaso zuten. Zentsoreek separatismoa eta komunismoa goraiatzeko eta blasfemia leporatzen zioten. Azkenean, 60 poemako liburua argitaratu zuen, poema batzuetako aipamenak aldatu edo ezabatuz (*Txillardegi*, “*Aicol* martiria”, “ETA”ren orde “Bilbao-Athletic”) (Torrealdai 1986b).

Euskal Harri argitaratu ez zituen horiek, ostera, *Harrizko Herri Hau* (Aresti 1970a) liburuaren lehen parte ia osoa osatuko zuten, bertan *Euskal Harri* argitaratu barik geratu ziren 31 poema agertu ziren. Oraingoan ez zuen kontsulta boluntariorik egin eta zuzen-zuzenean argitaratzeagatik kriminalki prozesatua izan zen Aresti (Torrealdai 1986a). Honen ondorioz Euskadiko Alderdi Komunistak paskina atera zuen *Egia bat esateagatik* poema Ibarrolaren irudi batekin batera, zentsura egoera salatuz (Zelaieta 1976, 118). Aleak bahitzeko arrazoiak topatu bazituzten ere, Ordena Publikoko Tribunalak artxibatzeke agindu zuen, liburuaren bahiketarako publikazioak baino oiartzun handiagoa emango ziolakoan (Torrealdai 1986a). Hau ez zen izan autoritateekin eduki zuen arazo bakarra, aurretik ere polizia etxera joan zitzaion *Lur* argitaletxeak argitaratu zuen *Elsa Scheel*en egileaz, *Txillardegiz* alegia, galdezka (Zelaieta 1976, 176).

Hala ere, liburua publikatzeagatik denuntzia ipiniko zuen Ministerio berak José María de Iparraguirre Saria eman zion *Harri eta Herri* liburuari 1969an. Ordainsaria Kriselu argitaletxera zuzendu zuen, bertan berak euskaratutako da Portelaren *Nekazariaren dotrina* (da Portela 1969) eta Meaberen *14 alegia* (Meabe Bilbao 1969) zein *Harri eta herriren* berrargitalpena (Zelaieta 1976, 160). Bere lagun komunistek zein euskaltzale askok ez zuten ontzat hartu Aresti gobernu frankistak antolatutako sariketa batera aurkeztu izana, Arestik, baina, estatuak euskarari egiten zion errekonozimendu txikia aprobetxatu beharra iritzi omen zion (Dionisio Blanco in Giménez Pericàs et al. 1999, 82; Kortazar 2003a, 72).

Garai honetarako Aresti figura polemikoa da. Euskaral kultura eta euskararen batasunaren gaineko posizio-hartze eta hauetarako erabilitako moduek sektore batzuek *persona non grata* izendatzera eraman zuten. Polemikan parte hartzeko hedabide nagusia euskarazko aldizkariak izango ziren. Hasieran, 1964tik 1967ra *Zeruko Argian*, *Hierro* egunkari falangistan –gaztelaniaz noski–, Euskadiko Alderdi Komunistako *Arragoa* zein *Txistularin* aldizkarietan puntualki parte hartuz. Ondoren, 1970tik 1973ra *Anaitasunan* idatziko zuen. *Lau teatro arestiar* liburuaren kontrazalean honako inskripzio hau ageri zen:

Gabriel Arestik itxiak zituen Zeruko Argia, eta nola ez, Agureko atea, orain Anaitasunakoak ere itxi bide zaizkio. Beraz, hitza debekatua du euskal aldizkarian (Aresti 1973c, kontrazala)

Honen gaineko kexuen ondorioz, Arestik gutuna bidali zion Anaitasunako zuzendaritzari, bertan atea ixte hori azalduz: artikulu batzuk ez zizkieten publikatu eta beste batzuetan ortografia eta morfologia aldaketak eginez (Aresti 1973d). *Lurreko* lagunek ere inprentatik bere *Nekazarien dotrinari* orri bat erauzi ziotenean, haserre galanta hartuko zuen. Aldizkari edo editoreren batek erantzukizun legal edo sozialak sahiesteko orriren bat edo esaldiren bat aldatu edo ezabatzen zionean, berak salatu egingo zuen. Honela manten zitekeen bere hitza garbi, egia esateko zina bete ahalko zuen: “inoiz, / inola, / inun / eznaiz / isilduko” (Aresti 1964b, 68). Poeta madarikatuaren rola jokatzeko zuen eta, aukera zuen horietan, lau haizetara zabaltzen zituen pairatutako arbuioak. Poeta outsiders, gainerako arbuioak errekonozimenduen ekonomian inbertitzeko jokatzeko zuelako, arbuio horiek bere egien izaera transgresorea demostratzen zutelako. Mundu honetako frakaso berresten zuen, *Cuarto vez Nerea ante el futuro* (Aresti 1967a, 148-150) poemari erreferentzia eginez:

Haranburu-Altunak nahi badu, beste egun batetan esplikatuko diot nola sortu zen «Harri eta Herri» (bere parte handia eduki zuen San Martinek haren publikazioan), zein bakartate handitan izan zen kontzebitua, nola argitaratu zen kasualitate bategatik nola izan nintzen gonbatitua (*Zeruko Argia* aldizkariaren orri-aldeetatik, «bufoi», «ero» eta «blasfemo» deitu ninduten), eta nola azkenean «Harri eta Herri»ren kausaz ogibiderik gabe gelditu nintzen (Lurdesek kantatzen duen «Hire ahizpei esaien,

ttikia, zergatik etxean ez dagoen ogirik» hori hartako frutu eta ondorio da). (Aresti 1971)

Euskara batuaren alde jokatu zuen belaunaldiak euskal nazionalismoko sektore askoren arbuioa eta boikota jasan bazuen, Aresti izango zen diana nagusia, *Enbor* eta *Agur* (J. Juaristi 1997, 358) zein ELA-STVko *Lan Deya* aldizkarietan (Zelaieta 1976, 153). Euskal nazionalismo berriak ere aldarrikatzen zituen zenbait proposamen ipiniko zituen dudatan, lehen aipatutako artikuluan:

Hemen [Bilbao, Barakaldo, Etxebarri] euskaldun batzuk bizi gara; gure haurrentzat euskal eskolak behar ditugu (...). Baina kale arte honetan dauden erdaldunentzat euskal eskolak zabaltzea, eta bertara erdaldun umeak bortxatu eta behartzea, hori faszismoa da. (Aresti 1967b)

Honela, Bilbon hitzaldi bat eman behar zuenean, fueraka egingo zioten harrera batzuk (Gereño 1968). Hala ere, irainak bihurtzeko gaitasuna zuen, poeta outsidersa higuindua izango zela aurreratu izan zuen 1960ko hitzaldi hartan, poesia hori gorpuztean engaiatuz (Aresti 1960f). Arestik *Hiztegi ttipia* argitaratu zuenean (Aresti 1973b) honen gaineko iruzkinik ez argitaratzea erabaki omen zuten aldizkariak. Arrazoia honakoa omen zen:

Españolista omen naiz, eta hori bekatu da Euskal-Herrian. Hala baitabilta Euskal-Herriko asto guztiak arrantzaka: Aresti, puta-seme, españolista, marikoia, marxista, faltsua! (Baina gero ene poesia firmatzeko ez dadukate batere disimulorik.) (.../...) Etiketa polita jarri didate! Digute! Honela, euskaldun irakurleengandik separatu nahi gaituzte. Intsulto-gisa erabiltzen baitute hitza, baina alegia, beti ezkutuan, beti belarrira, hitz hori horrela erabiltzea bizi garen lejislatzietatik kanpoan baitago; hoiek, bere mintzaeran, ni hitzak, españolista eta marxista, sinónimo bezala erabiltzen dituzte, eta zertarako eta nola (batez ere nola) esplikatuzte españolistentzat españolistak ez direla marxista, eta marxistentzat españolistak ez direla marxista? Batez ere, nola hori esplikatuzte legetik kanpora erori gabe? (Aresti 1973a, 210)

Ipar Euskal Herritik, Jokin Apalategi eta Paulo Iztuetak *Begiarmen* ezizenarekin *Sei idazle plazara* liburua aterako zuten bi tomotan (EFA, 1974), bertan Mitxelena, Aresti, Larresoro (*Txillardegi*) aurrena eta Gotzon Garate, Joxe Azurmendi eta Gurutz Ansolaren kritika ideologikoa egingo zuten ondoren. Euren asmoa literatura kritikatik aldendu egiten zela onartu egiten bazuten ere, idazleak aukeratu eta haien gainean kritika ideologikoa eginez, euskal esparru politikoaren errefrakziotik abiatutako literatura kritika egiten zuten funtsean:

Aresti, poeta den aldetik, aparteko tratamendu bat merezi du, beste molde batez eginga segurki ere. Guk, ordea, haren pentsamoldea nolakoa den aztertu nahi dugularik, poesietatik baino gehiago haren artikuluetatik aterako ditugu gure oraingo kritikabideak. (*Begiarmen* (Paulo Iztueta eta Jokin Apalategi) 1974, 1:112)

Kritika erasokorra zen –Mitxelena eta *Txillardegiren* kasuetan ez bezala— perfilatzen ari zen eta ETAREN gidaritzapean gauzatuko zen balizko proiektu nazionaletik kanpo kokatzen zuten bertan. Joera honek frankismoaren gainbeheran euskal literatura esparruan emango den tentsio berria aurreratzen du, esparru politiko berritik euskal kultura esparrua kolonizatzeko saiakerak.

1970an alaba jaioberria eta aita galdu ondoren gainbehera etorriko zitzaion. Laudorioei uko egiten zien poeta, mundu honetako sufrikarioa onartzen zuen ofizioa muturreraino eramane izan balu bezala, 1972an bere anaiak eduki zuen gaixotasun psikologikoak jota ote zegoen susmoak hartu zituen. 1973ko bukaeran gibel gaixotasunak jota baja hartu zuen lanean eta Ean erosi berri zuten etxean hartu zuen erretiroa. 1975eko ekainaren 5ean, ebakuntza baten ostean, hil egingo zen.

1.4. BELAUNALDIEN ETHOS EUSKALDUNA

Hausturaren belaunaldiak zenbait disposizio estetiko partekatzen zituen, euskararen ikasbidearekin harremanetan, euskal kultura eta literaturaren gaineko posizio-hartzeetan itzuliko direnak. Horrekin harremanetan, euskal kulturaren ematen den genero-espezializazioa ere jorratuko dut atal honetan.

1.4.1. HAUSTURAREN BELAUNALDIA

Ikerketa askok Burgosko prozesuaren inguruan kokatu dute euskal nazionalismoaren agerpen publikoaren fasea (Gurrutxaga 1985, 133–148), ordura arte isilpean eman izan diren ekintzek kaleak hartzen dituzte. Euskalgintzan ere suspertze itzela eman da. 1970-71 ikasturtean 11.885 ikasle dago ikastoletan, handik hiru urtera ikasle kopurua bikoiztu egingo zen. Helduen alfabetatzen eta euskalduntzerako gau eskolak ere zabalduz doaz. Arlo politiko, erlijioso zein linguistikoan zahar eta gazteen arteko aldea gero eta nabarmenagoa suertatzen da egoeraren gainean aritzerakoan. Euskal kultura esparruko pertzepzio-oinarrrian belaunaldi berriaren etorrera zabaldu egiten da. Arlo politikoan ETA erakundearen hegemoniaren inguruan sortutako belaunaldi berri hori, euskara arloan *h*-ren eztabaida eta erabileraren agertuko zen. Gizarte esparruko elementu guzti horiek zeharkatuta, Sarasolaren *Euskal literaturaren historia* (Sarasola 1971) liburuak bi idazle belaunaldi ipiniko zituen aurrez aurre. Batetik, belaunaldi zaharra, klerikala, baserritarra eta euskaldunzaharra. Bestetik, belaunaldi gaztea, laikoa, kaletarra eta euskaldunberria.

Aurrez aurre zeudekeen bi belaunaldiek partekatzen zuten pertzepzio-moduarekin bat zetorren Sarasolarena, nahiz eta bere irakurketa belaunaldi berriaren lubakitik egina izan, horren lekukotasuna beste hainbat arlotan erraz topa liteke. Hala ere, Sarasolaren ikerketa zientifikoak, pertzepzio-modu nagusiekin bat etortzeaz gain, indar performatiboa zeukan, Mitxelena eta Villasanteren 1960ko *Historia de la literatura vasca*-ren ostean, “hausturaren belaunaldiaren” (J. Juaristi 1987b, 105) literatura sistematikoki aztertu zen aurrenekoz –goiztiarregiak ziren liburuak Aresti, Txillardegia, Saizarbitoria eta enparauak aztertzeke, Villasantek eranskinean ematen du haien berri bigarren argitalpenean (Villasante Cortabitarte 1979).

Euskal kultura esparruan euskarak hartu zuen zentralitatea argia zen garai honetarako. Euskal nazioa eta kultura euskaran oinarritzen zen heinean, esparruko kapital sinbolikoa euskara gaitasunera itzul zitekeen. Honen lekuko, ETAk Euskal Herriko

etorkinei euskal naziotasunerako sarbidea erraztuko zien euskararen ikasketaren bitartez (Jáuregui Bereciartu 1985, 135, 163). Euskara izango da ondarearen giltza, bereizgarria eta lurralde eta historia oso bat ehuntzen duena (Gatti 2007, 49). Alfabetatzea eta euskalduntze programak eta ikastolen mugimendua euskal proiektu nazionalaren ezinbesteko tresna gisa ageri dira. Produkzio eta erreprodukzio gune hauek ikasleak erreklutatzeke zuten gaitasuna euskara ikasteak agintzen zuen errentagarritasun sinbolikoari zor zitzairen.

Euskararen gaineko *illusio* berria zabaldu ahala, belaunaldi berriei beste pertzepzio-modu bat gainjartzen zaie, euskararen inkorporazio-modu diferentei dagozkiena: euskaldunzaharra eta euskaldunberria. Euskarazko merkatu linguistikoa objektibatze bidean zegoen unean, euskara egoera praktikoa atzeman liteke batik bat, habitusean hain zuzen ere (Bourdieu 2008b, 20). Belaunaldien pertzepzio-kategorien nagusitasuna euskararen inkorporazio eta pertzepzio modu diferenteetan dituen oinarriari erreparatuko diet jarraian, 50. eta 60. hamarkadetan hezitako idazleen hizkuntza-habitusari hain zuzen ere. Zabalago begiratuta ere, euskal kulturaren hiru inkorporazio modu atzeman litezke hiru habitus-kategoriatan: eruditua, erlijiosoa eta autodidakta.

Forma eta *edukiaren* arabera banatutako euskal kulturaren esparruan, *erudituei* zegokien euskal kulturaren edukiak zedarrantzea. Zientziek berebiziko garrantzia eduki dute historikoki euskarari lotutako nortasuna eraikitzerakoan (Gatti 2007, 53–58). Beren euskal kulturako posizioa kapital kulturalari zor zaio batik bat, gizarte-esparruko propietate espezie diferenteetan objektibatua: Salamancako Unibertsitateko Katedra Mitxelenaren kasuan, Sao Paoloko Bienaleko saria Oteizaren kasuan edo Real Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoriako kide Barandiaranen kasuan. Beren inbertsioak euskal kulturari jokatzen zituzten neurrian, Espainiako gizarte-esparruaren kapital-akumulaziorako zailtasunak zituzten, baina aldi berean prebenda horiek ukatzen ziren neurrian, balizko euskal gizarte-esparru propio bateko dominazioa ziurta zezaketen.

Euskal kultura esparruan jokatzeke edukietara bideratutako kapital kulturala behar bestekoa den neurrian, euskararen inkorporazioa ez da ezinbestekoa suertatzen. Oteizaren kasuan bereziki argia da honakoa. Behin bere proiektu artistikoa bukatuta (“concluido”), ez zuen euskaraz ikasi beharrik. Ez da kasuala Oteizak euskal habitusaren

bestelako elementuak balorizatu izana, *euskal estiloa* hain zuzen ere: txapela ezker eskuarekin atontzearen moduko gorputz-hexisei erreparatuko zien (Oteiza 2003, 69). Horrek, noski, ez du euskal etimologizaletasunik oztopatzen, eta Oteizak “hutsa” hitzaren inguruan egindako saiakerak dira horren adibide (Oteiza 2007, 140–144).

Mitxelenak, ordea, euskal filologia eta literaturaren ikerketan inbertituko zuen bere kapital kulturala. Honi esker, belaunaldi berrien gidari eta euskara batuaren bultzatzaile izango zen (J. Juaristi 1987b, 108)

Forma landu zuten idazleen artean, ostera, euskararen inkorporazio modu diferentek dira *habitus* diferentzialak osatzen zituztenak, *habitus* erlijioso eta autodidakta izendatu ditut. Euskal kultura esparruan jokatzeko zuten *habitus* diferenteen gaineko propietateak bat datoz aipatutako pertzepzio-moduekin, *zaharra* eta *berriaren* hitz ahaideek definituko dute bata zein bestea. Gizarte egituran zuten posizioak eta belaunaldien arteko bitartekaritzak bat egiten dute, pertzepzio modu hauek euskararen inkorporazio moduaren arabera definitzerakoan. Lehenak produkzio eta erreproduzio-gune erlijiosoetan barneratu badu euskara, bigarrenak lan indibidualaren bitartez egin du.

Gerra zibilaren aurreko susperraldian, euskal kulturaren produkzio eta erreproduzio guneek euskararen ikasbiderako edota ofizio –kazetaritza edo euskalgintza– laikoak eskaintzen bazituzten ere, 20. eta 30. hamarkadetan jaiotako idazleen artean, autodidaktizismoa edo erlijiotasuna zuten euskararen inkorporazio-modu nagusia.

Erljiosoaren kasuan, euskararen inkorporazioa *ethos erlijioso* baten barneraketarekin batera ematen da. Industrializazio eta hirigintza prozesuak baserri-giroak ere baztertu zituen, bertan jaiotakoek maila-igoera ziurta litzaketen ikasketetarako sarbide oso mugatua edukita, apaiztegia edo monastegia zuten ikasketetarako aukerarik egokiena –maiz gaztelera behar bezala ikasteko bidea ere bai—. Elizako zenbait sektorek euskal nazionalismoarekiko eduki zuten gertutasuna Elizaren erakundeek zuten autoritate frankistekiko babesarekin konbinatuta, ez da harritzekoa gerraosteko euskalgintzaren lehen hastapenak apaiztegi eta monastegietan eman izana.

Gune hauek [apaiztegi eta klaustroek] osatzen dute hizkuntza kultura baten iraupenerako gune bakarrak, frankismoaren aldi handi batean

zehir, berrogeita hamargarren hamarkadan eta hirurogeigarren hamarkadako zati handi batean. (Pérez-Agote 1986a, 123)²³

Jaime Kerexeta *Arantzibia* apaiza, Nikolas Alzola *Bitaña* lasalletarra edota Bitoriano Gandiaga, Felix Bilbao edo Joxe Azurmendi frantziskotarrek talde honetan koka litezke. Lirudikeenaren kontra, belaunaldi berriko idazle hauetako askok euskaldun-fededun imaginarioaren hausturaren alde egingo zuten, bereziki Arantzazuko frantziskotarrek. Bertan *Jakin* aldizkaria sortuko zuten teologiaz eta filosofiaz euskaraz jarduteko. Euskararen kulturbidea hobekien ordeztuko zuen taldea zen onakoa. Haietako askok ordena erlijiosoa utzi eta bititza laikoari ekingo zioten –Azurmendi eta Bilbao–.

Autodidaktak hiri-jatorriko kaletarrak ditugu, arbasoen hirirako migrazioarekin batera euskararen transmisioan haustura jasan dutenak. Donostian *Txillardegi*, Parisen Peillen eta Mirande, Bilbon Irigoien eta Aresti. Euskaldunberriak ziren, euskararen ikasbidea niaren teknologian oinarritutako (Foucault 2000) disziplinan trebatuak. Liburutegietako arratoiak dira. Gabriel Aresti eta Txillardegi dira ordezkari nagusiak. Arestiren kasuan maiz aipatzen dira ikasbide indibidualaren zorrozkeria, zelan Lekuonaren *Erderismos* edo Axularren *Gero* kopiatzen eman zuen gaztaroa.

Autodidaktizismoaz gain hainbat aukera-afinitatek ezaugarritzen zituzten: *Euzko-Gogoan* hasi ziren idazten eta horri esker ezagutu zuten elkar eta euskalgintzaren proiektua perfilatzeari ekin zioten, kontrol ideologiko eta filologikoaren ondorioz, handik gutxira *Eganera* joko zuten. Gero Euskaltzaindian arituko ziren lanean euskara batuaren alde (J. Juaristi 1987b, 108–109). Jon Juaristik honela deskribatzen du belaunaldia:

Belaunaldi-talde gisa, eta nahiz eta euren artean diferentzia inportanteak egon, euskal literaturan ordura arte ohiz kanpokoak ziren eta pertsonalitate kolektiboa ematen zien ezaugarri multzo bat zuten. Haien artean gehien-gehienak euskaldun berriak dira, hau da, euskaraz,

²³ “Estos centros constituyen durante buena parte del franquismo, la década de los cincuenta y gran parte de la de los sesenta, los únicos lugares posibles para la pervivencia de una lengua culta en algún sentido.”

beren kabuz, testuinguru familiarretik kanpo jabetu diren norbanakoak dira. Autodidaktizismo hau beste arlotara zabaldu egiten da: ia guztiek unibertsitate-hezkuntzaren gabezia filologia, gizarte zientzia eta abarren irakurketa bizi –eta desordenatu– baten bidez ordeztzen dute. Nazionalistak dira, baina honetan ere, «nazionalista berriak». Frankista edo sozialisten semeak, ez dute tradizio familiar aranzistik ezagutu. Neurri handi batean, konbertsoen ohizko fanatismoa dute, baina aldi berean nazionalismoaren oinarri nagusi askorekiko distantzia kritikoa hartzen dute. (...) Agnostikoak, ateoak era argian ez diren horien kasuan, ez dute aukerarik galtzen beren antiklerikalismoa adierazteko, zeinak euskal literaturaren moduko ingurune batean aurreko belaunaldiaren berehalako etsaigoa ekarri behar zien, «madarikatuen» fama bereganatuz. (J. Juaristi 1987b, 109)²⁴

Bi disziplinamendu-modu edukiko dituzte, *erakunde osoan* (Goffman 1984, 17) oinarritutako disziplinamendu erlijiosoa eta niaren teknologian (Foucault 2000) oinarritutako disziplinamendu autodidakta.

Autodidaktaren orpotik euskal kulturaren esparruan pertzepzio-modu *berria* ezarriz joango da, urtez urte eraikitakoa eta Sarasolaren liburuan bildua eta pertzepzio-modu

²⁴ “Como grupo generacional, y a pesar de que entre ellos existen importantes diferencias, presentan una serie de características que les otorga una personalidad colectiva con rasgos hasta entonces insólitos en la literatura vasca. Hay entre ellos una mayoría de *euskaldun berriak*, es decir, individuos que han adquirido el euskera fuera del contexto familiar, gracias a su propio esfuerzo. Este autodidacticismo se extiende a otros terrenos: casi todos suplen la carencia de una educación universitaria con lectura intensa –y desordenada– de obras de filología, ciencias sociales, etc. Son nacionalistas, pero, también en este caso, «nuevos nacionalistas». Hijos de franquistas o socialistas, no han conocido una tradición familiar aranzista. Tienen, en buena medida, el fanatismo propio de los conversos, pero adoptan a la vez una distancia crítica hacia muchas de las premisas fundamentales del nacionalismo. (...) Agnósticos, cuando no claramente ateos, no pierden ocasión para poner de manifiesto su anticlericalismo, lo que en un medio literario como el vasco debía atraerles de inmediato la enemiga de los escritores de la generación anterior y granjearles cierta fama de «malditos».”

nagusi gisa ezarria. Zentzu horretan, belaunaldi aldaketa izango da *berria* eta *zaharraren* arteko diferentzia ulertzeko katalizatzaile nagusia. Belaunaldi-faktoreak esparru horretan gertatutako transformazioak jantzi egiten ditu, baina ez ditu hauek azaltzen. Zilegi dirudi galdetzea zer nolako aldaketak gertatu ziren euskal kulturaren esparruan eta zernolako agenteak produzitu eta kokatu dituen. Beste modu batera esanda, belaunaldi-faktoreak euskararen alde talde sozial *berriek* euskal idazle egiteko saiakera azaldu beharko luke eta horretarako *euskal kultura esparruan* suertatutako aldaketei erreparatu beharko genioke. Honen ondorioz, soilik sor daiteke pertzepzio-modu *berria*: egin beharrekoaren preskripzioa izango da, baina batez ere egin behar ez denaren preskripzioa.

Bi modu nagusi daude, beraz, idazletzarako sarbidean eta sarbide honek idazketa eredu diferenteak baldintzatuko ditu, niaren teknologia ezberdinen adierazpide. Idazketa erlijiosoak hirugarren pertsona erabiliko du erruz, hagiografia edo poesia epikoa izango dira nagusi (*Orixeren Euskaldunak*), Bestearen begirada ezartzen da, Jainkoarena izan, izan gizartearen ikuspegi ziklikoa (Azurmendi 1976, 37–47). Txillardegi eta Arestiren kasuetan, ordea barne ahots baten bitartez adierazten da ingurua, euskaraz idazteko “autoinposatutako beharrizanari” erantzunez. Barne ahotsa da, kaletarrei buruzko eta kaletarrentzako literatura egin nahi den heinean, kanp mundu ez euskaldunarekin talka egin behar dutelako. Txillardegik egunkariaren dispositiboaz baliatuko da horretarako, bere esperientziak lehen pertsonan idazten duen pertsonaia eraikiz (J. Juaristi 1987b, 115). Arestik, ordea, ni poetikoa edukiko du abiapuntu eta Bilbo erdaldunak bera zelan astintzen duen azalduko du. Aldi berean idazketa modu hau euskararen ikasbidearekin oso lotuta dago, idazleak euskararekiko eduki duen harreman zorrotzaren ondorio. Idazleok euskararekin sekretuzko harremana dutela esan daiteke ia, Leturiaren egunkari *ezkutua* edo Arestiren ni poetikoa, inguruak kodetzeko modu propioa dute.

Hurrengo urteetan, euskarazko korpusa eta erakundeak (ikastolak, euskaltegiak, e.a.) sustatu ahala, euskararen ikasbidea aldatuz joan ahala, autodidakta kaletarren eredu inposatuz.

1.4.2. EUSKALGINTZAKO GENERO-ESPEZIALIZAZIOA

Euskara batuaren proiektua erlijioso-frantziskotarren eta autodidakten proiektuei loturik ageri da. Frantziskotarrek Mendebaldeko goi-kultura eztabaidak zekartzaten bitartean, autodidaktek Mendebaldeko literaturaren homologoa zen literaturan arituko ziren, eruditu batzuek diziplina zientifiko anitzez baliatuko ziren euskararen ezagutzan sakondu edota honen norabide berria legitimatzeko. Honek markatuko zuen euskara batuaren norabidea. Baina bada garapen berantiarragoa izan zuen beste eragile bat: *ikastolen mugimendua*.

Orain arte gizonezkoek aritu banaiz, egile-estatusa izan zuten horiek gizonezkoak izan zirelako izan da, Lourdes Iriondo eta Arantxa Urretabizkaia izan ziren 70. hamarkadan agertu ziren lehen salbuespenak.

Euskalgintzan nolabaiteko genero-espezializazio bat eman zen 60. hamarkadan zehar, gizonezkoek idazteari ekiten zioten bitartean, emakumeek *ikastolan* andereño ziharzuten. Ez da kasuala Iriondo *andereño* gisa aritu eta Urretabizkaia saiatu izana. Lourdes Iriondoren lehen idatziak Urrietako ikastolako haurrekin taularatu zituen antzerki obren argitalpenak –*Martin Arotza, Jaun Deabrua* (Gero, 1973), *Buruntza azpian, Dena hankaz gorako* (Gero, 1975) zein haur-literatura izan ziren *Asto baten malura, Hego-haizearen ipuinak* (Gero, 1973)–. Aldi berean, *Ez dok amairun* eta, bereziki, Xabier Leterekin egindako musikak egin zuen ezagun, Arestik “Euskal Herriaren nobia” deitzen omen zion (J. M. Iriondo 2006, 15).

Arantxa Urretabizkaia, ostera, Donostiako Egiako ikastolan andereño lana bilatu zuenean, “españolista” izanagatik ez zuten kontratatu (Urretabizkaia 2012). Hala ere, Lur argitaletxean aritu zen Frantz Fanon itzultzen (Lur, 1970), eta hura izan zen *Zergatik panpox?* (1979) nobelarekin errekonozimendu zabala jaso zuen lehen emakumea.

Euskalgintzan aritu ziren emakumeen ikusgaitasun eskasa, andereñoaren idealizazioarekin konbinatzen da. Idazle gizonezkoek hausturarako beta zuten bitartean, andereño idealizatuari ikastolen ugazaben diziplina zorrotza jarraitzea zegokien. Honen adibiderik ezagunena Adela Ibabek pairatutakoa izan zen, Arestik letra eta Oskorrik musika ipini ziolako (Oskorri 1979). Arrasateko ikastolako

sortzaileetako bat izanda ere, beste lankideekin batera kaleratu ondoren, abortu klandestino batean hil egingo zen (Arana 2012). Ikastoletan ere euskal kultura esparruan ematen ari ziren tirabira berberak ematen ari ziren, belaunaldi zahar eta berriaren artean. Adela abestiak ikastoletako andereño berria omentzen zuen (Fernandez 1994, 271–275).

Ikastoletan suertatutako gatazka horiek bat datoz bere instituzionalizatzearen hastapenekin. Gernikako Estatutuaren garapenarekin batera, euskal eskola sistema publiko batekin instituzionalizatzen da euskarazko hezkuntza publikoa. 60. hamarkadan emandako pausoak euskara merkatu linguistiko baterako bidean kokatu zuten eta euskararen ikasbidea autodidaktizismo edo erlijiotasunean oinarritzeari utziko zion. Gainera, estatu-aparatu berriek euskaldunak beharko zituzten funtzio publikorako. 60. hamarkadan sortuz doazen euskal hedabideez gain, funtzio publiko autonomikoari lotutako ofizioak garatuko dituzte oraindik idazle profesional izateko aukerarik ez duten idazleek –EITB, Hezkuntza, e.a.–. Honela, frankismo garaian euskal kultura esparruan kapital sinbolikoa pilatzeko balio bazuen euskaraz jakiteak, autonomia garaian hizkuntza kapital gisa balioko du gizarte mugikortasunerako bidezidorrak topatzeko.

1.5. 1974-1979: AUTONOMIA ETA LITERATURA ESPARRU

AUTONOMOA

Frankismoaren bukaerak eta trantsizioaren hasierak markatzen dute garai hau. Korrespondentzien grafikoan aldaketa batzuk suertatzen dira eta aurreko joerak indartu egiten direla badirudi ere, erabili ditudan aldagaiak zehazki isla ezin zezaketen aldaketa kualitatiboa suertatu da. Hala ere, oraindik erabilgarri suerta daiteke grafikoa, joera berri horien norabidea adierazteko.

Lehen dimentsioa euskal kultura esparruaren forma eta edukien arteko eskualdetan bereizten jarrai daiteke, inertziaren %31,4 azalduz. Baina oraingoan, Euskal Herriko gaiak gainerako gaietatik aldentutako kokatzen dira, era argiagoan. Kontutan hartu behar da, genero hau dela guztien artean publikazio gehien zituena (ikus Taula 21.

1974-1979, ereduaren laburpena, 382. orr.), honetan bere eragina du trantsizioaren atarian zenbait gairi buruz argitaratzeko erraztasunak zabaldu izana, baita, noski, esparru politikoan irekitako aukerek gai politikoak jorratzeko piztu zuen interesa ere. Beste muturrean, ordena honetan, bertsolaritza eta bertsopaperak, antzerki eta pastorala, euskara eskuliburuak eta hiztegiak, eleberria eta poesia daude. Beraz oraingoan euskal literatura ez da guztiz lerrokatzen formaren eskualdearekin.

Bigarren dimentsioan, generoaz gain, literatura aldizkarietako zein astekarietako aipamen kopuruaren eragina indartu egiten da. Lehengo joera mantentzen bada ere, literatura aldizkarietan aipamen bat edo gehiago eta astekarietan aipamen bat baino gehiago edukitzea garestiagoa dela esan daiteke: puntu hauek ez dute lehen bezala euskal literatura eskualdearekin bete-betean bat egiten. Euskal literatura eta klasikoak, eleberria, poesia eta bertsolaritza eta bertsopaperak kapital sinboliko gehien pilatzen dituzten generoak badira ere, haien arteko obra jakin batzuk dira benetan kapital sinbolikoa pilatzen dutenak. Hau da, ez dira genero jakin batzuen kritika sistematikoak egiten, lehen bezala, baizik eta genero jakin batzuetako obra batzuenak. Beraz, kapital sinbolikoaren ardatza lerro diagonal baten bidez irudikatu daiteke: bi ardatzekin du harreman positiboa, lehen eta bigarren ardatzeko balioetan gora egin ahala kapital sinbolikoak gora egingo luke.

Kapital sinbolikoa euskarazko sorkuntzara makurtu egin da, hau da, euskal kultura esparruko egitura duala desagite bidean dago eta errekonozimenduen merkatu sinbolikoa euskal literaturaren interesak ditu oinarri. Gauzak horrela, grafikoak euskararen gainean definitutako euskal literatura autonomo baterako joera argia islatzen du.

Ikastolen mugimenduak aurrera jarraitzen zuen bitartean, euskal hezkuntza sistema bati bultzada ematen ari zitzaion. Udako Euskal Unibertsitatearen lehen topaketa ere 1973an izan zen, euskarazko unibertsitate bat sortzeko asmoarekin, euskarazko publikazio zientifikoek ere goraldia edukiko zuten urte hauetan. 1979an Gernikako Estatutua indarrean jartzearekin batera euskal eskola zein unibertsitate ofizialak sortzen hasiko ziren. Zentzu horretan, hezkuntza sistema berriak bermatuko zuen argitaletxeen errentagarritasuna (J. Landa 1988, 68), honek ahalbidetuko zuen euskarazko publikazioen produkzio handi bat egotea.

Grafikoa 7. 1974-1979, autoreen posizioak espazio sozialean



Baina transformazio honek eskaintzen zuen aukera berriekin batera, mezenazgo kolektiboaren komunitatetik merkatuaren gizartera pasako zen. Ordura arte egon ziren argitaletxe txiki gehienak, egitura finantziero ahulekin, 1977erako desagertuz joan ziren. Haien ordeztu argitaletxe profesionalizatu eta handiagoak sortuko ziren: Elkar, Erein, e.a. (J. Landa 1988, 65-69).

1.5.1. BERRARGITALPEN ETA OMENALDI GARAIA

Arestik ez zuen horrenbeste aldaketa ekarriko zuen trantsizioaren hasierarik biziko, gaixo ibili ostean, 1975eko ekainean hilko zen Basurtuko ospitalean, diktadorea baino bost hilabete arinago. Nekrologika ugari eskaini zitzaizkion Arestiri, atek itxita omen zituen aldizkarietan. Bertan, gehienek Arestiren izaera polemikoa azpimarratzen zuten (Lete 1975; Amatiño 1975; Kintana 1975; Uxola 1975). Xabier Letek agur hunkigarria idatzi zion *Zeruko Argian*, haserraldi eta istiluek lausotutako adiskidetasunaren berri emanez. Esparru politikoaren transformazioen eragina nabarmentzen zuen ika-miken atzean:

Baina guzti hoiien gainera, gure herriaren egoeraren une kritiko bat zegoen, eta une kritiko horrek, ideia, jarrera, aukera, iritzi eta erabakien polarizatzea bultzatu ginduen. Problema latz batzuek krisis egin zuten (denok azken urte hauetan ikusi dugunez), eta krisisari erantzun beharrak bakoitza bere postura batzutan ahalik eta sendoen afirmatzera eramane zuten. (Lete 1975)

Bere azken borondatea jarraituz, lagun eta senideek elizatik pasa barik lurperatu zuten bere gorpua (Zelaieta 1976, 273–274). Hurrengo kapitulueta aztertuko dudana bezala, Aresti eta bere obrak errekonozimendu zabala jasoko zuten urteak aurrera egin ahala.

1976an bertan, bere *Poemak* argitaratu zituen bi tomatan Kriselu argitaletxeak Angel Zelaieta lagunaren biografiarekin batera (Zelaieta 1976), Luis Haranburuk ere *Poema guztiak* liburua aterako zuen 1976 eta 1979an *Azken harria* argitaratu gabeko poema liburua aterako zuen, harriaren zikloko hiru liburuekin batera. Urte berean, Espainiako Cátedra argitaletxeak ere espainiar literaturaren baitako kontsakarzioa ziurtatu zion Javier Atienzak²⁵ prestatutako *Maldan behera* eta *Harri eta herri* liburu bakarrean atereaz. Urte horietan ere, autore askoren parte hartzea eduki zuen *Agiriak: euskal poetak eta artistika G. Aresti-ren omenez* (Aresti 1978) argitaratu zuten.

Arestiren zenbait ipuin (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, 1978; 1981; Erein, 1985) eta poemak (Luis Haranburu, 1983) berrargitalpenak egin ziren bitartean, 1986an Susa argitaletxeak, Bilboko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta, Karmelo Landak orain artean egin den Arestiren obra-bilduma osatuena argitaratu zuen (Aresti 1986b; 1986c; 1986d; 1986g; 1986h; 1986j; 1986l; 1986n).

²⁵ Liburu elebiduna izan zen eta kritika zorrotzak jasoko zituen edizio honek, *Harri eta herri* Arestik berak eta *Maldan behera* Jon Juaristik itzuli bazuen ere, Javier Atienza itzultzaile gisa ageri zelako. Gainera, Mitxelena liburua honen aurkezpenean Atienzaren hitzaurreko zenbait oker zuzendu zituen (Zubikarai et al. 1999, 124–126).

1.5.2. LEHEN ABANGOARDIAK: HAUSTURA BIKOITZA ETA AITAREN

HERIOTZA

Argialetxe txikien krisiarekin batera, aurreko urteetatik euskarazko liburuek goraldi ikaragarria izan zuten, bitartean *Oleri* desagertu zen 1969an eta patu berbera jarraituko zuen *Eganek* 1978an. Baina honekin batera, euskal literatura esparruaren lehen abangoardiako aldizkariak aterako ziren, 1974an *Ustela*, 1977an *Pott* eta 1978an *Oh! Euzkadi*. Abangoardia berriek haustura bikoitza egin beharko zuten, batetik, ofizializatzen ari zen euskal kultura esparruarekiko eta, bestetik, erakundetzen ari zen euskal esparru politikoarekiko.

Aurretik ere saiakera bat izan zen 1962tik 1963 *Igela*. *Euskaldun heterodoxoen errebista* bultzatu zuten Jon Mirandek eta Txomin Peilhenek, baina ez zuen luze iraun. *Enbata* Iparraldeko aldizkari abertzaleak *Igelarekin* ika-mika izan bazuen, azken honek autonomia literario aldarrikatzen zuen bitartean (Mirande eta Peillen 1962), *Oh! Euzkadik* bere proiektuaren berri ematean, herri-finantziazioaren bidea aukeratu zuen *Egin* egunkariarekiko desmarkatzen zen ironiaz:

Oh Euzkadi ez da herriaren aldizkaria eta ez dugu uste inoiz ere izango denik. Gauzak diren bezala azaltzea hobe, zertarako engainatu. Gure lana ez dugu herriari kreditu personalak eskatzera bultzatzeko bezain inportantea ikusten. Eta ez da moralismo pudoroso kontua bakarrik, ez ditugula geuron buruak horrelako montaje bat egiteko nahiko jantziak ikusten. (Oh! Euzkadi 1979)

Proiektuari ekin ziotenek beren interes propioak jarraituko zituztela agerian uzten zuten, ez ziren beraz herriaren zerbitzura ipiniko –euskal prentsaren edo politika esparruko deklarazioetatik aldenduz–. Are gehiago, Arestik euskal kulturako hutsuneak betetzeko apostua egin bazuen, *Pott bandak* bere lehen alean, euskal kultura esparruko hutsuneak betetzeari uko egiten zion:

... editoriale bat ez da beti sortzen plangintza kulturalaren hutsuneak betetzearren. Ez gaude horri begira. Begira gaude begira goiko kamino berrira, esan nahi baita, ez gaudela inori zerbitzeko geure buruak argitzeko baino. Mekaben Pott. (Pott banda 1978)

Manu Ertzilla, Jon Juaristi, Joxemari Iturralde eta euskal literaturan posizio gorenetan kokatuko ziren Joseba Sarrionandia eta Bernardo Atxaga izan ziren partaide nagusiak. Joseba Sarrionandiak beranduago esango zuen moduan, “kontrakultura” egiteko jaio zen Pott, “euskal kultura ofizial” baten etorrerarekiko hain zuzen ere (Kortazar 2003c, 112). Hala ere, Bernardo Atxaga handik gutxira bihurtuko zen, 1990ko Espainiako Literatur Sari Nazionalarekin, euskal idazle “ofizial”:

Sinbolikoki bederen, esango genuke Garaikoetxeak eta Espainiako erregeak poeta euskaldunei –Aresti eta Orixé– egindako erreferentziekin hasi zela prozesu politiko hori. Literatur sari ofizialekin segitu duen prozesu horrek, Atxagaren sariaz urrats bat gehiago du. Urrats garrantzitsua da, gaur egun literatur idazle ofizialik badugu Euskal Herrian Atxaga baita hori. (Gabilondo 2006, 63)

Joseba Gabilondok Garaikoetxea eta Espainiako Erregeak Aresti eta Orixeri erreferentzia egiten hasi zienean kokatzen du euskal kulturaren *ofizializazio* horren abiapuntua (Gabilondo 2006, 63). Abangoardian kokatuko ziren idazleak, poetak alegia, Arestiren poesia soziala gainditu beharko zuten. Honen harira, Jon Juaristik genero eta estiloen arteko harremana azpimarratu du: eleberrian *Txillardegiren* existentzialismoa nagusi zen bitartean, poesian Arestiren poesia soziala zen nagusi –Mikel Lasaren, Joxeanton Artze, *Iratzeder*, Lekuona eta Gandiaga²⁶ salbu–. Honela, Arestiren poesia soziala gainditzeko lehen saiakera Ibon Sarasolaren *Poemagintzan* (Lur, 1969) izango zen. Honela alderatzen zuen Gabriel Celaya eta Arestirekiko:

... bata eta bestearen arteko diferentzia nagusia Sarasolaren poemen asmoa ez zela Espainia lantzea ezta Euskadi eraikitzea ere, baizik eta, argi eta garbi, poemak eraikitzea soilik. Poesiaren kontzepzio instrumentalaren aurrean (Celayaren «poesia-etorkizunez-kargatutako-arma» eta «poesia-tresna» edo Arestiren «poesia-mailua») Sarasolak

²⁶ Felipe Juaristik, ordea, Gandiagaren *Hiru gizon bakarka* Arestiren eragina eduki zuen poesia sozialaren baitan kokatzen du (F. Juaristi 2000).

poesiaren kontzepzioa jarduera autonomo gisa aurkezten zuen, poemak deritzaten artefakto-motak helburu. (J. Juaristi 1987b, 128)²⁷

Sarasola Arestirekin aritu bazen *Lurren, Pott banda* Arestiren “hegalpean” sortuko zen eta, aurreko belaunaldiak ez bezala, ez ziren *euskararen militante* ezta *militante politiko* izango *literatura militanteak* baizik. Atxagak *Etiopiarekin* (Hauzoa, 1978) Aresti gaindituko zuen, Gabilondoren aburuz (Gabilondo 2006, 67–83).

Orain arte aztertutako urteetan, esparru politiko eta literarioaren arteko “lotura sakratua” mantentzen bazen ere –afera nazionalaren eta linguistikoaren artekoaren bitartez–, Atxagaren belaunaldiak autonomia bilatuko zuen esparru politikoaren frakzio dominanteekiko (Apalategi Idirin 2000, 65–77). Torrealdaik 1976an idazleei bidali zien inkestan, ETA-V Asanblada zen idazleen erreferente politiko nagusia –Kriselu antzerki-taldean haustura eragin omen zuena, alegia–. Aise uler daiteke honakoa, euskal kulturako esparruan autodidakten belaunaldi berriak erlijiosoen belaunaldi zaharrarekiko haustura, esparru politikoan ETAK EAJrekiko suposatutako hausturaren analogoa izan zen neurrian.

Inkesta berean, “idazle handienak” zeintzuk ote ziren galdetzen zien idazleei. Lehenengo laurak euskara batuaren alde arlo ezberdinetan aritu ziren belaunaldi berriko ordezkariak ziren. Aurrena, belaunaldi berria zenaren eleberriaren eta mugimendu politikoaren erreferente nagusia zen *Txillardeg*i ageri zen. Ondoren, Koldo Mitxelena hizkuntzalaria eta filosofia eta saiakera landu zituen Joxe Azurmendi ageri zen. Aresti laugarren postuan ageri zen, zazpigarrena zen Gandiagarekin batera, hamar idazle nagusien artean poeta gisa ezagunak ziren bakarrak (Torrealda 1977, 110–111).

Literatura esparru autonomoetan ohizkoa den “etengabeko iraultzaren” aldarrikapena bere eginez, abangoardia berriek nagusitu eta kanonizatu zen belaunaldi berri

²⁷ “la gran diferencia entre uno y otro residía en que la intención de Sarasola no era trabajar a España ni construir Euskadi con sus poemas, sino, lisa y llanamente, construir poemas. Frente a la concepción instrumental de la poesía («poesía-arma-cargada-de-futuro» y «poesía-herramienta» de Celaya o «poesía-martillo» de Aresti) elevaba Sarasola la concepción de la poesía como actividad autónoma cuyo fin se halla en el tipo de artefactos que llamamos poemas.”

zahartuarekin hautsi beharko zuten haiek utzitako euskal kultura eta politika esparruekiko heteronomiari aurre egiteko. Ikonoklastak izango ziren hauekiko, baina Arestirekin harreman anibalentea izango zuten. Batetik, poeta kanonikoa zen eta, beraz, gainditu beharrekoa. Baina bestetik, poeta outsidersa, malgizona, madarikatua izan zen *egiak esateagatik* belaunaldi zahar eta berrien arbuioa jaso eta poeta gazteen alde egingo zuena.

Hogei urte beranduago, Torrealdaik berriro egingo zuen inkesta eta, orduan, belaunaldi berri-berriko idazleak nagusituko ziren, ordena honetan: Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Joseba Sarrionandia, Joan Mari Irigoien, Koldo Izagirre (Torrealdaik 1997, 475). Eta berriro ere ekingo diote abangoardia berriek "etengabeko iraultzari". Bitartean, Arestiren erreferentzialtasuna zabaldu baino ez da egiten; hauxe da hurrengo kapituluetan aztertuko dudana.



2. Kapitulua.

Interpretazio-gune sinbolikoak

Aurreko kapituluan Arestiren obra zein jarduerak euskal kultura esparruaren baitan suertatutako transformazioen argitara azertu ditut, oraingoan bestelako testuinguruan murgilduko naiz. Aresti 1975an hil eta gaur egunera arte 40 urte igaro dira eta horiekin batera Arestiren gaineko narratibak osatzeko bitartekariak osatu. Egun poetari esleitzen zaion posizioa zein edukiak ulertzeko bitartekari horiei erreparatuko diet, interpretazio-gune sinbolikoak izendatu ditudanak.

Teresa del Vallek (2000) genero-memoriak azertu dituenean Bajtinen kronotopo kontzeptura jo du, toki jakin batzuek memoriak katalizatzeko duten gaitasunagatik (ikus 0.4. Bigarren topologia: Tokien memoriak, 41-45. orr.). Kapitulu honetan, Arestiren obra eta bizitzaren memoriarako bitartekariak aztertuko ditut. Iragan eta orainaldiko zubian hainbat nodo elkartzen dituzten interpretazio-guneak identifikatu dira. Lehen literatura jorratu badut, oraingoan beste *leku* horiek aztertuko ditut, hauek Arestiren gaineko narratiba baten eskaera eta honen konfigurazioan eragin nabarmena dute eta.

Abiapuntu gisa, aurreko kapituluan oso presente egon den marko orokor batetik abiatuko naiz: modernitatea. *Modernitatea* da hausturaren belaunaldiak euskal literaturaren norabidearen estandarte, eta haiei esleitzen zaie euskal literatura modernitatean sartu izana.

Euskaldun berri, euskaltzale eta euskaltzain ezaugarriei loturik agertzeko joera eta haren gaineko omenaldi, analisi zein eztabaidetan euskararen egoera eta batasunak duen tartea ikusita, *euskarari* dedikatuko diot atal bat.

Mundu euskaltzale horri Arestik bizi izan zuen bestelako gunea kontrajarri ohi zaio, bere poesiaren izaera soziala eta kezka soziopolitikoak islatuko lituzkeena: *La Concordia* kafetegiko tertulia. Bertako kideak maiz agertu izan dira bizi izan zuen erdal mundu horren berri ematen.

Hauetaz gain, beste bi interpretazio-gune ipini daitezke aurrez aurre: *Arantzazu* eta *Bilbo*. Arantzazuko Santutegia garaiko euskal kulturaren toki pribilegiatua izan zen euskaltzaleentzat, baita Arestirentzat ere. Zerutik hurbil, *Maldan behe* idazteko erretiro egokia izan zen Arestirentzat eta bertan egingo zen 1968an euskara batasunaren biltzarra jaso zuen. Kontrako irudia ageri zaigu Bilbori dagokionez, Bilbo infernua da, eta hala ere Arestiren poetikaren eskenatoki nagusia.

Arestiren obra zein haren gaineko irakurketak interpretazio-gune hauen bitartez jarri nahi ditut harremanetan, azken batean, hauek baitira, Arestik utzitako idatziekin batera, gaur egunetik iraganerako igarobidea ahalbidetzen duten bitartekari nagusiak.

2.1. MARKO KRITIKOA: MODERNITATEA

Aurreko atalean deskribatutako transformazioen katalizatzaile nagusia eta jarraian aztertuko ditudan interpretazio-gune sinboliko hauekiko transbersala den aspektu batetik abiatuko naiz: modernitatea. Euskal kultura esparruko berritzaileek nazionalismoa, euskara edota euskal literatura modernizatzearen izenean egin zituzten apustuak. Modernitatea *hausturaren belaunaldiaren* pertzepzio-oinarrrian kokatutako ezaugarria izan zen, produkzioarako zein balorazioarako iparrorratza. Are gehiago, euskal kultura zein egituratzen ari zen euskal literatura esparruetan definizio dominanteak ezartzeko gaitasuna izan zuten neurrian, euskal literatura historietan ere modernitatea nagusitu egin den kategoria da, garaiari buruz aritzerakoan. Hortik, belaunaldiei ematen zaion garrantzia, aurrerabidearekin bat egiten duen bilakaeran.

Espazioari dagokionez, Mendebaldeko filosofia, artea eta kulturako joerekin homologa litezkeen produktuak egin nahi zituzten. Zehatzago, Mendebaldeko eduki horiek esparruan esparruko joera dominanteak ziren, bereziki garai hartako Frantziako kultura dominazioarekin bat eginik. Lehen obra modernoek jasotako txaloak zentzu horretan uler litezke. *Txillardegik* existentzialismo erabiltzen badu makulu, bai nobelistikan bai filosofian, Arestik poeta sinbolista eta modernistak erabiliko zituen aurrena eta Espainiako poeta sozialak ondoren. Denborari dagokionez, aurrekoarekin apurketa batean oinarritzen da berritzaileen modernitatea: Lauaxeta-Lizardi-Orixe hirukoaren literatura, euskaldun-fededun binomioa, euskara garbizalea eta karlismoarekiko eredu modernoa izan nahi zuen nazionalismo aranista. “Etengabeko iraultza” esparru artistikoaren funtzionamenduarekiko inmanentea den deiadarra da, alderantzikatutako ekonomia bati esker, abangoardia berriei tartea etengabe zabaltzen diena (Bourdieu 1995, 355–359).

Zentzu horretan, ez da harrizkoa Kintanak Comteren eredu positiboarekin bat datorren literatura bilakaera bat atzematea esparruaren transformazioan –liburuen genero-eboluzioan konstata litekeena: gai erlijiosoak jorratzen dituen hasierako egoera

teologikoak egoera metafisikoari ireki bide zion tokia, literatura fikzioaren lanketaren bitartez, azkenean egoera positiboari bidea zabaltzeko, zientziaren eta jakintzaren gaineko lanak ugalduz. Bilakaera hau, euskal kulturaren produkzio eta erreproduzio guneen bilakaeraren zertu egiten da, gune horiek sasi-estatu baten egitura bat hartuko dute. Oso modernoa honakoa ere.

2.1.1. HEZUR-HARAGIRIK GABEKO GIZONA

Literatura edo kultura modernitate honek ere bere hondarrak sortu ditu. Gabilondok ildo horretatik aztertu ditu “nazioaren hondarrak”, egungo literaturaren eginbearra, bazterrean geratutako hondar horiek birziklatzea da eta (Sáenz de Viguera Erkiaga 2008, 84–85).

Transformazio horretako efektu nagusietako bat eskriturizazioaren pribilegioa izan da. Ahoskotasun haragitu baten kontra, euskara idatzi eta desharagitu baten alde egin da eta modan zen existentzialismo izan liteke horren arrasto argiena. Eskriturizazioarekin batera indartzen den errekonozimendu-ekonomia berrian, emakume-andereñoek hartu beharko zuten hezkuntzaren taktikaren ardura, idazle-gizonezkoek hizkuntza-lanketaren ardura estrategiko zegokien bitartean. Estrategia, Arestik fitxa-bildumetan biltzen zituen terminoak (Saizarbitoria 1973, 12), euskararen gudu-eremuaren ikuspegia ematen ziotelako. Taktika, andereñoen gorputzez gorputzeko hezkuntza-praktika zelako (de Certeau 2001).

Egungo aho bateko errekonozimenduaren zirrikitu nagusia Arestiren poetikari kritika feministak ireki diona da. Egungo euskal kultura ondarean osatzen duen zentralitatearen jakitun, Itxaro Bordak (Arkotxa, Borda, eta Alberdi 2014) batetik eta Iratxe Retolazak eta Danele Sarriugartek (Retolaza eta Sarriugarte 2014; 2015) bestetik Arestiren omenezko hitzaldiak erabili dituzte bere poetikaren genero-ikuskerak salatzen. Itxaro Bordak, *Harrizko herriaren gorputza* hitzaldian, oraindik ere hunkitzen jarraitzeko gaitasun handia duten poemak hartu eta ustez femeninoak diren ezaugarriak borrokaren alde sakrifikatzen beharra sumatzen du bertan. Honela *Nire aitaren etxea* poema interpretatzen zuen:

Gorputza bistan dena, aberria da. Gorputza aberriaren sinboloa da. Eta ene iritzitan, egia da idatzi dela euskal kultura produktioetik, edo aurkezpenetik gorputza desagertua dela erabat. Gorputzik gabeko

literatur produkzio bat badugu, pixka bat fantomeak edo espektroak, balira bezala pertsonak. Ez dut... orokorki erran nahi dut. Gorputzak ez dira bizi. Ez dute... Sufritzen dute asko baina ez dute gozaten, kasik bat ere. (Itxaro Borda in Arkotxa, Borda, eta Alberdi 2014)

2.1.2. NAZIONALISMOAREN ADIERAZPIDE

Beste zirrikitua, Arestiren ustezko nazionalismoa litzateke. ETAren nazionalismo modernoaren adierazpide gisa hartzen dira Arestiren poemak. Zentzu horretan, esanguratsua da oso frankismo garaiko euskal nazionalismo eta terrorismoaren gaineko ikerketetan Aresti nonahi agertzea.

Zentzu horretan, Gregorio Moránek *Los españoles que dejaron de serlo* (Morán 1982) liburuan Euskadiko egoera politikoa ulertzeko saiakeran, Arestiren poemak erreferentziaz josiko zuen, epigrafeetako bakoitzean *Harri eta herriko* poemetakoa lerro batzuk txertatuz. Jon Juaristik ere zuzenean jorratu zuen Aresti nazionalismoaren melankoliaren erreproduzioan jokatu zuen papera (J. Juaristi 1997):

Erbestepean, asaba zaarren baratza eremu latz bilakatuko zen. Topiko hauek landu zituztenak –Sabino Arana Goiri, José María Aguirre (*Lizardi*) eta Gabriel Aresti, hurrenez hurren– erretolika nazionalistaren sortzaile nagusiak dira. Beste batzuk ere badaude, noski, baina hauek hirurak aipatzearekin aski da. (J. Juaristi 1997, 18)²⁸

Topiko horien artean, *aitaren etxea* dago. Zentzu horretan, *Nire aitaren etxea* poema analisi dispositibo gisa erabili dute askok, euskal nazionalismoaren topikako hainbat elementu elkarlotzen dituelako –arbasoak, ondarea, sakrifizioa, biolentzia, e.a. (Zulaika 1988, 107–127; Azurmendi 2000, 129–131; Martínez Gorriarán 1993, 114–117)–. Are gehiago, egungo gizarte mugimenduek *aitaren etxea* topika gainditzeko beharra

²⁸ “Bajo el Dominio Extranjero (*erbestepean*), el Huerto de los Antepasados (*asaba zaarren baratza*) habría devenido Áspero Desierto (*eremu latz*). Los que acuñaron estos tópicos – Sabino Arana Goiri, José María Aguirre (*Lizardi*) y Gabriel Aresti, respectivamente—se cuentan entre los principales creadores de la retórica nacionalista. Hay otros, por supuesto, pero basta con mencionar a estos tres.”

aztertu dute zenbait ikerketak. Euskal kulturak hartu zuen forma zurrunaren adibide gisa, okupazio mugimenduaren forma malguen aurrean, “Aitaren etxean festa bat egingo dugu” leloa kontrajarroko zioten (Carbajo Padilla eta Koochaki Etxebarria 2007). Norabide berean, 80. hamarkadako *punkaren* inguruan sortutako euskal kultura erradikalak aitaren etxeari kontra egin beharra gaineratu izan da (Sáenz de Viguera Erkiaga 2008). Poema nonahi egonik, azken kapituluan honen aktualizazioak aztertu ditut (ikus 4.1. Nire aitaren etxea, 231-290. orr.).

2.2. EUSKARA

Aurreko kapituluan euskal kulturaren esparruaren transformazioak aztertu baditut Arestiren posizio eta posizio-hartzeak ulertzeko, euskal kultura eta erreproduziorik guneei erreparatuz, oraingoan prozesu horren produktu izan den euskara aztertuko dut. Gainerako interpretazio-guneak ez bezala, honakoak ez dio espazio fisiko bati erreferentzia egiten, baina espazioak bezala erabilerari zor dio bere forma eta balio sinbolikoa.

2.2.1. ARESTI, EUSKALDUNBERRI

Aurreko kapituluan euskal kultura esparruan suertatutako transformazioak hausturaren belaunaldiaren etorrerarekin lotu dut, zahar eta berriaren pertzepzio moduaren ezarpenak *habitusaren* egituraketan izan zuen eragina. Bertan, autodidaktak euskal kultura esparruaren posizio-eskualde eta disposizio-multzoko bat laburbiltzeko gaitasuna bazuen (ikus 1.4. Belaunaldien ethos euskalduna, 106-114. orr.), oraingoan autodidaktari lotutako propietate nagusietako batetan sakonduko dut: euskaldun berria.

Literatura esparruan, euskaldun berriaren irudia inork haragitzen badu, horiek Aresti eta Txillardegi dira. Kintanak bereziki azpimarratzen du honakoa. Erakutsi zuela euskara ikas zitekeela eta ondoren euskal idazle izan da, haren *euskaldunberritasuna* sinbolo bat zela gaineratuz (Kintana 1984, 28).

Euskaldun berri kategoria eta kategoria honi lotutako praktikak berriak ez baziren ere, *Txillardegi* eta Aresti bezalako euskaldun berrien idazle estatusa nobedade nabarmena

izan zen. *Leturariaren egunkari ezkutua* (1957) eta *Harri eta herri* (1964) argitaratu zituztenean, euskaldun berri izanagatik liburuen euskararekiko konplazientzia kutsuaz, kritika leunduak ageri ziren, beti ere idazleoi euskarara etorri izanaren berri ona azpimarratuz. Honela abiatzen zuen *Leturiako egunkari ezkutuari* kritika Nemesio Etxanizek:

Ona emen euskaltzaleok pozik ar genezaken idaztia. Dakarrena dakarrelako ta datorrenagandik datorrelako. Alper asko dugu euskeraz ikasten asten diranen artean. Asi... ta bertan utzi. Areago oraindik asteko kemenik ere ez dutenen artean. Gaurko idazti onen egileak ez du orrelakorik. Euskeraz ikasten asi, ta zazpi urterako onelako liburua ematen duan gizona, ez da baztarrerako egiña. Euskaldun berri degu, beraz, egilea. (Etxaniz 1957)

Harreman pedagogikoa da honakoa, irakasle euskaldun zaharrak ikasle euskaldun berriaren hanka sartzeak ikaste prozesu batean kokatuko balitu eta bide horretan jarraitzeko laudatuko balu bezala. Antzeko joera suma liteke *Harri eta herriri* egile ezezagun batek egin zuen iruzkinean:

Ori da neretzat Aresti'ren idazkera: euskera arlotean tarteka oso gauza jakingarriak eta biziak esaten dizkigu. Lan aundia egin du euskera ikasten eta artaz jabetu dan giñoan jabetzen. Baiña oraindik igarri zaio euskeldun berri dana. Esaera ta donairua sarri erdalduna du, naiz ta euskeraz aritu. (Ezezaguna 1964)

Azken batean, euskaldun petoa litzateke euskaldun berria denik igartzen ez zaiona. Zentzu honetan, euskaldun berria euskara guztiz bereganatu ez duena *-jabetu-* eta beraz euskaldun betea ez dena litzateke. Esparruko kontrako posiziotik egindako balorazioa ere bada honakoa. Edukien ("gauza jakingarri eta biziak") eta formaren ("euskara arlotean") arteko balio-aldeari ñabardura txikia baino ez zion Arestik egin beharko, "euskara arlotearen" ordez "euskara klaroaren" aldeko apustua eginez, aurrerago aztertuko dudan bezala.

Iruzkinez haratago, zenbait pasadizok Arestiren euskaldunberritasuna indartuko dute. Bere anaiak gogora dakar La Concordian tertuliakideren batek adarra jo omen ziola euskara asmatu batean hitz eginez, berak euskara ikasten ari zela eta astiro hitz

egiteko eskatzen zion bitartean (Juan María Aresti in Giménez Pericàs et al. 1999, 77). Hitzaldi batean ere, bere euskara ezagutza faltari ere barre egin omen zioten. Une horiek bizitza osora luzatzen duenik badago. Natxo de Felipek zuen “azentu abominablea” euskara guztiz bereganatzeko zuen belarri txarrari leporatzen zion (de Felipe 1984), Joseba Zulaikak ezagutu zuenean –bere bizitzako azken urteetan– euskaraz hitz egiteko erraztasun gutxi zuela eta etengabe pasatzen zirela erderara dio (Zulaika 2006, 20). Gaineratu nahi dudana zera da: laudorio guzti hauen gainetik euskaldun berriari disimulatzen zaila zaion erdaldun zantzua topatu ohi zaiola. Eta honek Arestirentzako balio zuen eta, oraindik ere, balio du, nahiz eta Aresti eta *Txillardegiren* gaineko narratibetan euskaldunberritasunari zentzu positiboa emateko saiakerak nagusi diren. Azken batean, euskaldunberria bi komunitateen igarobidean dagoen pertsonai gisa kokatzen delako (Gatti 2007, 85).

Igarobide autodidaktan ageri da Axularren *Gero* edo Altuberen *Erderismos* eskuz kopiatzen irudikatzen duten bakoitzean (Ibon Sarasola in Agirreazkuenaga et al. 2000, 133; Urrutia et al. 2013). Eta hortik euskararen instituzio gorena izan den horretako kide izatera, Euskaltzaindiara. Aresti, euskaldunberri, euskaltzale eta euskaltzain adjektiboen ondotik agertuko da, behin eta berriro. Lehenak izateari erreferentzia egiten badio, bigarrenak borondateari eta hirugarrenak estatusari. Euskaldun berriaren eredu arrakastatsuekin bat eginik, Zuazok euskara batuari dedikatutako liburuko eskaintza Aresti eta *Txillardegiri* zuzenduko zien:

Gabriel Aresti eta Txillardegiri: / erdaldun jaio, / erdaldun hazi, / euskara ikasi, / euskaraz idatzi, / eta... / euskara batua eraiki. (Zuazo 2005, eskaintza)

Arestiren ondorengo belaunaldietatik hasita, gaurko belaundietaraino, elementu sinbolikoa izango da euskaldun berrien artean garatuko diren hainbat jardueretarako, betiere bere euskalduntasuna beste propietate batzuei lotuta dagoen neurrian. Maskarada taldeak Oskorriekin batera *Harrizko Aresti hau* antzerkia taularatu zuenean, Mikel Martinezek hala azaltzen zuen Arestiri omenaldia egin izana:

Ba, begira, guretzat pertsonaia oso erakargarria da Gabriel Aresti. Gu bezala... bilbotarra eta euskaldun berria, antzerkigilea (poeta gisa ezagunago bada ere gehien bat), eta antzerki teorizatzailea gainera; eta bestalde, berak esan eta izkiriaturikoak ez ziren edonolakoak Euskal

Herriarentzako, gauza zeharo berritzaileak bait ziren. Eta zer esanik ez poesia eta antzerkigintzan! (Martinez 1986)

Aurrerago luze aztertuko dudan bezala (2.5. Bilbao, 176-193. orr.), Bilboko Gabriel Aresti Euskaltegiak bere izena Arestiri zor dio. Euskaldunberriaren izaera arrakastatsuz gain, beste ezaugarri batzuk bere egin zutelako euskaltegiko sortzaileek:

Bilbotarra, izan zen gure ikasle gehienak bezalaxe. Euskaldunberria izan zen gure ikasle guztiak bezalaxe. Eta, joder, nolabait esan, justizia sozial bateko... aldeko gizona izan zen, ba gu garen bezala. Euskaltegi honetan horrelako printzipioak, berdintasuna, elkartasuna, justizia, aurrerazetasun hori, ideologia konkreturik eduki gabe, baina printzipio horien alde... (Xabier Monasteriori egindako elkarrizketa, 2012)

Frankismo garaiko Bilboko euskaldun berria, Aresti euskaltzale desinteresatu gisa ere ageri da, euskarak jasaten duen errepresio eta garatzeko gune faltagatik. Nolabaiteko plus bat onartzen zaie garai hartan euskararen alde egiten zuten euskaltzaleei:

Bilbon sortu izatea, halaber, sinbolo ederra da, bestalde, Euskal Herriaren deseuskalduntzegune haundienetako bat, bertakoek nahi izanez gero, berreuskalduntze-bidean nola aurrelaria bihur daitekeen erakusteko, hau da, kaletarrek euskara galdu bazuten lehen, orain kaletarrek berek berpiztu eta indartuko dutela. (Kintana 1984, 28)

Hala ere, euskaldun berria parametro berrietan definitu duenik badago. Andolin Eguzkitzak esan omen zuen euskal idazle guztiak euskaldun berriak zirela eta horren harira, Juaristik Arestiren euskaldunberritasunari dimentsio ezberdina ematen dio:

Literatura hizkuntzaren aurrean, denok gara euskaldun berriak edo erdaldun berriak, berdin da. Leizarraga edo Axular euskaldun berriak ziren, bakoitzak bere literatur hizkuntza sortu ahal izan zutelako. Baina Bernat Etxepare edo Pedro Inazio Barrutia euskaldun zaharrak izan ziren beti, mintzatuz edo izkiratu. Ez zuten literatura bat kreatu, mintzatzen ziren bezalaxe izkiratzen zuten. (J. Juaristi, Landa, eta Alberdi 2014)

Hau da, euskara berritu zuten Leizarraga eta Axularren parean kokatuko luke Aresti. Euskara emana den hizkuntza baten gisan ulertu ordez, euskara etengabe sortu eta birsortu egiten den hizkuntza litzateke. Zentzu horretan, euskaldun berria kategoriaren egokitasuna ez letorke horrenbeste idazlearen biografiaren zein puntutan euskaldundu izan den argitzearekin, baizik eta euskara berarekin duen harremanetik. Hau da, ez du inporta Leizarraga, Axular edo Arestik noiz-zelan bereganatu zuten euskara, baizik eta zelako harremana eduki zuten harekin idazkeran bertan: euskara arrotzu egin zuten, beren garaiari eta erabilerei egokitzeko. Zentzu honetan, Aresti euskaldun-berritzailea litzateke euskaldun-berria baino, jarraian aztertuko dudana bezalaxe.

2.2.2. EUSKARA EREDUA: MORDOILOA ETA GARBIA

Euskara ereduaren gaineko eztabaiden lehen arrastoa *Mugaldeko herrian eginikako tobera* (Aresti 1961c) Bizkaiko Aurrezki Kutxak antolatutako Toribio Alzaga antzerki saria ematen ziotenean topatu dut. Kasua Joxe Azurmendik ekartzen du Arestik Andoni Arozenari bidali behar zion gutun baten harira. Testuingurua ulertzeko, euskara garbia eta mordoiloaren arteko eztabaida ekartzen du gogora Azurmendik (1991).

1962an aldizkari batean topatzen duen artikulu anonimoak kexua adierazten du Arestik saria jaso izanagatik, *¿Dinero vizcaíno para eso?* izenburupean. Egileak bi argudio nagusi ipintzen ditu mahai gainean obraren sariketa salatzeko. Batetik, Bizkaiko Aurrezki Kutxak emandako saria izanda, bizkaieraz ez idatzi izana. Bestetik, Arestiren euskara ereduaz da kexu, era ironikoan. Aditzera eman nahi duena zera da: euskarazko idazketatik urrundu eta erabat arrotzen duela. Horretarako pasarte baten transkribapenez baliatuko da (Arestiren euskarazko zita letra *etzanean*):

Obrako pasarte bat transkribatuko dugu –antzeko askoren artean, gure irakurleek bere literatura euzkerikoaren edertasunaz goza dezaten:

Atabalaria.- Erreboluzioa ta libertatea, biba! biba!

Lehen hordia.- Fuera, Fuera!

Atabalaria.- Gatiberioa eta miseria, fuera, fuera!

Beste hordia.- Biba, biba!

Halako “gauza” idatzi, argitaratu eta saritzeak ez du izenik, baina ohartarazi behar duguna, herri euzkeldunak jakin beza, bere egileak eta epaimahaikideak Euskaltzaindiako kide direla eta beren ildoari ekiten diotela, era honetan euskal hizkuntza “araztuz” eta “edertuz”. (Azurmendi 1991, 137–138)²⁹

Salaketa barbarismoak erabiltzen dituen euskara eredura zuzentzen da, hau da, gaztelaniazko hitz homofonoak erabiltzeko joerara. Euskara nahasia, berezkoak ez dituen hitzak hartzen dituen, *euskara mordoilo* gisa definitua izango zen, bereziki bere aurkarien partetik: *euskara garbiaren* aldekoen partetik.

Azurmendik zioen bezala, Euskaltzaindiak hartutako euskara eredia zen eztabaidan zegoena. Horretarako Arruzak, *Ikaslek* eta Orixek bere balizko azken artikulua gaineko irakurketa egiten du, Arestik *Hierro* egunkarian emandako erantzunarekin batera.

Testuinguru horretan azaltzen du zelan aurreko urtean Lizardi poesia sarian Orixe izan zen saritua eta ez bera, horren ondorioz, bere *Zuzenbide debekatua* “Lizardi Saria irabazi etzuen poema” epigrafepean eman zuela argitara *Eganen*. Jarraian gogor tematuko omen zen poesiari argitaratzen ez zuen *Jakin* aldizkariak *Azken poema* bertan agertzea onartu arte. Eta hala izan zen, eskela gisan argitaratua:

“Kantsazioaren aitzakiarekin / nire gradotik / dimisioa / presentatzen dudalarik, / beste enplego / nekagarriago bat / onartzen dut” (Aresti 1961a)

Aresti euskaraz idazteari uztear egon zen une hartan, “Kantsanzioaren aitzakiarekin” beste Unamuno bat sor zitekeelako susmoa, euskaltzale izan ziren eta izateari utzi zioten zerrenda luzean beste bat gehiago. Hala ere, euskaraz idazteari eutsi zion,

²⁹ Vamos a transcribir un pasaje –entre otros semejantes– de la obra, para que nuestros lectores” saboreen la belleza su literatura euzkérica. (.../...) Escribir, publicar y premiar tal “cosa”, no tiene calificativo, pero sí hemos de hacer constar, para que el pueblo euzkeldun lo sepa, que su autor y Jurado pertenecen a la Academia de la Lengua Vasca y siguen sus directrices, “depurando” y “embelleciendo” así la lengua vasca”.

ereduaren gaineko eztabaidan parte hartuz. Hurrengo bi epigrafeetan aztertuko dut honakoa.

EUSKARA KLAROA

Arestiren euskara ereduari buruz aritzerakoan maiz kondentsatu egiten da bere biografia propioan euskararen bilakaera bera. Hasierako Aresti aranista izango zen euskara ereduz zein ideologiaz (J. Juaristi 1999, 97–101; Eguzkitza et al. 2000, 150), baina bi ezaugarriak baztertuko zituen. Zentzu horretan, eredu arantarekiko bilakaera azaltzeko ohiz erabiltzen den pasadizo batek hasierako euskara ereduaren gaineko bilakaera agerian jarri eta bere euskara ereduaren aldeko apustuaren dimentsioa eta zioa indartu egiten ditu. *Euskaltzale Bazkunaren* metodoa jarraituz ikasi omen zuen euskaraz eta, nolabait, ikasi zuen euskara horri bizkarra emateko erabakia Deban arraultza frijitu pare eskatzeko “arraultza elia gaimelduta” edo, beste bertsioen arabera, patata tortila eskatzeko “lursagarreko arraultzopil bat” eskatu eta tabernariak alemanez ez zekitela erantzun omen zionean hartu zuen (Kintana 1985, 543; 1998, 4; Monasterio 2013; Ibon Sarasola in Eguzkitza et al. 2000, 133).

Bilakaera hori –Aresti garbi eta Aresti mordoiloaren artekoa–, euskara ereduaren arauak inposatzeko borroka zabalago batean gertatutakoak laburbiltzen ditu. Euskara mordoiloaren eta garbiaren arteko ika-mikan *Txillardegia* izan zen eragile nagusia, 1958an egindako Euskaltzaleen Biltzarrean parte hartu zutenekin batera –Mitxelena, Villasante, San Martin, Altube eta Aresti bera–, mordoilozaileen azpijokoa izan zen garbizaleen aburuz. Joera garbizaleak, berriz, *Orixek* zuten maisu (Azurmendi 2007, 81–85). *Orixek* garbizaletasuna haragitzen zuela esan daiteke, autodidaktari kontrajartzen zitzaion *habitus* erlijioso haragitzen zuen bezalaxe (ikus 1.4. Belaunaldien ethos euskalduna, 106-114. orr.).

1959ko apirilaren 2an, Euskaltzaindiak “agiria euskal itzei buruz” atera zuen, joera mordoiloari nolabaiteko sostengua eskainiz (Azurmendi 2007, 95). Bertan, hitzaren jatorri etimologikoaren gaineratik, erabileran errotua dauden hitzen erabileraren alde egiten zuen (Torrealdai eta Murua Uria 2009, 65).

Euskara eredu bien arteko eztabaida sutua izan zen, Arestiren *Toberaren* inguruko eztabaida lekuko. Neurri handi batean, hori beste esparruetan suertatu ziren ika-mikei zor zaie. Azken batean, euskara garbia joera tradizional, erlijioso edo, hitz batean

esanda, aranistarekin bat etorriko zirateken, euskara mordoiloizaleek joera moderno, laiko eta aurrerakoiago bat zuketean bitartean (Azurmendi 2007, 101–102). Euskarak izan beharko lukeenaren gaineko eztabaidak sustrai sakonagoak zituen, gizarte ereduaren gaineko eztabaida azaleratzen zuen. *Jakin* aldizkariaren aukerari dagokionean, Azurmendik dioen bezala “filosofo” edo “jakinzale” zein “psikologia” edo “arimiztia” hitza erabiltzeak inplikazioak ditu euskarak gizartearekin eta, oro har, euskaraz emandako eztabaidek beste hizkuntzatan emandako eztabaidekiko homologazioarekin.

Norabide berean doa euskara mordoiloa bere egiteko duen era berezia. *Harri eta herrin* agertuko da *Euskara klaroa* (Aresti 2008, 90–91) poema, bertan hizkuntza esan nahi den hura azaltzen duen tresna gisa ageri zaigu. Aurrerago, *Euskal Harrian* berriro ere arituko da *Hibai ugaria* poemaren euskararen gainean aritzeko:

“Herri isilaren aho biribila, / Hibai ugaria, / zeineko ura / soineko hura / da, / gure gogoak / janzten zuen / hizkuntza eskuarra / egiak esateko / euskera / klaroa, /asmaketatik eta eldarnioetatik / minzaera / garbitua, / pucu ilun batetik / datorrena, / orain ixas zabal batera / lasterrean / doana. (...)” (Aresti 1986d, 143–144)

Oraingoan, *euskara klaroa* egiak hobekien janzten dituen tresna gisa ageri zaigu, hau da, kode asmaketarik behar ez duenez gero, egia biluziagoak botako duen hori hain. Klaroa argia delako, klaroa gardena delako, uraren modukoa. Egungo irakurketatik, “euskara klaroa” hitz-elkarketak erdarakadaren traza hartzen du, *Toberako biba* eta *fuerek* bezalatsu. Batetik, garbizaletasuna salatzen du era honetan, euskara klaroaren aldarrikapenak parametro horiei itzuri egiten dietelako –“euskara arlote” gisa kalifikatu zutenei–. Bestetik, garbi eta mordoiloaz bestelako kategoria bat bere egiten du: klaroa. Mordoiloak konnotazio negatiboak ditu, garbiarekiko oposizioan sortu den neurrian. Sarasolaren hiztegiak bi adiera nagusi jasotzen ditu: 1. “Nahaspila”. 2. “Beste hizkuntzetako hitz eta joskerez nahasia; garbia ez dena, nahasia.” (Sarasola 2014). Lehenak berez badu, hizkuntzaren komunikazio gaitasunari dagokionez, zentzu negatiboa. Bigarrena garbiaren parametroetatik era negatiboan definitutakoa da. “Klaroak” alde egiten du alde aurretik sortutako kategorietatik eta komunikazio gaitasuna ipintzen du hizkuntza-ereduaren kalifikazioaren erdigunean. Horretarako, “argia” hitza erabili ordez, gazteleran homofonia den hitza erabiltzen du. Zentzu

horretan, hitz aukeraketak berak salatutako garbizaleen joeraren kontra jotzen du: Txillardegik garbizaleei “erdera de signo menos” egitea egozten bazien (Azurmendi 2007, 83), Arestik “erdera de signo más” egingo zukeen bere poetikan komunikatu nahi zuen horren zerbitzura ipini behar bazuen.

AXULAR, LEIZARRAGA, PERNANDO AMEZKETARRA, BONAPARTE

Toberaren sariketaren kontrako aldarriak, baina, ez ziren izaera mordoilora mugatzen. Esan bezala, Bizkaiko Aurrezki Kutxak bizkaieraz idatzita ez zegoen testu bat saritu izana ere salatzen zen. Aresti euskara batu baten alde aritu zen horietakoa izan zen eta euskara batu horretarako eredian euskalki eta literatura tradizioen inguruko eztabaida ere izan zen. Eztabaida hori, neurri handi batean, jarraitu beharko ereduaren gainean izan zen: Aresti eta enparauentzat euskara batua osatzeke zegoen, eta nonbait bilatu behar zen euskara batuaren lehengaia.

Euskalki guztiak ikasi eta batzuk –bizkaiera, gipuzkera, nafar-lapurtera– menderatzera heldu ostean (Kintana 2000, 64), Axular eta Leizarraga sakon bereganatuko zituen (Onaindia 1984; Arkotxa 2000), Krutwigek zabalduetako bideari ekingo zion:

Krutwigek maila teorikoegian aldarrikatua, bi idazle gazteagok, Gabriel Arestik poesian eta Txillardegik prosan, plazaratuko zuten. (Kintana 2000, 65)

Bartzelonan emandako hitzaldian (Aresti 1986k), euskal literatura hastapenen irakurketa egingo zuen, honako egile-zutabe hauek erdigunean kokatuz: Axular, Leizarraga, Fernando Amezketarra eta Louis-Lucien Bonaparte.

Arestiren aburuz, egileetako bakoitzak literatura bat sortu zuen, Juaristik Arestiri buruz esan zuen zentzu berean. Bernat Etxeparek aurre-literatura egiten bazuen, Leizarraga izango zen bere *Bibliaren* itzulpenarekin aurrenekoz kultura *unibertsal* bat euskaraz transmititzen saiatuko zena (“culternista”), ildo protestantean, oztopo ez diren bitartean, euskarazko forma jatorrenei eutsiz (“purismo”). Oihenartek salbu, inork ez omen zion Leizarragaren ildoari eutsiko. Etorriko zen literatura-ildo nagusia, Axular eta Sarako Eskolatik Sabino Aranaren garbizaletasuneraino egingo luke aurrera, Joane Etxeberri kate-begi izanda. Axularrek anti-Leizarraga bat egingo zukeen, joera “kulternistari” joera “populista” kontrajarriz. Bertsolaritzak –bertsopaper eta kantutegiek barne– Fernando Amezketarren eskutik “literatura berri” bat eskainiko

zukeen. Tartean, Louis-Lucien Bonapartek egindako euskalkien gaineko lanak euskarari izaera bateratu eta sistematiko bat izan zuen ondorio –euskal grafia batasuna, besteak beste–.

Norabide honetan doa Juaristi bi garai bereiztuz: poesia dialektala egiten duen hori –*Bizkaitarrak*; Etxepare eta Barrutiaren pareko– euskal literatura eredu bat emana egonik, parametro horien baitan sortzen zuenean; eta gramatika bat garatzen zuen hori –Axular eta Leizarragaren pareko– euskal literatura baten aldeko eredu propioa garatzen zuen garaia (Jon Juaristi in J. Juaristi, Landa, eta Alberdi 2014).

2.2.3. HATXE

Liskar hauek guztiak oraindik polemika handiagoz azalduko dira Arantzazuko Biltzarraren erabakien ostean. Euskara idatzian *h* grafiaren erabileraren inguruan eztabaida sutsuak gertatuko dira. *H*-ren lubakiaren alde batean ala bestean kokatuko dira euskaltzaleak, aurretik zetozen ezberdintasunak azaleratuz.

Hatxe-kontrakoek, Arantzazuko bidea eta bertako adostasunak indarrean jartzea konspirazio baten moduan irakurriko dituzte. Hala ere, hatxezaleek gertakizunen kontaketa dagokionean, ñabardura kontuetan baino ez dira ezberdinduko. Biek ala biek mugarri nagusiak Baionan 1963an eta Ermuan eta Arantzazun 1968an kokatuko dituzte. Konspirazio traza, neurri handi batean, egun hatxezaleen euskalgintzan narrazio naturalizatua ezartzeko eduki duten indarrari zor zaio.

Baiona, 1963. Euskal Idazkaritzaren baitan, Hizkuntza Saila sortu zen, euskara idatziaren batasuna bultzatzeko. Talde horren baitako aniztasuna azpimarratu ohi da: bai batzartutako jatorrizko lurraldeei (Torrealdai eta Murua Uria 2009, 73) eta parte hartzen zuten erakunde eta eragileei dagokionez: “EAJ, ETA, Enbata eta Eliza” (Zuazo 2005, 154). Aniztasun hori azpimarratzea hatxe-kontrakoei emandako erantzun gisa uler daiteke, Lekuonak Baionako biltzarrean “erbesteratu etakideak, gehienbat EAJtik banatutakoak” zeudela azpimarratuko baitzuen, guztiak marxista eta etakideak ez baziren ere, Sabino Aranaren kontrakoak zirela azpimarratuko zuen (Latiegi eta Oñatibia 1983, 21). Honela deskribatuko zituen bertan hartutako erabakiak Latiegik:

Bilera hartatik atera zena Euskalki berri bat izan zen: arrotza, mordoiloa, atzerrikoa, laborategi-produktua, hitz frantses eta gaztelauen

nahaspila, ahaztutako arkaismoz eta hautsez estalitako liburu lapurtar zaharren orrialdeetatik erauzitako latinismo bihurrituez josia, zeinak antzinako eliz-unibertsitateen hizkuntza eskolastikoez eraginpean zeuden. (Manuel Lekuona in Latiegi eta Oñatibia 1983, 22)³⁰

Baionan bultzatutako euskara ereduari 60. hamarkadan *Toberaren* sariketa zorrotz kritikatu zutenen ezaugarri berdintsuak egozten zaizkio. Batetik, izaera mordoiloa – hala itzuli dut “bárbaro” hitza, nolabait propioari arrotza edo artifiziala izanagatik kontrajartzen zaizkion adjektiboak erabiliz–. Bestetik, arkaismo eta latinismoak Sarako Eskolari edota, bereziki, Leizarragari erreferentzia egiten die. Arestik, euskaraz kultura unibertsalaren hastapen galdua kokatzen zuen horri hain zuzen ere, zeinetan euskarazko hitz jatorren erabilpena, kulturaren transmisiorako maileguen (latinismoak, hain zuzen ere) erabilpenaren arteko oreka topatzen zuen.

Ermua, 1968. Arantzazuko bilera baino egun batzuk arinago, Gerediaga Elkarteak deitutako euskal idazleen jardunaldiak egin ziren. Latiegiren iritziz, bilera hartatik Euskaltzaindiari *h*-a noiz erabiltzeko galdera luzatu zitzaion, trikimailuz, Arantzazuko Biltzarren agendan eragiteko asmoz (Latiegi eta Oñatibia 1983, 27). Euskaltzaindiaren historia-liburu “ofizialean”, Torrealdai eta Muruak, ostera, idazleen bilera erraztea Euskaltzaindia beraren ekimena izan zela diote, beren iritzia Arantzazuko Biltzarren aurretik haztatzeko asmoz.

Arantzazu, 1968. Arestiren egitasmotzat hartzen da Euskaltzaindiako Urrezko Eztaien ospakizunaren erdigunean euskararen batasuna kokatzea (Kintana 1985, 544). Hala zioen Arestik berak:

Urtarrileko batzarra Bilbaon ospatu zen. Nire denbora apurretik ordu pare bat ohosturik, bertara azaldu nintzen. Eta gure Akademiaren urrezko eztaiak ospatzeko asmoak aipatu zirenean, jaiak eta jaiak ekarri ziren ahotara. Orduan hasarratu nintzen: “Gureak guztiak dira

³⁰ “Lo que salió de aquella reunión fue un nuevo Dialecto Vasco: extraño, bárbaro, extranjero, producto de laboratorio, amalgama de palabras francesas y castellanas, de arcaísmos olvidados y de latinismos deformes arrancados de las páginas de polvorientos libros viejos labortanos fuertemente influenciados por el lenguaje escolástico de antiguas universidades eclesiásticas.”

jaiegunak. Eta astegunak noizko dira? Lanean haritzeko orduak ez al du oraindik gure atea jo?” (...) Eta literatur-euskara bat egon dadin, aipatu nuen premia. Katalanen eredia ekarri nuen aiputara, Pompeu Fabraren lan miragarria. Hizkuntza batek ezin dukeela bizitza normal bat eraman, erregela eta lege zehatz hestu batzuei ez badago loturik. Eta Euskaltzaindiak niri jaramon egitea beste erremediorik ez du eduki.” (Gabriel Aresti in Zuazo 2005, 157)

Koldo Mitxelenak euskara idatziaren ortografia batasunaren ardua hartu zuen *h*-a zenbait kasutan erabiltzeko zehaztuz. Eta horren inguruan sortu zen iskanbila. Batzar-agirira joz gero, *h*-ren aldeko eta kontrako argudioak ikus litezke, *Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka* izenburupean. Honela, hatxezaleek Ipar Euskal Herrian ahoskatu egiten den foneman oinarritzen dira batik bat, Hego Euskal Herrian fonema mutua ageri den horietan. Etxaidek ondo laburbilduko zuen *h*-aren aldeko hautua:

Iparaldeko gure anaiak ez dezakete baztertu oguzten duten letra bat, hori egitea euren mintzaira arimari zati bat erauztea bailitzake eta, bestalde, guri «h» horrek ez digu batere kalterik egiten, baitipat gogoan edukita eskola españoletan hazi geran euskaldun guziok «h» mututzat daukagula. (Euskaltzaindia 1968, 227)

Bestetik, hatxe-kontrakoek idazteko eta irakurtzeko ezarritako zailtasunak aipatzen zituzten, beste hizkuntzetako joerak *h* mutuak desagertaraztekoa dela agertuz. Justo Mari Mokoroaren hizketaldiak ondo islatzen du *h*-aren kontrako argudio eta, bide batez, erreferentzia literarioak ere zenbateraino aldentuta zeuden orduko hatxezaleen eta egungo kanonarekiko:

Azken urteotan argitaratu diran zenbait liburu gozo («Ezkontza-bidean», «Arrate-ko Amaren altzotik» Aita Lino Akesolo-ren Salmoak eta abar) zenbat lagunek irakurriko zitun gure errietan H-zaleen elorriz eta sastrakaz josita argitaratuko balira. (Euskaltzaindia 1968, 224)

Ñabardurak badaude ere –hitz homofonoei, bokal elkarketei... dagokionez– gero eta nabarmenagoa da *h*-a dela lubaki nagusia. *H*-ren auziarekiko era analogoan, eztabaida euskararen batasunaren aldeko eta kontrako ateraldiekin nahastuta ageri da.

Honela, *Jakin* aldizkariak 1959tik bertatik egin zuen Euskaltzaindiak hitzen jatorriaren gaineko deklarazioaren alde, bertan hartutako erabakiak aldizkariko arau gisa erabiliz. Honela, urte horretan bertan, joera garbizalearen buru izan zen *Orixeren* autoritatea alde batera utzi eta Euskaltzaindia onartuko dute arauemaile (Torrealdai 1979). *Jakinek* ildo horri jarraitu zion, Arantzazuko Biltzarraren ostean. Olerti aldizkaria, aldiz, ildo horren kontra aritu zen, hala eskatzen zion Nemesio Etxanizek Santi Onaindiari zuzendutako gutun batean –eta azken honek bete:

Oraintxe dezu aukera polita aldizkaria biziarazteko. *H*-ren kontuak gai asko emango dio jendeari ezpai bizia sortzeko.(...) Aiek beren *Jakin* aldizkarian eskuak jarein dituzte nai dutena esateko. Guk *b*-ren kontra gogor jokatzeko, or daukagu *Olerti*. (...) Guztiok *Jakin*-en erronkari erantzun bear diogu, ta Euskaltzaindiaren aolku orri ez entzun egin. (...) Ia, ba, atzartzen dituzun erdi-lotan dauden *b*-ren kontrako guztiak. Gazteok beren asmoak aurrera eraman nai dituzte, azkenean urtero letra bat sartu nai digute. Orregatik garrantzi aundia du oiei bidea istek. (...) Agur, bat, ta presta azkar gure eraso gazte zazpikien aurka. (Nemesio Etxaniz in Zuazo 2005, 158)

Arantzazuko ildoaren ahultasuna ikusita, 1970an Euskal Idazleen Elkarte berriro ere bilduko zen Baionan eta Eibarren batasunaren inguruko hainbat erabaki hartzeko asmoz, Arantzazuko erabakiak nolabait berretsiz. Erabaki horiek Arestik eta Kintanak, “Luis Mitxelenaren promesaren pean” eta Euskal Idazleen Elkartearen izenean, *Batasunaren Kutxan* argitaratu zituzten. Liburua tresna zen batetik, idazleek eskura dituzten baliabideen kutxa. Baina bestetik, sinatzaileek izenpetzen duten zina ere bazen. Sarreraren ostean, *Baionako zina eta mezua* ageri dira, bertan Elkarteko kideek hartutako erabakiak ematen dira argitara. Argitarapenetik 1971ko urte bukaerara bertan bildutako araei men egiteko konpromiso hartzen zuten, bestelako moldeak erabiliz gero, “kutxaren giltzariei” adieraziz. Idatzi horiek Mitxelenari helaraziko zitzaizkiokeen, zin egindakoek bere erabakiei men eginez. Euskaltzaindiari haien arteko batasuna ontzat hartu zezan eskatuz, honako zin honekin izenpetu zutene: “Hemen hartutako erabakiak beteko ditugula zin egiten dugu, gure ohoreagatik” (Kintana eta Aresti 1970, 10-15).

Latiegi eta Oñatibiaren iritziz, ostera, zin egite hori Arantzazuko erabakien zehaztasun faltari zor zitzaion, bertan Euskaltzaindiaren arauetarako jaramonik egin gabe euren bide propioa jorratuko zuketena. Hauen iritziz, hura “Gurutzaketa «batuistikoaren» «egun santua» izan zen, beren «Uztailaren Hemezortzia», Eibarreko juramentu «charlotiarreko» egun sonatua” (Latiegi eta Oñatibia 1983, 27) izan zen.

Interpretazio guztien gainetik, argi dagoena Arantzazuko erabakien bat-batekotasuna da, Euskaltzaindiak ateratzen duen oharrean bertan dago hori. Are gehiago, Manuel Lekuona euskaltzainburuaren sarrera hitzaldiari erreparatuz gero, Arantzazuko Biltzarraren erabakien izaera mugatua agerian geratzen da. Honela adierazten du Biltzarraren erabakien aplikazio-eremua:

... idatzietan, ez izketan (itz, orain arte bezela, bakoitzak bere eran); idazleen artean, ez errian (erriak orain arte bezela); eta idazleak berak beren idazti errikoietan, ez goi-idaztietan (ez olerkietan, eta Nobelistikan, adibidez; ortan idazleak azke gelditzen dirala. bakoitzak bere erara). Itz bitan: batasuna bi gauza oietan: a) adlitzkarietan («Zeruko Argian», «Anaitasunean», «Yakin'en», «Jaunaren deian», «Laiaketan» etab. etab.) eta b) Ikastoletan, Ikastoletako Liburuetan eta jolasketetan etab. etab.; d) Liturgiaren zenbait zatitan... (Manuel Lekuona in Euskaltzaindia 1968, 139–140)

Ortografiaren gaineko erabakiak hurrengo urteetan berretsiz joango ziren, euskara batuaren zertzearekin batera. Manuel Lekuona agertuko zen prozesu horren kontra eta 1970an Euskaltzainburutza utziko zuen (Torrealdai eta Murua Uria 2009, 74) edo, bere hitzetan, botako zuten bertatik (Latiegi eta Oñatibia 1983, 38). Bere ordean, Luis Villasante izendatuko zuten Euskaltzainburu, euskara batuaren aldeko fraide frantziskotarra.

Orixek garbizaletasuna bezala, Manuel Lekuonak ederto haragitzen du hatxe-contrakoen taldea. Euskaldun zaharren perfilarekin bat letorke: gerra aurretik euskaltzale ibilia, ahozko literaturan aditua, apaiza. Zuazok (2005, 168) *h*-ren lubakia euskaltzaleen praktiken arabera banatzen du: hatxe-contrakoek ahozko literatura zuten aztergai nagusia eta euskararen erabilera herri edo eskualdeen baitara mugatua zuten; hatxezaleek aldiz, idazle, kazetari, irakasle eta testugileak

ziren batik bat, haientzat euskarak lurraldeen arteko komunikazioa ahalbidetu behar zuen lanabesa zen.

Hurrengo urteetan, euskara batua ezarri ahala, *h*-a kokatuko zen miran, gatazka osoaren sinbolo gisa. Labaienek, gerra aurreko antzerki idazle nagusiak, *h*-a “aurreko berrogeita hamar urteetan egindako lana zokoratzeko” asmoarekin sartu zela zioen:

Kristautasunarekiko gorrotoak, ez bidezko sozialismo baten kontzientziak, bultzatzen ditu beren obsesio teoriko-iraultzailean, IRAULTZA! gure herriaren balioen altxor moral eta espiritualaren ukapenari. (.../...) Beren bildumetan argitaratuz doazen liburu eta liburuxkak irakurtzea baino ez dago, beren egunkari eta aldizkarien artikuluak, ia denak zantarkeriez eta fraseologia marxistoidez beteak. Hori bai, *batasunak* geruzapean eta *batxeetan* oparo.” (Antonio Maria Labaien in Zuazo 2005, 163)³¹

Josu Arenaza jeltzaleak *Tus hijos y el batua. El mito del batua* argitaratuko zuen (Arenaza Lekerikabeaskoa 1974), liburuaren azalak agerian uzten du bere *h*-rekiko jarrera: zerutik erortzen den *h* letrak baserri bat –aitaren etxea?– mehatxatzen duen tximistaren traza hartzen du. Bere ustez, *h* politikoa da erabat, “mailua eta igitaiaren, gurutze gamatuaren edo, aldi berean, bien pareko” (85).

H-ren alde, antzeko argumentua eman da, baina kontrako joera ideologikotik. Honela, Haranburu Altunak bere *Euskal Literatura 72* liburuan, ordura arteko euskara aransimoak kutsatua zegoela esango zuen eta eten iraultzaile bat suertatu zela euskararen baitan:

Urte hauetan, 1960-64, gertatu den mugimenduan, berriz, forma eta gaiaren aldetik izan da. Hizkuntzarekiko eten formalista horren sinboloa *b* dugu. Iraultza guztiak du bere sinbologia eta, historikoki bederen, *b*

³¹ “Es el odio al cristianismo, no la conciencia de un justo socialismo que les impulsa en su obsesión teórica-revolucionaria, ¡IRAULTZA! a la negación de los valores del tesoro moral y espiritual de nuestro pueblo. (.../...) No hay sino leer los libros y folletos que van publicando en sus colecciones; los artículos de sus periódicos y revistas, plagados casi todos de obscenidades y fraseología marxistoide. Eso sí bajo capa de *batasunak* y profusión de *haches*.”

agertzen zaiku sinbolo plastiko bezala.(Luis Haranburu Altuna in Zuazo 2005, 161)

Are gehiago, *h*-ren eta euskara batuaren atzean ETA zegoelako tesia agertu zuten Latiegi eta Oñatibiarentzat, enkriptazio-modu gisa ulertzen dute:

Agian, irakurle, ikurrintzat *h*-a zergati artu zuten jakin naiko duzu. Ba..., *h*-ari eleneraz ETA esaten zaiolako. ETArrak baitziran, ain zuzen, ‘el batua’ren sortzaille aiek danak! (Zuazo 2005, 163–165)

Honek guztiak duen konspirazio kutsua esparruetan suertatutako transformazioen harira uler daiteke, hauek eragindako frustrazio eta ulertzeko zailtasunetan. Honela, Arantzazuko Biltzarrean, *h*-aren erabilerak Justo Mokoroa batek liburu erlijioso edota moral eskuliburuen irakurketa zaildu egiten zuela adierazten zuen bitartean, ez zen konturatu belaunaldi berriek, *h*-rekin edo gabe, ez zituztela testuok ulertzen edo, hobe, ez zutela testuok ulertzeko beharrik, interesik (Azurmendi 1976, 92). Amaia Lasak oso etiketa erabilgarriak erabiltzen ditu orduko “idazlego ofiziala” “sortzen ari zen idazlegoarekiko” bereiziz. Lehenengoek Literatura unibertsalean kanon zirenak erdeinatzen zituzten bitartean –Zaitetik Baudelaire eta Erkiagak Sartre, besteak beste–, bigarrenentzako hauek ziren euren literaturaren iturri (Lasa, Laka, eta Alberdi 2013), Erkiagaren *Salmoak* baino. Euskal literaturaren definizioa aldatu da erabat, Txillardegia eta Arestiren ondoren sortutako euskal idazleek nazioarteko literaturarekin homologatua den literatura bat egin nahi dute, esparru politikoarekiko independente. Euskal hitzaren forman idazteak ez dituztela euskal eduki zaharretan geratzera kondenatzen, alegia. Azken batean, *h*-a edukirik gabeko forma bat da, fonemarik gabeko grafia.

Gainera, euskal kultura esparruak jeltzaleen monopolioa izateari utzi bazion, oraingoan posizio dominanteak esparru politikoan ezker nazionalistan kokatzen dira, ETA-V. Asanbladaren inguruan batik bat (ikus 1.3. 1964-1973: Hausturak, 88-106. orr.). Beraz, ez da harrizkoa eskutik helduta joan ziren prozesu horiek denak *h*-ren kriptogramaren inguruan agertaraztea.

Euskara batuaren izaera hipostasi egoeran geratuko da, zenbait jeltzalaren artean. Honela, EAJK apurka-apurka eta autonomia erakundeen bitartez Euskaltzaindia eta

euskara batuaren zilegitasuna onartu ahala, Alderdiaren izatearen kontrako elementu gisa ulertuko zuten *Euskaltzaindiaren h-z* jositako arautegia:

«Nik nire seme-alabak bueltan ekarri ditzakeen Alderdi bat nahi dut», oihu egiten zuen politikari jeltzale ezagun batek. Eta hala pentsatzen zuten beste nazionalista askok, guraso nazionalistek sufritzen duten angustia ohizkoa delako Alderdian beren seme-alabak ETArak edo ETAREN pareko talde politikoetara joan direlako. Ez gaitu harritu behar guraso hauek beren seme-alabak berreskuratu nahia, baina ez dira konturatzen Alderdiaren maila beren seme-alabenera jaistean, Alderdia desitxuratu eta desnaturalizatu egiten dutela eta Sabino Arana Goirik sortu nahi izan zuen Alderdiaz oso bestelakoa den bat bilakatzen dutela. (Latiegi eta Oñatibia 1983, 46–47)³²

Horra zenbateraino sektore batzuek euskara batuaren afera kutsatze politikoarekin elkarlotzen zuten. EAJren haustura planteamendu hauekiko Josu Arenaza eta bestelako aranisten kanporatzean zertuko da 1981an (Unzueta 1981). Honela, *Euskerazaintza* erakundea sortuko zuten *Euskaltzaindiaren* elkarte alternatibo gisa. *Euskaltzaindia Real Academia de la Lengua, Euskerazaintzaren euskeraren erri akademia* kontra jarriko zaio, *Euskararen liburu zuria Liburu gorria*, e.a.

2011ko elkarrizketa batean Arantxa Urretabizkaiari *h*-aren inguruan gertatutakoaren gainean galdetu zitzaion, zenbait arrazoi soziolinguistikoekin hasi eta gero –lapurtera klasikoa eredu eta Iparraldeko hizkera– berehala zuzendu zuen bere burua:

Ez, gaizki esaten ari naiz, zergatik nik ez nuen... Nik, hor markatzen zuten bidea nire taldean Ibon Sarasolak eta Arestik eta nik ez neukan iritzi propiorik, niri ondo iruditzen zitzaidan haiek esaten zutena eta

³² «Yo quiero un Partido al cual mis hijos puedan volver», gritaba un conocido político peneuvista. Y así pensaban también otros muchos nacionalistas, porque el fenómeno de los padres nacionalistas que sufren la angustia de ver que sus hijos e hijas se fueron a ETA o a los grupos políticos afines a ETA, es frecuente en el Partido. No debe extrañarnos que estos padres quieran recuperar a sus hijos, pero no se dan cuenta de que al rebajar al Partido al nivel de sus hijos, desfiguran y desnaturalizan al Partido y lo convierten en otro Partido totalmente diferente al que Sabino de Arana Goiri quiso fundar.”

ulertzen nuen euskerak ez zeukala irtenbiderik batasun bat lortzen ez bazen. Baina irizpide filologikorik edo linguistikorik nik ez neukan, orain ere apenas daukadan. Baina badakit hori lortu izan ez bagenu, ba, euskara galdua zela. (Urretabizkaia 2011)

Hau da, *h*-ren gaineko irizpide filologikoa talde modura gutxi batzuek definitzen bazuten ere, horren atzean belaunaldi zahar eta berrien arteko talka zegoela ere azaltzen zuen. Batasunari bidea zabaldu ziotenak, *h*-ren aldekoak zirela, eta bide hau itxi nahi ziotenak *h*-ren kontrakoak.

2.2.4. EUSKARAREN HASPERENA: MEKTUB!

Sarrionandiak “mektub!” esaera dakar gogora bere *Moroak gara behelaino artean* liburuaren bukaeran. Bertan, amazigen gaineko gogoeta egiten du edo, hobeto esanda, amazigen kodifikazio inperialaren gainean, moro haiek ez omen direla guztiz arrotz euskaldunontzako. Bukaeran, “idatzita dago” –“mektub!”– lagun amazig batek diotzon esaera izango du abiapuntu. Horrekin euskara eta euskal literatura izango ditu hizpide, Aresti eta bere garaikideak gogora ekarriz. Idatzita dago, baina “zein hizkuntzan?” galdetuko dio bere lagunari. Euskaraz balego, *h*-rekin idatzita egongo litzateke:

Eta hatxea, gehien defenditzen genuen letra, metafora bihurtu zen, ahoskatzen ez zelako. Hala ere, gure belaunaldiak poesia balitz bezala egin zuen borroka «h» letraren alde. Eta poesiaren antzekoa zen guretzat, Paul Celanek poesia definitzen zuen modukoa: arnasak hizkuntzan uzten duen marka. Alfabetoko beste letra guziak baino inportanteago bihurtu zen, horrexegatik, ia ez zelako. Erraza da konprenitzen. Euskal herririk ere ez zen, eta horregatik zen ezinbestekoa. Ez zegoelako etxe bat nonbaiten egon daitekeen moduan, baizik eta basamortuan eraiki beharreko zerbait bezala, Etiopian. Ez zen genuen etxe bat defenditzeko borroka izan, baizik ez genuena egitekoa. (Sarrionandia 2010, 526)

Hizkuntza asmatu behar zen horretan, etxea asmatu behar zen horretan abangoardia derrigorrezko praktika zela esango du. Literaturak beharrezko egitekoa zuen bere lengoia literarioa asmatzea. Erakunde publikoekin eta globalizazioarekin bere tartea

topatu zuen asmakizun horrek galdu du bere izaera abangoardista. *H*-rekin idatzi zuten idatzita zegoen hura.

Baina lagun amazigak ohartu nahi zuena zera zen, idatzita zegoela, zentzu metaforikoan. Honela ulertuko da ere Arestiren euskara. Egungo irakurketa gehienei erreparatuz gero, Arestik idatzita zegoena azaleratuko zukeen: euskara batuan idatzi zuen batua existitu aurretik.

Maldan behera batuaren aitzindari gisa kokatzen da, 1959an jada, edo bere prosa egungo euskaldun batek irakurtzeko duen erraztasuna (Sarasola 1986), euskara batua *avant la lettre* (Ibon Sarasola in Eguzkitza et al. 2000, 136). Nik ere hala sentitzen dut garaiko aldizkarietako artikulu edo liburuak irakurtzerakoan egin behar dudana esfortzu handia ikusita. Idazkeraren aldetik, testu arrotz horietan ahozko irakurketa imajinatu behar dut euskara idatziaren kodifikazioa berregin ahal izateko. Lexiko aldetik, hitz arrotz asko ageri zaizkit, XVI. mendeko Axularren *Gero* bezainbeste ia. Aresti edo Txillardegi bat irakurtzea, oster, askoz errazagoa suertatzen zait eta horregatik, neurri handi batean, askoz atsegingarriago. Euskal eskolakumeok kode horretan ikasi dugu euskaraz idatzi eta irakurtzen, aztertutako transformazio hauetako erakundeetan hezi garen neurrian.

1967tik aurrera, irakurketa zailduko ligukeen grafia propioa erabiltzen duenean ere, Arestik batuaren alde egiten zuela ulertu ohi da. Hil ostean argitaratu zituen hainbat testuetan³³, *h*-a erabiltzeaz gain *c*-ak erabiliko ditu *tz*-k erabiliko genukeen tokian eta *x*-k *ts*-en orde. Gehienek Euskaltzaindiak batasunaren lana indartzeko protesta gisa ulertu dute, “zuek arauetan ados jartzen ez zareten bitartean, nik nire modura idatziko dut” esanez bezala. Guztiz bateraezina ez den ikuspegi batetik, Ibon Sarasolak Aresti Leizarragaren azterketaren ondorio dela dio, bere grafia –esan bezala, joera *kulternista* eta, aldi berean, *purista* zuen horrena, “euskararik intelektualena” zela argudiatuta– “bere ibilbidean atzera pauso argi eta garbia” eginez (Eguzkitza et al. 2000, 136)

Bada, zer-nolako lurraldea da euskara? Zer-nolako kronotopoa? Kintanak Sarrionandia “poeta gaztearekin” erlazionatuko zuen 1984ko Durangoko Azokan. Honek aberria hautatzen dela zioen bitartean, Arestik hizkuntza hautatu zuela, euskaltzale adjektiboaren ondorio dela Arestiren euskaldunberritasuna (Kintana 1984).

³³ *Euskal Harria*, TS Elioten itzulpenak, *Azken harria...*

Bartzelonako hitzaldi famatuan honela aldarrikatuko zuen bere Euskalerrria, forma – hizkuntza— eduki daukan aberria:

Una Vasconia sin lengua vasca no es Vasconia (...) dos personas que hablan en lenguas diferentes no pueden llegar a entenderse. Y el pretender demostrar tan gran verdad en castellano sería tiempo perdido. La tendría que demostrar en vascuence, y entonces la demostración estaría de más, ya que hablando en vascuence, vasco es el que habla vascuence, y pueblo vasco es el que habla vascuence, hasta tal punto que para indicar en lengua patria una Vasconia que comprenda la totalidad de la Vasconia histórica ha habido que inventar un palabra, palabra por otros motivos entrañable, pero únicamente considerando éste verdaderamente deleznable. (.../...) el factor más importante de nuestra personalidad: la lengua. O quizá no el más importante, pues a fuer de serlo deja ya de serlo. El es el factor determinante, sin él todo lo demás sobra, mejor dicho ya ni existe. Una Vasconia sin aizkolaris, sin auresku, sin boina, sin pelota, sin RH negativo y hasta con apellidos castellanos, pero con euskera seguiría siendo Vasconia. (Aresti 1986k, 73)

Sarrionandiaren aberria bezala, euskal lurraldetik –euskaratik– hain ebidentea den euskara eta euskaldunaren arteko lotura azaldu behar delako beste lurraldetik –gaztelaniatik–. *Txillardegi* eta Krutwigen borroka filologiko, literario eta politikoarekin bat egiten du zentzu honetan. Euskara delako aberria eta gainerako edukiak bigarren mailan gera zitezkeelako horren aurrean: hau izan liteke aranismoaren inbertsiorik argiena, edukiak baztertu egiten dituen formak aurrera egin dezan.

Ibai Atutxak Sabino Arana eta Jorge Oteizaren ahaidetasuna topatzen du forma kanpoalde akzidentalaren eta eduki barnealde esentzialaren artean. Forma fonikoa litzateke esentziala, forma grafikoa akzidentala den bitartean (Atutxa 2011, 43-66). Hortik ere uler liteke *h*-ren afera, hatxe-kontrakoentzako *h* forma grafikoa apaingarri hutsala zen; Sarrionandia, Urretabizkaia, Haranburu Altuna, Saizarbitoria eta abarrentzat ezinbestekoa zen bitartean. Honen harira, eduki eta formaren arteko inbertsioa egiteko ezinbestekoa dela esango nuke. Forma edukiari egokitzen zaion horretan Sabino Aranak “idatzi” neologismoa egiten zuen, Gabriel Arestik “eskribatu” klaroa egiten zuen bitartean –Sarrionandiak ere gehienetan “iskribatu” egiten du.

Hitzaldi hartan, hizkuntza da faktore determinagarria, aizkolariak, aureskua, txapela, pilota, RHa eta abizenak faktore akzidentalak diren bitartean. Horregatik dio Vasconia –Euskal Herria–, eta ez “hitz kutun, baina honi dagokionez erdeinagarria”: Euzkadi.

Zentzu horretan, lehen aipatutako Arestik Arotzenari idazten zion gutunean, abertzaletasun mordoilozalera itzultzen zuen abertzaletasun garbizalea, adio gisa idatzita:

Zuen euskeran: Gora Euzkadi azkatuta. / Nerean, eta nere herriarenean:
Biba Euskalerrria libre. / Arantzazu, 1963/III/17an / Garesti (Gabriel
Aresti in Azurmendi 1991, 135)

Oihu jeltzalea aldatu egiten du hitzetako bakoitzean, honela Euzkadi hitz debekatu eta adiera politiko jakinekoa Euskalerrria hitz onartu eta, nolabait, naturalizatuarekin aldatzen du. 1973an zentsoreek onartzen duten hitza dugu: Gora Euzkadik “Viva Vasconia y fuera España” gisa itzultzen bada, Gora Euskalerrria “Viva Vasconia y Viva España” gisa itzultzen dutelako (Torrealdai 1998, 178). Arestik karlisten mordoilozaletasunaren bideari jarraitzen dio, iragan baten bila.

Urkok Arestiren *Gazi: geza: gozo* poema ezagun egingo zuen bere singlean (Urko 1976; Aresti 1967, 50-55), bertako estrofa batzurekin *Guk euskaraz zuk zergatik ez kantua osatu zuen*. Bertan euskara “putzu sakon eta iluna” euskara “itxaso urdin eta zabala” bilakaeraren berria kontatzen du. Uraren esparru semantikoaz baliatuko da maiz euskaraz aritzeko, dabilen horri buruz hitz egiteko. Zentzu horretan, *Euskal Harrian* ere argitaratu zen lehen aipatu dudan *Hibai ugaria* poema. Bertan, “egiak esateko / euskara / klaroa”, “hizkuntza eskuarraren” alde eginez, betirako labratua gera daiteke euskal harria:

Amuarraiak, / aho biribila, / eztarri frutukorra, / korronte bizia, /
zuengana egiten dut / pausoa, / Axularren ohorean / betirako /
labraturik / gera dadin / euskal /harria. (Aresti 1986, 144-145)

Harria erreferentzia abstraktua bada, iraganetik orainaldira iraun dezakeena, ura bezala edan, gastatu egin daitekeen horri esker hartzen du bere forma, “betirako labraturik gera dadin”. “Dabilen harriari goroldiorik ez” dio esaera zaharrak.

Apustuan garaile agertzen zaigu Aresti beste idazle eta euskaltzaleekin batera. Esparruen transformaziotik ere uler liteke haien garaipena. *H*-a ez da horren azaleko, bilakaeran literatura idatziak ahozko literaturaren gainean duen nagusitasunari erreparatzen badiogu.

Honela, *euskara* kronotopoa erabilera berriei (“korronte bizia”) prest dagoen tradizio (“harria”) gisa ageri zaigu. Halere, segun eta zelako tradizioaren alde egin eta zelako erabilera berriei zor zaion halako euskara ereduaren alde egingo da. Batetik, *Batasunaren Kutxan* agertutako hitzarmenak agerian jartzen du hizkuntzaren kontsentsuzko izaera (Barthes 2009a, 29–30), idazleek joko arauak adostu eta hauek betetzeko zin egiten dute. Bestetik, izaera gatazkatsua ere ageri da, *h* zeinu ideologiko nagusi gisa ageri den neurrian. *H*-a zeinu-funtzio baten gisan ageri da (2009a, 55), eduki beharko lukeen funtzio linguistikoaz haratago euskara kronotopoa bi posizio nagusitan erdibitzen duen neurrian. Poesia bezala, hizkuntzan uzten duen arnasa da, hizkuntzaren espresioaren substantzia gisa (2009a, 53), hizkuntzak gizarte borrokan bitartez arnastu egiten du. Eta aldi berean, kriptograma bat da, ETA hizkuntzan sartzeko trikimailu edo idazleen posizioa aditzera ematen duen marka hutsa. *H*-a marka hutsa den bezalaxe, Aresti eta enparauek euskara hustu egiten dute, Oteizak harriekin egiten duen bezalaxe. Honela, euskara adierazle hutsaren era analogoan azter liteke (Montero 2012), edukiak baztertu egiten dira, hustu, forma gaineratuz, eduki ezberdinentzako tartea zabalduz.

2.3. LA CONCORDIA

50. hamarkadan lagun talde baten inguruan sortutako topaketei La Concordia izena eman zaio. Aurretik, Café Maurin elkartzan baziren ere eta Asociación Artística Vizcainan edo Club de Cultura Hispánica bezalako elkarteetan aritzen baziren ere, 60 hamarkada hasieran La Concordia kafetegia izan zuten topagunetzat. Kafetegia Areatzatik Kale Nagusira doan Nafarroa kaleko bihurgune batean zegoen kokatua eta bere izena Bilbo Leónekin komunikatzen zuen FEVEko geltoki nagusiari zor zion.

2.3.1. TERTULIAKIDEAK

Tertuliarako gune ezberdinak egon baziren ere, azkenean La Concordian ezarri ziren kideak, larunbatero 19:00etatik aurrera elkartzeko. Izaera “erdi artistiko eta literario, eta erdi politikoak” (Laso Prieto 2004) zuten tertuliek. Orduan poeta, idazle eta pintore zebiltzan lagunak elkartzen zituen, frankismoaren kontrako borrokan engaiatuta edo, behintzat, frankismoaren kontrako joera ideologiko irekia zutenak.

Bertan izandakoek La Concordiaz aritu izan direnean zenbait pasadizo kontatzen dituzte bertako bilakaerarekin batera: nortzuk etorri eta joan ziren, zer erakunde sortu zuten edo zer-nolako erakusketa, liburu edo proiektutan parte hartu zuten. Batzuk ohizko tertuliakide ziren, besteak noizbehinka edo behin agertzen zirelarik –azken hauen kasuan, tertuliaren garrantzia indartzeko, zenbait ezagunen izenak ekartzeko eman ohi da haien berri, pasadizo direlako—. Baina tertulian etenak eragin dituen gertakariak badaude, hauek batez ere atxilotetak izango dira. 1958an José María Laso tertuliakidea atxilotuko zuten (PCE), 1959an Gabi del Moral, EGIko kidea. Eta 1962an, meatzarien grebaren ondorioz, Asturias, Bizkaia eta Gipuzkoan ez-ohizko egoera deklarata, Agustin Ibarrola, Vidal de Nicolás, Giménez Pericàs eta María Dapena tertuliakideak hartu zituzten preso beste hainbat lagunekin batera, PCEn kontra egindako sarekada batean.


70. hamarkadan zehar, apurka-apurka La Concordiako kideak beste gune eta proiektu zahar eta berrietan barreiatuko dira: Asociación Artística Vizcaina, El Sitio, Sociedad Poético Literaria Aralar –gero Euskal Herriko Poetak eta Zurgai aldizkaria sortuko zuten hauek—.

Arestiz aritzerakoan La Concordiak pisu handia hartu izanak, neurri handi batean, honek pilatuko zuen kapital sinbolikoari zor zaio, bere bolumenari eta bere izaerari: hainbat esparru eta azpiesparru hartzen ditu. Honakoari erreparatzeko, 80. hamarkada inguruan kideek okupatuko luketen posizioa espazio sozialean proiektatu dut. Bere kide sonatuenak kapital sinbolikoaren arabera hierarkizatuta eta kapital sozial horri zor zaion esparruaren arabera bereiztuta (ardatz horizontala).³⁴ Zenduak parentesi artean kokatu ditut, azken urteetan edukitako posizioaren arabera kokatuz, esparru ezberdinetan aritu diren horiek gezienez bitartez adierazi dut.

³⁴ Maiz agertu diren zenbait kide ez dira grafikoan sartu, aipatutako esparruetan kokatzeko zailtasunak direla eta. Askok esparru ezberdinetan hartzen dute parte, kasu horietan, kapital sinboliko gehien pilatzen duten esparruan sailkatu ditut.

Goren gorenean baten bat kokatu behar bada, hura Blas de Otero da, 1958an Kritika eta 1961an Fastenrath Sarien bitartez kotsakratua. Tertuliakideak kontutan hartuta, esparruen banaketa horizontalaren bitartez, esparru artistiko-literariotik esparru sozialera doan ardatza adierazten du. Mutur batean, ekoizle literario (poesia, nobela, antzerkia) eta plastikoak daude. Beste muturrean, politika maila (senatari, zinegotzi eta militanteak, goitik behera) eta norabide (UCD, Jueces para la Democracia, PCE, PSE, CNT, ETA eta EGI) ezberdinetan aritutakoak. Bitartekari gisa, batetik kazetariak –joera jeneralistagoa izanagatik— eta bestetik arte eta literaturan aditu gisa egiten duten unibertsitate irakasleak eta Arte Ederretako Museoko Patronatuko Presidente (Bengoechea) eta Presidenteorde izandakoak (San Juan), behean kritika lanetan ibili direnekin.

Grafikoa 8. La Concordiako kideen posizioak 80. hamarkadan, kapital simbolikoa eta esparruaren arabera



Arte plastikoen esparruan, beraz, Ibarrola eta AAVko gainerako kideetaz gain, Bilboko Arte Ederretako Patronatuko buruzagiak eta arte eta literatur kritikoak daude. Literatura esparruan ere, sonako poeta eta zenbait idazle eta kazetariez gain, hizkuntzalaritza eta literatura arloan diharduten unibertsitate irakasleak daude. Esparru politikoa dagokionez, erakundeetako kargu gutxi daude. Hala ere, esanguratsua da, kultura politikari dagokionez, Gregorio San Juan Bilboko Udaleko zinegotzi eta Kultura batzordekidea egotea. Horretaz gain, Espainiako ezkerreko militante entzutetsuak daude (Laso eta Serna), eta ezin ahaztu liteke abertzaletasunean esangura berezia eduki zuten bi militante: Gabi del Moral eta Txabi

Etxebarrieta. Ez ditut PCEko kide guztiak esparru politikoan kokatu, bestelako esparruetan ezagunagoak egin direlako.

Kideetako askok *Zurgai* aldizkarian edota *El Sitio* soziedadean jarraituko dute topatzen urte haietan. Aresti, Celaya eta Oterok prestatu zieten “4 poetas de hoy” antologian San Juan eta Vidal de Nicolás ohizko kolaboratzaile gisa aritu dira *Zurgain*, ez da harritzekoa aldizkariak hiru idazleei monografikoa –Gandiaga eta Ángela Figuerarekin batera– eskaini izana. Espazio sozial honetan islatutako askok parte hartuko dute Arestiri dedikatutako monografikoan: María Dapena (1984), Ángel Ortiz Alfau (1984), Dionisio Blanco (1984), Vidal de Nicolás (1984), Alfonso Irigoien (1984) eta Luciano Rincón (1984).

Esparru politikoari dagokionez, nabarmentzekoa da Gregorio San Juanek Bilboko Udaleko zinegotzi gisa jardun izana 1979tik 1983era, Kultura Batzordean aritu zelako. Bilbo postfrankistan kudeaketa kulturean erantzukizun handia eduki zuen, besteak beste, *Bilbo Hiria Ipuin Lehiaketan* –gero Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa izango zena– martxan jarritz.

2.3.2. GATAZKA-GUNEAK

Pilatzen duen kapital sinbolikoaz gain, bohemia baten irudikapena ere bada La Concordia. Bohemia kafearen gizarte irudikapena dakar gogora, horra hor Toulouse Lautrecen *Dans Le Moulin Rouge* pintura. Intelektualtasuna bohemiaren bizitzaren estilizioaren oinordeko bada (Bourdieu 1995, 92), Parisen Sartre eta enparauek *Les deux magots* bazuten, topagune analogoa litzateke La Concordia, Bilbo askoz apalagoan.

La Concordiak tenporalitate otzana du, ez dira aldaketa handirik kontatzen. Lagun talde bat elkartu eta handituz doan tertulia dela diote. Ekintza nagusiak eztabaida eta bilerak dira, beste guneeekin harremanetan jartzen dituzten gertaerak bertako kideek prestatutako erakustaldi, liburu eta ekintza politikoak dira. Kide batzuk besteekin elkartuko ziren beste espazioetan edota txangoak egingo zituzten, baina izaera bateratua ematen zien hori La Concordiak jarraitzen du izaten. Larunbatero bertara joatea kanpoko gertakizunek eragin zezaketen egonezina –narratiban behintzat– elkarriketaren formatu patxadatsuan baretzeko aukera da, babes gunea.

Tertuliakideen ezaugarriak kontutan hartuta, gainera, elkarrizketa hori kode artistiko, literario edota politikoetan gauzatzen zirela uler daiteke. Ortiz Alfauk dioen moduan, bertan tertulia “erdi literario eta artistikoa, erdi politikoa” zen (Ángel Ortiz Alfau in Agirreazkuenaga et al. 2000, 91). Beraz, botere politikoekiko babesgune ere bazen, Brigada Político-Socialarekiko. Tertuliaren izaera otzan hori kanpoko mehatxu nagusi gisa aritzen den errepresioak eteten du, kideak kanpoan egindako jarduerengatik atxilotzen dituzten bakoitzean. Zentzu horretan, baten batekiko itxitura badu La Concordiak, Erregimenarekiko duena da.

Arestiren gaineko narratibei dagokionez, La Concordiaren baitako aniztasuna gailentzen da honi buruz aritzen diren bakoitzean. “Euskal munduaren” kideak gainerako kideekiko bereizten dira: Aresti bera, Gabriel Moral eta Alfonso Irigoien batik bat. La Concordian aritzen ziren kodeaz gain euren kode propioa zuten partekatzen zituzten beste gune batzuetatik eratorria. Alfonso Irigoienek honela kontatzen du bi munduen arteko harremana, La Concordiaren baitan:

Hango uretan kolore guztietako arrainak egiten genduen igeri eta guzaz kanpora beste guztiak erdalzaleak ziren, baina hala ere errespeto handiz entzuten ziguten eztabaida bat edo beste sortzen zenean, zeren bertsolarien saioak geure lepoan genituenez gero eta haietara entzuleak milaka eta hamar milaka biltzen zirenez gero euskal mugimenduaren sendotasuna miraz beterik ikusten baitzuten, eta ezin dudarik egin daiteke batek baino gehiagok euskal munduaz zuen eritzia bigundu egin zuela, aldatu ez bazuen ere. (Alfontso Irigoien in Zubikarai et al. 1999, 108)

Zentzu honetan, aipatutakoak salbu, tertuliakideek jokatzeko duten esparrua espainola da, estatu mailakoa, euskal esparruetan ez dituzte bitartekari egokirik topatzen (ikus 1.2. 1953-1963: Lehen hastapenak, 67-88. Orr.). *Egan* aldizkariaren hasieran Celayak zein Oterok beren ibilbide literarioa bertan idazten hasi bazuten ere, 1947 eta 1950 urteen artean (Rubio 2004), euskara hutsezko aldizkari izatera pasa zenean, euskarazko aldizkarietan edukitako agerraldiak Arestiren bitartez gauzatzen dira, bereziki ale batean Figuera, Otero, Celaya eta Basalduaren poemak itzultzen dituenean (Figuera Aymerich et al. 1960). Batik bat, Oteroren poemak itzuliko ditu 1960 eta 1961 urteetan, baina Literatura Unibertsalaren baitan, Baudelaire bat itzultzen duen

bezalatsu. Espaineraz idazteko aukera egiten duten neurrian, espainiar esparru literarioaren baitan jokatzeko dute eta. Aukeran arrakasta eskasa izan zuen apustua egin zezaketen: aurreko kapituluan aipatutako *Los Barroeta* (1967) bezala, gaztelaniaz euskal nobelak idazteko apustua (ikus Forma eta edukia, 68-71. orr.). Gaztelaniazko forma hartuta, edukiaren probintzialtasunaren aukera egin ordez, edukiaren unibertsaltasunaren aukera egin zuten neurrian, ez zegoen esparru probintzialen errekonozimenduen zilegitasunaren aldeko norgehiagokarako paradarik.

Esparru politikoari dagokionez, Erregimenak klandestinitatera behartutako indar politikoetan aritzen ziren horiek estatu mailako indarren baitan arituko ziren, PCE batik bat, aipatutako Moral EGIko kidea edo Etxebarrieta etakidea ez bezala. Esparru politiko propioaren norgehiagokari muzin eginda, PCEn baitan euskal nortasunaren errekonozimendua bilatzea baino ez dago. Eta horretan ere Ibarrolak Arestiren aholkularitza bilatu zuen, “beste mundu” horren berri zukeen neurrian (Agustín Ibarrola in Giménez Pericàs et al. 1999, 100).

Gauzak horrela, euskal esparru ezberdinen instituzionalizazioa ahalbidetu zuen autonomia egoerarekin batera, ez da harritzekoa espainiar esparruetan nahi besteko errekonozimendua lortu ez zuten horiek euren porrota bitartekari berri honen sorreran kokatzea, euskal nazionalismo izaera baztertzailean, alegia. La Concordiako hainbat kide erreklutatu zituen *El Sitioko* Presidenteak hala zioen Gregorio San Juanen omenez prestatutako liburuan:

Gure Soziedadea Bilboko Hiribilduan hain erro sakonak dituen pentsamendu liberal eta espainolistaren adierazpen bezala jaio zen. Eta Gregorio San Juanen obra gure lurraldean ezarri nahi izan den kultur-eskema baztertzaile, manikeo, dogmatikoki aintzakotzat emandakoaren kontrako borroka da. Kultura zabal baten defentsa da, bazterketarik eta diskriminaziorik gabekoa, zeinetan imaginazio-saiakera guztiek tokia duten. (Adolfo Careaga in San Juan 1990, 9)³⁵

³⁵ “Nació nuestra Sociedad como expresión del pensamiento liberal y españolista, de hondas raíces en la Villa de Bilbao. Y la obra de Gregorio San Juan es la lucha contra el esquema cultural excluyente, maniqueo, dogmáticamente asumido, que en esta tierra nuestra se ha

Joera hori bereziki nabaria izango da Miguel Ángel Blancoren erailketaren ondoren sortutako ETaren kontrako gizarte-mugimenduan. Vidal de Nicolás eta Agustín Ibarrola tertuliakideak *Ermuako Foroaren* sortzaile izango dira, terrorismoaren kontrako borroka frankismoaren kontrakoaren analogoa eginez. ETAz gain, nazionalismoaren konplizitatea ere salatuko zuten; euskal nazionalismoari frankismoko probintziasun analogoa egotziko zioten.

1986an Arestiren omenez Bilboko Udalak antolatutako jardunaldietan, tertuliakideetako asko bildu zituzten *Aresti, el artista* mahainguruan (Giménez Pericàs et al. 1999). Bertan, aste horretan bertan Gregorio San Juan tertuliakide ohiak idatzitako iritzi-artikuluaz aritu ziren besteak beste. Artikuluan *aitaren etxearen* mitoa salatu egiten zuen, Arestiren izaera ezkertiarra –tertuliakideekin partekatzen zuen ezaugarri politiko nagusia– ez zetorrelako bat *aitaren etxearen* poemarekin, horretarako Garaikoetxea Lehendakari eskuindarraren erabilpenari egiten dio erreferentzia besteak beste (San Juan 1986) (ikus 4.1.1. Estatutuko Ideologia Aparailuak, 231-238. orr.). Mahaikideak kexu ziren San Juanek Arestiren gainean egin zuen irakurketagatik, Juan Maria Aresti bere anaiak familia eta lagunek artikulu horren gainean helarazitako arbuioa aipatzen du, Arestiren poema baten bitartez erantzunez.

Eztabaida horretan, San Juanen irakurketaren kontra kokatzen dira mahaikideak, nolabait tertuliakide honen irakurketa haienarekin bat ez zetorrelako. Zentzu horretan, Sabina de la Cruzek La Concordiarekin bat letorkeen *aitaren etxearen* gaineko interpretazioa egiten du:

Poema bat, hau da, hizkuntza poetiko bat hitzez hitz, adiera bakarrean, interpretatzea guztiz absurdoa da; soilik harreman metaforikoaren azterketaren bitartez egin daiteke, zeinak beti arautzearekiko, eguneroko hitz egitearekiko, desbiderapena behar duen. Zentzu honetan, berak “aitaren etxea” defendatzen duela dioenean berea den horren defentsarako gaitasuna aldarrikatzen du, bere hitzaren defentsa, bere izate intimo eta askeenaren irudikapen gisa, baina baita bere lurraldeko gizonekin anaitzen duen horiena

tratado de imponer. Es la defensa de una cultura abierta, sin exclusiones ni discriminación, en la que todos los esfuerzos imaginativos tengan cabida.”

ere, jatorriz utziezina den askatasunarekiko maitasunak ezaugarritua.
(Giménez Pericàs et al. 1999, 74)³⁶

Era honetan, de la Cruzek “aitaren etxea” erabat bateragarria egiten du La Concoridako izpirituarekin. Hitzok, Blas de Oterok Arestiri bere heriotzean eskaini zion poemaren atariko dira: “Gure mendeen etxea /zuren hitzean jarraituko du bizirik; / zu, gure etxean irauten duzu.”³⁷ Hitzaren defentsa izango da tertuliakideek bere egingo zuketen printzipio hori.

2.3.3. ARESTI, ZUBI ETA BIDEGURUTZE

La Concordia kafetegia zenetik Euskaltzaindiaren egoitza zenera bost minutu eskaseko ibilbidea dago, Areatzako Zubia zeharkatatuta –*Puente de la Victoria* gisa birbatailatua– kilometro erdira. Hala ere, bi elkargune diferente dira, Aresti eta Irigoien bietan sarritan ibiltzen baziren ere.

Gauzak honela La Concordiaren puntu itsua “euskal mundua” izan daiteke, Aresti eta enparauak bitartekariak baziren ere. Arestiren berezitasunak bilatu beharrez gero, beste mundu horrekin egiten zuen bitartekaritza azpimarratuko da:

³⁶ “Interpretar al pie de la letra de una forma unívoca, un poema, es decir, la lengua poética, es totalmente absurdo; sólo puede hacerse desde el estudio de la relación metafórica, lo que implica siempre un desvío de la normativa, del habla de todos los días. En este sentido, cuando él dice que define “la casa de su padre” reivindica la capacidad de defender aquello que es suyo, su palabra, como representación de su ser más íntimo y libre, pero también de lo que le hermana con los hombres de su tierra desde los orígenes caracterizados por el amor irrenunciable a la libertad.”

³⁷ “Defendiste la casa / por los siglos de los siglos, / nuestra pequeña patria / de hierba y sangre. / Hermano, maestro, / mira a Meli / derivando en luna de melancolía, / escucha el cascabel de Nerea, / Guria, Andere Bihotz. / Gabriel, / revolución de la poesía eúskara. / Callad, callad / junto a su tumba; / alguien anda acechando / con una cruz que tú apartaste. / La casa de nuestros siglos / seguirá viva en tu palarbra; / tú, permaneces en nuestra casa.”

Beste lekuetatik zetorrela zirudien beti, konexio zaileko bi guneetan egongo balitz bezala: zirkulu euskaldunetako sorkuntza eta eztabaidak batetik, bere interesak gizaki historiko gisa, bere maiteak, bere lagunak bestetik (eta hauxe zen gurea). Beste gunetik oihartzunak zetozkigun, hasieran haren gainean gugan interesik piztu barik. (...) Behin Euskaltzaindiako poesia saria eman ziotela jakin genuen; bestean, teatro obra bat zela eta. Guzti hori urruntasunak iragazia bezala zetorren –edo hori da gogoan dudana–. Arestiren bitartez, Arestiren obraren bitartez soilik kontaktua genuen toki batetik zetorren. (Sabina de la Cruz in Giménez Pericàs et al. 1999, 70–71)³⁸

La Concordia, zentzu horretan, beste munduekiko aldentuta zegoen, “konexio zaileko” beste guneekiko. Eta, hala ere, oihartzunak heltzen zitzaizkien, Arestiren obraren berri edukita ere, haiek jokatzeko ez zuten esparruan Arestik eskuratzen zuen errekonozimenduaren forman. Tertuliakideek maiz ekarriko zuten gogora Vidal de Nicolásek erabili ohi zuen esaldia beste munduko kide horien arteko ika-mikak deskribatzeko: “Hemen egon gara, honen eta bestearen gainean eztabaidan. Aizu, bi Gabrielak elkarri danbolinak botaka”, Gabriel Moral eta Arestiri erreferentzia eginez (Giménez Pericàs et al. 1999, 71–72). Vidal de Nicolásek berak “Arestiren irudi mugitu samarra” artikulua eskaini zion Zurgain (1984), bertan ondorio modura, hura deskribatzea zaila dela onartzen du, “gehiegi mugitzen zelako”. Mugimendua gunez gune desplazamendu gisa ulertuta, Nicolásek beste gune horietan gertatzen zena ulertzeko zailtasuna agerian jartzen du.

Gabriel Arestiri aparteko poeta deritzot eta pertsonalitate bitxia. Noiz behinka, inguratzen gintuen kontraesanek irentsitako pertsonalitatea, aipatutako bere aparteko gaitasun poetikoaz haratago zer beste kausaren alde egiten zuen zehatz-mehatz jakitera iritsi barik –nahiz eta exegeta guztiek bere sorora ura eramaten saiatzeko norgehiagoka ibili.

³⁸ “Parecía venir siempre de otros lugares, como si estuviera al mismo tiempo en dos zonas de difícil conexión: las creaciones y las discusiones en círculos euskaldunes por una parte, en la otra sus intereses como hombre histórico, sus amores, sus amistades (esta era la nuestra). Nos llegaban sólo los ecos de la otra zona, sin que el principio nos interesáramos por ella. (...)Un día sabíamos que le habían concedido el premio de poesía de la “Academia de la Lengua Vasca”; otro, por una obra de teatro. Todo ello legaba como filtrado por la lejanía –o así lo recuerdo–. Venía de un lugar con el cuál solo teníamos contacto a través de Aresti, por la obra de Aresti.”

Eta maiz, bere kontraesanak purrustadaka gainditzen zituen (de Nicolás Moreno 1984)³⁹

Kontraesan horiek euskal munduan erabat murgilduta ez zegoelako bizi zuelako interpretatuko dute maiz:

Euskaldun gisa ez da ahaztu behar euskaldunberria zela eta berak bananduta sentitzen zuela bere burua hizkuntza jaiotzatik zuten horiekiko. Nik uste, gatazka hau bere poesian egon dago, zaharrekiko zenbait kexa eta urruntzeetan, “nire euskal bertsoa ulertzeko modu berria” onartzen ez dutenen artean. (Sabina de la Cruz in Giménez Pericàs et al. 1999, 74)

Irudia 2. Hagamos puentes, María Dapena, d.g.



Iturria: (de Haro García 2010, 238)

³⁹ “Gabriel Aresti me parece un excepcional poeta y una personalidad singular. Personalidad devorada a veces por las contradicciones que nos rodeaban, sin saberse nunca con exactitud –pese a la actual disputa de todos los exégetas por llevárselo a su huerto– por qué otra causa concreta se decidía más allá de su ya citado excepcional envío poético. Y en ocasiones, Gabriel resolvía sus contradicciones con exabruptos.”

La Concordiako babes otzana bilatu eta purrustada, eztabaida eta mugimendua dakarren pertsonaia izateaz gain, beste gune horrekiko bitartekari ere bada. María Dapena pintore eta poetak 1964an idatzitako poema bat eskaintzen dio (Dapena 1984), Aresti zubiarekin alderatuz. Hogei urte beranduago *Zurgain* argitaratuko zuen, euskarazko klaseak emateko, bere partaidetza politikoak baztertzen zuten unean, bere etxera joateagatik eskerrak ohar txiki batean eskaini ostean.

“Euskaltzaindiatik / Kale Nagusira / bere izena galdu zuen zubitik igarotzen”. Aresti Bilbon kokatzeko orduan poemaren zenbait elementuk duten artikulazio gaitasuna azpimarratuko ditu. Zubia, batetik. Hasieran, Euskaltzaindia eta Kale Nagusia (Gran Vía) bereizten duen zubian esandakoak dakartza gogora, “bere izena galdu zuen zubitik igarotzen”, Areatzako Zubia (Puente del Arenal): altxamenduaren ondotik Garaipenaren Zubi gisa batailatua izan zen (Puente de la Victoria) eta Mola Jeneralaren bustoa zuen zaindari. Bukaeran, baina, zubiak bere izana (harrizko) eta izena (harezko, *Areatzako Zubia*, alegia) berreskuratzen ditu:

Herriek / beren ibaien abentura lasterka / ezarritako ekarpen berriari
eutsi zioten / Euskaltzaindia barik / Kale Nagusi / barik / Gabriel /
Zubiek / beren harri eta hare izenei eutsi zieten. (Dapena 1984)⁴⁰

Zubiak izango dira Dapenak atxilo suertatu aurretik, Ángela Figueraren poematik ekarriko dituen irudiak. “Zubiak egin ditzagun...” obran, Figueraren poemako atalak tartekatuko ditu grabatuan (de Haro García 2010, 237–239). Grabatuan bi gizon multzo elkarri bizkar emanda ageri dira harriak jasotzen dituztela. Harrien pisuek atzeraka badaramatza ere, elkarren kontrako zamek orekan mantentzen dituzte. Eta honela, elkarri bizkar emanda baina elkarren bizkar-zamari esker arku-formako zubien oinarritzko arau arkitektonikoak betez bezala egitura bat osatzen dute: zubia osatzen dute zubia eraikia ahala –harriak zamatzuz—elkarri bizkar ematen diotenean. ,

⁴⁰ “Los pueblos / corrieron la aventura de sus ríos / sostuvieron la nueva contribución impuesta / sin Academia Vasca / ni / Gran Vía / Gabriel / Los puentes / conservaron sus nombre de piedra y arena.”

2.4. ARANTZAZU

Maila ezberdinen arteko elkarrekintzaren ondorio dira Arantzazuren inguruan taxutu diren narratibak: urtero egiten diren erromesaldiak, paisaia bio-arkitektoniko jakin bat, mendeetan iraun duen erakundea eskura dituen baliabide guztiekin, ematen diren mezak, fraide frantziskotarren eguneroko lana, bertara egiten diren bisitaldi turistikoak edo menditxangoak, eta abar luze bat. Hasteko, literatura genero ezberdinetan taxututako narratibei jo daiteke, horretarako honako iturrietara jo dut:

- *Arantzazu. Historia, paisaje, tradición* (P. de Anasagasti 1975). Fraide frantziskotar honen irakurketa, neurri handi batean, kongregazioaren ikuspegitik egiten den hurbilketarekin bat egingo luke.
- *Arantzazu: euskal-sinismenaren poema* (Mitxelena 1949). Salvatore Mitxelena frantziskotarrak idatzia, baina bilaketa poetiko-estetiko batek markatzen du poema luzea den aldetik.
- *Arantzazu: Tradizioa eta abangoardia* (Kortadi Olano 1993). Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Berton* bildumaren baitan argitaratua, lurraldearen “kultura- eta paisaia-ondarea” ezagutzera emateko asmoarekin, hau da, Gipuzkoako marka indartzeko asmoarekin.

2.4.1. ARANTZAZUKO ANDRE MARIA

Narratiba hauetan Arantzazuko Andre Maria da aktore nagusia, edo hobeto esanda, berak aktore-sare oso baten agentzia hartzen du bere gain, agente ezberdinek parte ziurtatzen baitute honen agentziarritza (ikus 0.5. Hirugarren topologia: Objektua, 45-47 orr.). Rodrigo Baltzategi artzainari agertu omen zitzaion 1469, Esteban de Garibayren kronikari jarraituz, elorri batean. Andre Mariak eskatu zuen, nonbait, bertan Santutegia eraiki ziezaioten.

Andre Mariaren agerraldiak eta bere mirariek osatzen dute betiereko munduaren eta mundu-munduaren arteko bitartekaritza. Zentzu horretan, Andre Maria Arantzazun haragitzen da eta bertan Santutegia eraiki eta handitu ahala, bertara erromes joan

ahala, Andre Mariak mirariak eskaintzen dizkie inguratzen dutenei. Hala diotzo beso artean daraman Jesus haurrak artzainari:

Euskal-fedeak, euskal-Elizak / aundiagoa bear du. / Ermitagintza gurenagoaz / gurea izango zera zu. / Ama-Semeon guruzbidean / neke-lagun nai zaitugu. /Elizagintza gorengo ori / nere GORPUZGINTZA dezu (Mitxelena 1949, 108)

Kosmologia kristau katolikoaren baitan, topaketaren kronotopoa bi esparrutan zertzen da, gizakiaren irudiarekin bat (Bajtin 1989) (ikus 0.4. Bigarren topologia: Tokien memoriak, 41-45. orr). Batetik, topaketa espaziala da. Andre Mariak baseliza eskatzen duen tokia mendian dago, goian, zerutik hurbil. Agerpenak bere azpiko elorria loratu egiten du, udaberria heldu, eta ardien bazka ugaritu egiten da –eliz-herriaren metafora–. Totem baten gisa, agertu zen lekua eta bere harrizko irudia gurtu eta sakralizatzen dira. Bestetik, gorputz-topaketa da. Erromesaldiek, bere ohorez eraikitako eraikinek, zein diru ordainek araztu litzake gizakiak bekatu mundutarrez. Gizakia mundu honen eta beste munduaren arteko bitartekaria da, haragi eta izpiritu, Mari-Gaizto eta Arantzazuko Andre Maria.

Agerraldiaz gain, mirarien bitartez haragitzen da Andre Mariak mundu-munduarekin dituen topaketak. Honakoak aipatzen ditu Anasagastik:

Era esplikatu ezinezko galarazitako naufragioak, bat-batean otzandutako enbata bortitzak, bizitzara bueltatutako gorpuak, zati jakin batzuk errespetatzen dituzten suteak, gorputz-adar galduen berpizteak, gaixotasun hilgarrien ihesaldi lasterrak, deabrutze ikaragarrien saihesteak. Pietate kristauaren historiako kapitulu ikusgarrienak apainduz, mirari sorta liluragarrienak gertatu ziren Arantzazun, betiere bere egunerokotasuna eta Andre Mariaren nahia azpimarratzeko, mendi iragangaitz honetan gurtze berezia egin zekion. (P. de Anasagasti 1975, 38)⁴¹

⁴¹ “Naufragios inexplicablemente abortados, furiosas tempestades fulminantemente amansadas, cadáveres devueltos a la vida, incendios que respetan porciones selectas, reviviscencia de miembros tullidos, rápidas huidas de enfermedades mortales, espeluznantes

Mirarien bitartez aktore-sare oso batek Andra Mariaren eskuhartzearen testigantza osatzen badu, Arantzazu adierazlearen eta lekuaren inguruan bere izena eta agentzia historian zehar iraunaraziko duten ekintzak gauzatuko dira. Euskal jende askok “Arantzazu” izena emango zieten euren alabei. Hara jo zuten erromesek Andre Mariaren graziaren bila, erromesaldiak errazteko baselizaren inguruan hainbat azpiegitura osatu ziren: mirariak erromesak deitu zituen, haiekin batera frantziskotar fraideak, horrek konbentua, azpiegiturak –errepidea, hostatua, e.a. Egun Andre Mari agertu zen leku horri esker mendizaleek Aizkorrira igotzeko azpiegitura aproposa ere badute (P. de Anasagasti 1975, 80–93).

Aktore-sare batek osatu zuen Andre Mariaren agerpena –Haren berri eman zuen artzaina, Haren izenean baseliza altxatu zutenak, erromesak, e.a.–: aktore-sare konplexu horri Arantzazuko Andre Maria deitu zaio eta, aldi berean, aktore berriak erreklutatu eta saretu ditu: erromes gehiago, mendizaleak, haren izena hartu dutenak, 36 zentimetro eskaseko haren irudia, irudi horren erreproduzioak, e.a. Santutegia historia kristalizatu bat da. Arantzazuko Andre Mariaren altzoan baketu omen ziren Oinaz eta Ganboatarrak, haren aurrean belauniko eta arma barik egoteko aginduz.

2.4.2. GORDAILU

Santutegiaren inguruan anaia frantziskotarrek pilatutako baliabideei eta zenbait baldinza politikori esker, Arantzazu euskal kulturaren gordailu ere izan zen frankismo garaian.

KULTURGINTZA

Proiektuan lanean aritu ahala, Arantzazu behin eta berriro agertu zait. Gerra zibilaren osteko basamortuan, euskaraz idatzitako lehen liburuetako bat izan zen *Arantzazu. Euskal-sinismarenen poema* (Mitxelena 1949), *Editorial Franciscana de Aránzazu* (EFA) argitalpengintzaren aterpe izan zenaren bitartez. *Jakin* aldizkaria bertan sortu zuten

posiciones diabólicas evitadas. Todas las más estupendas gamas de variados prodigios que esmaltan los más espectaculares capítulos de la historia de la piedad cristiana se dieron cita en Aránzazu para subrayar su actualidad y el deseo de la Andra Mari de que se diera un culto singular en esta inaccesible montaña.”

fraide frantziskotarrek teologia eta filosofia lanean hasi, laiotuz doaz, *kulturgintzaren* lehen hastapenak jorrazeko (ikus Euskararen kulturbidea, 74-80. orri).

Itçainak azpimarratzen duen moduan, euskal kulturaren objektibazioan paper garrantzitsua jokatzen du Arantzazuko Santutegiak (Itçaina 2007, 199–202). Gerra zibilaren aurretik, Gasteizko Mintegiak luze landu zituen euskararen inguruko gaiak, neurri handi batean 60. hamarkadako loraldiaren aurrekari izanik. Fraide kaputxinoek zein jesuitek ere, euskal gaiak landu zituzten esparru ezberdinetan. Arantzazun, ordea, berantiarra da euskal kulturaren gaineko interesa, eta horregatik, autoritate frankistak ez ziren fraide frantziskotarren gainean egon. Horrek errepresiotik aldentuko zituen Arantzazuko frantziskotarrak. Baldintza horietan, Vatikanok Pablo Lete euskaltzalea izendatu zuen Ministro probintzial, euskalgintza erraztu eta sustatzeko lan nabarmena egingo zuen honek.

Egoera honi, Andre Mariren agerpenaren inguruan ernatutako azpiegiturak gehitzen zaizkio. Batetik, Euskal Herri osoa hartzen zuen gurtze-gune nagusi gisa, nolabaiteko batasun sinbolikoa xedatuz, frantziskotarren sare trasnasionalean txertatua. Bestetik, mendeetan zehar gordetako artxiboa zegoen eta haren gainean lanean aritzeko prest zeuden “fraide-intelektualak”.

Hala ere, erlijioaren babespean aritu baziren ere euskal kultura eta nortasuna lantzen, ez ziren zentsuratik at bizi: *Jakin* aldizkariak hamaika arazo eduki zituen ateratzeko eta *Arantzazu* poemaren hirugarren zati osoa zentsuratua izan zen (Torrealdai 2003, 598). Aurreko kapituluan aztertu bezala, *Jakin* aldizkariaren eta *Editorial Franciscana de Aránzazu* argitaletxearen inguruan euskal kulturgintzaren erdigunea kokatuko zen. Euskal kultura berriarekin zuten harreman estuari esker, frantziskotarrak izango ziren euskara ereduaren aferetan erlijiosoaren artean joera berriekin bat egingo zuten apurrenetakoak (J. Juaristi 1997, 373–374).

Eguneroko kulturgintzaz gain, erromesaldiek gero eta izaera politiko argiagoa edukiko zuten, erlijiotasuna nazionaltasunarekin nahastuz. 60. hamarkadan egindako erromesaldietan, EGik zein ETAk propaganda ekintzak egin ohi zituzten, honela erromesek aktibismo eta errepresio politikoaren berri zuten, aldi berean (Zulaika 1988, 255). Arantzazuko Ama Birjina euskal nazionalismoaren ikur bilakatuz joango zen, erlijiotasun lokala nazional-katolizismoari kontrajartzeko zuen gaitasunagatik:

Corpus Christi kaletarren izaera militar-erlijiosoko prozesioei Arantzazurako martxa luzeen pelegrinazioa kontrajartzen zaizkio. Bi interpretazio erlijioso, azken batean, bi interpretazio sozial eta sakonki politikoen eraginez. (Itçaina 2007, 202–203)⁴²

50. eta 60. hamarkadan kide gorakada handia jasoko zuen Santutegiak, 70. hamarkadatik aurrera behera joko du (Itçaina 2007, 200–203) gaurko 34 anaietara heldu arte (Anaiarte frantziskotarra 2014), euskal gizartearen sekularizazioaren ondorioz.

ARESTI ARANTZAZUN

Euskalgintza eta abertzaletasunak sentimentalki lotuko luke Aresti Arantzazurekin, Azurmendi eta Agirrebaltzategiren iritziz (Azurmendi 1991, 132–133; Agirrebaltzategi 2013, 93). 1963an Andoni Arotzena jeltzaleari Arantzazutik zuzendu zion gutunetik abiatuta, bertan euskara hutsa entzuteak txunditu omen zuen eta, bertan, bere abertzaletasuna adierazten zuen neurrian.

Agirrebaltzategik 1956ean datatzen du Arantzazuko fraideekin edukitako harremanaren hasiera, Bitoriano Gandiaga ezagutu zuen, 1960tik aurrera bertakoekin harremanak estutuz, Joseba Intxausti, Kepa Enbeita eta “bereziki” Joxe Azurmendirekin. Arantzazuko Teologiako ikasleak izan ziren, hain zuzen ere, *Mugaldeko herrian eginikako Tobera* 1962ko gabonetan bertan antzeztuko zutenak. *...eta gure heriotzeko orduan* antzezlana ere bertan antzezteko osatu omen zuen, Jose Goitia fraidearen eskaerari jarraituz, 1964ko Aste Santuan taularatzeko (Agirrebaltzategi 2013, 90-93), azkenean antzezpena bertan behera geratu zen (Jerardo Elorza in Zubikarai et al. 1999, 114).

Maldan behera bertan idatzi zuen, agerpen bat izan balu bezala, bertan islatzen zuen infernurako erorketa, joera aranistarekin apurtuz (J. Juaristi 1999, 87-101). *Harrizko herri hau* liburuaren jatorrizko eskuizkribua ere bertan gordea zuten fraideek 2013an Meli Esteban bere alargunak bildu zuen arte (Erostarbe 2013).

⁴² “Aux lourdes processions militaro-religieuses des *Corpus Christi* urbains s’opposent les longues marches arides es pélegrinages d’Arantzazu. Deux interprétations religieuses, en somme, pour deux interprétations sociales et profondément politiques.”

OINAZ ETA GANBOA, 1968

Arantzazuko baldintza geografiko, material eta politiko egokiak eta balio sinbolikoa kontutan hartuta, ez da harritzekoa Euskaltzaindiak hainbat biltzar bertan egin izana. Gainera, biltzarrek euskararentzako akuilu eta euskara batuaren ezarpenerako mugarrigisa aztertzen dira egun. Honek Arantzazuren balio kulturala indartu baino ez du egiten.

1956an Euskaltzaleen biltzarra ospatu zen bertan, “Euskaltzaindiaren itzalpean”. Urtemugarria, beste gertaera batzuekin batera, biltzar horrek euskaltzaleen arteko lehen topaketa bat izan zen neurrian (Torrealdai 1979, 77). Horretaz gain, euskara batuaren aldeko lehen hastapenak ezarri ziren, lexikoaren aldetik, joera neologisten zilegitasuna dudatan jarritz (Torrealdai eta Murua Uria 2009, 65). Arantzazuko Andre Mariaren mirariak aipatuko ziren lehen sermoian, euskararen pizkundean lagun zezan. Nolabait Arantzazu “Euskalerrriaren” eta euskararen babesle aurkezten du Alustiza aitak:

Euskera atzeraka dijoakigu... Ta euskerarekin batera gure fedea ta erligio santua ere bai. (...) Euskal-erria da, oraindik ilunpetan dagoan erria, bizi-nai larrian dabillen erri maitea... Baño emen, aldare nagusi-gañetan egunsentia bezelatsu jaiki zaigu Ama Birjiña. Ta poza ta itxaropena ta bizitza berri bat eskeintzen digu guziori...

“Ekin ta yarra” dezagun ba, Amaren babesean”(Alustiza 1956)

Hurrengo hitzordua 1963ko biltzarra izango zen, Aresti euskaltzain urgazle izendatu berriak bertan parte hartu zuen. Hilabete batzuk arinago Baionako Euskal Idazkaritzaren zein Ermuako Idazleen Elkartek batasunaren alde hartutako erabakiak gorpuztuz joan ziren. Bost urteren buruan, bertan ospatu zituzten Euskaltzaindiaren urrezko eztaiak. *Borroka hatxistikoaren* bi bandoetan zeozertan ados badaude, 1968ko Biltzarraren mugarrigisa da. Literatur batasuna bultzatzeko asmoz, *h*-ren erabileraren gaineko eztabaida sutsuaren eskenatoki nagusia izan zen (ikus Hatxe 138-146. orr.).

Euskaltzaindiak bildu dituen dokumentu guztien artean ez da biltzarrari hasiera ematen dion sermoirik, ezta ohizkoak zituzten otoitzik ere. Hala ere, Manuel Lekuona apaiz eta euskaltzainburuak biltzarrei hasiera emateko hitzetan, berriro ere babesa

eskatuko zion Arantzazuko Andre Mariari. Biltzarreko eginkizunen berri eman ostean, zeinetan euskararen batasuna oso arlo literario eta praktiko zehatzetan indarrean jarriko dela adierazten duen, honakoa eskatu zien bertako lagunei, Andra Maria gogora ekarriz:

Bukatu baño leen, beste zer bat, eskabide bat guztioi.

Oñati'n gaude: oñeztar eta ganboarren lur jatorrean... Ez gatzazkiela, gure arbaso makur aien urratsai jarrai iñolaz ere. Ez gatozela Arantzazu'ra, batzuek oñeztar eta besteak ganboar, bakoitzak bere ezpata eskuan, bere iritzikoen aurka gudatzeko prest. Dezagula bake, dezagula batasun –biotzezko batasun—gure BATASUNARI BURUZKO eztabaidak asterakoan. Eta bake ortan jarrai dezagula, eztabaidak dirauten arte guztian. Eta berdin gero ta gero ere.

Arantzazu izan dedilla orain ere, leen noizpait bezela –orain bosteun urte bezela– pakezko lokarri guztionatzat Euskeraren alde. (Manuel Lekuona in Euskaltzaindia 1968, 141)

Bertako erabakiek sortu zituzten istiluak ikusita, ez dirudi Andre Mari bakerik ipini zuenik. Hala ere, esanguratsua da oso Andre Mariaren figurak zenbaterainoko lotura duen Euskal Herriko bando nagusien baketzean, oineztar eta ganboarrak bere altzoan armarik gabe biltzeko gaitasunean, zeruko gauzak munduko iskanbilien gainetik baitaude. Arestik berak Oskorrik taxututako doinuen gainean *Oinaz eta Ganboa* kantua egingo zuen (Natxo de Felipe in Oskorri et al. 2013), bere omenez ateratako diskoko kantuetako bat izango zen (Oskorri 1975). *Oinaz eta Ganboa* leinuen arteko borrokaren arrazoiak azaldu ostean honako ondorio honetara helduko zen:

Bostehun urtean egon / gara justizi-eske / baina sua eta ura / ezin nahas ditezke, / irakin edo amata / ez dago ezer beste, / inork ez dezala esan: / “adiskide zaitezte”. (Oskorri 1975)

Karmelo Landak *Oinaz eta Ganboa* kokatzen ditu “garai berri baterako kapital sinboliko” berri baten baitan (Karmelo Landa in J. Juaristi, Landa, eta Alberdi 2014). Egia da *Oinaz eta Ganboaren* arteko borroka erreferentzia historiko gisa ageri direla bai Arantzazuko Andre Mariaren agerpen eta mirariei dagokionez, bai eta Euskararen

batasunaren gaineko eztabaidetan lurperatu beharreko iskanbila potentzial gisa ere. Baina Lekuonak bostehun urte lehenago kokatzen duen gertakaria, azken bostehun urteetan kokatzen zuen Arestik. Eta garaiko metaforaren erabilgarritasuna agerian jartzen zen Oinaz eta Ganboa abestiaren gaurkotasuna azpimarratzen zenenan, Gernikan Arestiren omenez 2013an errezitaldi musikatuan egin zen bezalaxe (Gotzon Barandiaran in Barandiaran et al. 2013).

Zentzu honetan, Oskorri-Arestiren kantua metaforaren gaurkotasunean oinarritzen da. Etengabeko itzuleran eman izan den gerra da, Oinaz eta Ganboa lehen kapitulu izan duena, gizarte kapitalistaren lehen hastapenetatik alegia. Zentzu horretan, Juaristiren iritzi, “klase borrokaren metafora gardena izan nahi du”, baina leinuen borrokarekin eta sua eta uraren izaera kontrakoan nahastuta eta “gerra bukaezinaz” ari den neurrian, arrazen arteko borrokaren metafora gisa interpretatuko zen, ezinbestez (J. Juaristi 1999, 61–62).

Jakin badakigu, Aresti *h*-ren aldeko defendatzaileen artean zegoela. Bi aldeetatik elkarri asmo jakin bat egozten bazaie kontrakoei, marxismoa eta antiarismoa batzuk, aranismo eta kontserbadurismoa besteek, oinaztar eta ganboarren metafora egokia dirudi, Euskal Herriaren baitan suertatutako gerra adierazteko. Landak “kapital sinboliko berria” ezartzen duela dioenean eta Lekuonak bere eraginkortasun sinbolikoa demostratu egiten duenean gaur eguneko gaia dela aldarrikatuz, abertzaletasunaren baitan egondako klase-banaketa gogora dakarte: EAJ eta ETA, edota burgesia eta langileena. Interpretazio murrizta izan liteke honakoa eta Juaristik beste irakurketa bat proposatzen du, baina Arantzazuko Lekuonaren hitzekin lotzen badugu, jarraikortasuna agerikoa da.

1972ko uztailaren 28 eta 29an beste hastapen azpimarragarri bat emango zen Arantzazun bertan, Aresti batzordekide zen aldetik ere, bertan egon zen aditz laguntzaile batua ezartzeko (Euskaltzaindia 1973, 10-11). Arantzazu euskara batasunaren sinbolo argia da, mugarri nagusiak bertan agertu ziren neurrian.

2.4.3. NONDIK DATOR HARRIA?

Pablo Leteren zuzendaritzapean, hain zuzen ere, Santutegiaren zaharberritze bati ekingo zitzaion berriro. Horretarako, 1950 urtean lehiaketa aurkeztu zen Basilika berria

eraikitzeko. Francisco Sáinz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoek irabazi zuten. Proiektuak honako asmoa bide zuen:

Proiektuak bere gain hartzen du, osotasunaren zati integral gisa, Arantzazuko markoa, bertako begetazioaren pintzeladarekin eta harkaitz latzen eta amildegi txundigarrien argi-itzalen disposizio miresgarriarekin. Basilika berriak euskal herriaren irmotasun eta apaltasuna jantziko ditu. Saloi erromantikoek arnasten dituzten lerro femenino eta akademikorik ez, beraz. Irmoa izango da, eta guztiz malkartsua; kanpandorrea tatxetekin apainduko da harriak puntan, elorriaren ikur. (...) Eraikuntza mendi batean egiteak, lehengai baliotsu eta apaingarriak baztertzera eraman gaitu, marmol eta brontzea arrotzak zaizkiolako. Lauzazko materialen erabileraren bitartez lortuko da, harria, karea, egurra, burdin forjatua... (Sáinz de Oiza in P. de Anasagasti 1975, 93)⁴³

Proiektuaren parte ziren –eta beraz, eraikinaren parte– hainbat artistek osatuko zituzten artelanak: Pascual de Lara, Jorge de Oteiza, Eduardo Chillida, Fray Javier M^a de Eulate fraidea eta Nestor Basterretxeak (P. de Anasagasti 1975, 95; Kortadi Olano 1993, 41). Beste esparruetan pilatu den kapital sinbolikoa proiektu honetara bideratu zen neurrian, sona zabaleko *euskal* artistak batzen dituen neurrian, euskal arte-hizkera batean Santutegiarekin eta paisaia naturalarekin elkarriketan, euskal arte propio baten alde jokatzeko zen.

⁴³ “«El proyecto supone, como parte integral del mismo, el marco de Aránzazu, con la rica pincelada de su vegetación y la maravillosa disposición de luz y sombras en sus rudos peñascos e impresionantes barrancos. La nueva basílica revestirá los caracteres de robustez y de sencillez del pueblo vasco. Nada de líneas femeninas y académicas, que respiran a salón romántico. Será robusta, francamente agreste; la torre del campanil irá tachonada de piedras en punta, símbolo del espino. (.../...) El hecho de una construcción en la montaña nos ha movido a desechar materiales valiosos y decorativos, pero extraños, como el mármol y el bronce. La riqueza se conseguirá con el uso de materiales locales, piedra, cal, madera, hierro forjado...»”

Artelanez hautsak harrotu zituzten, debeku eta eztabaida artean, Jorge Oteiza “pertsoneaia” –“polemista, asaldatzaile politikoa, profeta kulturala”– karakterizatu egin zen (Echeverria Plazaola 2008, 128). Artisten joerak Elizaren arte joerekin bat ez zetozeela argudiatuta, obrak geldiarazteko agindu zuten eliz-autoritateek. Zaharberritzearen inguruan suertatutako gertaerek aspektu berrituak emango dizkiote Arantzazuri. Santutegiaren atariko eskulturak dira guneko obrarik enblematikoak eta, ia ezinbestean, norgehiagoka horren nondik norakoak gogorarazten dituzte. Oteizaren obran zentratuta, Arantzazuko kronotopoaren hiru ezaugarriekin hertsiki lotuta ageri da: paisaia, Euskal Herrriaren Santutegiak eduki duen zentraltasuna eta frantziskotarren erlijiosotasuna.

Batetik, apostoluek inguruko kareharriak hartu dituen forma analogoa dute, harri zulatu eta pitzatuak (Echeverria Plazaola 2008, 130). Bestetik, euskal kulturaren adierazpide abangoardista izan nahi du, euskal artista ezberdinen adierazpide den neurrian. Eliz-autoritateak batasun artistiko frankistaren alde egiten zuen (Kortadi Olano 1993, 42). Beraz, norgehiagoka euskal kultur esparru propio baten alde, espainiar esparru politikoaren eskuhartzearen kontrako talka gisa interpreta liteke:

Aurkeztutako bozetoek euskal herriaren erlijiosotasun tradizionalarekin bat ez zetozeela argudiatu zen, konprometitutako artearen kontra agertuz, baina, funtsean, hau aitzakia baino ez zen, benetako eztabaida “espainiar arte nazionalaren” baitan estilo bateratu baten ezarpenean zetzan, ideologia frankistatik bultzatua eta eliz-guneetatik sostengatua, zeinak naziotasun historikoei estilo propioen existentzia ukatzen baitzitzaien. (Ugarte 1996, 141)⁴⁴

Horretaz gain, erlijiosotasunarekin ere badu loturarik. Oteizaren iritziz Lete Anaiak “gure herri, gure lur eta zerurako amestutako igogailu handia” da Arantzazu (Jorge Oteiza in

⁴⁴ “Se arguía que los bocetos presentados no correspondían con la religiosidad tradicional del pueblo vasco, manifestándose claramente en contra del arte comprometido, pero, en el fondo, esto no era más que un pretexto, puesto que la verdadera discusión se centraba en torno a la implantación de un estilo unitario dentro del “arte nacional español” impulsado desde la ideología franquista y apoyado por las altas instancias eclesiásticas, y que negaba la posibilidad de existencia de estilos propios a cada nacionalidad histórica.”

Echeverria Plazaola 2008, 128) eta horrekin bat letozke bere atariko diseinua. Horregatik, frisoak eta pietateak espazio sakratuarekiko sarbidea izan nahi dute, lur eta zeruaren arteko bitartekaritza. Aitzakia baino, Elizaren debekua joera abangoardistak profanatzen dituelako gertatuko litzateke. Edozelan ere, esangura artistikoez gain, autoreak berak obraren defentsan eta obraren gaineko diskutsoaren bitartez funtzio ideologikoz beteko zuen (Ugarte 1996, 155).

Agirrebaltzategiren iritziz, dudarik ez dago, Arestik Oteizaren *Quosque tandem* baino arinago ezagutu zituela errepide bazterrean pilatutako harriak. *Atzo ezagutu nuen* Joxe Arregiri dedikaturiko poema dakar gogora, Arantzazuko harri guztiek liluratzen omen baitzituen Aresti:

Harri eta Herri liburuaren azken arrazoiak, Oteizaren liburuan beste, Arantzazuko apostolu-harrietan daudela esan daiteke... eta Arantzazu harrizkoan (Agirrebaltzategi 2013, 91)

Anjel Lertxundik testu hori hartuko du abiapuntu bere hizketaldian tarte berezia eskaini zion honi Harri eta herriren 50. urteurrena ospatzen dituzten jardunaldietan, paperari begiratuko dio, honako epigrafe hau irakurriz: “Oteiza bidean irten zitzaionekoa”, gaiari ekin aurretik (Uribe, Lertxundi, eta Alberdi 2014). *Quosque tandem* argitaratu zen urtean saritua izan zela *Harri eta herri* –1962an, nahiz eta bi urte beranduago argitaratua Oteizari atal oso bat eskainiz, *Profeta bati* alegia–.

Biei Arantzazu inguruko mendietako karezko harriak –ohizkoak Arantzazu inguruan eta euskal mendietan– liluratzen badituzte ere, Oteizaren eta Arestiren harrien arteko diferentzia azpimarratu egiten du (ikus Aresti harriztatua, 296-297. orr.). Bukatzeko “elukubrazio txiki bat” plazaratzen du Oteiza eta Arestiren harrien gainean. Oteizak bilatzen duen hutsa, azken batean bere tresnaren falta dela, euskaraz hitz egiten ez duenez, “hainbeste kalte” egin duen “nik euskaraz eskulpitzen dut” ateraldia dakar gogora. Arestik *Profeta bati*, Jurgi Oteizari alegia, dedikatzen dion poema luzearen harira, honakoa zioen Lertxundik:

Oteizak listoentzat eskulpitzen omen zuen. Arestik tontoentzat idazten. Hor da berriro, modu askotara irakurri daitekeen esaldi bat. “Oteizak listoentzat eskulpitzen zuen, gaztelaniazko mailuarekin, euskaraz mintzo omen diren eskulturak eginez. Arestik berriz badakigu zer

egiten duen eta nola egiten duen. Hizkuntza hegemonikoko hiztunek hori dute betiko pagotxa. Berean ari direlarik, nonahikoa egiten dutela uste dute.” (Uribe, Lertxundi, eta Alberdi 2014)

Oteizaren adierazpidea eskultorikoa da eta euskal kulturaren parametroak euskal estilotik ulertzen zituen, eta ez testuetan objektiba zitezkeen *h*-dun edo *h*-bako idatzietan, hortik uler daiteke euskara batuarenganako edukiko zuen ikuspegi negatiboa. Lertxundik kultura hegemoniko eta menpekoen arteko talkan laburbiltzen du honakoa.

Baina bien lanabesa Milia Lasturkoren harriak dira. Oteizaren apostoluak Lasturko harrobitik ateretako harriekin eginak dira (Zulaika 2014, 99), Arestik Axularren harriari forma ematen dion bitartean: “betirako labraturik / gera dadin / euskal / harria” (Aresti 1967a, 9). Karmelo Landak aztertu du Arestiren harria eta Milia Lasturkoren eresia zaharreko harriaren arteko harremana (K. Landa 1999, 40; Karmelo Landa in J. Juaristi, Landa, eta Alberdi 2014):

Iausi da cerurean arria, / Aurquitu dau Lastur-en torre barria / Edegui dio almeneari erdia. (Ezezaguna XV-XVI)

Zerutik erori gabeko / harria, / ongi labratua, / maisu trebe cit trebe eta habil batek / landua, / oinarri, / gilzarri, / zimentarria (Aresti 1967a, 9)

Biek ematen diote forma Lasturren eroritako harriari, Oteizak apostoluei, Arestik Axularren euskarari. Arestirentzat zerutik erori gabeko harria da eta hala ere lurtean dena. Oteiza mito fundatzailea da, bere idatzietan benetako “euskal artea” topatzen duenean, trikuharriaren bitartez (Ugarte 1996, 176), Arestiri, ordea, euskara batua fundatu izana esleitzen zaio. Oso besteakoa izango da eresia hau Itxaro Bordaren *queer nation* proiekturako lanabesa denean (Atutxa 2011, 73–81), harririk gabe agian, Milia baztertua, erditzerakoan hila, oso bestelako irakurketa bat eskaintzen du, neurri handi batean, harri landuen metafisika honi kontrajarria: Aresti eta Oteiza lako fundatzaileek baztertu dutenaren gainean egindakoa alegia, hezur-haragizko Miliaren zorigaitza.

2.4.4. ARANTZAZUKO POETIKAK

Arantzazuk ere lirikarako tarte zabaltzen duen leku imaginarioa ere bada, Mitxelenaren *Arantzuz gain*, Gandiagaren *Elorri* (1962) ingurugiro horretan inspiratzen da.

HARRI ETA ELORRI

Gabrielen lekua ikuskizunean (Urrutia et al. 2013), Arestiren lekuetako bat dugu Arantzazu. Alain Urrutiak prestatutako proiektioan, Santutegiaren dorreen horma arantzatsuak ageri dira lehen planoan. Andoni Egañak hamarreko handian jartzen du bertsoa irudiari begira. Arreta eskatzen dio irudiari aurrena, ondoren honakoa botatzeko:

“Txoriak nola sugeari hala / begiratzen zaio horri / elorria hain harri delarik / ta harria hain elorri / elorria hain harri delarik / ta harria hain elorri”

Arantzazuko irudiak sortzen duen arretaz aritzeko, Atxagaren *Sugeak txoriari begiratzen dionean* (1984) ipuinean bezala, sugeari begiratzeak itsu, hipnotizatuta uzten duen txoriaz alegia. Antzipatu duen erritman (“jatorri”, “etorri”, “horri”), oinera eramaten du Arantzazuren liluramendua. Aliterazioaren (fonetika) zein konparazioaren (sintaxia) bitartez elorria eta harria berdindu egiten ditu. Aliterazioa, partzialki dago antzipatua errimetan, baina borobildu egiten du, fonema-talde ezberdinen bitartez: *rri*, *eloRRi*a hain *hARRi* delarik; *ia*, *elorrIA* hAln *hArri* delArIk.

Arantzazuren kodetze poetikoa da elorria Bitoriano Gandiaga frantsiskotarraren *Elorrin*, Arestiren belaunaldian Arantzazuko “poeta enblematikoena” zen Gandiaga (Agirrebaltzategi 2013, 94) eta Arestiren *harriarekin* nolabaiteko baliokidetasuna duen figura da. Elorriak poeta bera, gizakia, Arantzazu, kosmosa zein Santutegi berriaren izaera arantzatsua har ditzake bertso ezberdinetan (Otaegi 1995). Hala ere, bi poetiken arteko aldea nabarmenduko zuen Felipe Juaristik, Arestik Bilbotik idazten zuelako ezezkor eta Gandiagak Arantzazutik baikor, kutsatu gabeko paradisutik:

“Aresti, mailuz jota, harriari kantan hasi zen. Gandiagarena, ordea, ez da harrizkoa, lurrezkoa, buztinezkoa, baizik.” (F. Juaristi 2000)

Aurretik ere paralelismo ugari nabarmendu dira, *Maldan behera* eta *Elorriren* artean: biak jotzen dira sinbolistatzat eta oihartzun uste baino eskasagoa eduki zuten, bi poetak nolabaiteko etsipenean kokatuz, eta biek jo zuten handik aurrera poesia

sozialera (Agirrebaltzategi 2013, 95–96). Arestiren hiletan, Gandiagak elizkizunik ez egiteko defuntuaren nahiarekiko begirunea adierazten bazuen ere, bere fedez, nahi zuen Jainkoak Aresti bere grazian har zezan (Agirrebaltzategi 2013, 97–98).

Arantzazuko seme gisa ageri zaigu Gandiaga, Aresti Bilboko seme ageri den bitartean. Bi guneeetatik elkarri bideratzen dizkiote begiradak. Honela, bere omenez Gandiagak idatzitako poema batean Aresti suarekin identifikatzen zuen, bere izaera “errauslea, sortzailea, bihurria eta martzala”, aitaren etxeko gauza zaharrak erre eta “argi beroak” sortu, etxea zutik irauarazteko (Sarriugarte Irigoien 2001, 287). Agirrebaltzategiren arabera, Gandiagarentzat Aresti *sua* bazen, Arestirentzat *lurra* zatekeen Gandiaga. Antzinako kosmologiako lau elementuetatik (*sua, haizea, ura, lurra*) bi horiek bereiziko lukete bata bestearekiko edo, hobeto esanda, horien bitartez ikusiko luke bata bestearen bitartean. Bilbotik Arantzazurako bidaia litzateke suarena, arimaren goranzko ibilbidea. Arantzazutik Bilborakoa, ordea, lurrarena, munduan beheranzko ibilbidea.

EUSKAL PARNASOA

Egañaren bertso berberak Arantzazuren berezitasunekin egiten du aurrera. Proiektatzen ari den irudiak bere horretan dirauen bitartean, dorre arantzatsuak dakartza berriro ere:

Ai! Arantzazu zenbat gauza den / inortxok ba ote daki / arte gunea,
fede lekua/ basilika bat izaki / askatasun da ta debeku da / zalantza ta
erabaki / sentimenduen kartzela eta / euskararentzat lubaki (Urrutia et
al. 2013)

Salbatore Mitxelenaren poemako estrofarik ezagunena da oraingoan erreferentzia nagusia, Arantzazu(k) den edo duen guztia azpimarratzen duen hori hain zuzen ere:

Zuk zer dezu, Arantzazu, / ames-kabi, otoitz-leku / Euskal-erria oso-
osorik / kantari dijoakizu. (Mitxelena 1949, Agur, Jesusen Ama...)

Bertso hauek aurreko ataletan aztertutako esangura horiek guztiak kondentsatzen ditu nolabait, gatazka kokatzen du erdigunean antitesiaren bitartez. Gainera, “otoitz-leku” zenak bere horretan dirau (“fede lekua”), baina oraingoan “ames-kabi” zenak “arte gunea” hartu du, Santutegiaren zaharberritzeari esker hain zuzen ere. Izaera artistiko horri, euskararen aldeko apustua ere gehituko zaio. Honela, beste saio batean

Arantzazuk euskal parnaso baten itxura hartuko du, Oteiza eta Basterretxea gogora ekarri ostean, honako bertso hauekin bukatuko baitu:

... azken urtetan Laboa ere / hortxe dago barrenean / politagoa baita
lanbroak / izkutatzen duenean / politagoa baita lanbroak /izkutatzen
duenean (Urrutia et al. 2013)

Parnasoa azken batean, bertan gordetzen duelako ere Mikel Laboa kantari zendua, berak bazterrak maite zituelako “lanbroak izkutatzen dizkidanean” (Laboa 1974, Gure bazterrak).

2.4.5. ZERU ETA INFERNU

Nabaria da Arestiren poetika kaletarrear erreferente kontrajarri batekin elikatzen dela. Arantzazu Paradisu gisa ageri da. Bertan, euskara da entzuten duen bakarra. Tentazioa dauka, Bilbotik alde egin eta Gorbealara igotzeko, bertan “organizatzeko euskararen salbazioa”.

Bilboren beste aldea da Arantzazu. Batetik, Arantzazuk pilatu duen iruditeria guztiari esker. Bestetik, bertan topatuko ditu euskara batuaren alde egiteko aliantza nagusiak. Hala ere, Bilbo industrialaren esangurak ekartzen ditu gogora. Bilbotik idazten du beti: “Hemen Bilbo” (1964b, 24). Arantzazuren sakralitatea mantendu egiten da, bestelako esparruetan indartu ahala: euskal kultur eta naziotasunean hain zuzen ere, esangura ezberdinetako apostuluak lekuko. Beste bi bilbotarrekin partekatzen du Arestik Arantzazurekiko liluramendua:

Oteiza, Otero eta Aresti, Bilbotik etorritako hiru ateoak, Arantzazuko zeruaren hartzen zuten aterpe haien hiritik ihesi. (Zulaika 2014, 101)

Erabateko laiotzea jasan ez zuten hauentzako Arantzazu irudi zerutarretik aldendu ezinik daude. Oteizak Pablo Letek nahi zuen proiektu hori, “lur eta zeruaren arteko igogailua”, nolabait gauzatu egiten da. Jorratu ditudan garaiko historiako kapitulu nagusiak, Arantzazuko Biltzarra, Euskaltzaleen Bazkuna, *Jakin* aldizkaria, *Arantzazu* poema hura dute eskenatoki nagusi. Honela, Arestik Arantzazu Bilboko infernuari

kontrajartzen zaion zero gisa irudikatzen du. Joxe Azurmendiri eskainitako poeman honela kokatuko du fraide frantziskotarra:

Joxepe, /nire laguna, / hurrun dago, / han goian, / zerutik hurbil, / eta ni berriz / hemen behean, / osin ilun honetan, / Bilbo deritzan / infernu honetan... / Hura han goian, / Arantzazu deritzan /gailur haretan, /paradisu haretan... (1964, 68)

Leteren “igogailua” Arestiren “zeruko atea” ere bada, nonahi ikusten ditu harriak bertan: “Harria, / edonundikan / harria.” (Aresti 2008, 86) Literatur esparruaren analisiarekin bat, Arantzazu eta Bilbo esparruko espazio sozial-sinbolikoak ere badira. Arantzazu, beste munduaren gune pribilegiatua da. Bilbo, berriz, mundu-munduarena. Nabaria da Arestik kalonje eta apaizei zien arbuioa. Arbuio hau, ez zen, inolaz ere, fraide frantziskotarretara luzatzen. Lehen esan bezala, euskal kultura esparruko posizio hartzeetan, Arantzazuko fraideak izango ziren erlijiosoen artean salbuespen.

2.5. BILBAO

Euskaraz “Bilbao” esatean Arestiren oiartzuna dator, hala idazten eta esaten baitzion berak. Arantzazuri kontrajarritako infernua izateaz gain, luze idatzi zuen Bilbori buruz. Bilboko euskalgintzaren ikono bihurtzeraino egin dute bere hainbat erakundek. Arestiren Bilbo lausotuz joan den neurrian, gogoratu izan du Bilbok Aresti.

2.5.1. HIRIAREN KODIFIKAZIO LITERARIOA

Arestiren poesiaren izaera urbanoak Bilboko hiria eta Bilbo Handiko eskualdean ditu bere oinarriak. Badira Bilbori buruz idatzi duten beste hainbat idazle, baina Bilbori buruz oparo idatzi duen idazlerik badago, hura Gabriel Aresti da. Bilbao ezinbesteko erreferentzia da Arestiren apustuetan. Batetik, “ni” poetikotik abiatzen den poetak Bilbo zuen jaioleku eta bizileku eta, beraz, “ni” horren ingurune nagusi. Bestetik, poesia urbanoa euskal literaturan hiri-errealitatea islatzeko nahitik abiatuta, Euskal Herritik apenas irten zen egileak bizileku zuen Euskal Herriko hiri nagusiari buruz idatziko zuen. Gainera, gizonaren alde paratu nahi zuen neurrian, bilbotarrei erreparatuko zien, hiria

zen gatazka eta esplotazio kapitalistaren eskenatoki, hiriaren konformazioak gizonaren kontra egiten ez zuen horietan.

BORROKA EREMUA

Euskaltzaindiaren inguruan zebilen lagunei esker, apurka-apurka euskarazko espazioak zabalduz joan ziren Bilbon bertan. Horien artean Karmele Errotaetxek bultzatu zuen *Euskal jakintza astea* Bilboko Santiago Apostolu eskolan, garaiko euskal kultura esparruko punta-puntako kideen hitzaldiak antolatuz: Joxemiel Barandiaran, Juan San Martin, Luis Mitxelena, Jorge Oteizaren ordean etorri zen Juan Angel Etxebarria eta Gabriel Aresti bera. Jarduerak oso harrera ona eduki zuten, aretoa betetzeraino (Gereño 1968).

Horrek asko poztuko zituen bertaratu zituen euskaltzaleak, baina Arestiren txanda heldu zenean, goi harmailetatik fueraka aritu omen zitzaizkion, Karmele Rotaetxek haren hitzaldia aurkeztu orduko. Kintana gertaera horren berri ematen zuen *Zeruko Argian*, bertan jardunaldiek komunistek antolatzen zutenik ukatzen zuen –halako zurrumurrua zabaldu omen zen.

Gereñok kronika berezia eskaintzen zion Kintanak aurreratutako gertakizunari, orri berean, *Santiago Apostol'eko bigarren eskandalua* azpigitulaturik, leku berean gertatutako ye-ye jaialdiak sortu zuen eskandalua gogoan ekarriz (Gereño 1968). Bertan berriemailearen tonu erdi disimulatua agertzen badu ere, giro hartako asmo, itxaropen eta aldarreak ulertzeko aukera ematen du. Aurreko eguneko jarduerak eduki zuen harrera ikusita, Santiago Apostoleko fraileei areto handiagoa eskatu omen zitzaien Arestik hitzaldia bertan emateko. Iskanbila Rotaetxek Aresti euskaraz aurkezteari ekin zionean eman zen. Horrek, zalapartarien jokabidea gaitzestera eramanean zuen Gereño: euskaraz ari zen bati erdaraz eten eta hitzaldiak solasaldirako eztabaida uzteko ohitura errespetatu ez izana.

Baña, nortzuk ziran zaratalari orreik? Urtekeran, kalean, luzaroan egon ziran jende pilloak orreri buruz itz egiten. Batzuk, euskeraren aurkariak zirala esaten eben. Beste batzuk, Aresti'ren kontrarioak zirala. Nire ustez azken oneik izan ba ziran, ez eben zuzen jokatu. Alde batetik, euskeraz itz egiten egoanari, erderaz ixildu arazi eutsoen. Bestetik, kolokioan eukien oportunitateak Aresti estututeko, eta Aresti'k kolokioa zabaldu ebanean, ez eben aboa zabaldu. (Gereño 1968)

Jarraian, aurretik zabaldutako zurrumurrua ukatzera aurreratzen da: Euskal Astea komunistek antolatu zutela, alegia, “ta orren proba da zelako pilloan etorri dan jendea itzaldietara, jende euskalduna”. Bukatzeko, “fuera” esaten dutenen aurrean, Gereñok berak “Ekin eta Jarrai” diotenen alde egingo zuela esanez.

Arantzazuko Biltzarraren atarian gaude, Arestiren hitzaldiaren edukiak bi borroka guneetan hartutako posizioaren zantzuak zituen: euskararen alde egiteko, euskal burgesiaren kontra egin beharra zegoela (K. Landa 2014, 106-108). Gereñoren kronikak defendatzen duen ideia norabide horretan doa: euskararen edo Arestiren kontrako izan, ez ziotela euskarari mesederik egiten. Nolabait, Aresti eta enparauek martxan jarritako batasuna zela bide bakarra. Horregatik ekarriko zuen Euskaltzaindiaren leloa.

ALBIA

Barroeta Aldamar kalean jaio zen Aresti eta hala gogorarazten du bertan 1999an bere ohorez ipinitako plaka batek. Barroeta Aldamar kalean gora, aldapa txikia igo eta gero Abandoko Albiako Lorategietara ematen du, aldapan behera Buenos Aires kalearekin bat egiten du, Udaletxeko zubiarekin. Inguru horretantxe jaio ziren Sabino Arana eta Txabi Etxebarrieta ere:

... (ai, Albia, Albia, dohakabe guztion kabia, bertan jaio ginen Sabino eta Txabi, eta ni ere guztirik dohakabeena) (Aresti 1986e, 116)

Txabi Etxebarrieta zein Sabino Arana euskal nazionalismoa *zahar* eta *berriaren* ikono nagusiak dira –Agirre Lehendakaria eta *Argalaren* pareko. Aranaren garaiko Abandoko elizatea Bilbo liberalak anexionatu zuen eta bertan sortu zen euskal nazionalismoaren aita. Albiako Lorategian Antonio Truebaren estatua zaharrari Sabino Aranaren estatua berria gehitu zaio. Erakunde finantzari nagusien egoitzek dituen Kale Nagusiarekiko paralelo daude Albiako Lorategiak. Aranaren eskulturaren atzean Justizia Jauregia dago eta aldeetako batean Sabin Etxea, Euzko Alderdi Jeltzalearen egoitza nagusia, aranatarren etxe eraitsiaren hondarren gainean eraikia.

Juaristik nazionalismoaren “melankolia oso metro gutxitan laburbiltzen” zela dio (J. Juaristi 1997, 351). Eta luze jorratzen du Arestiren aitaren etxea melankolia horren sintoma gisa. 1960ko abenduan Aranaren sortetxea eraitsi eta harri puskak itsasadarrera botatzeko agindua eman zuten, euskal nazionalismoaren sinbolo eta

arrastoa desagerrarazteko asmoz. Une horrek bilakaeraren hasiera kondentsatzen du Juaristiren iritziz:

Sabin Etxearen suntsiketak ni eta beste asko, ETAn bukatuko zuen ibilbide sentimental laburraren abiapuntuan kokatu gintuen (J. Juaristi 1997, 349)

Etxeak eta Sabin Etxeak nazionalismoaren iruditerian duen presentziaz gain, Arestik atsekabe hura sentitu eta sentiaraziko zuen poema idatziko zuen, hil ostean argitaratuko zen *Desagravio ante las ruinas de Sabin Etxea* (Aresti 1986n, 136-146). *Nire aitaren etxea defendatuko dut* zentsura pasa zezakeen honen bertsioa izango litzateke (J. Juaristi 1997, 346-349). Irigoienek bestelako irakurketa proposatzen du Arestiren *aitaren etxea* bere Etxanoko aitaren jaiotetxearekin harremanetan jartzen duenean (Irigoien 1984), baserri giroan hezi eta euskaraz egiten zuen *aitaren* etxearekin alegia. Honetan ere, melankolia litzateke nagusi: galdu den objektu baten errekreazio etengabea. Juaristik, gainera, bereziki lotzen du nerabazaroko esperientziekin Unamuno, *Txillardegia*, Trueba edo Arana beraren melankolia (J. Juaristi 1997, 68, 318–320).

Gertaeraren indar sinbolikoa baliatuko zuen Anasagasti politikari jeltzaleak ere 1985an euskal nazionalismoaren 90. urteak ospatzen zituzten jardueretan (I. Anasagasti 1985). Frankismoan bizitako jazarpenaren errautsetatik nazionalismoa sendo altxatu zela kontatuko zuen, horretarako bi figura nagusi baliatuz: Sabin Etxearen eraisketa bera eta hitzaldiari bukaera emango zion Arestiren poema.

Bilbo hura, Abando izandakoaren arrastoa ere bada, nazionalismoaren sorlekua. Aktualiza litekeen harria da etxea. Zentzu horretan, Aranaren alde batzuk salbatu nahi ditu Arestik –Arestik Sabino Aranaren idatziak aukeratu eta atonduta argitaratzeko asmoa omen zuen (J. Juaristi 1997, 361–362)–. Hala zioen abiapuntu izan dudana hitzaldian:

Sabinoren ondoan haren gaizkia bizi izan da, haren razialismoa, euskararen kontzepzio faltsoa, haren teokratizismoa. Baina haren ongia enterraturik dago. Zeren beste Sabino bat dago, guri, populu zeheari ezkutatu eta ebatsi zaiguna, Viktor Txabarriri monumenturik ukatu ziona (zeren Somorrostroko mina-zuloetan hainbeste proletario tisikotu

zuenak ez baitzuen oroitzarririk merezi, hala erran zuen), «Vizcaya» itsas-ontziaren pabeloirik onartu nahi ukan ez zuena (zeren koloniak konkistatzeko itsas-ontziak ez baitziren ontzi prestuak, hala erran zuen), Euzkadiko proletariatua eta hirugarren munduko lumpen-proletariatua hala defenditu zuena. Hori da gure Sabino, bihotzean eta zainetan odol gorria eduki zuen Sabino Arana berri eta ez-ezaguna, guk euskaldunen ezagutzara ekarri nahi duguna. (Aresti 1986e, 116)

Aranaren etxearen hondarretatik mugimendu antifrankista berriro loratuko zen Bilbon. Landak Arestik gertakari politiko gertu eta urrunekin zuen lotura eta engaiamendua aztertu du. Zentzu horretan, *Zuzenbide debekatua* Gabriel Moral eta berarekin atxilotutakoei eskaini zion. Moral *Euzko Gaztediko* kidea lagun mina zuen Gabrielelek eta 1959an atxilotu zuten Bilbon bertan “ekitaldi propagandistiko ingenuo bat” egin izanagatik, tratu txarren eta gartzeleratzearen ondorioz Moralek berak kontatu zion Landari Arestik hartutako “disgustua” (Karmelo Landa in J. Juaristi, Landa, eta Alberdi 2014).

Gabriel Moralen atxilotetaren harira, Juaristik gaztelaniaz idatzitako beste bi poema ekarriko zituen, Arestiren jeltzaleekiko apurketa azaltzeko. *Lamento por la prisión de Gabriel Moral Zabala* (Aresti 1986n, 111–113) eta *Poetak daude* (Aresti 1986n, 72–78). Bertan, Moral aberriaren alde sakrifizioa eskaintzen duen heroi gisa kokatzen zuen. *Euzko Gaztediko* gainerako klase-ertaineko kideak ez bezala, maketo eta baserritar pobre baten semea zen, Arestik bere zapata zatarrei egiten zien erreferentzia bere kamaradek barre egiten zitelako. Gainera Moralen lagunak agudo atera baziren espetxetik, fidantzak ordainduta, bera eta bere arrebak zigor osoa bete beharko zuten. Arestik orduan egin zuen “nazionalismo sozialaren” aldeko hautua –“nazionalismo burgesaren” arrazismo eta klase-ertainkeriaren kontra (J. Juaristi 1999, 83-84)–.

1963ko martxoaren 23an, Guardia Zibilak hiru lagun hil zituen Mirafloreseko Bilboko sarbideko auto-kontrol batean, Benito del Valle, Madariaga eta Manu Agirre etakideak zirelako ustean. *Zuzenbide debekatua* bukatzeaz bazegoen ere, omenaldia egin zien *Janjan motzaren erak* sailean (Karmelo Landa in J. Juaristi, Landa, eta Alberdi 2014). Arestik berak umetatik faxisten aginpean geratu zen Bilbo hura du gogoan eta hortik azaltzen zuen bere hautua. Gerra aurreko goseteen, anaiarekin baserri batean erositako patata-zakua errekiatu omen zieten goardia zibilek.

Etsera negarrez etorririk, honela galdatu genion geure amari, polizia haren etsaiak zein ziren. Amak euskaldunak eta marxistak zirela erran zigun eta guk ebatsi zitzaigun patata-zaku hargatik hau zin egin genuen: [handik aurrera eta hil arte euskaldun marxistak izanen ginela]. (Aresti 1986e, 109–110)

Haurtzaroan bertan kokatzen duen joera ideologiko hori, La Concordia eta Euskaltzaindia bezalako guneetan elkartzera eramango zuen. Aipatu bezala bertan izango zituen ezker antifrankistako eta euskalgintzako bidailagunak. Arestiren obran Bilbo gatazka-gune bikoitz gisa agertzen da: kapitalismoaren garapenarekin bat datozen klase borroka eta deseuskalduntze prozesuei dagozkienak (Cadarsó 2001, 89).

GIZONAREN ALDE

Arestik Bilboko bidegabekeria toki zehatz batzuetan kokatuko zuen. Langile eta burgesen arteko banaketaren lekuko, Bilboko espazio urbanoaren konformazioa:

Niri asko gustacen zait Enekuritik Archandara joatean, mendiaren bizkar-ezurretik paseadan, nire oinetan Bilbaoko lau balherak ikusiaz, han hurrutian Ibaizabal eta Nerbion bat egiten direna, gero Abandoko Ibarra, eta azkenean, ezkerretara Barakaldo eta eskubitara Gecho. Horregatik gustacen zait Bilbao, gauzak argi eta garbi ikusten dira, ezer disimulatu gabe, bai, probretasuna ezkerretara eta aberxatasuna eskubitara. (Aresti 1986a, 67)

Klase borroka era argian agertzen zuen Bilbo Handiaren ezker alde-eskuinalde hiri-konformazioak. Baina, Arestik batik bat Bilbo inguruko auzo altuei erreparatuko zien bere poetikan, Bilbo hiriaren desberdintasunen adierazle. Desarrollismo desorekatuaren ondorio, Bilboko garapen industrialak etorkin andana erakarri zituen, *botxo* inguruko mendietako txabolismoa zen horren lekuko –Arxanda, Oilargan, Uretamendi–. Arestik horren testigantza jaso zuen hainbat ipuin, antzerki eta poemetan.

Horien artean, *Souvenir d'Espagne pour Mesdemoiselles Solanje et Helena Gereziaga* da poemarik famatuena (Aresti 1964b, 24), bertan Artederretako Museoko ikuspegi bikoitza eskaintzen du: burgesiak sostengatu eta zaindu zuen artea eta Arxanda aldeko etxolena, ijitoena. 50. hamarkada bukaeran txabolismoa problema sozial gisa

plazaratu zen⁴⁵, Udalak agindu zituen estatistikek 40.000 lagun kontatu zituzten txaboletan bizitzen 1959ean. Txabolak Bilbo erdigunetik zeuden ikusgai, poemak agertzen zuen moduan. 1960-61 urte bitartean Otxarkoagan etxebizitzak eraiki zituzten txaboletako bizilagunak bertara bizitzera behartzeko. Adreiluaren burbuila ziztatu den garai hauetan, hain gogoratua den proletarioak baino propietarioak nahiago zituen Ministro bilbotarrak, Jose Luis Arresek, aginduko zuen eraikuntza. Franco bera etorriko zen etxebizitza berriak inauguratzera.

Hurrengo urtean argitaratu zuen Arestik *Jainkoa jai da Otxarkoagan* ipuina (Aresti 1962b). Bertan, Damaso Aurtenetxe Neguriko tokologoa erditze batera deitzen dute. Erditzean ama hil egiten bada ere, umea salbatu egiten da. Medikua ohartu da erditzen ari den ama bere alaba dela, aspaldi eduki baitzuen amorante:

Bi mundu diferentetan bizi izan ziren, medikuntzako estudioak amaitu berri zegoen zaldun gazte aberatsa, eta Andaluziako kortijo batean jaiorikako, batere eskolarik gabeko neskame zerbitzuko. (1962b, 212)

Bertan, segurantzako medikuak ematen dio etxeko egoeraren berri, ama ala haurra salbatu beharrean daudela:

Infernuan bertan gaudela. Hemen ezta Jaunaren sobera parabola aditu. Neskatzaren ama, neskatxa bera bezala, senarrik gabe dago, ezta inoiz esposatu. Orain hamar urte edo, ijito batekin juntatu zen, eta etxola bat zedukaten Ollarganen. Etxolak suntsitu zituztenean, bizi-leku hau eman zieten, baina han baino hijiene eta osasunbide guttiagorekin bizi dira, edo hiltzen dira, hemen. Ahuntzak beti basora. Dutxan perrezila landatu dute, eta eskaratzean zerri bat gizentzen dute. Gezurra dirudi, baina hala da. (1962b, 218)

⁴⁵ Lenoirren definizioari jarraituz, problema sozialek pertzepzio eta pentsamendu kategorია jakin batzuk bere gain hartzen dituzten fenomenoak dira. Zentzu horretan, problema sozialei aurre egiteko tresna eta erakundeek problema sozialaren instituzionalizazioan eragiten dute (Lenoir 1993). Kasu honetan, txabolismoaren problema sozialak, hedabideek, estatistika erakundeek, Udalak eta gobernuaren definizio-gaitasunari lotuak leudeke batik bat.

Bukaeran, tokologoa Neguriko etxera bueltatu egiten da, bertan bere emazteari ume hura adoptatu egiten duela kontatuz.

Mundu-munduan (Aresti 1965) da Arestik argitaratu zuen nobela bakarra, berak adierazten zuen bezala, *Ollarganeko etxola batean* (1986m) antzerki obraren egokitzapena zen. Bertan, klase kontrastea Alde Zaharreko taberna baten jabeen eta bertako morroien artean agertzen da. Oraingoan ere, jabeak tabernako morroia, Tereza, hartzen du amorante. Terezaren haurdinaldia emazteari ostendu nahi dio, ugazabak beste morroiarekin ezkontzera behartu egiten du, Ollarganeko etxola batean elkarrekin bizi zitezten. Diru trukean, nahi zuenean edukiko zuen amorantearekin oheratzeko aukera. Hona hemen Tereza eta Josepe Zufia jabearen arteko elkarrizketa:

- Begira, nik etxe bi manten ditzaket. Batean nire emazte zuhur eta aberatsa gordeko dut, eta bestean nire amorante maitatu eta ederra
- Gero enganatzen ez nauzula diostazu, eta bi bihotz eduki nahi dituzu. Argi batek nola bi gela argituko ditu? Gizon batek nola bi aberri edukiko ditu? Bihotz batek nola bi familia sostengatuko ditu. (1965, 223)
- Etxe batean nire ondasunak defendituko ditut, eta bestean nire amodioa.

Harri eta herriko Nire aitaren etxea poema idazten ari zen garai berberean idatzi zuen testua eta, agian horrek, zilegi egin lezake poema horren eta eleberriko etxearen arteko harremani erreparatzea. Ageriko anafora dago Josepe Zufia jauntxo ankerraren ahotsaren eta aitaren etxea defendatuko duen ahots poetikoaren artean. Anafora ez da hemen agortuko, Josepe Zufiaren aitak honela esplikatu dio apaizari, berari gertatu zitzaion antzeko gertaera azalduz:

Begira nire etxeari, nolako zimentarri gogorrak dituen. Ez du, ez, aire gaizto batek lurrera botako. (...) Nire maitaleari senar bat aurkituko nion, eta nire etxeak, gure familiak, zutik eta uniturik iraun zuen azkenean. (1965, 235)

Arestik gorroto dituen euskal burges arketipikoak dira Zufia aita-sembleak (Arkotxa 1987, 67), baina Arestik ez du erreparorik bere poema famatuena bilakatuko dena haien azpijokoaren zuriketarako errepikatzen. Aitaren etxearen defentsako sakrifizioa hain *mundu-mundukoak* diren ondasun materialak eta sexua bermatzeko besteen sakrifizioa bihurtu dira. Bi belaunaldik behintzat jokabide berbera eduki dute, aitaren etxea zutik iraunarazteko. Horretarako, amorante pobreak ezkondu zituzten, euren maitale izaten jarrai zezaten.

Jainkoa jaiotako Otxarkoagan ipuinean zein eleberri labur honetan, Josepe Zufia jauntxoak zein Damaso Aurtenetxe medikuak Oihenarten esaerari egiten diote erreferentzia zuzena (1962b, 215; 1965, 224): “Ohaidea eder-ariaz, / Ezkontidea zuhur-ariaz”(Haritschelhar 1994, 290). Biak dira euskaltzale eta irakurle amorratuak, erabiltzen dituzten erreferentziak kontutan hartuta (Axular, Dostoievski...). Josepe Zufiak ez du erreparorik bere euskal literaturaren ezagutzaz Tereza morroiari ezjakintasuna leporatzeko:

Zuk ez duzu inoiz batere euskal libururik irakurri. Bat dago, oso liburu zaharra, zuberotar batek baturikako ditxo-bilduma bat: Bertan irakur liteke, emaztea zuhurra izan behar dela, eta amorantea ederra. (77-78)

Arestik ezagun zituen abertzale bilbotarren irudiarekin bat etor daiteke. Eta Arestik berak bidegurutze berean egon omen zenean, kontrako bidea aukeratu zuen, familia abertzale eta aberats bateko andrearekin ezkontzekotan egon zenean, Melirekin maiteminduko zen (Kortazar 2003a, 44). Agian horixe da bere aitaren etxea ondra lezakeena, horregatik dedikatu egiten dio *Euskal Harria* liburua:

...zuri / meli / espainiako andrea / nire aitaren etxearen habea / eskeincen dizut / nire poesia / eta / nire persona (Aresti 1967a, 27)

Edozelan ere, aurrerago aztertuko dudan aitaren etxearen izaera polifonikoa aurreratu egiten du, Oihenarten esaera patriarkalean ondare berean egongo den topika izan liteke, esplotazioa zuritzeko. Jakina da, Arestik ez zuela aitaren etxerik jaso herentzian, euskararen haria mantentzen zuen Amorebietako aitaren etxea galdua zuen, eta hamaika etxetan bizi izan zen, Bilbon bertan (Zelaieta 1976; Kortazar 2003a).

Zentzu horretan, etxeak eta etxolak daude. Josepe Zufiaren etxeak “zimentarri gogorrak” dituen bitartean, bere ohaidea eta senarra Arnotegiko etxola batean bizi dira:

Eskumako gelaren teilatua teilazkoa da, eta ezkerrekoarena uralita zaharrezkoa. Teilatu flako hauk aizeak eraman ez ditzan, harri haundiak daude gainean. (1965, 254)

Tereza eta Hernando Etxebizitza Ministerioak eraikitzen ari zituen etxeen zain zeuden:

... eta bizi-leku on-xamarra emanen digute Otxarkoagan. Hilabete barren, hango etxe guztiak akabatuko dituzte, eta hemendik despatxatuko gaituzte. Geroxeago beste hauzoalde bat hasiko dute Txurdinagan, Bilbaon batere etxeolarik gera ez dadin. (1965, 254)

Jainkoa jaio da Otxarkoagan ipuineko etxera joatekoak izango ziren ziurrenik, bestelako destinoa gertatu izan ez balitz. Arestiren poetikan Artxanda, Ollargan, Otxarkoaga lako izenak Bilboko bidegabekeriak salatzeke izen gisa ageri dira, jauntxo abertzaleen etxeen orde, etxoletan bizi diren horiena –eta berdin da, Ministerioak eraikitako etxea edo haiek eraikitako etxola izan–. Hala ere, Artxanda, Arnotegi, Otxarkoaga eta gainerakoak Bilbo erdialdetik ikusten ditu –ipuin eta eleberri honetan ez bezala, azken batean Bilbo duelako protagonista–. Bertako bizilagunak paisaiaren parte dira, baina ez dira agente gisa agertuko.

Ipuin eta eleberrian, bertara gerturatu egiten bada ere, jauntxoak dira subjektu, erabakiak hartu behar dutenak, bertako lunpena eta, bereziki, emakumeak indarge ageri dira hauen aurrean:

Gizonentzako zerua bete ala hutsa dateke; baina guk ikusi ditugun andreentzat, zerua gizona da, honek die beren biziari balioa ematen (nahiz ez ematen): nola senti dezakete, beraz, existentziaren zoramena? (Arkotxa 1987, 76)

50. hamarkada bukaerako eta 60. hamarkada hasierako Bilboko problema sozial honen testigantza jaso zituzten poema, eleberri, antzerki eta ipuin hauei, antza, ez zaie omenaldietan txertatzeko bezainbesteko balio atzeman. *Souvenir d'Espagne pour*

Mesdemoiselles Solanje et Helena Gereziaga (Aresti 1964b, 24) izango da, agian, problematika hau zeharka jasotzen duen poema sonatu bakarra. Aresti soziala *Zorrotzako portuan aldarrika* gogoratu ohi da batik bat. Zentzu horretan, euskal-erdal proletariatu klasikoaren irudikapena hobetsi egin da, *lunpenproletariatuaren* kaltean.

Arrazoi asko egon litezke hori azaltzeko. Arestik begi-bistan zuen arazoa zen, etxetik ikusten omen zuen “odoloste frijitua eta tomate freskoa afalcen” zituen bitartean (Aresti 1970a, 77), baina Otxarkoagan eta Txurdinagan gero eraikitako etxebizitza berriek Bilboko erdigunetik aldendu egin zuten arazoa. Zorrotzan ere ez dago ez Gillen ez Antonik alemandar barkua atrakatzen duen bitartean, eta hala ere poema gogoratua da. Bilboko irudi industrialak da gaineratu egin dena, proletariatu klasikoarena, 80. hamarkadako *Euskaldunako bataila* gogoan. Eta baliteke Arestik arrazioa izatea, eta egungo euskal idazleei Josepe Zufia edo Damaso Aurtenetxe bezain arrotz suertatzea inguru hura. Zentzu horretan, Ibon Egañak Bilbo eskenatoki dituzten nobelak aztertuta, Otxarkoaga eta San Francisco auzoek *bestearen* gisa ageri direla gaineratu du, Alde Zaharrarekiko, hizkuntza zein ezagutzari dagokionez (Egaña Etxeberria 2006).

INFERNUA, EREMUA

Gauzak honela, Bilbo infernu gisa ageri da. *Maldan beheran* infernurako erorketa ageri zen hirian barneratu ahala: “maldan behera doa aguro / nire gorputz biluzia” (Aresti 1960e, 190). Etxolak zein Otxarkoagako etxe berriak infernuaren paisai bihurtzen dira, “deabruaren paradisia dirudi”, “infernuan gaude”, esango zuen Aurtenetxe doktorearen laguntzaileak (Aresti 1962b). Nobelak ere *Mundu-munduan* zuen izena, Zeruko kontuetatik alde eginda, mundu honetan gertatzen denaren berri ematen duelako. Bertan apaizak komikoak dira, afera horien gainean zeruko doktrinak ezer gutxi egin dezakeelako.

Arantzazuren kontrapuntu sinbolikoa da Bilbo, mendiz inguratutako harana. *Egun da Santi Maminan* euskara salbu ikusi arte bizarrik ez mozteko zina egin bazuen, aurrerago Bilbon geratu beharraz arituko zen, bataren zein bestearen arteko kontraesanean. Euskara galdua duen Bilboz ari dela honela bukatuko zuen *Bilbaoko kaleak* poeman (Aresti 1967a, 105):

Gorbeiarra joateko gutizia sorcen zait barrenean, / bertan organizaceko euskeraren salbazioa, / baina hemen geracen naiz, / kale arte honetan, / milagro baten zai, /egunero bizarra kenceari utzteko / naikoa kurajerik / ez baitdut.

Bilbo zibilizatua geratu eta egunero egingo du bizarra kontulari lan egiteko. Agian ez dagoelako zerurik, infernu mundutarra baino. Hala ere, mendi tontorrean, Arantzazun edota aitaren etxean kokatuko ditu “gutizia”, gerra aurreko poetak bezalaxe. José Fernandez de la Sotak, *Travesía por Bilbao. Guía poética* (Fernández de la Sota 2010) liburuan Aresti edukiko du gogoan, bertan egunero ikusiko du bizarra kentzen, Bilboko hirian bizi edo biziraun nahiean. Egunero bizarra kentzeari ez uztea, Bilbo nolabait onartzea da, baina gutiziak, desioak beste inon egoten jarraituko du.

2.5.2. BILBOKO SEME PRESTUA

Arestiren testuek utzitako Bilboko erreferentziez gain, Bilboko hainbat eragilek Arestiri buruzko erreferentziak sortuko zituen. Honek, nolabait, Bilbo eta Arestiren alde biko lotura ziurtatzen du. 1978an AEKren sarearen baitan txertatuko zen Bilboko euskaltegi berriak Gabriel Aresti izena hartu zuen. *Zenbat gara* elkartearen inguruan euskalgintza sare oso bat osatuko zen, apurka-apurka elkarteak berak, Gabriel Aresti euskaltegiak, Bilbo Hiria Irratiak eta Kafe Antzokiak, hain zuzen ere, Alban hartuko zuten egoitza. Azken urteotan, gainera, urtero antolatzen ditu omenaldiak Arestiren jaiotegunaren inguruan.

1979an, Joseba Irazu, Bernardo Atxaga ezizenez, Pott Bandan zebilen bitartean *Instituto Nacional de Bachillerato Femenino de Txurdinagan* zen irakasle. Bertako klaustro batean (Gabriel Aresti BHI 2013) Gabriel Aresti izena emateko proposamena egin zuen, horretarako txosten labur bat helarazi zuen bere “pertsonalitate eta literatura ekarrien” gainean (Irazu 1979) arituz. Institutua birbatailatuta geratu zen hurrengo kurtsorako.

Ez zen erabaki arraroa izan, ohizkoa da ikastegiei kultura legitimoaren pertsonaien izenak ematea, Bilbon bertan Cervantes, Antonio Trueba, Miguel de Unamuno ikastegiak ere badaude. Baina, aldi berean, keinu honek bere eragina du kultura

legitimoaren ezarpenean. Kasu honetan, Bilboko euskal idazlearen aldeko hautuak esangura bereziak ditu institutuko taldeak hezi nahi duten norabideari buruz.

KALEA

1980an, Bigarren Errepublikaren osteko lehen udal hauteskundeen ondotik ateratako udal batzak Bilboko zenbait kale izenei aldatzeari ekin zion. Jarraitu beharreko prozeduraren gaineko eztabaidaz gain, irizpideak jorratu zituen udal-batzorde iraunkorrek urte hartako ekainaren 4ean Batzorde estatistikoak osatutako proposamenaren gainean. Ordezkeri guztiak zenbait kale izen aldatzeko beharreen bat bazetozen ere, beste zenbaitek eztabaida piztu zuten. Ibañez PSE-PSOeko zinegotzi eta proposamena egin zuen Batzordeko kideak, honako irizpideak azpimarratu zituen aldaketa egiterakoan (Ayuntamiento de Bilbao 1980, 106–107):

- Aldaketa mugatua egitea, izen aldaketa egiteko behar diren baliabideak kontutan hartuta, baina betiere “erregimen demokratikoarekin eta Bilboko Udal demokratikoarekin era argian bat ez datozen” izenak aldatuz
- Gerra Zibil aurreko izenak “gustatu ala ez, gure gain hartzen ditugu”,
- “Espainiako Estatuko nazionalitate eta herrialde izenak” mantentzea

Honela, gerra zibileko gertaera, bando nazionaleko politikari eta pertsonaien izenak aldatzeko proposamena egin zen. Izen berriak aukeratzekoan EAJko Calzadak honako irizpide hau gaineratzen zuen:

Euskadiko historian oso eragin negatiboa izan zuten pertsonaien izenak ere egon direla Bilboko kale-izendegian, 36aren aurretik ere eta 36an bertan Bilbo kanpotarren izen gehien zuen euskal hiria zela. Garaia da Bilbok bere nortasuna berreskura dezan, bere semeak kaleetan eduki ditzan, bere seme ospetsuen izenak, bere toponimiako izenak, horregatik, esan den bezala, izen hurbil eta Bilboko bizitzari dagoeneko oso lotuak daudenekiko inolako erdeinu barik. (1980, 207)⁴⁶

⁴⁶ “que hay personajes en el callejero bilbaíno hasta ahora que han incidido muy negativamente en la historia de Euskadi, antes inclusive que el año 36 y también que Bilbao el

Zenbait kalek jatorrizko izena hartuko zuten berriro, Bilboko bi aldeak elkartzen dituzten zubiek Erribera, Mesedeetako, Areatzako eta Deustoko zubiak izenak berreskuratuko zituzten, Coronel Ortiz de Zárate, General San Jurjo, Puente de la Victoria eta del Generalísimo Franco izenen kaltetan. Hala ere, aldatzeko proposatu ziren 29 izenetatik, erdia baino gehiago pertsonaien izenak ziren. Haietatik, Pau Casals salbu, denak ziren Euskal Herrian jaioak, 8 Bilbon bertan eta 5 Bizkaiko beste herrietan. Izen gehienek euskal idazleei egiten zieten erreferentzia. Horien artean, Gabriel Aresti eta Blas de Otero dira Bilbon sortu ziren bakarrak, eta azken hau gaztelania hutsean idazten zuen bakarra. Egungo Unamuno plazak ez zuen izen hori 1984ra arte eskuratuko, 1934an egungo Simón Bolívar plazak bere izena eramango bazuen ere, bando nazionalaren alde egiteagatik bi urte beranduago kenduko zioten izena kaleari, Hiribilduko Seme Kutun tituluarekin batera (Gonzalez Olivier 2005).

Bestelako kultur esparruetan aritutakoen izena ere eman zitzaizkien zenbait kaleei (Echenagusia pintorea, de la Sota arkitektoa eta Iruarrizaga, Arrieta eta Gayarre euskal musikariak), baita euskal kultura esparruko pertsona ezagunei ere: Aranzadi, Kanpion eta Mitxelena. Politika esparruan hiru izen esanguratsu ere eman zitzaizkien kaleei. Sabino Arana, Bilbon euskal nazionalismoa eta EAJren aitak, José Antonio Primo de Rivera Falangeren aitaren ordezkari, emango zion izena Etorbideari. Ernesto Ercorecak, Bilboko lehen alkate errepublikanoak Primo de Rivera Jenerala, falangeren aitaren aita, Plaza ohia emango zion, Udaletxearen atzeko aldeari alegia. Eta Zumalacárregik, 1835an Bilboren setioa zuzendu eta bertan heriotzera eramango zuen bala jaso zuen jeneral karlistak, Lorenzo Hurtado de Saracho alkate frankistaren etorbideari. Udal demokratikoak frankismoaren arrastoak ezabatu nahi zituen kale izendegian, jatorrizko kaleak berreskuratuz eta diktaduraren arbuioa edota debekua jasoko zituzten izenak berreskuratuko ziratekeen.

Aukeraketa hori, noski, ez da huts-hutsean egiten, bitartekaritza ideologikoa hainbat mailatan hazta daiteke. Agerikoena, ohizko irakurketa politikoa litzateke: Ernesto Ercorecak eta Sabino Aranak Miguel eta Jose Antonio Primo de Rivera kale izenak

año 36 era la ciudad vasca donde más nombres foráneos había en su callejero. Es hora de que Bilbao recupere su identidad, tenga a sus hijos en las calles, los nombres de sus hijos preclaros, los nombres de su toponimia, sin desdeñar por eso nombres bien se ha dicho cercanos y ya muy unidos a la vida de Bilbao.”

ordezten dituztenean zenbait afiliazio eta tradizio politikoren errekonozimendua azpimarratu egiten da. Aldi berean, izen batzuen balizko afiliazio frankistak deslotzen dira, zentzu honetan Zumalacárregiren kasua bereziki esanguratsua da. Gainerako izen aldaketek ere agerian jartzen dute errekonozimendu politikoaren ertzak: euskalduntasuna edota bilbotartasuna, batik bat.

Bilbo eta izenen arteko bitartekaritza ideologikoa. Bilborekiko semetasuna arrakasta sozialarekin nahastu egiten da, “izen bat egin” zuten horietan izango ziren kaleari izena emango ziotenak. Jaiotzeko edo adopziozko izan, Bilbok seme batzuk ditu maiteago beste batzuk baino, errekonozimendu hierarkia baten ondorio da. Eta, noski, “seme” diot Calzada zinegotziak “hijo” zioenean guztiak gizonezkoak zirelako. Oraindik ere, Bilboko 880 kaleetatik dozena baino ez dagozkie hezur-haragizko emakumeei (Alvárez 2013).

Bilbo eta bilbotarren arteko bitartekaritza ideologikoa. Bistatik galdu ezin litekeena errekonozimenduaren eraginkortasuna bide publikoen izendaketak bilbotarrekin ezartzen duen harremana da. Izen horiek Bilboko bide publikoak identifikatzeko plaketan eta kartografian zertuko dira, hauetatik abiatuta etengabe ugaltzeko. Izen propioak pertsonaren identitatea denbora eta espazio sozialetan zehar konstante mantentzen duen “izendatzaile zurruna” badira (Pierre Bourdieu 1997), bide publikoen izenek Bilboko txokoei izaera diskretua –espazio zedarritua– eta iraupena –izena aldatu arte, behintzat– ziurtatuko dizkiete praktika administratiboetan zein egoiliar, oinezko eta gidarien igaraldietan. Noski, hiriaren konformazio biopolitikoaren zutabe nagusienetakoa zirkulazioa izanik (Foucault 2006, 379-410) konformazio urbanoa sarearen irudikapen egokia izan daiteke: bideek osatzen duten konexio batzuk indartu egiten dira besteen aurrean, ibiltarien erabileraren arabera.

1980an izenez aldatutako bide publikoei erreparatuz gero, zubiak salbu, batez ere periferian kokatzen direla ikus daiteke, diktadurapean eraiki edota birmoldatutako auzoei dagokielako batik bat, izendapen berriak jazoaz aukera gehiago izan zutenak hain zuzen ere (Erandioko Alzaga, Deustuko San Inazio, Otxarkoaga eta Txurdinaga). Gabriel Aresti Hiribideak (gorriz), Txurdinaga erdialdetik zeharkatzen duen bide nagusiaren izena hartu zuen, Txomin Garat Etorbidetik Europa Parkera –Arestiren izen hartu zuen institututik gertu.

Grafikoa 9. 1980/06/04an izenez aldatutako Bilboko kaleak



Iturria: (Ayuntamiento de Bilbao 1980; Google Earthen bitartez egina)

Arestik aurretik salatu zituen Bilboko hainbat kale izen –“Urkijo ministroa, / Gardoki kardinala, / Mazarredo almirantea, / Egia jenerala, / Arrikibar ekonomista, / higuindu ditudan gizonak” (Aresti 1967a, 102), baita balizko egoera batean kaleren bati bere izenik eman ziezaioten errefusatu. *Nire izena* poeman bere kaleren bati bere izenik ez emateko eskatzen zuen:

Jainkoak eztezala nahi Bilboko karrika bati / nire izenik eman dezaiotela. / (Eztut nahi bizargile hordi batek esan dezala: / Ni Arestin bizi naiz, anaiaren / koinatu nagusiarekin. Badakizu. Maingua.) / Batzutan esan zaharrak erratzen dira. / Pentsatzen dut nire izena / nire izana dela, / eta eznaizela ezer ezpada / nire izena. (Aresti 1964b, 35)

Ironia finaz, poeta laureatus izateari uko egin nahi zion poetak jakin bazekien errespetua irabaziz gero, erosi nahiko dutela, “diruz ezpada, orduan palaguz, lausenguz” (Aresti 1960f, 155). Hori bai, ironiarik finena kaleak bere izena hartu izana da.

KORRIKA 1985-2015

Arestiren heriotzaren 10. urteurrenean, *Mintza Barullo* elkarteak omenaldia antolatu zuen. Omenaldien artean, Korrikaren laugarren edizioa Bilbotik pasa zenean, Meli Esteban alargunak lekukoa eraman zuen. Hurrengo kilometroan, ostera, HBko zinegotzi

eraila, Santi Brouard, omendu zen, bere alargunak eta alabek eraman zuten lekukoaren bitartez, *Egin* egunkariko azalak islatzen zuen moduan (Egin 1985). Teresa del Vallek kasu hauek beste edizioetan suertatuko omenaldi txikiekin batera aztertzen ditu:

Korrikaren igaroaldia fisikoki adierazten duten bestelako seinalizazio-moduak, euskal hizkuntza eta kulturarekiko nolabaiteko lotura duten pertsona horien errekonozimendua adierazten dute. Oroimen eta errekonozimendu horiek duten aktualizatzeko erak dagoeneko «korrikaren tradizio» gisa ezagutzen den horretan txertatu egiten dira. (del Valle 1988, 162)⁴⁷

Egineko artikulu hartan Arestiri buruzko mahai-inguruan parte hartu zuen Kintanaren hitzak ekartzen ziren gogora. Bertan, Aresti bilbotarra eta Aresti euskalduna uztartu egiten zituen, garai horretan euskaldun berria izateko gaitasunak borondatez gainditu behar zirela esanez.

2015ean Bilbon bukatu zen Korrikako 19. edizioa, Urepelen hasita. *Berria* egunkariak, Unai Iturriaga bertsolariari luzatu zion asteko albiste baten gainean kamiseta irudikatze gonbita (Berria 2015b). Iturriagak Aresti eta *Xalbador* bertsolaria ipini zituen elkarrekin, *Reservoir dogs*en pertsonaien gisan jantziak, pistolen ordezkariak eskuan dituztela. Korrikak urtero Euskal Herriko geografia irudikatzen bazuen bere ibilbidean, 2015ean Bilbo eta Urepele lotzerakoan herrixka eta hiri handiaren euskaldun izaera azpimarratzen zen. Iturriagak izaera hori bi pertsonaia enblematikoen bitartez adieraziko zuen, hainbat aspektutan kontrako ezaugarriak ordeztzen zuten neurrian. Urepeleko bertsolaria, artzaina, euskaldun zaharra eta ahozkotasunean oinarrituta poesiarekin batetik; Bilboko poeta, kontularia, euskaldun berria eta idazketan oinarritutako poesia oinarri, bestetik. Hauekin batera “maite zaituztet oraindik” leloa, *Xalbadorek* Euskal Herriko finalean txistu egin ziotenean bota zuen

⁴⁷ “Otras formas de señalización que expresan físicamente el paso de korrika surgen como reconocimiento a personas concretas que tienen alguna conexión con el apoyo a la lengua y cultura vasca. El recuerdo y la forma como se actualiza este reconocimiento va quedando incorporado a lo que se reconoce ya como «la tradición de korrika».”

bertsoaren oina (J. R. García 2000). *Xalbadorren* hitz gogoangarriak Arestik ere bere egin zitzakeen, jasotako txistu eta irainen gainetik, Bilbok euskararen aldeko ospakizun berriaren aurrean.

Irudia 3. Korrika 19.erako Berriak ateratako kamisetaren irudia



Iturria: (Berria 2015b)

2.5.3. BILBOKO KARTOGRAFIA EGUNERATUA

Gabrielen lekua ikuskizunean (Urrutia et al. 2013), Rafa Ruedak *Zorrotzako portuan* poemaren bertsio musikatu berria jo eta gero, Andoni Egaña ariko zen honen gainean bertsoan. Egañak bertsolariaren barne-pentsamenduak eszenifikatu egiten ditu, xuxurlatu egiten ditu: poema horri kantatu beharrak dituen zailtasunak, gainera hori eguneratu beharra, Anton eta Gillen beste pertsonaia batzurekin ordeztu beharraz – egun, Zorrotzako portuan barkurik ez—, kajera bat datorkio burura, eta hortik osatuko du bertsoaren oina osatzen du (“kutzazain lana galdu zuen ta, nola ordaindu Kutzari?”) jarraian bertsoari ekiteko.

Handik aterako zitzaiona Mirariren istorioa da, kutxazain lanetik botatzen dutenean, hipoteka ordaintzeko zailtasunak dituela. Jarraian, Soraio pertsonaiaz ere arituko da, honek ere hipoteka ordaindu ezinda, lo egin ezinik dabil.

Bilboko saioan ordea, Anton eta Guillen Zorrotzan izango zituen abiapuntu, Larrainetatik behera sirenak entzun zituzten. Hurrengo bertsoan, Leoneko mehatzeko istripu gertatu berria gogoratuko du. Itxiera Larrainetan egindako golf zelaiari dedikatuko dio, honako bukaera honekin:

lehen mehatza zena orain zuloa da / golf-piloten kabitxoa / denbora
gutxin berdindu dira / beharra eta kapritxoa

Bilbo industrialen arrastoei erreparatzen die. Oraingoan, kapitalismo industrialak kapitalismo finantziariari irekia. Zantzu horien bila Leoneraino jo behar du. Bueltan Larrainetako mehatzetan ez duelako mehatzaririk topatuko, sozialismoaren sehaskan, golf zelai polemikoa baino. Kapitalismoaren transformazioa suertatu bada ere, *Gabrielen lekuak* Arestiren aldarrikapenak apur bat aktualizatu eta gero, bere tokia dutela gaineratzen da. Ezkerralde eta Mehatzaldeko produkzio-egituraren transformazioarekin batera fabrikek tartea zabaldu diote supermerkatuei, harrobiak golf-zelaiari zabaldu dioten bezalaxe. Transformazio horren enblema Guggenheim museoa izan da, ekonomia postindustrial berri baten bila, Gehrik diseinatutako eraikina altxatuko zen, egungo Bilboren sinbolo eztabaiaezina.

Zentzu horretan, Bilbo-Arestiren kartografia eguneratua egin behar bagenu, Guggenheimek bere izaera zentrala gorde beharko luke. Bilakaera hori ibiliarazi egin zigun Edorta Jimenezek bere Arestiren inguruko txango kulturallean. *Mintza Barulloren* harri-zuhaitzaren aurren azalpenak eman eta gero, Arte Ederretako Museoa *Southern D'Espagne pour Mesdemoiselles Solanje et Helena Gereziaga* errexitatu eta azaldu ostean, Guggenheimaren parean kokatu gintuen, Salbeko Zubiaren gerizpetan. Azalpen berezirik eman barik, Omar Nabarro ezizenaz idatzi zuen poema errexitatu zigun:

Behin batean Amerikak itsutu zuen hiri honen merkatari arima,
Amerikak zilarra ematen ziolako. Oi, merkatarien geografia. Zilarra:
zenbaki atomikoa, 47; pisu atomikoa, 107,86. Mendeleieven taulan.

Gero berriz burdinak itsutu zuen hiri honen zilar-zale arima, burdinak zilarra egiten zuelako. Oi, merkatarien alkimia. Burdina: zenbaki atomikoa, 26; pisu atomikoa, 55,80. Mendeleieven taulan.

Gaur titanioak itsutzen du hiri honen burdinazko arima, titanioak burdinarena egiten duelako, eta burdinak zilarra egin izaten zuelako, eta behin zilarrak itsutu zuen hiri honen aspaldiko merkatari arimak ezin duelako itsu egon barik bizi. Titanioa: zenbaki atomikoa, 22. Pisu atomikoa, 47,90. Mendeleieven taulan.

Oi, zenbakiz zenbaki gero eta zenbaki baxuagokoak eta pisuz pisu gero eta pisu arinagokoak diren metalek itsutzen duten hiri mutante honen arima.

Bitartean, Mendeleieven taulan ez daudenek itsutzen naute ni. Hiri mutante honen arima itsutuak ez ote ditu ikusten haragi zaurituak – zenbaki atomikoa, 0; pisu atomikoa, 0; Mendeleieven taulan ez dira topatzen– gorputz zatituak –zenbaki atomikoa, 0; pisu atomikoa, 0; Mendeleieven taulan ez dira ageri– arima minduak –zenbaki atomikoa, 0; pisu atomikoa, 0; Mendeleieven taulan ez dira azaltzen.

Denboraz, zilarra ilundu egiten da, eta ugertu burdina. Oraindino ez dakigu titanioa ilundu egingo denentz, edo ugertu ere bai akaso. Mendeleieven taula hobeto ezagutzen dutenek jakin behar dute. Ziur. (Nabarro 2010)

Oraingoan ere hiru aroak ageri dira, hiru metalen ezaugarrien bitartez. Zilarra, burdina eta titanioa, hiriaren arima itsutu dituzten metalak dira; beren propietate zientifikoen bitartez objektibizatuak, gero eta arinagoak. Ameriketako konkistan zilarra gurtzen zen bezalatsu, industrializazio garaian burdina eta, egun, titanioa, Guggenheim Museoaren lehengaia. Baina alde batean geratzen dira Mendeleieven taulan ageri ez diren eta zenbaki eta pisu atomikoa 0 duten hondarrak. “Haragi zaurituak”, “gorputz zaitutak” eta “arima minduak”.

Guggenheimeko eraikinak burdinazko Bilbotik titaniozko Bilborako igarobidea markatzen du. Arestik burdin aroa salatuko bazuen, Omar Nabarrok esentzian oinarri

berdinak topatuko ditu merkatari arima duen hiri batean. Joseba Zulaikak, ostera, bere belaunaldiaren kronika publikatzerakoan Guggenheim eta itsasadarraren artean zegoen Louise Borgeoisen *Maman* –Ama– eskultura ipini zuen azalean. Armiarma formako eskultura horren artean eta bere belaunaldiaren *aitaren etxearen* arteko aldea nabarmendu nahi zuen:

«Nire gorputza nire eskultura da». Bourgeoisek *Maman* (Ama) izenarekin batailatu zuen bere armiarma. Eskulturan sartzea bere gorputzean sartzea da, munstroen gizon hiltzaileen ehulean sartzea. Arestitik, Bilbo maskulinoaren tradizioetik, ezaguna da «Nire aitaren etxea defendatuko dut» poema, Chillidak Gernikan bere eskultura erraldoiean erreproduzitzen duen izenburua, *Gure aitaren etxea*. Bilbao (femeninoa) Bourgeoisen armiarmari itxaron behar izan zion *amaren etxe* bat eduki zezan: bere *gorputz/etxean* hiria ehun eta babesten duen Ama, etxea da baina etxearekiko harreman ez natural eta gatazkatsuan ari dena. (Zulaika 2014, 210)⁴⁸

Beraz, Guggenheimekin batera deuseztatuko zen Arestiren aitaren etxea, ondare patrilinealari armiarmaren babesa, ehuntzea, kontrajarriko balitzaio bezala. Aitak utzitako etxeari, unean-unean ehundu egiten den etxearen kontra. Sakrifizioa eskaintzen zaion etxeari –gogoan izan behar da poetak ondasun eta gorputz atal guztiak ematen dituela etxearen defentsan, babesa eskaintzen duen gorputza–. Zulaikak bere belaunaldiaren hondamendiak kontatzen ditu liburuan, eta baliteke *amaren etxea* izan litekeen armiarma hori aukeratuta, aitaren etxea exorzizatu nahi izatea. Bilboko interpretazio-gunetik haratago, euskal nazionalismo eta kulturaren sustraitua dagoen poema honi atal bat eskainiko diot aurrerago.

⁴⁸ ««Mi cuerpo es mi escultura». Bourgeois bautizó a su araña con el nombre de *Maman* (Madre). Entrar en la escultura es entrar en el cuerpo de ella, la tejedora de los hombres asesinos de monstruos. De Aresti, en la tradición de *el* Bilbao masculino, es célebre su poema «Defenderé al casa de mi padre», título que reproduce Chillida en Gernika con su nombre escultura *La casa de nuestro padre*. La Bilbao tubo que esperar a la araña de Bourgeois para contar con una *casa de la madre*: una Madre que teje y protege la ciudad dentro de su *cuerpo/casa*, pero que es una casa en una relación no natural sino conflictiva con la mujer.»

Arestik salatu zuen aurretik Artederretako Museoak ezkutatu nahi zuen hori, *Souvenir d'Espagne pour Mesdemoiselles Solanje et Helena Gereziaga* poema (Aresti 1964b, 21), turistei ikustarazi nahi ez zitzaien hura: Artxanda aldeko etxoletan bizi ziren ijitoak, Otxarkoagan bizitzera bortxatuko zituzten gero. Ignazio Aiestaranek ere poema hori ekarriko zuen gogora bere blogean, Helena Gereziagak Manuel de Irujori bidalitako Hondarribiko postal batekin batera.

Sarritan halako gauzak ahazten dira Arestiri omenaldiak prestatzen direnean. Zertarako pentsatu behar atzoko buhameak eta gaurko alienatuak, ezta? Euskal kulturaren literatura kosmopolita eta polita landu behar dugu, itsuskeria handirik gabe, antza, errelato ortodoxo eta kontakizun ortopedikoetan kabitzen dena, turistentzako aurkezpen txartel baten tankeran, gure meilleur souvenir de notre cher pays. (Aiestaran Uriz 2014)

2.6. ONDORIOAK

Aztertutako interpretazio-guneek gain, bada lehen interpretazio-gune nagusi bat: Arestiren testua bera. Bertan topa litezke aurreko kapituluaren aztertutako gune hauek beste askorekin batera (ikus 1. Kapituluua. Esparru literarioaren egituraketa, 1953-1979, 61-123. orr). Zentzu horretan, egilea osotasun baten gisan har liteke, bere subjektu instantziatik hitzez hitz, izaera propioa ematen dizkioten aspektuak deskubri litezke (Foucault 2003, 53). Azken batean, hau da ikertzaileek jarraituko duten bidea. Ni esparruen teoriak baliatu naiz horretarako, baina badira testu horiek aztertzeko beste hamaika modu. Kapitulu honetan bestelako objektua izan da aztertu dudana: Aresti pertsonaia publiko gisa proiektatzen duena, honek objektu epistemologiko gisa duen zilegitasuna indartu egiten du, bestelako gizarte esferekin duen harremanarekin, ondorioz baliabide edo dohainen transferentzia suertatu liteke ikerketaren trukean. Zenbaitetan transferentzia zuzena gauza liteke, Bilboko Udalak deitutako Unamuno Sarietan Aresti izango zen gaia 1999an. Besteetan zeharkako transferentzia izan liteke, honako gune hauei lotutako jarduerak Arestiri buruzko ikerketek elikatuko dira, izan omenaldietan parte hartzeko deitu dituzten adituen bitartez edo ikerketen ziten bitartez.

Gune hauetan guztietan bere zantzuak utzi ditu. Agerikoena, Bilboko kale, euskaltegi edo institutu batek Gabriel Aresti inskripzioa eramatean bere izenaren errepika bermatzen dutela. Aldi berean, horrek izendatzailea narratiba konkretu batean kokatuko du.

Aresti honako interpretazio-gunei lotuta ageri da, obraren produkzioa eta honen harreraren artean koka daiteke analitikoki hauetan ematen diren fenomenoak. Objektiba litezkeen guneak dira guztiak, baina baita sinbolikoki txertatuak eta narratibak aktibatzen dituztenak edo, hobe esanda, narratiba bat eskatzen dituztenak. Horregatik Bajtinek espazio-denborazko konfigurazioak era artistikoan zelan asimilatzen aztertzeke erabili zuen kontzeptura jo dut, kronotopora hain zuzen ere.

Bi metaforen bitartez uler liteke interpretazio-guneen izaera kronotopikoa: lentea eta sarea. *Lente* baten gisan, Aresti-adierazlea interpretazio-gune hauek zeharkatu eta adierazlea errefraktatu egiten du (Voloshinov 1992, 49-50; Bourdieu 1997b, 61), uhin artezak beste inora bideratuko balira bezala. Honela, interpretazio-gune diferentek elkarrekin gurutzatuko bagenitu, errefrakzio anitzak jasango zuket. Euskara eta La Concordia guneak zeharkatuta, Arestiren zubi izaera ager dakiguke, euskalgintzan Espainiako esparru artistiko dominanteekiko eta tertuliakideekiko euskaralgintzaren oiarzunen berriemaile gisa. Euskara eta Arantzazu zeharkatuta, 1968ko Arantzazuko Biltzarrean edukitako protagonismoa. Euskara eta Bilbo zeharkatuta, euskararen aldeko militantea ageri zaigu, bizi zuen hiriak sortzen zizkion kontraesan guztiekin batera. Arantzazu eta Bilbo zeharkatuta, mundu-munduan bizi beharrean dagoenaren etsipena amesten zuen “zerurako igogailuarekiko”. *Sare* baten gisan, Aresti pertsonaia korapilatzen dute, konexio indartsu eta ahulagoen bitartez: klabe berriak eman ditzaketen bestelako pertsonaiak, testuen arteko loturak sendotzeko, baina betiere ibilbide jakin batetik abiatuta.

Orokorrean, aztertutako interpretazio-guneetako bakoitzak norabide jakin batean kokatuko du Aresti pertsonaiaren gaineko narratiba. Aldez aurretik emana baina ez guztiz agertua den zelai-joko baten baitan. Maila ezberdinetan, gauzatzen da honakoa, gune hauek dira interpretazioak sortu eta sendotzeko lehengaia:

- *Epistemologia*. Aspektu ezberdinak argitu litzakeen objektua da bere obra, kronotopoetan edukitako posizioaren arabera. Zentzu horretan, bere efektuetan nabarmena izan daitekeen objektu epistemikoa da, bere mugak era

argian definitu barik baditu ere, agertu egiten da honako kronotopoetan (Knorr-Cetina 2008).

- *Paradigma*. Gainera, posizio jakin batzuetan ageri da, joera baten alde edo kontra, kronotopoek markatzen duten balio-ardatzarekiko kokatuta.
- *Aktoreen konformazioa*. Ondorioz, beste aktoreekiko harremanetan ere kokatzen da, laburrean esanda, aldekoak, kontrakoak eta lekukoak izango ditu posizioetako bakoitzean. Aktore hauek izango dira gero guneei buruzko testigantza eman ahalko dutenak.
- *Narratiba*. Guneetako gertaerek, irakurlearen egitura pre-narratiboari esker, heterogeneoaren sintesi bat eskaintzen dute, korapiloaren elementu konkordanteen –egitateen disposizioa– eta diskordanteen –zorizko hausturak– artean. Zentzu horretan, pertsonaiak “korapiloan jarriak” daude, eta korapilo honi esker pertsonaiaren barne-dialektika atzeman daiteke (Ricoeur 2006, 138–151).



3. Kapituluu.

Aresti, totem eta brand

Neure mendean

Inor ez da profeta / bere mendean. / Berriz etorri naiz /
pentsamendura, / eta andre alabarik ez banu, / pozik / hilen /
nintzateke, / ene esanak kontsidera litzan / euskal harriak.

(Aresti 1986h, 49)

Aurreko atalean Aresti zenbait interpretazio-gunetan kokatu dut, Euskara, Bilbo, Arantzazu eta La Concordia aztertu ditut, Arestiren garaia –bere idatziak zein osatutako harreman-sareak—kodifikatzen dituen oinarritzko gune gisa ageri dira. Gune horien baitan eta horien artean suertatuko tentsioek osatzen dute Arestiren gaineko irudia, neurri batean ala bestean, Arestiren igaroaldiak bere edukiz beteko dute guneok. Bi aspektu horiek aztertu ondoren, Arestik egun hartu duen tokia aztertuko dut kapitulu honetan. Horretarako, egin zaizkion omenaldiak aztertuko ditut batik bat. Aurrekoetan esparru (Bourdieu 1995) eta kronotopo (Bajtin 1989) kontzeptuetatik abiatu banaiz, oraingoan erlijioen soziologiak zabalduetako zenbait hastapenei ekingo diet, Arestiren kontsakrazio soziala aztertzeko. Kapitalismo aurreratu baten gizartean ostean bada Arestiren papera azaltzen duen beste kontzeptu bat: merkantzia.

3.1. SANTUTEGIA ETA HAGIOGRAFIA

Felipe Vlaren koroatzearen aurreko egunetan, estatu-errito horretan Espainiako nazionalitate-aniztasunari keinua egingo ziola iragarri zen. Diputatuen Kongresuaren aurrean emandako diskurtsoan zertu zen hori, Errege berriak Machado, Espriu, Castelao eta Aresti aipatzen ditu Espainiako kultura-tradizio aniztasuna azpimarratzeko asmoz, esker onak hizkuntza koofizial guztietan emanez (Borbón 2014). Elementu anitzak integratzen zituen era horretan, idazleen partikularismoak “unibertso politiko zabalagoa” oinarritzen zuen (Giner 1993, 45). Arestik euskal kulturaren baliokidetzan funtzionatuko luke kasu horretan, esker on eleanitzekin batera, horrek behar zuen koroatzearen aurretik prentsan iragazitako Espainiako plurinazionaltasunari egindako kontzesioa. Baliokidetzak hori azaltzeko, aurretik aztertutako eremuez gain, Arestik euskal kultura osoa ordeztzeko balio lezakeen totem gisa aztertuko dut.

Hasteko, omenaldien datei erreparatzea baino ez dago. Urtero egiten zaizkion omenaldien artean, Bidebarrieta Kulturguneak *Gabriel Arestiren eguna* zein Gabriel

Aresti Euskaltegiak, bere jaiotze-dataren inguruan antolatzen ditu. *Gabriel Arestiren eguna* urriaren 14ean ospatu ohi da, asteburuan den urte horietan hurrengo astelehenera aldatzen delarik, horregatik bere egunarekin batera egiten diren *Bilbaopoesia* edo *Poesia egunak* aste horretan zehar garatuko dira. Hau da, egutegi gregorianoa erreferentzia hartuta, urte bete zehatzeko igaroaldiaren arabera egiten dira omenaldiak.

Literatura-ospakizunetan, ostera, 10 urteko oinarria hartuta honen multiploak hartzen dira erreferentziatzat. Honela, Durangoko Azokan bere jaiotzaren 50. urteurrenean egin zen (1983). Bilbo Zaharra Forumak *Harri eta herrik 50 urte* (1964) jardunaldiak antolatu zituen 2013-2014 ikastaroan, jaiotze-urtearen 80. urteurrenarekin ere bat eginik (1933).

Unean-uneko ospakizunetan, ostera, bi periodizazioak nahastuta ageri dira zenbait kasutan. Beraz, ospakizunaren urtea 10 urteko multiploaren arabera da, ospakizunaren urtea jaiotze edo heriotze-egunarekin bat egiten duen bitartean. Mintza Barullok bere heriotz-egunetik 10 urte betetzen ziren egunean hasi zuen omenaldia, hurrengo egunean Korrika Bilbotik igarotzearekin bat egin zuten, lekukoa bere alargunak eramanda. Bilboko Udalak bere jaiotze-egunaren inguruan antolatu zuen *Gabriel Arestiren Mundua* hurrengo urtetik aurrera antolatuko ziren Poesia egunen aurrekari, *Maldan beherak 50 urte* betetzen zituen urtean. *Zenbat Gara* eta *Gabriel Aresti Kultura Elkarte* sortu berriak *Harako Gabriel Aresti Hartaz* egitaraua, bere jaiotze egunaren inguruan antolatu zuen, 80 urte beteko zituzkeen urtean eta Gabriel Aresti Euskaltegiak 35 urte bete zituenean.

Badira egun jakin batera mugatzen ez diren omenaldiak, urte edo ikasturtean zehar jarduerak antolatzen dituzten omenaldi puntualak, jirak hain zuzen ere. *Gabrielen lekuak* ikuskizunak jaiotzaren 80. urteurrenarekin bat egiten du, eta urte berean Oskorrik abiatuko zuen *Gabriel Aresti bizsitan* (sic) jirari taldearen 40. urteurrena gehitzen zitzaion. Maskaradak eta Oskorrik elkarlanean *Harrizko Aresti hau* eta *Kaio Luma Zikina* antzezlanek, ostera, ez dute urteurren hauekin bat egiten, 1986 eta 2001ean antzeztuak izan ziren.

Urteen aukeraketak, berriz hiru mugarri nagusi irudikatzen dute: jaiotza, obra eta heriotza, bizitzaren hasiera eta bukaera dira ospatzen direnak –gizakion ekintza administratibo nagusiak direnak–, tartean obrak agertzen diren bitartean. Santutegi

katolikoan egun guztiei santuren baten heriotza-martirioari dagokion bezala, efemeride zibilak era analogoan jasotzen ditu arlo diferenteetako pertsonaia beneragarrien jaiotze eta heriotze-egunak gertakizun historikoen egunekin batera.

Aurreko atalean jorratutako kronotopoetako gertakizun nagusiak kontutan hartuta, efemerideaz gain, Arestiren biografiak hagiografiaren egitura analogoa har lezake, hagiografiako pausu nagusiekin konparatuta (Sáenz Herrero 2008, 833–834). Lehen pausoa da bere biografiarekin analogiarik ez duen bakarra: *Jaiotzaren aurretik, ez ohizko bisio edo gertakizunek izaki berezi baten etorreraren berri ematen dute*. Hurrengoak, ostera, bete-betean dira kontatutakoen analogoak.

Hurtzaro eta gaztaroa, santuak santutasunerako aurretiko joera du. Arestik bere dohain poetikoa azaltzen du, bere ikaskideei maitasun poemak idazten laguntzen die. Gainera, etxean ikasi ez duen euskara bere kabuz ikasteari ekiten dio, 12 urterekin (Zelaieta 1976, 13–16). *Erderismos* eta *Gero* eskuz kopiatzen emango ditu ordu luzeak liburutegian.

Perfekzio-bidea, santutasun nahiak perfekzionatze-prozesu batera darama santua. Euskarari dagokionez, “arraultza frijitu pare” eskatu nahian “arraultza elia gaimelduta” eskatzerakoan komunikazio-zailtasunez jabetuta, purismoaren kontra eta batasunaren alde egingo du, euskararen gaineko ikerketa sakonak eginez. Mendebaldeko literatura garaikidearekin bat datorren literatura egingo du, *Maldan behera* eta *Harri eta herrin* euskal literaturan bi haustura eginez –batzuk bata ala besteek bestea azpimarratuko dute–. Poeta prestuaren hautua egingo du, poeta doilorraren kontra; horrek poeta madarikatu bihurtzen badu ere. Aldi berean, euskal literaturak zituen hutsune guztiak betetzen saiatuko zen, bere poltsiko eta osasunaren kaltetan. Euskararen arloan, Euskaltzaindian sartzen da, Krutwig eta Irigoienek joerei jarraituz. Literatura arloan, La Concordiako tertuliakide dabil, Blas de Oterorekin batera.

Pasioa, heriotza sufrikarioaren eskala goranzko baten ostean etorriko da. Bere egiekiko fidel, bere iritzi politikoak zein euskararen alde egindako lanak, zenbait sektoreen bazterketa ekarriko diote: irainak eta boikota sufrituko ditu. 1973tik aurrera gaixo egongo zen, 1975ean 41 urterekin hil arte.

Heriotzaren ostean, gorpu santua ehorzten da, orduan post mortem mirariak egingo ditu. Hil zenerako merezi zuen errekonozimendurik jaso ez bazuen ere, apurka-apurka arlo ezberdinetan egindako ekarpenak baloratzen dira gaur egun, euskara batuan eta euskal literaturan berritzaile nagusietako bat izan zela dudatan ez dago.

Arlo hau ikerketa honi ez badagokio ere, efemerideak zein biografiak santutegi eta hagiografiarekin duen antzekotasuna azpimarratu nahi dut, erlijio zibileko elementu gisa aritzeko prestuak dira eta.

3.2. EUSKAL KULTURAKO TOTEM

Erljio katolikoaren ildoan agortuta, azken batean bizitza sozialaren errefrakzio sinbolikoa den bizitza erlijiosoko forma elementalekin dituen kidetasunak aztertuko ditut. Durkheimek erlijio totemikoan identifikatu zituen forma elemental hauek. Oraingoan, baina, ez gaude klanetan oinarritutako elkartasun mekaniko baten aurrean, beraz, zenbait ezaugarri ez datoz guztiz bat totemaren deskribapen klasikoarekin. Totema gizarte kapitalistan zirkulazio eta kontsakarzio gatazkatsuan ari den elementu gisa aztertuko dut. “Gauza sakratuen prototipoa” (Durkheim 2008, 197) bada, sakralizazioak erritoen eta irudikapenen errepikari zor dio bere eraginkortasuna:

Agertokiaren zentroan kokatuta, adierazgarria bihurtzen da. Bertan bizi diren esperimentuak finkatu egiten dira, hura baita adieraz daitekeen objektu konkretu bakarra. Asanblada barreiatu ostean ere gogorarazi egiten ditu, bizirik dirauelako, kultu-tresnetan grabatua, arroka, ezkutu eta abarretan. Hari esker, orduan sentitutako emozioak iraunkor bihurtzen dira eta etengabe berpiztu egiten dira. Berak zuzenean inspiratuko balitu bezala. Gainera, emozio haien erreferentzia-puntua bihurtzea baino gauza naturalagorik ez dago, taldean partekatua diren neurrian, soilik partekatua den objektu bati esleia dakizkielako [emozioak]. Eta enblema totemikoa da baldintza hori bete dezakeen bakarra. (Durkheim 2008, 350)⁴⁹

⁴⁹ “Colocada en el centro de la escena, se convierte en representativa. En ella se fijan los sentimientos que se experimentan, pues ella es el único objeto concreto al que pueden

Era honetan, erraz uler daiteke harreman sozialak naturaz gaindiko harreman bihurtzeko duen alkimia (Bourdieu 2006a, 36), baina errepika horietan erlijio produktore eta kontsumitzaileen arteko asimetria kontutan hartuz gero totemaren izaera anitza atzeman liteke. Izaera sakralari, *zeinu ideologikoaren* izaera gainjartzen zaio, totema agertu egiten den errepika bakoitzean elementu berrituak ageri dira, beti gizarte-gatazkaren errefrakazioan ematen baita (Voloshinov 1992). Beraz, Durkheimen definizioarekiko dialogismoa eta aniztasunaren ildotik aldendu beharra dago totemaren izaera eguneratu honi erreparatzeko.

Ez du klan bat izendatzen, baina euskal kulturaren arbola genealogikoan arbaso da askorentzako. Freuden definiziora gerturatzen da zentzu horretan, totemak fratriaren aita hila den aldetik (Freud 1999). Euskal idazle askok eskuhartze zuzena esleitzen diote Arestiri beren idazle-bilakaera eta sostenguan. Berarekin harreman estuena aldarrikatu duten egungo idazle ezagunenak dira horren adibide: Atxaga, Urretabizkaia eta Saizarbitoria.

Bernardo Atxagak 70. hamarkada hasieran Arestik Zelaietaren bitartez bidali zion gutunari berebiziko garrantzia ematen dio bera idazle egiterakoan: “Beharbada ni gaur hemen egotearen oinarria” (Atxaga 2000, 45). Gutunean, Aresti Atxagaren *Borobila eta puntua* argitaratzeko eskaini zen eta idazteko zenbait gomendio eman zizkion.

Arantxa Urretabizkaia zein Ramon Saizarbitoriak *Lur* argitaletxean kokatzen dute haien ibilbide literarioaren abiapuntua, bertan elkarlanean aritu ziren Arestirekin:

...hasieratik berehala banandu ziren paperak. Maisu urruna Gabriel Aresti zen, eta maisu hurbila Ibon Sarasola. Hark esaten zigun nola egin behar genuen, eta gainerakoak ahalegintzen ginen hark esandakoa betetzen. (Urretabizkaia 2012)

referirse. Sigue recordándolos y evocándolos aún después de haberse disuelto la asamblea, porque continúa viva, grabada en los instrumentos de culto, en las rocas, en los escudos, etc. Gracias a ella, las emociones sentidas entonces se perpetúan y reavivan continuamente. Es como si ella las hubiera inspirado directamente. Además, nada más natural que convertirla en el punto de referencia de dichas emociones, pues, como éstas son comunes al grupo, sólo se pueden atribuir a un objeto que le sea igualmente común. Y el emblema totémico es el único que satisface esa condición.”

1969an sartu zen *Lurren* eta Arantzazuko Batzarraren ondorengo *h*-aren ika-mikak “espainolista” etiketa ipini omen zien bertako kideei. Saizarbitoriak honelako hitzaurrea eskaintzen zion *Lau teatro arestiar* obrari:

Aresti gure zaindari bihurtu zen eta guk, nola ez, eskertu egin genion. Zenbaitek, agian, gehiegi usteko du. Are gehiago, zenbait panfletotan atera izan gara munstroaren akolito bezala. Baina naturala zen, eta eskertu egin behar zitzaion, zeren geure hogeituro urterekin bear baikenuen sentitu “Jesukristoren edadea” zuen batek kontuan hartzen gindula. (Saizarbitoria 1973, 6)

Baina *h*-a ez zen lubaki bakarra izango, Arestik *h*-aren alde egin zuen Txillardegi eta Krutwigek beste, baina hura geratu zen “espainolista” etiketarekin, ETaren baitan bertan joera marxistei aurre egiteko joera ezarri zenean, 70. hamarkada hasieran. Ordura arte zenbait sektoretan Aresti eta enparauek fama txarrik eduki ez bazuten ere, orduan arerio berriak gehituko zitzaizkien aurrekoei.

Hala dio behintzat, Natxo de Felipek Oskorri taldearen sorreran ere Arestirekin edukitako hartu-emanen kokatuz (Aristi 1985, 52; de Felipe eta Astiz 2013). Joseba Tapiaren *Real politik* diskoan Arestiren *Biba Durango* kantuarekin batera –poemaren jatorrizko izenburua *Apur dezagun katea* zen (Aresti 1964b, 48-52)—Gabriel Arestiren biografia laburra ageri zen, Oskorri eta Arestiren arteko harremana oso letra gutxitan ageri den neurrian esanguratsua da oso:

Natxo de Felipek, hemeretzi urte zituela, kantu batzuk entzunarazi zizkion. Hainbeste gustatu zitzaizkion Arestiri bere poemak kantuan non letrak egiten hasi baitzen... eta Oskorri sortu zen. Horregatik ere madarikatu zuten, borrokatu zen, gaixotu zuten. Baina liburuetan ikasia zuen hizkuntza karrikara jaitsi eta euskararen mapan kokatu zigun Bilbo. Asko zor dio kantagintzak Arestiri, Arestik berak Natxori zor dion beste bai. Trikitilarioi ere kendu zizkigun kopla batzuk... Eskaini, alegia. (Tapia, Miner, eta Aranburu 2006)

Saizarbitoria, Urretabizkaia, Sarasola eta Kintana bezalaxe, Arestiren inguruan sortu izanak espainolistaren madarikazioa ere luzatu zien.

Espainolista zerrenda bat bazegoen gu plazaratu aurretik ere, eta hor zeuden Lur Editorialaren inguruan zeuden guztiak, Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Arantxa Urretabizkaia, Aresti, Kintana. Gu hasieratik Arestirekin hasi ginen eta hortik etorri zitzaigun fama hori, gure letrista izan zen hasieran, bere teatro txiki bat ere egin genuen. Garai hartan abertzale arloan bi talde zeuden oso enfrentaturik, batzuk marxistaleninista zirenak, horiek espainolistak ziren, eta beste multzo bat, marxista ez zena, horiek ziren benetako abertzaleak bere ustez. Bestalde garai hartan oso informazio eskasa zegoen, eta geure burua defenditzerik ez zegoen. (Natxo de Felipe in Aristi 1985, 95)

Ez dok amairu taldeak haragituko luke joera abertzale hori, Imanol Larzabal zein Oskorri taldeari boikota egin zieten⁵⁰. *Gabriel Aresti bizsitan* jira abian jarri zuenean, 2013an, Natxo de Felipek ETAk haien kontrako atentatuak egiten saiatu zela esango zuen. Hala ere, Oskorriri *Gabriel Arestiren oroimenez* lehen LPa (Oskorri 1975) ateratakoan madarikazioa bukatuko zitzaien. Imanol Larzabal, ostera, *Yoyesen* erailketaren kontra egin izanagatik mehatxupearan bizitzera pasako zen. Imanolek berak Arestiri dedikatuko zion abesti bat *Lau haizetara* diskoan:

Gora gizona, gora poeta, gora Gabriel Aresti / zure bititza (sic) eraman duzu herri honetan garesti. / Bilboko burdin lantegietan, euskaltasuna non bila, / egi gogorra, egoera latz honetan, zaitugu hila. / Espainolizatzen hartu dute, zuk egin eta esana, / nahiz eta euskara hutsez zuk egin, euskal hiztegi lehena. (Imanol 1977)

Aurreko kapituluan Aresti zenbait interpretazio-guneetan kokatu dugu, besteekiko harremanetan, maisu eta pareko ugarirekiko. Oraingoan, ordea, hurrengo belaunaldi batentzako figura paternalaren papera betetzen du: “maisua”, “zaindari”, “oinarri”, “sortzaile”, e.a. Hauxe dugu egungo kalifikazio nagusia, baina 70. hamarkadan

⁵⁰ *Ez dok amairuko* kide askok Aresti musikatu zuten, honela azaltzen zuen Mikel Laboak orduan fama txarrik ez zuela gaineratuz: “Gero hasi ziren prolemak. Beste gauza batzuen artean gogoratzen dut Natxok Arestiren letra bat kantatzen zuela, euskaldunen razismoaren kontra, Agoteen gaia hartuta, orduan iskanbila sortu zen, espainolista fama hartu zuten. Aresti amorru izugarrikoa zeukan PNVrentzako, eta nik uste dut sartu zela gai batzuetan, berak ez zuen menperatzen politika eta istilu horietan hartu zen.” (Mikel Laboa in Aristi 1985)

kontaktu estuan omen zeudenei ere espainolista etiketa ezarri zitzairen. Leinuko arbasoaren papera betetzen du hain zuzen ere, eta haren inguruan lagun eta etsaien arteko marra bat marraztu daiteke. Aitatasun hori, baina, posizio-hartze baten moduan irakurtzen da. Garai hauetan, batzuentzako musikari edo idazle ibilbidean laguntzen duen totema den bitartean, besteek espainolistek sorgindutako magia beltzaren eraginpean kokatuko zituzten.

Baina egoera hau ez zen luzatuko, heriotzaren ondoren, euskal kultura eta literaturan jokatutako paperari errekonozimendua zabalduz joango zen. Horretarako ezinbesteko baldintza da euskal kulturaren instituzionalizazioa, Gernikako Autonomiako Estatutuak ahalbidetu zituen estatu-tresneria osoa, zein euskal literatura esparru gero eta autonomoagoan eskuratuko duen hausturaren poetaren irudia. Kintanak honela deskribatzen zuen bilakaera hori 1983 urtean bertan:

Hildakoak gero goratu egiten direla eta bereziki Arestiren kasuan:

Hau, berez, gehienetan egia izaten bada ere, ba dirudi G. Arestiren kasuan inon baino argiago bete izan dela, eta oso idazle gutxi egongo da Euskal Herriko letren historian, hil ondoren, hain denbora laburrean hainbeste fama, txalo eta onartze orokorrik izan duenik. (Kintana 1984, 27)

Gauzak honela, Espainiako Sari Nazionala ere irabazi zuen Kirmen Uribek bere egin du Arestiren oinordekotza, nahiz eta harreman zuzenik eduki ez duen belaunaldiko kide izan. *Bitartean heldu eskutik* poesia liburu ezagunean (Uribe 2001), *Zuzenbide debekatuko* (1961) karta-jokoari erreferentzia zuzena egiten dio: Duchamp eta Aresti kokatzen ditu elkarrekin xake-jokoan. Arestik bere arbasoak kokatzen bazituen karta-jokoan Kirmen Uribek Aresti du bere arbasoetako bat. Sari Nazionala irabazita, Bilboko Aste Nagusira pregoilari deitu zutenean ere Aresti eta Otero edukiko zituen gogoan, idazle bilbotar ziren aldetik (Uribe 2011). Eta Euskaltzaindiak berari egokitu zion euskal olerki antologian, Arestiren poemak aukeratu eta iruzkintzea (Uribe 2010).

Gehiago ere esango nuke: Arestiren herri udatiarra zen Eako poesia egunetan Arestiri buruzko hitzaldi edo errezitaldiren bat behintzat egiten dute urtero. Abangoardia kutsua duen ospakizuna da. Produkzio murriztuari dagokion pareen arteko harremana bereziki agerikoa da, publiko eta liturgiagileen arteko harremana elkartrukatzen dute: bertaratzen diren gehientsuenek hitzaldi, errezitaldi edo dagokion jardueran parte

hartu ohi dute uneren batean edo bestean. Bertan, Arestiren aktualizazio diferenteetan parte hartze zuzena eduki zuten idazle mordoa topatu nuen. Gune estrategikoa, bertatik egingo dira *aita hiltzeko* saiakera nagusiak. 2014an Arestiren genero ikuspegia salatuko zuten Iratxe Retolazak eta Danele Sarriugartek (Retolaza eta Sarriugarte 2014); jarduera horietan ohizkoa den Itxaro Bordak ere 2013an ildo beretik kuestionatuko zuen bere poesigintzaren irudi sakrifizial, burges eta misoginoa (Arkotxa, Borda, eta Alberdi 2014). Hil beharreko aita da, baina arbaso komuna delako, oso bereziki poesiagintzan. Zentzu honetan, *totem bat hartzeak ez du familiaren soziologiarekin zerikusirik*, baina bai literaturaren soziologiarekin.

Totema gauza sakratuen prototipoa bada ere, oraingo totem honek zenbait elementu sakral dituela gaineratu beharra dago. Kontsakrazioa hitzak berak sakratuan sustraitzen du errekonozimendua. Hala ere, sakralizazioak debekua behar du inposatzeko (Durkheim 2008, 210), totema erabiltzeko debekuak baino totemak betebeharrak arautzen dituela esango nuke: hori izan daiteke sakralizazio-mailaren neurria. Erritoei erreparatu dakioke betebeharrak horiek zehazteko, horretarako omenaldiak dira aukera paregabea.

Errito hauek totema maneiatu egiten dute norabide ezberdinetan: ofizianteen probokazioa eta inbokazioa dira bitartekaritzez totema agerraraztea ahalbidetzen dutenak. Probokazioa adituek, testuari esanarazi egingo diotelako, iruzkinaren logika diskurtsiboarekin bat oraindik testuan esan ez den hori baina testuan bertan dena errebelatuko dute (Foucault 2004, 25–26). Honela iruzkinen iturri amaigabe gisa ageri zaigu testua, diskurtso inaugurala balitz bezala, errepika berrituaren beharra duena. Inbokazioa bestelako liturgiagileen kasuan, testua haragituko dutelako. Totema omentzeko, testuak esaten duena baina esan barik dagoena esatea baino, testuari haragitze berria ematea litzateke. Modu asko dago totema inbokatzeko. Arestiren poema bere ahotsez grabatuta entzun liteke, grabagailuaren zintaren marruskaduraren soinu periodiko eta harmonikoan, psikofonia baten antza ematen dio erritoari. Efektiboa oso, Mikel Martinezek *Hernanin emandako hitzaldia* antzestu eta poemak tartekatzen diren horietan Arestiren ahots grabatua entzuten denean (Martinez eta Telleria 2012). Noski, besteetan errezitatzearekin nahikoa da. Bilboko Areatzan karpa ipini zuten *Harri eta herri* osoaren irakurketarako, bertan Bilboko gizarte-sektore ezberdinetako ordezkariak gorputza eta ahotsa jarri zioten liburuari (Bilbo Zaharra Euskaltegia eta Euskaltzaindia 2014). Errezitaldia musikarekin lagun daiteke ala

kantaldi bihurtu. Edozelan ere, totemarekin lotzen duen zilborrestea testuaren haragitzea da. Honetan ere mantendu egiten da testuaren izaera sakrala, jatorrizkoa inbokatu beharra dago, errepikaren bitartez egin daitekeen eguneratze propio batean.

Inbokatu egiten dutenen artean, testuaren errepikapenerako joera hain da nabarmena zeinetan obra berri bat eraiki nahi den horietan testuekin *collage* bat osatu egiten den. Hauxe izan da, hain zuzen ere, *Maskarada* antzerki taldeak (Panera Mendieta 2001; Panera Mendieta 1986) zein *Gabrielen Lekuak* ikuskizunean egin zuena (Urrutia et al. 2013). *Harrizko Aresti hau* zein *Kaioluma zikina* –lerro batzuk kenduta—osorik dago Arestiren testuetan oinarritua: hitzaldi, ipuin, antzerki, artikulu eta poemen atalez osatzen dute obra osoa. *Gabrielen Lekuak* ikuskizunean genero ezberdinak taularatzen dituzte: Rafa Ruedak poemak musikatzen dituen bitartean, Guillanek testuak deklamatu egiten ditu; horrek ipintzen ditu aportazio berrien baldintzak: Lurren istorioa eta Andoni Egañaren bertsoak. Aresti lako poeta sozial izan nahiean, Lurren antzerki-lana da antzeztu egiten dutena. Bi maila bereiztuak ageri dira beraz, batetik testu errezitatu edo kantatua, imitazioa bestetik.

Betebeharra, diot, zorra kitatu edo garbitu *beharra* dagoelako. Bere heriotza kapitaliza daitekeen sakrifizio bihurtu da, kapital hori bizidunek fideikomisoan aldarrikatzen duten neurrian zertuko den harremana da (Sánchez Ferlosio 2007, 308–309). Sakrifizioa lehen aipatutako santifikazioaren ildotik doa eta Arestiren oinordekoei egokitu zaie zorra dagokion pertsona eta erakundeari eskatzea. Xabier Kintanak honela eskertzen zion *Gerediaga Elkarteari* 1983ko Durangoko Azokan irekiera hitzaldia hari dedikatu izana:

Eta honetan, alde batetik, ezin ukatuzko zor kolektiboa garbitzen ari garela agertzen da: literatur zorra, alde batetik, bere lanak argitaratzean, bere denborako herrikideak baino aurreratuagorik zebilelako, askok ulertzen ez genuelako, beraren lanari euskara txarrean egindako poema zoroak eta eritziz. Bestetik, gainera, nortasun korapilatsu, aberats eta agerrera nahiz burrukalaria zuen euskaldun heterodoxo batenganako gizarte-zorra ere bai, bera, askotan, gehiegitan, beraren ideologia gaizki –eta inoiz apropos– ulertuaren kausaz, publikoki iraindu egin genuelako, espainolista etiketarekin. (Kintana 1984, 27)

Zor kolektiboa da Kintanak aipatzen duena, gizarte osoak Arestirekiko dukeena delako. Gizarte osoak haren literatura lanei zor diena. Honek, ezinbestean, literatura gizartearen ondarea delako, eta ondare horren baitan aurrera egin izana berari zor zaiolako. Hau dena uler liteke omenaldia totemari eskaintzen zaion ordain gisa ulertzen den neurrian. Omenaldia eskaini behar zaio baina omenaldia ez da sekula behar bestekoa izango, Arestik berak ez zuelako omenaldirik nahi:

Harenganako kontzientzia txarra garbitu beharrak, berarekin hain ondo ez ginela portatu pentsatzeak, beraz, obligatzen gaitu, nolabait, bizi zenean ukatu genizkionak orain, hil eta gero, opatzera. Eta berau bere Herriagatik hainbeste lan egin eta bere herrikoen kritika gaizto eta desegokiengatik hainbat sufritu behar izan zuen persona honen kasuan, gutxienik, penagarria bada ere, pozgarri bezain kontsolagarria ere bada, azkenean, geure okerra aitortzen diogula ikustea, orain luzatzen zaion eskua eta eskaintzen dizkiogun besarkadak jadanik pertsonalki ezin hartu dituen arren. (Kintana 1984, 28)

1985ean Txomin Barullo konpartsa Mintza Barullo taldea izan zen beste lagunekin omenaldia antolatzen aitzindari⁵¹. Bere omenez haritza landatu zuten Bilboko Casilda Iturrizar parkean, horrekin batera harri batean *Irrintzi gorri batekin* (Aresti 1964b, 62) poema idatzia ipiniz. Garai hartarako, Bilboko Udaleko Kultura zinegotziak ez omen zekien Aresti nor ote zen eta ez zioten omenaldiari sostengurik eman. Handik gutxira Udalak harria tokiz aldatu zuen eta 2005ean haritza erauzi, bertan obrak egindakoan. 2008an Bilboko Alkatearekin batera, estaldura instituzional osoz, haritza eta harria birlandatu zituzten.

Urtebete beranduago antolatu zion Udalak omenaldia, berandu ibili izana leporatuko zioten askok Udalari. Honela ematen zuen jardunaldien berri *Egin* egunkariko kultura kronikak:

Iaz Arestiren heriotzaren hamargarren mendehurrena ospatzen zela eta Bilboko Udalari ahaztu (edo) egin zitzaion oroigarria aurtengo udazkenerako utzi du. Aste honetan bertan hitzaldi ugari prestatu dira, joan den urtean Mintza

⁵¹ Bere heriotzetik egun gutxitara, 1975ko abenduaren 12an, Galería del Libro liburutegian omenaldi txiki bat izan zen lehena (Agirreazkuenaga et al. 2000, 93–94), baina orduan goiz zen Arestik euskal kulturako totem bihur zedin.

Barulloren memoria onari ahantzi ez zitzaion antolakuntza haren pareko zeozer muntatzeko asmoz, zeinak Bilboko Banketxeko aretoetan emango ziren. (...) Dena den, bestelako ekintzarik mereziago zuen euskal poetak, batez ere eztaikit-zein kale eta frontoitan bere izeneko plaka distiratsu batzuk paratzea baino! (Egin 1986)

Ahaztu izana leporatzen bazaio Udalari, omenaldia egin egin behar zutela da aintzakotzat hartzen dena. Oraingoan ere, zorra da kitatu beharrekoa. Eta 2008ko omenaldi hartan Azkuna Alkatea zeremonia-maisu ibili bazen ere hari ere, antzeko jarrera leporatuko zion lehenago Julen Gabiriak. *Farolillo de Papel Saria* eman ziotenean, parean zuen Iñaki Azkuna Bilboko Alkateari "eztenkadatxoa" zelan bota zion azaltzen du Gabiriak bere blogean (2005). Gabriel Arestiri errespetu handiagoa eduki behar ziola aurpegiratu zion. Azkunaren txanda heldu zenean honela erantzun omen zion gaztelaniaz, haserre:

... nik kasu bera egiten diot Unamuno, Otero eta Arestiri, ezagutzen ez nuen Galdakaoko gazte horrek esandakoaren kontrara (Gabiria 2005)⁵²

Unamuno, Otero eta Aresti –azken urteotan, Ángela Figuerak hiru gizonezkoen parean jartzekoa dela dirudi– dira Bilboko literatura panteoiko jaun eta jabe. Esparru politikoaren arauen galbahetik pasata zera da Alkateak erantzuten diona: "Bilboko ondarea zaintzen dut nik eta horregatik Aresti beste zaintzen ditut Otero eta Unamuno". Bilboko hiri brandingarekin harremanetan dago honakoa, gero azalduko dudana bezala.

Behar beste omentzea zuzena ez bada, gehiegi omentzea profanazio gisa uler daiteke, ez dagokionak apropiatu egiten duelako. Askok erabilera interesatua egotzen diete ordezkariari, esparru politikotik totema bata ala bestearen alde kokatzea:

... haren memoriaren gainean alderdikeriak eta interes tribalak altxatzen dira (Giménez Pericàs et al. 1999, 67)⁵³

⁵² "yo hago el mismo caso a Unamuno, Otero y Aresti, al contrario de lo que ha dicho ese joven de Galdácano (sic) al que no conocía".

Hala ere, totemak Bilboko zenbait tokitan bere azaleratzeak ditu. Mintza Barulloko kokatutako harri eta haritzari Esperantza kaleko eta jaio zen etxeko plakak gehi dakizkieke. Zorrotzan ere, *Zorrotzako portuan aldarrika* poema kokatu zuen Udalak, Zorrotzako Auzo Elkartearen eskaerari erantzunez. Txakurren txizek profanatu ohi dute totema, horregatik eskatu zuen Auzo Elkarteak tokiz aldatzeko (Zorrotz Morrotz 2012). Eako moilan ere oroitarria dago bere omenez, bertan poesia egunetako zenbait jardueren eskenatoki bihurtua.

Irudia 4. Arestiren omenezko oroitarriak, Bilboko Zorrotzan eta Kasilda Iturrizar parkean



Iturriak: (Gara 2008; Zorrotz Morrotz 2012)

3.3. UNAMUNO, OTERO ETA ARESTI BILBOKO HIRI-BRANDINGEAN

Zenbait liturgia zikliko eskatzen duen totemaz gain, Gabriel Aresti marka-irudia ere bada. Izena bera 1978tik institutu bati eta 1982tik euskaltegi bati lotuta ageri da. Omenaldia ere bada izen hori ematea, baina izendaketa ez da inolaz ere horretan agortzen. Gabriel Aresti identifikatzaileak gainerako identifikatuekiko dituen bereizgarri guztiak artikulatzen ditu, hau da, institutu eta euskaltegietako elementuetako bakoitza batu egiten ditu: ikasleak, egoitzak, materiala, dokumentuak,

⁵³ “sobre su memoria se ciernen las banderías y los intereses tribales”

e.a. Baina *branding* honek ere hondakinak zuzentzen ditu identifikatzailearengana: Gabriel Arestiren errepika bermatzen du identifikatuaren ekintzetako bakoitzean. Batetik, errekonozimendua ziurtatu egiten du: identifikatu eta identifikatzailearen elkarrekintza ziurtatzen den esparruetako bakoitzean Gabriel Arestik institutu edo euskaltegi bati izena emateko baduela behar besteko meritu.

Bestetik, identifikatuak aise lotu liteke Gabriel Arestiren adieraziekiko. Hauxe da Euskaltegiak urtero egiten duena, Gabriel Arestiri dedikatutako astea antolatzen du. Euskara ikasketa formala euskararen erabilpenarekin lotzearen aldeko pedagogia darabilen Euskaltegiak aste honetako jardueretan aukera ederra edukiko du horretarako. Publikoari zabalik badaude ere, kantaldi, hitzaldi eta txango kulturaletara ikasleak dira batik bat doazenak.

Bilboko Udalaren egoera, ostera, bestelakoa da. Aresti ez da identifikatzaile nagusia, izatekotan hura Bilbo da. Hala ere, Bilboko Udalak zorra kitatzeko betebeharrak hori bertute bihurtzen jakin du edo, hobeto esanda, identifikatzailea erabili izanak apurka-apurka bere *branding* programan birziklatzeko aukera eman dio.

Udalak 1986an antolatu zuen totemari omenaldi atzeratua, eta urte hartantxe sei urte arinago martxan jarritako Bilbao Hiria Ipuin Sariak Gabriel Aresti gisa birbataillatu zituzten. Aurreko urtean, itxiko zuten Euskalduna ontziola enblematikoa, Espainia Europar Elkarte Ekonomikoan sar zedin bete beharreko baldintzetako bat omen. Bitartean, industria birmoldaketaren hau eta bestea eguneroko gosaria zenean, Bilbon Arte Garaikidea bere baitan hartuko zuen Kuboan pentsatzen ari ziren, proiektua orduko alkatearekin hondoratua, Guggenheim Museoaren proiektuari ekingo zioten (Zulaika 1997, 30–31).

Sariketek idazleari literatura esparruan jokatzeko zenbait baliabide dakarkiete irabazleei, liburuaren argitalpena eta diru-laguntza batik bat. Horretaz gain, esparru literarioaren arauekin bat datorren neurrian –eta bereziki, merkatuaz bestelako irizpideak aldarrikatzen diren neurrian–, errekonozimendu tresna egokia izango da, kapital sinbolikoaren objektibazioa arrakastatsuago agertuko da. Gabriel Aresti Saria bihurtu baino lehen, Bilbao Hiria Sariak hasiera ezin hobea eduki zuen, esparru politikoarekiko eta euskal kultura esparruarekiko autonomia aldarrikatzen, gaztelaniazko saria *Epitafio del desalmado Alcestes Pelayo* ipuinari eman eta mila ale argitaratu ostean, Bilboko Udalak erretzea agindu zuenean, “hitz zikin” eta “takoak”

zituela argudiatua (Combate 1981). Epaimahaikideek –Gregorio San Juan, Ramiro Pinilla eta Luis de Castresanak– joera inkisitoriala leporatu zioten Udalari idatzi batean, *Fahrenheit 451* gogora ekarriz. Gertakizun honek, bada, sariaren irizpide propioa indartu baino ez zuen egin, esparru politikoaren agintariak, zeinen izenean ipuina saritu zen, saritutakoaren kontra aritzen ziren neurrian.⁵⁴

Honako gertakizunez gain, literatura esparruarekin bat datozen irizpideak obren sariketan bertan islatzen dira eta, bereziki, obrak saritzeko aukeratzen den epaimahaietan –esparruan duten posizioaren arabera–. Zentzu horretan, eskaintzen diren irabazi sinbolikoak esparruaren arauen objektibazioaren bat datozen neurriaren arabera dira. Bilbo Hiria-Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketako Sarituei erreparatuz gero, idazleen errekonozimendurako garrantzia duten sariak direla ikus daiteke, bereziki euskarazko idazleei dagokionean. Euskarazko lehiaketan sarituak izan dira, ezagun bihurtu aurretik, Joseba Sarrionandia (1980), Joxemari Iturralde (1981), Edorta Jimenez (1989), Jorge Gimenez Bech (1995), Hasier Etxeberria (1996), Xabier Etxaniz (2000, 2001 eta 2009), Iratxe Esnaola (2004), Xabier Altube (2006), Irati Elorrieta (2007) (Bilboko Udala 1994, 11–14; 2008, 280–283). Gaztelaniaz, azken urteetan bereziki, nazioarteko idazleek parte hartu izan dute. Gaztelaniazko literatura esparruan, ordea, ezin esan liteke Bilbo Hiria-Gabriel Aresti sariak euskaraz bestelako errekonozimendurik dutenik, besteak beste, askoz sariketa gehiagorekin lehiatzen dutelako.

2012a izan da ipuin gehien aurkeztu izan zen urtea, 1.498 aurkeztu ziren, haietatik 41 baino ez euskarazko lehiaketan (Gara 2012). Urte hartan, *El Correo* egunkariak sarituen gaineko artikuluz gain, *Gabriel Aresti, inoiz baino biziago* (Zarranz eta Vázquez 2012) bideo laburra eskaini zion albisteari. Jarraian bideo horretako bi *frame* txertatu ditut.

⁵⁴ Sarrionandiak Euskadi Saria 2011n jaso zuenean gertatu zen bezalatsu: horrek arrazoi barik utzi zituen *Utikan Euskadi Sarietako* bultzatzaileak (Zaldúa 2012, 51–52).

Irudia 5. Gabriel Aresti mas vivo que nunca, El Correpo TV, 2012



Iturria: (Zarranz eta Vázquez 2012)

Bideoa Gabriel Aresti Sarian ipintzen du arreta, parte hartze zabala dela eta, Gabriel Aresti inoiz baino biziago dagoela azpimarratuz. Honela zioen *off ahotsak*, ekitaldiko plano ezberdinak:

150.000 orrialde inprimatu, 2.723.000 hitz, zeinak, batuta, letren munduak Gabriel Aresti euskal idazlearen memoriaren omenaldiari zentzua ematen diote. Eta historien forman datoz, 1.500 guztira. Bere izena daraman ipuin lehiaketa hogeita bederatzigarren ediziora heldu da, nazioarteko parte hartze oso altuarekin. Bilboko Alkateak, Iñaki Azkunak, zeremonia maisu ziharduen, Ibone Bengoetxea Kultura Zinegotziarekin batera. (Zarranz eta Vázquez 2012)⁵⁵

Harreman zuzena egiten da aurkeztutako lanen, sariaren arrakastaren eta Gabriel Arestiren omenaldiaren artean. Nolabait, orrialde eta hitz horiek guztiak “letren munduak” Arestiri eskaintzen dioten dohaina da, orrialde eta hitzen *potlacht* batean.

⁵⁵ “150.000 páginas de papel impreso, 2.723.000 palabras que, unidas, dan sentido al homenaje que el mundo de las letras hace a la memoria del escritor vasco Gabriel Aresti. Y llegan en forma de historias, un total de 1.500. El concurso de cuentos que lleva su nombre llega a su vigésimo novena edición, con una altísima participación internacional. El Alcalde de Bilbao, Iñaki Azkuna, ejerció de maestro de ceremonias, junto a la Concejala de Cultura, Ibone Bengoetxea.

Protokoloak ondo mugatutako erritoan, Bilboko alkatea erdian dago, Alkateordea eta Kultura zinegotziaren artean. Haien parean, dantzari batek aureskua dantzatzen die autoritateei, ezkerrean Bilboko Txistularien Udal Bandaren melodia jarraituz. Eskuinean, sarituak dauzkate zain, beren lekutik Alkate, Alkateorde eta Zinegotziarengana gerturatuko ziren hauen hizketaldiaren ostean, banan bana, hauek agurtu eta Saria jasotzera. Atzean Gabriel Arestiren irudia eta izen idatzia, Sariaren deialdiaren irudi eta izena ere honakoa.

Bideoan ekitaldiak aurrera egiten du *off* ahotsarekin batera, Ibone Bengoetxea Kultura zinegotziari elkarrizketa laburra eskainiz. Bitartean, ez da aureskurik entzuten, Russian Red taldearen *They don't believe* abesti txatxua, arina, entzun daiteke atzean hizketaldien pistak bukatzean, isiltasuna ordeztuz. Txatxua, arina diot, nolabait Soziedade sekzioei dagokion musika delako, bihotzeko prentsako aurkezpenena. Soziedade hori Bilboko Udaletxeko Saloi Arabiarrean egiten da, Udalak harrera ofizialetarako maiz erabiltzen duen gelan. XIX. mendeko Gortearen irudi eguneratua izan daiteke, Soziedadearena, idazleen mezenazgoa Gortean erabakitzen zenekoa (Bourdieu 1995, 83). Eta, neurri handi batean, horixe bera da, Udalak bere sariarekin idazleen lana bultzatu egiten duelako.

Lehen Azkuna Alkatearen esanak ekarri baditut, Arestiri Unamuno eta Oterori beste arreta eskaintzen ziola alegia, oraingoan Bilboko Udalak hiru idazleek osatzen duten harremana argitzeko egoeran gaude: hiru izenok Bilboko literatura panteoi bat osatzen dute. Hirurek trataera instituzional parekidea eskuratu dute urteak aurrera egin ahala. 1999an Miguel de Unamuno Saio Sariak ere antolatu ziren eta 2007an Blas de Otero Poesia Sariak jarri ziren martxan, izen bereko fundazioarekin elkarlanean.

Egun, Guggenheim Museoa da Bilboko *brandingaren* irudi zentrala, turismo eta artelanen nazioarteko zirkulazioan saretutako gunea, Unamuno, Otero eta Aresti hirukoa txanponaren beste aldean ageri dira, Bilbok berezkoa lituzkeen ezaugarri historiko-lokalak. Guggenheim laugarren une-gune gisa ageri da. Gainera, 2000tik aurrera hiru idazleei "egun instituzional" bana eskaintzen zaizkie, 2007ko etenaldiekin, beren jaiotze egunean alegia (Bilboko Udala 2001, 115; 2002, 132; 2003, 137; 2004, 164; 2005, 116; 2006, 123; 2007, 116; 2010, 65; 2011, 99; 2012, 108; 2013, 56). 2009tik aurrera hiru idazleei Ángela Figuera gehituko zaio, oraindik Saririk opa ez bazaio ere, hiru gizonen patua edukitzeko joera argia du. Paralelismoaren adibide,

hona hemen Udaleko Bidebarrieta Kulturguneak 2015an atera dituen sarien oinarrietako liburuxka-azalak.

Irudia 6. Gabriel Aresti, Blas de Otero eta Miguel de Unamuno sarien oinarriak, liburuxken azalak, 2015



Zentzu horretan idazle-pertsonaiek Bilboko brandingaren zati bat dira. Dublinen James Joyce, Pragan Franz Kafka, Alcalá de Henarésen Miguel de Cervantes, hiri-brandingak maiz jo du bertako esentziak islatuko lituzketen idazleetara. Noski, Bilbon idazleok ez dute aurrekoek besteko zentralitaterik, ez dira haien aurpegiekin arkatz, katilu edota kamisetarik saltzen, batik bat Guggenheimak irudikatzen du hiria souvenir dendetan: bertan ez dira idazleon irudirik topatuko.

Hala ere, Guggenheimarekin batera agertu ditu Bilboko Udalak hiru idazleak. Bilbo grisa titanio distiratsuak argitu ahala –postaletako Guggenheim egun eguzkitsu eta gau koloretsuetan agertu ohi da—Bilbo gris horren poetak ekarriko dira gogora. Durangoko Azokako standean Aresti, Otero eta Figueraren aurpegi eta poemekin atondutako orri-markagailu bana hartzeko aukera eduki nuen. Poemek Bilbo gris, euritsu horri kantatzen diote.⁵⁶

⁵⁶ Ángela Figuera zein Blas de Oteroren poemek erreferentzia zuzena egiten diote Bilbo gris eta euritsuari, mendi berdez inguratutako botxoa. Lehenak *Unas palabras a Pablo Neruda*: “Mi corazón quiso nacer / allá en Vizcaya, bajo un cielo / rubio y azul si el sol quería; / de un gris difusio y soñoliento / cuando lloraba el sirimiri / finos diamantes sobre el suelo”. Bigarrenak

Souvenir dendetan ageri ez badira ere, Bidebarrieta Kulturguneak azken urteotan antolatzen dituen jardueren difusioa egiteko postalaren formatua aukeratu du. Postalak liburutegi, auzo etxe, antzoki eta bestelako egoitzetan topa litezke –Sarien deialdiarekin batera, adibidez—horretarako prestatutako apaletan, erosoak dira hartu eta poltsiko zabal batean gordetzeko. Postala izanik, zenbait elkarteri postaz bidaltzen zaie. Honakoa Bilboko kultura elkarte bati heldutako postala da.

Irudia 7. Gabriel Arestiren Egunaren berri ematen duen postalaren bi aldeak, 2014



Postalak Bidebarrieta Kulturgunearen zigilu nagusia dira antolatzen dituzten jardueraren mordoaren berri emateko. Honetan bezala, alde batetik, jardueraren berri ematen du irudi eta guzti, ifrentzuan jarduera edo jardueren ordutegia eta parte hartzaileak azaltzen diren bitartean, bidaltzaileak zuzendu nahi duen idatzia ageri ohi den tokian. Eskuinean ere tarte zuria uzten du, antolatzaileen logoen gainean. Espazio zuria, edonori zuzentzen zaion gutuna delako. Postaz bidatzen den kasu horietan, ostera, hartzailearen datuak agertuko dira dagokion frankeo-zigiluarekin batera. Turistek Guggenheimen postalak erosiko dituzten bitartean, Bilboko Udalak hiritarrei honelako postalak zuzentzen dizkie.

Lejos: “Cuánto Bilbao en la memoria. Días / colegiales. Atardeceres grises, / lluviosos. Reprimidas alegrías, / furtivo cine, cacahuey, anises.” Arestiren kasuan, zelan ez, Zorrotzako portuan aldarrika poema (1964b, 26) ageri da.

2002ko Arte eta Kulturaren III. Topaketetan hiru poetak omendu zituzten hainbat eragilek. Bilboko Kultura zinegotziak jardunaldiko edukiekin argitaratu zen liburuan hiru idazleek Bilborekin izan zuten lotura adierazten zuen, honako galdera honetatik abiatuta: “Bilbo bera al da Unamunok, Oterok eta Arestik bizi zutena? Bilbo bera al da euren irudimenean osatu zuten eta euren lanetan islatu zutena? Zalantza barik, ez.” (Sabas Olabarria 2003, 8). Unamunorena Bilbo “burges txikia eta merkatariena” litzateke, “azken karlistada osteko Bilbo liberala”. Oterorena aldiz, burgesia handiko Bilbo, Europari zabalik dagoena. Eredu horren gainbehera ere hartzen du, 29ko krisia eta gerra zibilarekin, historia bere gain hartu nahian dabilen “hirugarren eta migrazioetako proletario” industrialari tarte berria zabalduko ziona. Arestirenak Oteroren ildoari jarraituko lioke, baina bide berriak zabalduz:

Arestirentzat, Bilbo infernu degradatua da azkenean eta salbazioa ezin da bere baliabideetatik etorri, bere bazterretatik baizik, ohitura batzuen funtsetik eta kapitalismo eroak eta boterearen konplizeen den emigrazioak estalitako herri baten funtsetik. Euskal Herria, hortaz, harrizko herria da eta bere gainean ezarri behar da etorkizuneko fedea, gizarte-klasearen ikuspuntu hutsak baino harago doana eta arrazazko eta bertoko elementu bat sartzen duena. Bilbo bere bazterretan sortu den eta hiri bere jatorrizko sustraietara itzuliko duen iraultza horrek estaliko du. (Sabas Olabarria 2003, 9)

Hiru garai eta hiru guneen loraldirako: karlisten oldarraldiak gainditu dituen Bilbo liberal burges txikia, Zazpi Kaleetako; Abandoko elizatea bere Zabalgune bihurtu eta akumulazio finantzaria eta industrializazioei ekingo diona, Bilbo kapitalista eta proletarioa; eta Bilbo periferikoa, auzo altu baina baxuena, garapen horren azpian geratu diren txabola zein baserriena, infernua.

3.4. ZINIKOEN MASKARADA

Maskarada taldeak Arestiren ika-mikak taularatu zituen –Euskaltzaindia, La Concordian besteak beste—eta publikoko txapel erraldoidun abertzale batek gogor iraintzen du “marxista”, “espainolista”. Jarraian, Arestiren pertsonaiak *Nire izena* errezitatuko zuen, poemaren bukaeran desagertu egiten da atriletik. Publikoak txalotu egiten du obra

amaitu delakoan eta, segituan, aureskua jotzen duten bitartean, sudur luzedun politikaria taularatzen da. Eskerrak gaztelaniaz zein euskaraz eman ostean, Arestiren omenezko diskurtsoa ematen du gaztelaniaz, atriletik. Diskurtsoaren interpretazioan zein testuan EAJko Alkate edo Zinegotziaren parodia atzeman liteke. Aurreko atalean aipatutako Bilboko Udalak egindako omenaldien parodia egokia dirudi, erabiltzen diren klitxeen kateatzearen bitartez, ezer gutxi esan esaten dela ematen da aditzera: “apal baina hunkigarria”, “gure euskal poeta handiari”, “merezi duen, internazionala izateraino, oihartzuna eduki dezan”... Poetarekin duen harreman estua Gabriel Aresti kalean bizi izanarekin lotzen du. Horrek publikoaren barrea eragiten du, publikoaren eta obraren arteko konplizitatearen ondorio. Ezagutza asimetria dago politikariaren eta publikoaren artean, azken honek *Nire izena* poema entzun berria du, politikariak bizargile hordiak esango lukeena errepikatu egiten du. “Bilbaino” eta “vasco” hitzen errepikapenak ere, klitxe gisa ageri dira, publikoaren konplizitatea barrez agertzen delarik, omenaldiaren eta omenduaren arteko lotura azpimarratu nahian: “Benetako ohorea da niretzako, bilbotar gisa eta euskaldun [vasco] gisa” da politikariaren abiapuntua, jarraian Aresti “gure euskal poeta handia” gisa kalifikatzeko, jarraian “eta bilbotarra” gaineratuz. Hurrengo urtean omenaldi handiago bat egitea proposatuko dutela eta, “jai handiari” “euskal” (vasco) hitza gehituko zion. Ohizko liturgia ere aipatu egiten du, gehiago ez luzatzeko aitzakian: ohorezko aureskua eta “euskal” sukaldariak prestatuako luntxa. Jarraian *Nire aitaren etxea* poema aurkeztuko zuen. Eta honetan ere, ohizko aipamenak ageri dira, euskal literaturako maisulana dela, 63 hizkuntzatara itzulia izan dela, e.a.⁵⁷ Politikaria poemaren errezitaldia bukatutakoan, Aresti berriro agertuko zaio alde batetik, Hernanin emandako hitzaldia (Aresti 1986f) inbokatuz:

⁵⁷ “[Txalo artean, aureskua txistuz jotzen den bitartean] Eskerrik asko, muchas gracias, muchas gracias, muchas gracias, eskerrik asko. Es para mí, como bilbaíno, y como vasco, es para mí un verdadero honor la oportunidad que se me brinda de clausurar este sencillo pero emotivo acto de homenaje a nuestro gran poeta vasco. Y bilbaíno [barreak]. Poeta al que yo me siento unido emotivamente, podríamos decir, puesto que casualmente yo vivo en la calle Gabriel Aresti [barreak]. Quiero aprovechar la ocasión para anunciar que mi grupo municipal piensa proponer al Ayuntamiento de Bilbao la celebración de... el próximo año, un gran acto de homenaje a Gabriel Aresti, una gran fiesta... vasca [barreak], euskal jaia, en la que no repararemos en gastos, por supuesto, para que alcance la repercusión, incluso internacional, que se merece. Bien, pero no quiero alargarme. Simplemente, y antes

Bai, nire aitaren etxea defendituko dut, baina batez ere abertzale diruzaleengandik, produkzio bideak sozializa daitezen debekatzen duten sozialistengandik eta herrien autodeterminazioa ukatzen duten demokratengandik.

Politikariak, bigarren planora desplazatuta, kortinen atzeko aldera begira zer gertatu ote den galdetuz bezala alde egingo du. Jarraian, Bartzelonako hitzaldian abertzaletasunari egiten zion kritika azaldu egiten du. Honela bukatzen du hitzaldia, ondoren *Beira fina* poemaren atal batzuk irakurri eta Oskorrik *Kaio luma zikina* kantarekin emango zion bukaera funtzioari:

Madarikatua izan dadila nire irudia, nire egia, euskal harria ezkutatzeko baino ez badu balio.

Aresti euskal harriaren garapenerako mezulari huts gisa ageri da, zentzu horretan gainerakoa akzidentala da, “nire izena” madarikatua izatea baino ez zaio falta.

Antzerki obraren bukaera honek Arestiren omenaldiak bultzatzen dituzten eragileen zinismoa salatzen du, ideologia dominantearen esaldi tipikoak barregarri bihurtzen dituelako (Zizek 1992, 57), pikaro eta bufoien nobela bezala, masakaradun politikariak konbentzionaltasuna desenmaskaratzeko gonbita luzatzen du (Bajtin 1989, 310–318). Beraz, lehen desenmaskaratzeari, publiko aurrean hizketan ari den liturgiagilearena da, barregarri suertatzen dena, Arestiren hitzen eta publikoaren arteko konplizitateari esker. Baina bada bigarren desenmaskaratzeko bat, Arestiren hitzek berek adierazten dutena. Obra guztian zehar, La Concordia edo Euskaltzaindiako bidailagunak zein Arestiren obretako pertsonaiak maskaratuta ageri dira, politikariaren antzera antzeztu egiten duten antzerkilariak dira, zinikoak. Aresti bera da maskara barik ageri dena edo –hobeto esanda– ohizko pastazko betaurrekoek osatzen zuten maskararekin,

de pasar al Aurreku de honor y a la degustación del lunch que nuestro más afamado cocinero, vasco [barreak], nos ha cofeccionado, quisiera recordar, emocionado, las palabras del poeta. Su poema por excelencia, obra maestra de la literatura vasca que ha sido traducida, en un volumen de reciente publicación, a 63 lenguas diferentes: *Nire aitaren etxea.*”

aktorearen aurpegi biluzian ageri zaigu. Bigarren desenmaskaratzea Aresti erritualizatuak ezkututzen duen egia da, euskal harriaren adierazpide diren bere hitzak.

Irudia 8. Harrizko Aresti hau, Euskaltzaindiako bilerak taularatzen, 1986



Iturria: (Panera Mendieta 1986, argazkiak)

3.5. ONDORIOAK

Arestik bere burua profetatzat zuen, honela bere jarraitzaileak heresiarkak ziren euskal kultura dominatzen zuen *Eliza* baten aldean. Poeta madarikatuaren irudia ere bere egiten zuen, Malgizon Arestiar gisa sinatzera heldu zen azken urteetan. Sekta erlijio bihurtzen den bezalatsu, euskal kulturaren instituzionalizazioak santifikatu egin du, berak egindako apustueta bakoitza berretsiz.

Arestik bere presentzia heriotzaren ostean luzatu egin du totem bihurtu ahala. Aldi berean, Bilbo industrialaren gainbeheran, Bilboko Udalak Unamuno, Otero eta Arestin

topatu ditu Guggenheim Museoaren konpentsazio sinbolikoa. Totem ala *brand* izan, bi elementuek anibalentziaz jokatzeko dute, hori baita aniztasunaren kudeaketarako ezinbestekoa. Ulermen bikoitzaren efektuari esker (Bourdieu 2006a, 58) Aresti adierazleak adierazi ezberdinak har ditzake bere gain zirkulatu ahala, Aresti “izendatzaile zurrinak” egiten du hori posible: elementu ezberdinak izen horren inguruan artikulatzen ditu. Honela objektua baino gehiago den objektua izenda lezake Arestik (Zizek 1992, 137). Liturgiagile batzuk idatzita zegoen baina agertu ez den horren gainean iruzkinak egiten dituzten bitartean, besteek bere testuen *collage*ak osatuko dituzte. Marka gisa, identifikatzailearen zirkulazioa ziurtatzen da. Honela, euskal kultura legitimoaren ondare gisa ageri da, errekonozimendua merezi duena. Errekonozimendua (*reconnaissance*) barreiatu ahala adituen posizioa indartuz doa, eta haiengana jo behar da Arestiren gaineko ezagutzak (*connaissance*) irakurketak berriitu ditzan.

Totemetik abiatu naiz branding izaera jorratzeko ondoren, baina bi kontzpetuen artean bada Arestiren zirkulazioa bermatzen duen hirugarren aspektu bat, bi elementuak lotzen dituena. Batetik, *brandinga* merkantziaren dialektika analogoaren bitartez azter daiteke. Aresti irakurtzekoa litzateke (erabilera-balioa), baina aldi berean zirkulazioan jarri beharreko izena da, kalea, eguna eta saria merezi ditu bere omenez, bere truke-baliogatik. Honen gaineko lehen ondorioa, Bourdieuk aztertutako ondasun sinbolikoen ildotik uler daiteke: Aresti irakurtzeak ondasun sinbolikoen merkatuan baliodun ondasun bihurtu daiteke (Bourdieu 1997a), irakurri duen horren gorputzean. Honela, zita aproposa ekarri ahalko du uneren batean –berak ez zuela Bilbon kale batek bere izenik eduki zezan– edota bestelako disposizioei esker bere poesian esan barik baina esan zuen horren gainean hitzaldi bat eman. Eta honakoa ez da gehiegi aldentzen Arestiren totem izaeratik, errito jakin baten bitartez maneia daitekeen totema izaki (irakurketa, azterketa, batik bat) profanazioa errito horren jarraipen okerrari legokioke – irakurketa okerra, bortxatua edo irakurri gabekoa dela esan daiteke–, autoritate sazerdotala dudatan jar dezakeena edota heresia berriak sor ditzakeena.

Baina bada beste ondorio zabalago bat, eta bere ondorioak mundu euskaltzale edo literaturzaletik oso haratago kokatzen dituena, Marxen merkantziaren fetitxismoaren erdigunean dena, hain zuzen ere (Marx 2008, 87–113). Aresti omentzeko behar besteko balioa duela gaineratzen den neurrian, Arestik ezkutuko edukiren baten promesa barreiatzen du etengabe, mozorroa kendu beharra duen sintoma baten gisan.

Honela deskribatzen ditu Zizekek Marxek merkantziaren gainean eta Freudek ametsen gainean deskubritutako sintomen parekotasuna:

Bi kasuetan formaren atzean ezkututzen omen den “edukiaren” gaineko berez fetitxista den lilura saihestu nahi da: analisiaren bitartez argitu behar den “sekretua” ez da formak ezkututzen duen edukia (merkantzien forma, ametsen forma), *forma bonen “sekretua”* baizik. (Zizek 1992, 35)⁵⁸

Honetan ere, totemak merkantziaren era analogoan funtzionatuko luke. Durkheimek gurtze totemikoen atzean bizitza sozialaren kristalizazioak zeudela ziurtatzen bazuen, totemak gizartearen izaera arrotza, objektiboa, islatzen du, gizakiak kontrolpean ez dituzten indarren menpean zeudela alegia (Durkheim 2008, 629–631). Sekretuzko harremana ematen da totemaren eta irudikatzen duen horren artean. Analogoa litzateke, Aresti gurtuaren eta gurtzearen atzean eta aurretik dagoenaren artean: bada Arestiren *zeozer* hainbat eragilek omenaldiak antolatzen eraman duena. Honela, *Maskaradak* liturgiagile-politikariei interes makurrak, zinizmoa, egozten dienean ere, horren atzetik Arestiren egien erabilera-balioari erreparatu beharra azpimarratuko dute, forma maskaratuen ginetik edukiaren balioa hain zuzen ere. Omenaldia, azken batean, erritual publikoa da. Omenaldiko ikus-entzunezkoa sinestera behartua dago, erritualaren makina sinbolikoaren bitartez, omenaldian parte hartzen duelako (Zizek 1992, 73).

⁵⁸ “En ambos casos se trata de eludir la fascinación propiamente fetichista del “contenido” supuestamente oculto tras la forma: el “secreto” a develar mediante el análisis no es el contenido que oculta la forma (la forma de las mercancías, la forma de los sueños) sino, en cambio, el “secreto” de esta forma.”



4. Kapitulua.

Poemak aktualizatuak:
topika, fonika eta melodika

Kapitulu honetan Arestiren poemen zenbait aktualizazio aztertuko ditut. Horretarako, hiru formazio poetikoek edukitako aktualizazioen inguruan aritko naiz, Arestiren poetikatik errepika gehien eduki duten horiek direlako eta hiru izaera ezberdineko formazioak osatzen dituztelako. Aurrena, *Nire aitaren etxea defendituko dut* poema ezagunenaren ondotik egindakoa, *aitaren etxea* topikaren inguruan eraiki eta erreproduzitutakoa. Jarraian, *harriaren* erabilpen poetikoaren ondorik egina, *herriarekin* duen gertutasunaren inguruan, fonikaren inguruan. Bukatzeko, *Egun da Santi Mamina* poema musikatuaren ondotik, melodikaren inguruan, hain zuzen ere.

4.1. NIRE AITAREN ETXEA

Lehen poema hau, Arestiren autoretzari lotuta daudenen artean behintzat, poemarik ezagunena dugu. Euskal poesiarik itzulienaren sona du, Oroz Arizcurenek prestatutako 500 itzulpenetako liburuari esker (Aresti 1987). Gainera, 60. hamarkadaren ondoko euskal nazionalismoaren poema paradigmatikotzat jo izan da, nazionalismoaren ikerketa-arloan (Morán 1982; Zulaika 1988; J. Juaristi 1997; J. Juaristi 1999). Poematik *aitaren etxea* lokuzioa geratu da, maiz errepikatua izateko. Jarraian zenbait kasu hartuko ditut, haien arteko harremanean aktualizazioen nolabaiteko eboluzio baten berri edo, hobeto esanda, sortuz joan diren aktualizazio aukeren berri emanez.

4.1.1. ESTATUTUKO IDEOLOGIA APARAILUAK

Aurreko kapituluan aztertu bezala, Gernikako Estatutuaren garapenak Arestiren totem-brand izaera ulertzeko hainbat gako ematen bazituen, fenomeno analogoa gertatuko zen *Nire aitaren etxea* poemarekin. Lehen Eusko Jaurlaritzako gobernuak eta honen girari ibiliko zen Euzko Alderdi Jeltzaleak hainbat gertaerei erantzuteko poemara joko zuen, hegemonia poema honen inguruan osatzera helduz (Sáenz de Viguera Erkiaga 2008, 77). Horretarako ezinbestekoa izango zen Estatutuak osatutako sasi-estatu sare osoa, aparailu hauetatik abiatuko naiz aitaren etxearen interpelazio-gaitasunaz aritzeko.

EUZKO GAZTEDI, 1981

LOAPAren tramitazioaren aurrean, lehen Euzko Jaurlaritzak, Karlos Garaikoetxea buru, manifestazioa deitu zuen beste indar politikoeekin batera “Estatutua bai, baina osorik”

leloa aldarrikatzeko, Bilbon. *Deia* egunkariak martxari jarraipena eman zion, hainbat argazki eskainiz (Deia 1981). Manifestazioaren aurreko aldetik egindako argazki batean, ume bat ageri da Arestiren poema gogora dakarren kartel batekin.

Errepidearen erdialdetik gabardinadun gizonezkoek aurrera egiten dute. Orri berean ageri den ezkerreko argazkiari begiratuz gero, erakundeetako ordezkariak direla jakin daiteke, Lehendakari irribarretsuarekin, beste gizonezkoek inguratuta eta *euskal* tipografian egindako kartelarekin: “Legelitzarkideak”. Harekin hizketan, erbestean Lehendakari izan zen eta *Lendakari zar* gisa ezagutzen zen José María Leizaola. Bi lehendakari-belaunaldiak beraz. Gabardina eta gorbatek autoritateak identifikatzen dituzte, gainerako manifestariak bestelako kolore-tonuak agertzen dituzten bitartean.

Irudia 9. LOAPAREN kontrako manifestazioa, Bilbo, 1981/10/26



Iturria: (Deia 1981)

Errepideko argazkian, gizonezko bat argazkilariari begira dago, ezkerrean. Une batez geratu da, argazkilariari begira, atzera joko du ziurrenik, manifestazio buruari tartea zabaltzeko. Txapela buruan eta txamarra beltza soinean –kaikua?–, baserritarra edo euzkotarrez jantzitako gizona izan daiteke. Argazkilariaren ikuspegiak hurbilago, haur

irribarretsua bi eskuekin kartel bati eusten dio, argazkiko gris ñabardurei zuri-beltzeko kontraste perfilatua eskainiz: “LOAPA’ren aurka. Gure aitaren etxea defendituko dogu”, Euzko Gaztedik (EG) sinatuta.

Pentsa liteke, autoritateek bezala, gizonak eta haurrak bularrean daramaten pegatinekin bat egiten dutela manifestazioaren leloarekin: “Estatutua bai, baina osorik!”. Autoritateen ostean, martxan sartuko da gizona eta honen ondoren haurra. Haurren kartelak martxaren zioa errepikatu egiten du. Letrak handituz doaz lerroak agortzen diren neurrian, ikuspegiaren ondorioz. Horregatik, “etxea” hitza da azpimarratuen ageri dena. Autoritateek, militanteek eta aitaren etxearen semeek bat egiten dute martxan. Aitaren etxeak belaunaldiak eta kategoria sozialak batu egiten du, etxea gauzatuz.

GARAICOETXEA, 1983

1983ko abuztuaren 26an ur-uholdeak egon ziren Kantauriko kostaldean, euskal kostaldean hainbat hildako, zauritu eta kaltetu eragin zituen hondamendia izan zen. Irailaren 13an Garaikoetxea Lehendakariak adierazpen bat egin zuen hondamendiaren aurrean bere gobernuak aterako zituen neurrien berri emanez. Adierazpenean aitaren etxea zutik mantentzeko deia luzatzen zuen.

“Euskal hiritarrak!” formula erabiltzen du adierazpenari hasiera emateko, hartzaileak interpelatu egiten ditu. Subjektuak hiritartu egiten ditu, adierazpenaren edukiarekiko duten harremana ezarriz eta, honekin batera, euskal hiritartasunaren genealogia oso bat martxan jarriz. Lehen *euskal* adierazlearen definizioaren inguruan aritu banaiz, frankismoan zehar euskal kultura esparruak definizio honetan izan zuen eragin dominantea aztertuz (ikus 1.2.1. Forma eta edukia, 68-71. orr), oraingoan definizio dominantea esparru politiko-administratibotik osatzen dela gaineratu behar dut. Estatutua lau urte eskasetan egon zen indarrean, baina indarrean egon izanagatik, bere efektuak hainbat eremutara zabaldu ahal izan zituen —beraz, honako interpelazio hau aurreko beste interpelazioen kateetako bat da—. Indarrean jarri berria zen testuak honela definitzen zuen euskaldunen izaera:

Estatuto honetaz balia ahal izateko, ondoko hauek izango dute euskaldunen kondizio politikoa: Estatuko lege orokorren arauera, Komunitate Autonomoaren lurraldeko edozein udaletan egoitza administratiboa duten guztiak. (*Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua* 1979, 7.1 artikulua)

Udaltartasunean oinarritutako hiritartasuna dugu beraz, Errolda dispositiboaren bitartez erregulatua. Hiritartasunarekin irudi zabalagoari ere egiten zaio erreferentzia, hiritarrek gizartearekin eta estatuarekin duten harremana, hain zuzen ere.

Estatutuaren aurretik eta baldintza gisa ari diren 1978ko Konstituzioa eta kapitalismoaren produkzio baldintzak alde batera utziko balira, Estatutuak eta hura posible egiten duen artikulatu osoak bat egingo luke Althusserren ideologiaren hiru tesiekin (Althusser 2003):

- “Ideologia gizabanakoek bere existentziarako baldintza errealekin duten harremanaren gaineko “irudikapena” da”, arau-artikulatu osoa gizabanakoen existentzia-baldintzek Administrazioarekin duten harremanaren irudikapena da –eta, beraz, osasun eta hezkuntza sistema batekin, eta eskubide multzo batekin.
- “Ideologiak existentzia materiala du”, eta hala da artikulatua praktikan egiten dituzten zein Garaikoetxearen mezua hedatu egiten duten erreprodukzio-forma guztiei esker.
- “Ideologiak gizabanakoak interpelatzeko dituzten subjektu gisa”, kasu honetan, Lehendakaria da interpelatzeko dituenaz, azken batean, Lehendakariak artikulatu oso hori haragitzen du eta.

Adierazpena instantzia horretan existitzen diren euskal hiritarrei zuzendua dago, baina aldi berean Garaikoetxeak subjektu hori aktualizatu egiten du honen edukiari esker. Hasteko, sufritzen ari den subjektua du abiapuntu, hiru biktima talde bereiztuz:

- “Betirako joan diren lagun maiteen huts itzela sentitzen duzuenok,
- “elkarbizitza urteetan zehar ernatutako maitasunez egindako etxea galdu duzuenok,

- “zuen bizibidea galdu izanagatik babesik gabe, angustiatua sentitzen zaretenok” (Garaikoetxea 1983)⁵⁹

Hurkoaren bizitzaren, etxearen edo bizibidearen galera jasan duten horiek ditu gogoan, zuzenean kaltetutako hiritarrak. Baina hiritar hauei bestelakoak gehituko dizkio, hiritar enpatikoena. Atsekabeari dimentsio kolektiboa ematen dio, kaltetuak izan diren horiek hiritarren bihotz-buruetan kokatuz. Ofizialak soldaduei deitzen dien moduan, honela deitzen die hiritarrei, ezin du inork sufrimendu hori baztertu:

Baina gure sentimentua gehien sufritu duzuenekin badago, bereziki lagun maiteak galdu duzuen horiekin, gure buruan erabat argi geratu behar da inork ezin diola hondamendi honen efektuei itzuri egin. (...) Inor ezin daiteke sentitu tragedia honetatik deslotuta! (Garaikoetxea 1983)⁶⁰.

Hondamendi naturalak, beraz, hiritarrak batuko lituzke. Hiritarrek naturaren mehatxuari aurre egiten dieten komunitatea osatzen dute. Zentzu horretan, hainbat erakunde eta pertsonen lan eredugarria eskertuko du. Hondamendiaren kontrako gerran, ejerzito baten moduko irudia soslaiatzen du: “orduz ordu, beharrezkoa zen postu horietan agertu zareten bolondresen zutabe amaigabe eta anonimoa” (Garaikoetxea 1983). Heroi eredugarriak adibide gisa hartuta, gainerako hiritarren betebeharrak azpimarratuko zituen:

Tragediak gure herri osoari eragin dio; haren efektuak guztiei helduko zaizkie, eta lur hau beren etxetzat eta herri hau bere bizitza-komunitatetzat duten horien betebeharrak solidarioa hauxe da: herrialdea aurrera ateratzeko esfortzu goren, inteligente eta eskuzabala oraintxe

⁵⁹ “Los que sentís el terrible vacío de seres queridos que partieron para siempre..., los que habéis perdido vuestro hogar hecho del amor que madurasteis en los años de convivencia..., los que os sentís inermes, angustiados, ante la desaparición de vuestro medio de vida...”

⁶⁰ Pero si nuestro sentimiento está con quienes mas habéis sufrido, especialmente con quienes habéis perdido a vuestros seres más queridos, en nuestras mentes debe quedar perfectamente claro que nadie puede sustraerse a los efectos de esta catástrofe. (...) ¡Nadie puede sentirse desligado de los efectos de esta tragedia!

bertan bere gain hartzea. Eta erantzukizun kolektibo honek, izan ere, gutako bakoitzaren konpromiso indibiduala exijitzen du, dagokigun lanpostutik hasita. Dagokion erantzukizuna bere gain hartzeko prest ez dagoena ezin liteke herri honen seme sentitu. (Garaikoetxea 1983)⁶¹

Diskurtso nazionalistak beren edukiaren arabera bereizteko joera dago: batetik, nazionalismo etnikoak lurrian lituzke bere sustraiak, familia erreferente nagusi hartuta; bestetik, nazionalismo zibikoak, elkarbizitzaren elementuetan ipiniko luke arreta (Serrano Pascual 1998). Azken honekin bat letozke euskal hiritartasunean “lur hau bere etxetzat” eta “herri hau bere bizitza-komunitatetzat” dutenekin. Hiritarrak bi diskurtsoen inguruan interpelatuak izan litezke eta aginduekin bat ez datozen horiek ezingo dute “herri honen seme” (“hijo”) izan.

Jarraian, gertaeraren unea historiaren bidegurutzean kokatuko du. Ziur da hiritarrek “herri indartsu” gisa erantzungo dutela, aurreko egoera berrezarri eta hobetzeko asmoz: berrikuntza teknologikoak sartzeko aukera zabaltzen du industria-birmoldaketak. Hiritarrak dira, beraz, iragan jasoaren eta eraikitzeke dagoen etorkizunaren arteko bitartekariak. Azken batean, ur-uholdeen ondorioei aurre egiteko neurriak legitimatzeko diskurtsoa da, neurri horiek dira indar performatibo eztabaiaezina dutenak. Hala ere, haratago doa, bere adierazpenari erantzungo diotelakoan:

Are gehiago: Hondamendi izugarri honek erraztu duen giza-hurbilketak gure herrian elkarbizitzaren oinarri berriak

⁶¹ “La tragedia afecta a todo nuestro pueblo; sus efectos llegarán a todos, y es obligación de quienes consideren este suelo su hogar, y este pueblo su comunidad, de vida, asumir desde ahora la obligación solidaria de realizar un esfuerzo superior, inteligente y generoso para sacar el país adelante. Y esta responsabilidad colectiva exige, de hecho, el compromiso individual de cada uno de nosotros, en nuestro respectivo puesto de trabajo. ¡Quien no esté dispuesto a asumir su responsabilidad no puede sentirse hijo de este pueblo!”

berrezartzeko benetako oinarria izan ahal eta behar duela ziur nago. (Garaikoetxea 1983)⁶²

Hondamendi naturalaren aurrean kontsentsu sentimendua indartzen bada (Revet 2012, 162), aurreko antagonismoak desagertarazteko aukera aurrera daiteke. Ur-uholdeek Euskadi mehatxatzen zuten horretan, “konfrontazioaren alde batean zein bestean” zeuden horiek bat egin zuten ondorioei aurre egiterakoan. Une batez Beste-uholdearen erasoladiak Beste-terrorista edo Beste-okupazio indarrak desaktibatze gaitasuna eduki zuen. Hiritarrei gizatasun biluzia geratuko zitzaiekeen, eta honen gainean saiatuko zen Lehendakaria hiritar berritua interpelatzeko: hiritar enpatikoa, erantzulea eta historikoa:

Gure herriak, gaur inoiz baino gehiago, gure energia guztiak herriaren berreraikuntzan kontzentratzeko elkarbizitza barea behar du. Inork ez du zertan uste sendo zilegirik baztertu, ezta berau argitasun eta irmotasun demokratikoaz defendatzeko ezintasuna pairatu. Baina gaur, inoiz baino gehiago, berriz diot, gure gizartean edonolako konfrontazio biolentoak alboratu behar ditugu, besteak beste, gure zeregina, euskaldun guztien ahalegin bateratuetatik abiatuta, nahikoa latza delako berez. (Garaikoetxea 1983)⁶³

Konfrontazio historikoei aurre egin diezaiokeen hiritarra da, gizaki izatera buelta daitekeena, enpatikoa, urak suntsitutakoaren gainetik etorkizunera proiektu litekeena. “Lur honetan bizitza sustraitua sentitzen dugunok” adierazpenak energiak biltzen

⁶² Es más: Estoy convencido de que el acercamiento humano propiciado por esta terrible catástrofe puede y tiene que ser la base sobre la que reestablecer nuevas cimientos de convivencia en nuestro pueblo.

⁶³ Nuestro pueblo necesita, hoy más que nunca, una convivencia tranquila para concentrar todas las energías en la reconstrucción del país. Nadie tiene que dejar de lado sus legítimas convicciones, ni sufrir la imposibilidad de defenderlas con lucidez y fortaleza democráticas. Pero hoy, más que nunca, digo de nuevo, debemos dejar de lado cualquier confrontación violenta en nuestra sociedad, entre otras cosas, porque nuestro quehacer, que parte del esfuerzo unido de todos los vascos, ya es suficientemente duro.”

bazituen –nazionalismo etnikoa– “elkarbizitza” ipiniko du helburu –nazionalismo zibikoa– biolentzia alde batera uzteko deia eginez. Denak inguratuko ditu *aitaren etxearen* inguruan:

Aitaren etxea zutik mantenduko dugu. Inork ezin du zeregin hau saboteatu. Eta inork egingo balu, inork biolentzia eta suntsiketaren bidea aukeratuko balu, jakin dezala, haren berreraikuntzan, era eredugarrian entregatu den herri honen gehiengoa aurrez aurre edukiko duela.

Nik zeregin honen gaineko fedea helarazi nahi dizuet. Beste behin, aurrera aterako gara, eta herri zahar honek betikoa izaten jarraitzen duela erakutsiko du, borrokatzeko eta bizirauteko gai. (Garaikoetxea 1983)⁶⁴

Beraz, aurretik interpelatutako heroi-hiritarrak biolentziaren aldeko hautua egiten dutenei kontrajarriko die. Kaltetuenganako atsekabea sentitzeko eta sufrimendu horri itzuri egiteko debekua agindu ondoren, elkarbizitza baketsurako deia egiten du. Uraren izaera natural eta likidoari aitaren etxearen berreraikuntzaren izaera zibilizatua eta zurruna kontrajartzen zaio. Hiritarrak batu ditu interpelazioaren bitartez, beren energiak biolentziaren kontra eta berreraikutzara bidera daitezen.

Edonola ere, interpelazioak ez ditu hiritar guztiak norabide berera bideratuko. *Deia* egunkariko azalean agertutako berri honetan “Aitaren etxea zutik mantenduko dugu” titularra gaineratzen bazen ere, beste titular batek ETA Militarrak Polizia Nazionaleko kuartelean ipinitako bonba baten berri ematen zuen (Deia 1983, azala).

RITORNELO: EDUKIA, ESPRESIOA, INTERPELAZIOA

⁶⁴ “Mantendremos en pie la casa del padre. Nadie puede sabotear esta tarea. Y si alguien lo hiciera, optara por la vía de la violencia y la destrucción, que sepa que tendrá en frente la mayoría de este pueblo que se ha entregado de manera modélica a su reconstrucción. (.../...) Os quiero hacer llegar la fé en esta tarea. Saldremos adelante, de nuevo, y este viejo pueblo mostrará que sigue siendo el de siempre, capaz de luchar y sobrevivir.

Aitaren etxea afektuak zentzu ezberdinetan mobiliza litzakeen ritorneloa da, kasu honetan, gertaera-diskurtsoetan behar bezala bideratuta, Gernikako Estatuaren eta honek sortutako estatusaren alde bideratzen dira. Guattarik ritorneloak afektuak katalizatzen dituen diskurtsoen sekuentzia errepikakor gisa definitzen ditu. Hjemsleven eskemari jarraituz, ritorneloa enuntziatioaren eta adierazpen baten formaren bitartekaria da. (Guattari 1996). Beste era batera esanda, afektuak “enuntziatioaren materia desterritorializatuak” dira (1996, 168), zeinak ritorneloen bitartez mobilizatzen diren, hau da, territorializatuak bilakatzen dira aktualizatzen diren neurrian.⁶⁵

Hasteko, “aitaren etxea” adierazleak poema baten parte dira, honen ritorneloa hain zuzen ere. Hasieratik agertuta (“Nire aitaren etxea / defendituko dut”), hainbat bertsotan errepikatzen dira, bukaeran berriro ere honen permanentzia ziurtatzeko (“baina nire aitaren etxeak / iraunen du / zutik”). Ritorneloak bere autonomia eskuratuko du, errepikari esker, poemaren afektuak aktibatze gaitasuna hartzen duen neurrian.

Baina ritorneloa ez da bere aspektu formalera mugatzen, poema oso bati edo, zentzurik murriztuz, lokuzio bati lotuta dagoen neurrian, eduki jakin batzuk daramatza berarekin. Edukiak daramatzen lokuzio gisa, Arestiren poemak ritornelo-metaforarekiko koherentzia semantiko bat osatzen duen bezala –pinudia, ortua, otsoak, e.a. ritorneloaren errepikak berarekin bat datozen eduki semantikoak dakartza. Zentzu horretan, aitaren etxea espresioak eduki ezberdinetara bideratzen du: poemaren adierazleak –“aitaren etxea zutik mantenduko dugu” zein lokuzioaren esparru semantikoa aktiba ditzake.

Azken hau da Garaikoetxeak egiten duena nazio etniko eta zibikoaren arteko kontraposizioa erabiltzen duenean, lokuzioaren inguruan biltzen ditu hiritarren elkarbizitzaren bizileku den aitaren *etxea* zein hiritarrek sustraien lurra den *aitaren etxea*. Estatuaren manifestazioko irudian, haurrak daraman kartelak norabide ezberdinetan bideratzen du *aitaren etxea*: argazkilariari begira dagoen gizon txapelduna, Lehendakaria edo Lehendakari zaharra. Edukiak haurrak daraman kartelaren egitura diagramatikoan adierazten dira.

⁶⁵ Guattarik espresioaren ritorneloaren eta edukiaren ritorneloaren arteko bereizketa egiten du, azken honi “makina abstraktu” ere deituz. Lehenengora mugatuko naiz hemen, kasuak adierazleari (espresioari) erreferentzia egiten dioten neurrian aukeratu ditudalako.

4.1.2. AITAREN ETXEAREN MITOLOGIA AKUSTIKO-BISUALA

Musika estilo ezberdinetan musikatua izan den poema dugu honakoa: euskal kanta berria (Idirin 1975), pop-rock (Aiape 1994; Elorrieta 2013) edota, poemari aldaera txikiak eginez, rapa (Norte Apache 2011). Poema musikatuaz haratago, “aitaren etxea” hitz-elkarketak poemaren topika bat kondentsatu egiten du hainbat abestitan. Honela, *Su Ta Gar* heavy metal taldeak 1989an atera zuen lehen maketako *Gudari* abestiak honela ematen zion hasiera:

Jaso ditzagun buruak / iritsia da ordua / aitaren etxea defenda nahi
dugu / zure bidea jarraituz / eutsi hor ta aurrera / bukaerararte /
bagoaz aurrera zugatik / bagoaz, / aurrera, zugatik / gudari (Su Ta Gar
1999)

Irudia 10. Aitaren exe eragocia, Agustin Ibarrola, 1967



Iturria: (Aresti 1967a, 21)

Nolabait esateko, aitaren etxearen defentsa da gerra zibileko *gudariak* 89ko ETAko *gudariekin* lotzen duen haria. Aurrerago ateratako diskoan, *Gau iluna amaitu da*, euskal preso sakabanatuen gaineko kantan, gau ilunean pasa duen horrek, preso ibili den horrek, aurrera jarraitzeko zioa aitaren etxea zutik mantentzean datza:

Sakabanaketa / beraien zigorra / ez zaitu isutu / gure aitaren etxea /
zutik da / azkenik askatasuna / poza eta beldurra / zer egongo da
kanpoan? (Su Ta Gar 1997)

Poema aitaren etxea adierazlearen kondentsatua ageri da maiz. Baina zelakoa da aitaren etxea? *Ni* poetikoak bere sakrifizioa eskaintzen duen horrek zelako itxura eduki lezake? Arestik *Euskal Harria* argitaratzerakoan, Agustin Ibarrolaren grabatuak txertatu zituen bertan. Horien artean, *Aitaren exe eragocia* ageri zen (Aresti 1967a, 21). Eragotzia, hesiaz besteldetik ageri den etxe multzoa delako izan daiteke. Objektua ageri da baina subjektua hurbildu ezinik dago eragotzia izan zaiolako. Irudiak eskaintzen dituen irakurketak bat letozke objektu galduarekiko melankoliarekin, Irigoien zein Juaristik egin dituzten irakurketekin (ikus Albia, 178-181. orr). Etxe eragotzia da, baina baita mendi irteera batean amestua izan litekeena ere.

Jarraian aztertuko ditudan aitaren etxearen aktualizazioek kantuetan gauzatu badira ere, irudikapen mitikoak osatuko dituzte.

AIAPE, 1992

Bittor Aiapek poema txertatu zuen bere lehen diskoan (Aiape 1994), berak idatzitako kantuekin eta 1992ko *Arraroa noski Nafarroa Oinezeko* abesti famatuarekin batera. Diskoko azalak *aitaren etxearen* gaineko irudiaren zantzu batzuk eskaintzen ditu. Bertan, Aiape ageri da egur baten gainean eserita, gitarrako akordeei begira. Bere atzean, argazkia sepian, argazkilaritzako lehen hastapenetako irudia. Baserritarrak dirudite, lanaldi baten ostean atsedenean, zelai malkartsuan eserita. Haien tonu argiek kontrastea eskaintzen dute inguruneko sepia ilunarekiko. Adinei erreparatuz, gurasoak eta bi seme izan litezke, hirurak kamerari begira, diskoari begiratzen dugunoi begira. Gizonezkoak errenkada berberean eta ama apur bat beherago. Haietako batek asto bati eusten dio, honek ere gu begiratzen gaitu.


Aiapek eseritzeko erabiltzen duen enborrak eta azpian atontzen duten lazto-izpiek argazkiaren sepia kolore bera dute, ingurune berean baleude bezala. Hori bai, berak kontrastatu egiten du bere kolorezko alkandora, bakeroen eta gitarraren bitartez, *Oi!* estetikarekin bat etor litekeen janzkera garaikidea soinean.

Aiape aurreko eta erdialdeko aldean dago, zuhaitz genealogiko bat irudikatuko balitz, semeren baten semea izango litzateke, hurrengo belaunaldiko katebegia. Esan daiteke

zuhaitz genealogikoan eserita dagoela eta, beraz, irudiak bere arbasoekin lotzen duela. *Baserritarrak* dira arbasoak, edo zehatzago esanda, *laborariak*, ez batitute propietatedun *jauntxo* itxurarik.

Arbasoak guri begira daude, argazkiaren une hilezkorrari begira, etorkizunari, ondorengoei, Aiaperi aurrena, eta guri ondoren. Aiapek ordea bere gitarrari begiratzen dio, akordeekin asmatu nahiean. Atzean dituen arbasoen zurrumurrua *Oi!* musikan eta kolorez interpretatzen dituela esan daiteke. Zentzu horretan, iragan eta etorkizunaren arteko mugarria da Aiape, bi dimentsioetako sepia eta mundu biziaren artekoa.

Irudia 11. Bittor Aiape, 1994, azala



Iturria: (Berria 2015a, «Bittor Aiape»)

Baxuaren burrunbak ematen dio hasiera *Nire aitaren etxea* kantuari, bateria eta gitarra elektrikoa gehitu egingo zaizkio melodia zikliko bat osatuz. Une horretan, Aiaperen ahots nerabeak Arestiren poema kantatuko du, poemaren gorabeherak entonazio eta bolumen aldaketak eragiten ditu. Aitaren etxea zutik iraunen duela errepikatu ostean, “Euskal Herri guztia zutik! zutik!” gehituko dio, aitaren etxea eta Euskal Herria berdinduz.

Aitaren etxea belaunaldien arteko bitartekaria da. Batetik, arbaso laborariak ageri dira, ez da etxerik ageri, baina bai astoa, lana eta zamaren adierazle, espazioa eta atsedena partekatzen dituzte. Edonola ere, aitaren etxea etxerik gabeko etxea da. Belaunaldi-topaketa ez da ondarearen bitartez gauzatzen, topaketa biologikoa da. Eta hortik etor daiteke enborraren izaera anbibalente: eserlekua da eta zuhaitzaren atala. Arbasoak Aiaperi xuxurlatu egiten diote eta hark guri “zutik” ipintzeko agindu, borrokarako deia.

Jakina, hau ez da diskoko abesti bakarra, baina gainerakoek era analogoan interpreta litezke. *Aitaren etxea* mendiarekiko era analogoan ageri da beste bi kantetan. *Mendia* kantan, aro biologiko eta geologikoaren arteko aldea adierazten du. Mendiak mendez mende dirauen bitartean, aliterazioa osatuz, eraikitako etxeak zibilizazioari tartea zabaltzen dio mendia apurka-apurka kimatuz, azkenean dena desagertuko da, baina harezko mendia da iraungo duena. Poeman bezala, mendia da zutik iraunen duena, gizakien etheen gainetik. *Progresuak* kantan berriro agertuko da mendia, oraingoan gorputza urdindu eta odol-tantek bizitza ote duten galdetzen dion entitate gisa. Eternitatean proiektatuta, ezer ezaz ohartzten da bukaeran, mendiak itzultzen dion irudia ezer eza da eta.

Nerabearoarekin lot daitezkeen ardura existentzialak ageri dira kantu hauetan zein besteetan. Denboraren ikuspegitik, mendia da entitate iraunkorra, gainerako hutsal bihur lezakeena. Era berean izaera iraunkorra subjektuari dagokion tenporalitatean ere eman daiteke, tenporalitate objektiboan eman ezinezkoa bihurtzen den bitartean. Tenporalitate subjektiboa haurrarena da, hari baitagozkio ametsa, imaginazioa eta etorkizuna: ezer ezaren hiru arrakalak. Espazioari dagokionez, Niaren mugak beti dira kanpotik ezarriak –kartzela, heriotza, lana– eta hauen aurrean, Nia zabaltzeko deia luzatzen du: ihes egin, manifestazioa egin, zutik jarri...

Gainerako kantuen argitara, *aitaren etxea* belaunaldiz belaunaldi dirauen entitate iragankorra da, mendiaren antzera. Aitaren presentzia faktikoa da, fisikoa, umeari etorkizuna eta imaginazioa dagokion bitartean: arbasoen eta indeterminazio zabalaren arteko katebegia. *Aitaren etxea* zuhaitza da etxea baino, belaunaldiak irudikatzen ditu bere adarren bitartez. Honen iraupena ezinbestekoa dela esan daiteke, baina hala ere egurra mantentzeko deia luzatzen du poema musikatuan, egurra zutik dagoen zuhaitza bezala (“Euskal Herria zutik!”) eta egurra borroka delako, ukazioen kontra.

GABI DE LA MAZA, 2002

Gabi de la Maza Youtubeko ohizko erabiltzailea da, euskarazko kanta ugari hartu eta hauekin bideoak osatu eta eskegi ohi ditu, txori kantaria abatar gisa erabiliz. Karaoke formatuan muntatzen ditu bideoak, musikarekin batera igarotzen diren letrak txertatuz. Bere asmo nagusia horixe bada ere, bideoa baliatzen du bertan irudiak txertatzeko, maiz taldeek produzitutako bideoklipak ipiniz, baina besteetan berak osatzen ditu bideoak irudi ezberdinen bitartez. Hauxe da Eñaut Elorrietak kantatuko *Nire aitaren etxearen* kasua (Gabi de la Maza 2013), kantua garatu ahala irudiak txertatzen ditu. Sekuentzia honi esker kantuaren irudikapena aztertu liteke.

Hasieran, Gabriel Arestiren irudia ageri da, bere jaiotze eta heriotza urte zein izenarekin batera. Arestiren irudi nahiko zabaldua, kamerari begira, ezker eskuko ahurrak kokotsari eusten diolarik. Izenburuan kantuaren autoretza agertzen bada, poemaren autoretza bideoaren hasieran adierazten da.

Irudia 12. Gabi de la Mazaren *Nire aitaren etxea* bideoako framea, 2013



Iturria: (Gabi de la Maza 2013)

Kantuarekin batera, Euskal Herriko mapa berdea ageri da ezker-goialdean, atzekalde beltzaren gainean. Atzekalde beltzari baserri baten irudia gaineratzen zaio, apurka-apurka, mapak zeruaren tankera hartzen du. Behin eta berriro errepikatuko den irudia

da, bukaeran bestelako irudiekin bat eginez. Eredu *tradizionalarekin* bat datorren baserria da, teilatua era asimetrikoan banatua dago, aspaldiko balizko funtzionalitatea errespetatuz, egungo tentazio estetikoek kontra. Hormen kolore homogeneotasunak, ostera, zaharberritutako baserria dela adierazten du. Ezker hegalarikiko gertuago dagoen ikuspegitik, ezker-teilak hartzen du argazkiaren luzera gehiena, erdiraino ia. Honela, teilatuaren erpina irudiaren erdialdean badago ere, baserriaren ezker aldeak ezker alde osoa hartzen du, honen eskuinaldeak herena soilik hartzen duen bitartean. Eskuinaldeak tartea uzten dio kareharrizko mendi malkartsuari, mendi-tontor eta baserriaren atzealdean dauden arbolak baserriaren erpinaren maila berean ageri dira. Behetik eta angeluhandian ateratako argazkia da, horregatik baserriaren hormak – ezkerrekoa bereziki– teilatura makurtuta daude, diagonalean. Lurretik datorren argazkia da, baserriaren aurreko zelaia agerraraziz. Zelai gainean, baserriaren aurrean, antzinako goldea –hau ere zaharberritua– eta zuhaitz mehar baina luzea: zeruaren herena hartzen du zuhaitzak, ezkerrean. Are ezkerrean, palmeraren pareko zuhaitz baten hostoak ere atzeman litezke –indianoen arrastoa ote?–.

Hiru elementuk zulatzen dute zerua: atzekoz aurrera, mendi tontorra, zuhaitzaren adaburua eta teilatuaren erpina. Hiru tenporalitateekin bat datoz. Zerua, eternitatea kosmologia kristauan eta jainkoetako bat –Jainkoa bera ez denean– balizko euskal kosmologia jentilean, *Ortzi*⁶⁶. Mendiak eoietako aldaketetan osatuak diren bitartean, zuhaitzek mendeak iraun dezakete. Elementu hauen artean, baserria da gizakiak egina, familiaren bizileku eta produkziogune izan daiteke, besteak beste. Mendia, zuhaitza eta baserria, tenporalitate ezberdinek bat egiten dute irudi batean, beren tontorrek eternitatera zuzenduz. Beste muturrean, behean, ikuspegitik gertu, lur belartsuak lerro zuzena irudikatzen du. Hiru elementuak, goldearekin batera, honen gainean daude, zerurantz zuzenduak. Baserriaren estetizazioa, golde eta zelai ebaki eta guzti, ez zaio garaikidetasun zantzurik atzeman. Funtzio-zeinua da (Barthes 2009a, 54–55), funtzio

⁶⁶ “Niri zinez interesatzen zaidana zera da, alegia seinalatzea (...) ezen *urtzi* zeru-sabai dela, Jainkoaren proiektio transzendente eta erlijiosoarekin eta seguruena huts hitza (zeru soila bezala, zeru-sabai eta sagaratu bezala) euskaraz *huts*, *hutsa* delako, honek une berean adierazten duelarik *hutsik dagoena* eta *soila* ere, sagaratu bezala, erlijioso bezala?), harrespilaren nire argipen estetikoan hala da noski, esparru sagaratu huts eta soil.” (Oteiza 2007, 537–538)

jakin bat betetzen zuen eraikin eta tresneriak funtzio simbolikoa betetzera mugatzen diren neurrian.

Sekuentzian zehar, poemaren bertsoak aurrera egin ahala, irudi ezberdinei tartea zabaltzen zaie. Peirceren zeinuen sailkapenari jarraituz (2006), ikonoak dira nagusi, bertsoen adierazleekin lotutako irudiak diren neurrian. Ikonikoak dira otsoen adierazlearekin batera otsoak ageri direnean, edo ortuekin ortuak, haziendekin diruzorro hutsa, gorputz atalak kentzeari besorik gabeko gorputz-enborra, e.a. Baina zenbait aspektu sinboliko agertzen dituzte aldi berean. Justiziari erreferentzia eginda, ostera Entzutegi Nazionala ageri da, kotxe artean, hedabideetan ohizko irudia akusatua deklaratzera kotxez zein oinez sartzen direnean. Armak direnean, ETA edo bestelako talde armaturen bati armak kentzen dizkiotenean hedabideetan, oraingoan ere, azaldu egiten den irudia: mahai batean, dagozkien zenbakiekin sailkatuta. Tartean, bestelako sinboloak ere txertatzen dira: kartel urdinean, poema prosa moduan ageri da kakotxa artean, honen gainean “Jo eta ke” leloa eta ikurrin, lauburu eta arrano beltz banarekin.

MITOLOGIA BISUALAK

Orain arte elementu ugari aztertu ditut, baina haietako bi gainerakoak harilkatzeko erabili ditut, pisu hierarkiko handiagoa emanez: Aiaperen diskoko azala eta Youtubeko baserriaren irudia. Biek aitaren etxearen mitoa osatzen dute. Diskoko azalean atzealde sepia eta Aiape gitarradunaren irudiaren arteko harremana iragana eta etorkizuna, arbaso eta ondorengoak, elkarlotzen dituen katebegia osatzen du. Youtubeko bideoan, baserria da iraunkorra den hori, aitaren etxea adierazlea agertzen den bakoitzean gainerako irudiei gaineratu egiten dena. Diskoko azalean denbora atzeko alde eta lehen planoaren artean espazializatzen diren bitartean, bideoan kantuarekin batera serializatu egiten dira irudiak. Biak dira mitoaren norabidean bideratzen diren sistema semiologikoak: Aiaperen diskoko azala konposizioaren bitartez eta bideoa aitaren etxea adierazlearen errepikan baserriaren agerpenaren bitartez.

Baserria euskaltasunaren forma gisa erabili izan du Barthesek berak (2005, 216–219), bi adierazpideren arteko diferentzia azaltzeko: batetik, baserria “produktu etnikoa” da, euskal paisaian naturaltasunez topa litekeen neurrian; bestetik, baserriaren mitoa dago, baten batek Pariseko Gambetta edo Jean Jaurès kaleetan topatzen dituenean, oinezkoa zuzenean interpelatzen duen zeinu bilakatzen da. Youtubeko baserria, bere

aura galdu barik, masa-kontsumoko kateetan erreproduzitu daitekeen *etnomerkantzia* da (Comaroff eta Comaroff 2011, 45). Aiapek ere, nolabait, etnomerkantziaren markoari esker osatzen du bere diskoko *collage*, bere abestiak laborari-arbasoen adierazpidea izango lirateke.

Hala ere, Youtubeko muntaia alde batera utzi eta Eñaut Elorrietaren diskora joz gero (2013), printzipioz, bestelako irudia bueltatuko luke. Hasteko, diskoaren azalak berak bestelako irudia eskaintzen du. Ez da baserri zaharrik ageri, suntsitutako eraikinaren arrastoak ageri dira, leiho apurtuak inguratzen dituen eta apenas eusten den horma bat. Ez dirudi aitaren etxearen irudi zurrun eta iraunkorrenekin bat datorrenik. Horma gainean, ostera, argazkiak egin edo bideoak grabatzeko fokuak ageri dira, piztuta, irudiaren ikuspegiari zuzenduta, argazkilaria argiztatu nahiko balute bezala.

Irudia 13. Deserriko kantak, 2013, azala



Iturria: (Berria 2015a, «Deserriko kantak»)

Azken batean, *Deserriko kantak* da diskoaren izena, malenkonia espaziala islatuko luke zentzu horretan, herrimina. Poeta ezberdinen testuak erabiliko zituen horretarako – Joan Oliver, Mario Benedetti, Harcaitz Cano, Bernardo Atxaga, e.a.–. Kantuen artean, aitaren etxeari dagokionez, Sarrionandiarena gailendu egiten da lokuzio hau erreplikatu egiten duelako, *Geografia* poeman. Poema deserrian hil beharretik abiatzen da, sorterrian hareatzan hobiratu beharraz. Sarrionandiak bestelako

poemetan ere agertu bezala, erbesteko heriotza baino, lazgarriena deserritua izan den jatorrizko herriak bere horretan dirauela da, norbanakoaren huskeria aditzera emanez:

Haizeak gure errautsak eramanen ditu, beste hizkuntzaz / mintzo diren
ezpainetaraino. / Gure aitaren etxeak zutik iraunen du / gu gabe.
(Sarrionandia 1999, 146; Elorrieta 2013)

Arestiren poemaren bukaeran atzeman daitekeena agerian uzten du, azken batean *Nia* desagertu egiten bada ere *aitaren etxeak* zutik iraunen duela. Gauzak honela, zer zentzu dauka *Niak* eskaintzen duen sakrifizio horrek guztiak? Edo, Sarrionandiaren kasuan, zer zentzu dauka deserritua bizi izateak?

Aurreko mitoek ez bezala, disko honek aitaren etxearen arrakalak eskaintzen ditu. Batetik, aitaren etxea subjektuak argitu-interpelatu egiten dituen objektu galduaren zantzuak baino ez dira, Sabin Etxearen eraisketaren ostean bertan harri-puska bila ibilitako jeltzaleak izan litezke horren adibide (J. Juaristi 1997, 346). Bestetik, sakrifizioaren antzutasuna agerian jartzen da. Hala ere, ez dute aitaren etxearen interpelazioa deuseztatzen. Azken batean, aitaren etxearen interpelazioak ez du sakrifiziorik eskatzen zutik mantentzeko, sakrifizioa nahi duelako eskatu egiten du (Zizek 2006, 26). Althusserren *ideologiaren* gainean, Zizekek egin dituen zuzenketak norabide honetan doaz: interpelazioa eraginkorra izan dadin, aginduak zentzurik gabeko hondarrak, hondar traumatikoak behar ditu. Irrazionalitate orbana duen neurrian sintomatiza liteke aitaren etxea, azken batean, sintomaren atzean ezkututzen duen arrazoiaren, kausaren presentziaren promesa sortzen duelako etengabe (Sáenz de Viguera Erkiaga 2008, 85–90). Honi esker sintomatiza liteke aitaren etxea *jouis-sense* baten gisan, hau da, zentzuak ematen duen atsegina, zentzu-atsegina (Zizek 2006, 75). Beste era batera esanda, aitaren etxea afektuak pizten dituen ritorneloa da, baina afektuak adierazleek osatzen duten zentzurik gabeko gune hari zor zaie. Aitaren etxea beti izango da eragotzia, Kafkaren Legeak bezala, bere eskuraezintasunari zor diolako eraginkortasuna.

4.1.3. PUNK DESAFIOA: AITAREN ETXETIKAN ALDE EGIN, HIL EZAZU AITA

Euskal musikagintzak poema bere egin bazuen ere, 80. hamarkadako Euskal Rock Erradikalak aitaren etxearen mitoarekin apurtzeko saiakerak egin zituen. Euska Kultura

Erradikalaren gaineko bere tesian, Luis Sáenz de Viguera aitaren etxea Trantsizioaren ondorengo nazionalismo instituzionalaren tropo nagusi gisa aztertzen du (Sáenz de Viguera Erkiaga 2008), jarraian Euskal Rock Erradikalaren inguruko mugimenduak gainditu beharko duena. *Zarama* taldearen *Bidea eratzen* kantua erabiltzen du hausturaren abiapuntu:

Nere aitaren etxetikan / Ihes egingo dut laister / Eta edozein poetak
nahi badu / Joan dadila defenditzera (Zarama 1985)

Bidea eratzen kultura nazionalista tradizionalarekiko erreakzio esplizitua litzateke. *Zaramak* zein haren belaunaldiak etxe hori era eskizofrenikoan bizi zutela gaineratuko zuen. *Zaramaren* jardun poetikoa apolitikoa litzateke, “sozialak politikoarekiko zuen gaindeterminazioa” (Sáenz de Viguera Erkiaga 2008, 18) salatzen zuten neurrian. Aurreko atalean azaldu bezala, Gernikako Estatutuak nazionalismo instituzionalari aitaren etxearen mitoa –“paradigma nazionalistaren produkziogunea”– artikulatzeko baliabideak emango dizkio, biztanle ez nazionalistek ere barneratzeraino. Honela, Euskal Kultura Erradikala aitaren etxearen tropoaren kontrako dialektikan ulertuko du. *Zaramaren* kantua Euskal Kultura Erradikalaren une fundazionalan kokatuko du, maila sinbolikoan. Era analogoan, Gabilondo eta Villotaren gogoeta batzuk dakartza gogora (Villota Toyos eta Gabilondo 2004), *Hertzainaken Hil ezazu aita* kantuaren gainean. Letra horretatik abiatuta Arestiren poema eskenatoki sadomasokistan kokatuko dute, Oteizaren kromlecharen ahaidea da etxea, hutsik dagoen neurrian, baina hutsa onartu ezinean sakrifizioa da hustasunari aurre egiteko aukera bakarra.

Kantura bueltatuz, etxe barrutik estatuaren mehatxua atzematen da (“zakurren itzalak”) eta nazionalista zaharrak (“moskortien kantu zaharrak”), kanpoan ageri dena “errealitatearen antimapa” bat da, honela imaginatzen dituzte industria-birmoldaketak zein politikaren instituzionalizazioak hustutako espazioak –Etxetik atera ostean, esanguren produkzio monologikoetatik aldendu egiten dira, kantua espazio hutsetara zabalduz. Euskal gizartearen esanahien produkziogune zentraletik alde egiterakoan, “multiplizitate anonimo eta mutanteari” tartea zabaltzen diote (Sáenz de Viguera Erkiaga 2008, 84–87).

Azken batean, *Zaramak* agerian uzten duena zera da: krisi, langabezia eta errepresio garaian, aitaren etxearen defentsaren mitoa antzua da. Orain aitak boterea eskuratu

du eta ordena errepresiboaren gidari dabil. Tesi honen ildotik, *Zarama* eta *Hertzainaken* kasuak aztertuko ditut, Azagraren bineta batean geldiduna eginez.

ZARAMA, 1985

Sáenz de Viqueraren ikerketari ezer gutxi gehi dakioke, aitaren etxearen inplikazioak azaltzen dituen aldetik. Hala ere, *Bidea eratzen* kantuan ematen den aitaren etxearen aktualizazioak beste zenbait ohar eta ondorio merezi ditu. Kantua 1985ean argitaratu zen *Gaua apurtu arte Zaramaren* bigarren LPan (Zarama 1985). Diskoko azalak interpretaziorako bide batzuk zabaltzen ditu.

Irudia 14. Gaua apurtu arte, azala, 1985



Iturria: (Zarama 1985)

Hainbat irudiren konposizioa da, kotxeak, adreiluak edota eraikin okertuak ageri dira non-nahi. 60. hamarkadan Bilbo inguruan eraikitako etxebizitzak izan litezke, Otxarkoagan edo Santurtzin bertan, edota ur-uholdeek utzi zuten paisaia apokaliptikoa: tonu gris, marroi eta urdinak dira nagusi. Kaos horretan, paisaiaren

parte den aurpegia ageri da –kotxe, adreilu eta eraikinak harekin nahastu egiten da, edo hauek ikustarazteko behar besteko gardena izan daiteke. Burusoila, goiko aldea hiriaren hondarrez osatua dago zero ekaiztsuari tartea zabalduz. Sudurra, begi bat, belarria eta ahoa eskuarekin oratzen duen mikrofonora zuzenduta dagoen aurpegi bat irudikatzen dute, kantatzen dagoela dirudi. Baina bi begik aurrera begiratzen dute, zabal-zabalik, harridura, egonezina edo beldurra adierazi nahiko balute bezala.

Azalak Baconen erretrato batzuk dakartza gogora, Lucian Freuden erretratua, hezur-haragizko burua irudikatzerakoan ikuspegi ezberdinen deformazioaz baliatuz. Baita Inozentzio X.aren erretratua, organorik gabeko gorputzaren irudikapena den neurrian (Deleuze 2002). Baconen koadroan gortinen atzetik ikusten ez duen gorputza ageri bada, ahotsik gabe oihuka, kasu honetan, begiak harritu egiten dira ikusi barik. Paisaiaren begiak dira, harritu egiten direnak. Ahoa, mikrofonoa eta honi eusten dion eskuak perfilatuago ageri dira, organoak dira, abesteko keinuan bideratuak. Hala ere, begiak harridura, egonezinaren adierazleak izaten jarraitzen dute, adierazi ezin denaren adierazleak.

LParen barruko orrialdeek collage bat osatzen dute kantuen letrekin, argazkiekin eta *Zarama* agertzen den prentsako zatiekin. Prentsa-zatiek jo zuten kontzertu bateko istiluak, irabazitako txapelketak, elkarrizketak eta Basauriko kartzelean emandako kontzertuen berri ematen dute. Istiluen albistean “Txistuak poliziari jaialdi bat husten saiatzean” edo “Eibarreko Gazte Asanbladak rock jaialdi bateko istiluak salatzen ditu”⁶⁷. Kontzertu-erritualari dagokion adierazpena, Roberto Moso kantariak taldearen autobiografia moduko batean istilu horiek hari-narratibo nagusi gisa erabiliko zituen. Zoritxarrekoa izango zen kontzertu batean, publikoari irainka hasi zen Moso, honek istiluei hasiera eman omen zien eta ondorioz taldeak inoiz baino baterago, soinu bakarrean, jotzera eramango zuen. Kontzertuaren *magia* deskribatzen du, nahiz eta Mosok berak botilakada bat jaso izan zuen (Moso 2003). Irainak eta biolentzia taldearen rock gogorra jotzeko borondatearekin nahastua ageri dira, horrek guztiak erritual katartikoa osatzen du.

⁶⁷ “Pitos a la policía al intentar desalojar un festival”, “La Asamblea de Jóvenes de Eibar denuncia los incidentes del festival de rock”.

Diskoari dagokionez (Zarama 1985), *Kaixo (Oraindik gaude bizirik)* kantuak ematen dio hasiera, bere asmoen berri emanez: “kaleak konkistatu / koloretan margotu / morala subertitu”, “oihu egin”, “espetxeak apurtu”, “lokalak okupatu”, “zarata atera”, ez dutelako “Mi bemolik” behar “oraindik gaude bizirik” adierazteko. Bizirik egotea oposizio praktiketarik uler liteke, arauak apurtzeak funtzio fatikoa duelako: “bizirik gaude”, “kaixo” alegia.

Bizirik egotea debekuari kontrajartzen bazaio, errealitatea sinboloari. Euskal identitatearen sinboloak ez dira errealitate gordinera doitzen, gobernu nazionalistak eskaintzen dituen soluzioek –“kaiku eta txapela”, “txistu ta trikikitxa”, “bertso ta tamborilla”– errealitatea dute “etsai nagusi” *Eukal fizioa (Izorra hadi)* kantuan. *Ezkerralde* kantuaren bigarren bertsoan honakoa adierazten dute:

Barakaldoren estoldetan / oihuak asko entzuten dira / ta keinu
marratzeko haurrak / marrezanzko txikleak maskatzen / odeimuru
marroiak ere / Batzokien ikurriñak zikintzen / ta kaletik... (Zarama
1985)

“ta kaletik...” kantuaren bukaera, beste inora arreta ipintzea nahikoa balu bezala. Ikurrinak sinbolizatu ezin duen hori da, batzokiaren itxituren kabitzen ez den hori. Bestelako sinboloak parekoak dira, *Zilarreko oina* kantuari *Internazionala* heliozko ahotsean kantatzen ematen diote bukaera, ahotsari gizatasuna erauzi eta artificio huts bihurtuz.

Bestelako zeinuek markatzen duten norabidea jarraituta, aitaren etxearen aktualizaziora jo dezakegu, *Bidea eratzen* kantuari hain zuzen ere:

Nire aitaren etxetikan / ihes egingo dut laster / Ta edozein poetak nahi
ba du / joan dadila defenditzera. / Buruak sutan dabilta / telebistaren
aurrean / eta gaueko kaleetan / bakarrik zakurren itzalak / ta
moskortien kantu zaharrak / P[o]etak ixildu dira / Inork ez die kasu
egiten / Poemak lohi eta odolez / hormetan daude bidea eratzen / Hiri
logelak ari dira / hiri hilerrietan bihurtzen / Eta lehioen atzetik / zakil
hiltzaileen eraso / Erein dute beldurra / segurtasunaren alde / bizi
izatea / saila denez / soilik bizirik iraun behar / Poetak ixildu dira...
(Zarama 1985)

Sáenz de Viguerearen analisiari jarraituz, aitaren etxe hutsa nukleo traumatikoaren errepikan bizi da, etxetik kanpora ikus daitekeena (“moskortien kantu zaharrak” eta “zakurren itzalak”) oso bestelako da kanpotik ikus daitekeenarekiko: “poemak lohi eta odolez”. Ikerketa horretan kalimotxoak “marka eta identitate garaturik gabekoa baina jenio handia” bazuen, kantu hauek adierazten dutena artikulazio saiakerei etengabe itzuri egiten dien Errealaren berri ematen dute. Errealak, zentzu lacanianean (Zizek 2006, 123–129), diskoko azaleko organorik gabeko gorputzean adierazi nahiko litzateke, Errealak Sinbolizatua: harrizten diren begiak, ingurune apokalipitikoan nahastuta. Baina organoak egon daude kantatzeko prest dauden aho-esku-mikrofonoari dagokionez, azken batean, *Zaramak* kantatu egiten duelako. Bere erritualak dauka, eskema masokista berrituari jarraituz, irain eta botilakadek kontzertuaren magiari isuritzen laguntzen dio. Horregatik ez dute ez poetarik ez “Mi bemolik” behar. Lohiari eta hondarrei erreferentzia asko egiten zaie –*Zarama* izena bera–. Hegemonikoaren hondarrak lantzen dituzte, aitaren etxetik kanpo landu gainera.

Kalea da tropo nagusia, hegemonikoari kontrajartzeko gaitasuna duen neurrian. Honako ordenei kontrajartzen zaie:

- Ordena sozioekonomikoa. Lan konketuaren gune nagusia fabrika bazen, proletario zein kapitalisten konfrontazio-gune eta baldintza, gune horretatik erbesteratua izatea da *kaleratua* izatea.
- Ordena politikoa. Kabinete edo parlamentuari kontrajartzen zaio, benetako borroka kalean da eta, bertan daude “poemak lohi eta odolez” “bidea eratzen”.
- Ordena kulturala. Euskal Rock Erradikalaren performancea kontzertuetan garatzen da, kalean bizi den musika da, “kaleak hartu” deidarra egiten dute.
- Ordena sinbolikoa. Aitaren etxearen mitoa ordena hegemonikoaren sinbolo bihurtu bada, ikurrina eta txistua bezala, kanpoan kalea uzten du.

Diskoko azlaean kalearen eta *Zaramaren* arteko anabasak bien arteko identifikazioa errazten zuen. Bertan ageri dira “hiri hilerrak”, kalean gertatzen dena apenas ikusten uzten duten leiho txikidun eraikinak. Aitaren etxeak dira. Etxea kaleari kontrajartzen zaio, errealitatea sinboloari eta bizirik egotea debekuari bezala.

Muskaria aldizkarian, kantuari erreferentziari egiten diote “orainaldia jaso eta proiektatzen duen” ispilu baten gisan:

Zaraman ez dago duda metodikorako tarterik, jarrera kritiko eta hezigaitzaren egokitasunaren uste oso soilik, kaka zaharrik agerikoenaren aurrean. (Igartua 1985, 24)⁶⁸

Zaramaren kantua garai-espazio jakin bateko unibertso sinbolikotik abiatuta uler daiteke. Zentzu orretan, Sáenz de Viguera aitaren etxearen ukapena Euskal Kultura Erradikalaren abiapuntuan kokatzen du. Jakue Pascualek esan bezala, punka “ukatzen duenaren ukapena” da, “hutsari” dagokio, “ukapen ibiltaria delako” (Pascual Lizárraga 1987, 42–43), aitaren etxea nazionalismo hegemonikoaren tropo nagusia den neurrian, izaera ibiltaria, mugikorra, geldiarri, mugiezinari, kontrajartzen zaio, etxe betearen fantasiari hutsa kontrajartzen zaion bezala.

HOTEL EUSKADI, 1985

Mosoren liburuan⁶⁹ Carlos Azagraren ilustrazio bat ageri da, Euskal Rock Erradikalaren produktu eta irudikapena da. Francisco Ibañezen *13, rue del percebe* komikiaren reinterpretaioa da, horma eta komunitaterik gabeko eraikina (Véliz 2009). Aitaren etxearekin konparatzeko aukera ematen du, aurretik jorratutakoaren ildotik.

Horma gardena baserriaren harrizko irudi arketipikotik aldentzen da eta, beraz hutsean oinarritutako interpelazioa sahiesten dute —ez dago ezkututzen zaigun Besterik—. Auzoko egunerokotasunaren *voyeur* ikuspegia aitaren etxea defendatzeko atarian dagoenari kontrajartzen zaio.

Batetik, gaztetxe bat izan daiteke, punky batzuk okupazioaren aldeko kartela kokatzen ari diren neurrian —gaztetxe baten inaugurazioaren ekintza performatiboa, Azagrak berak Ibañezen eraikina okupatu egin du beste pertsonaia batzuk sartzeko—. Aldi berean, Euskadi Hotela ere bada, kartel zaharrak agerian ipintzen duen bezala eta aldi baterako egoiliarak dituelako. Garaiko taldeak dira egoiliarak, *La Polla Records Salve* diskoan irudikatu zuten apaiz berbera lehiotik behera bota nahian, *Zaramako* kideak

⁶⁸ “En Zarama no hay sitio para la duda metódica, sólo convencimiento de la corrección de una actitud crítica e indomable ante la mierda más evidente”

⁶⁹ Liburuaren izenburua, *Loreak zaraman (Flores en la basura)* Arestiren “Bilboko zimaurretgiaren / lore bat / aurkitu nuen” poema dakar gogora (Aresti 1964b, 62)

Hala ere, eraikinetik kanpo, kalea jendez gainezka dago, beraz gaztetxea edo Hotela ez da nahikoa mugimendua irudikatzeko. Aldendu ahala, jende andanak gero eta forma lausoagoak ditu. Kalea protesta-gune eta ertzainen kontrako borroka-gunea da.

Testu polifonikoa da, bunbuilo, pintada, kartel eta irudien arteko elkarrizketa. Baina ez dago gaineratzen den lelorik, polifonikoak direla eta, zenbait testuingurutan, parodiaz edo ironiaz agertzen direlako. *Hertzainaken* “Euskadi libre eta tropikala” –berez, “Euskadi libre eta sozialistari” erreplikari osatua– behar besteko seriotasunez hartua izan da, horrenbeste landareen artean mikroa eskuraezina bihurtzeraino eta KAS Alternatibaren aldeko aldarrikapena edari alkoholiko konbinatuen aldeko aldarrikapen bihurtuz.

Ibañezen komikian bezala, ez dago komunitate-batzarretarako lekurik, ezta komunitateko presidenterik ere, komunitaterik gabeko komunitatea delako (Véliz 2009). Hotel Euskadik parlamentu eta kabinetean aitaren etxearen porrota islatzen du eta, gainera, Ibañezen komikian apenas tarterik duen kaleari tartea zabaltzen dio. Aitarik gabeko etxea da, inork agintzen ez duelako, lege bakarra lelo polifoniko eta parodikoak dira.

HERTZAINAK, 1985

Hala ere, *Zaramak* bere eraginkortasun sinbolikoa deuseztatu nahi badu ere, aitaren etxeak zutik dirau. Bere baitan “sakil hiltzailea” dago, agian horixe da aitarekiko hurbilena den figura. Antzekoa zen *Hertzainak* urte berean kantatzen zuen *Hil ezazu aita* (Hertzainak 1985). Bertan, familia osoa hiltzen duen aita ageri da, honela kondentsatzen ditu irudi, usain eta egitekoak kantuaren bukaeran:

Bolbora usaina, odola parketan / hil ezazu aita, hil ezazu bertan / ez baduzu hiltzen, hila zaude / ez baduzu hiltzen, hilko zaitu berak
(Hertzainak 1985)

Gabriel Villota eta Joseba Gabilondok “mano a mano” duten elkarrizketan kantu hau jorratzen dute “euskal kulturaren libido hilkorraren” eredu gisa. Sáenz de Viqueraren ohar batzuk gaineratu ditut lehen: aitaren etxea beti ikusten da kanpotik, barrutik hutsik ikusiko litzateke, hortik Arestiren poemak “eskema neolitiko-masokista” aktualizatu egiten duela. *Hertzainaken* aita, ordea, “aita domestikoa” da “probably

Euskalduna astillerotan borrokatu eta gero reziklatu ezin izan zena” eta, beraz, psikotiko dagoena eskenatoki neolitikotik postindustiralera era problematikoan pasa delako, modernitatetik postmodernitatera. Horregatik da “alkoholkoa eta desastre hutsa”. Hala ere, *Hertzainaken* inkontziente politikoa aitarenaren berdin-berdina da eta, beraz, aita hiltzeko saiakera guztiak porrotera kondenatuta daude. Aita neolitikoaren buelta nahi dute, horregatik akabatu nahi dute aita psikotikoarekin (Villota Toyos eta Gabilondo 2004).

Zentzu horretan, *Hertzainakeko* kideak dira psikotiko daudenak, aitaren etxearen interpelazio arrakastatsutik abiatuta bizi direlako. Kantuan ametsa eta esna-aldia nahastuta ageri dira, psikosiaren sintomak gogora ekarriz:

Bapatean despertadoreak jotzen du / ta ohartzen naiz dena amets bat
izan dela / soilik amets bat, ez da ezer gertatu / zergatik orduan ezin
dut lasaitu? / Sukaldean jarraitzen dira oihuak, / bata mozkortia, besteak
galduak / eta orduan bost tiro entzuten dira / eta gero soilik ixistasuna.
(Hertzainak 1985)

Aita kaleratu beharra dago edo “sakil hiltzailetik” ihes egin. *Hertzainakek* borroka etxean duen bitartean, *Zaramak* kalean ematen du. Aita *Hotel Euskadiko* binetako lehen planoan ageri den ertzaina izan liteke, txapela buruan eta porra eskuan. Kalean ematen da aitaren etxearen ordezkariarekin, Ertzaintza sortu berriarekin, borroka. Bi urte beranduago aterako zuten kantu batean *Zaramak* konfrontazio horren izaera atsegingarria agertzen zen. Larunbat gauean, pertsona ezberdinek eta arrazoi ezberdinengatik dituzte “bihotzak sutan” –Athleticen partidutik datoz batzuk, besteak edaten ari dira Alde Zaharrean eta bestek manfara doaz– guztiek bat egiten dute poliziaren erasoaldiaren aurrean, orduan “bihotzak inoiz baino gehiago daude sutan” (Zarama 1987). Haserre eta pozik daudelako daude sutan, libido berbera dago martxan. Azken batean, binetakoa *jolasa*, irabazlerik ez duena, kaleko konfrontazioarekin bat egiten duela dirudi, benetako *jokoa*, hil ala bizikoa, ETArri dagokion bitartean (Zulaika 1988, 169–185). Euskal kultura erradikala jolas horren inguruan bateratzen da.

Aurreko atalaren bukaeran, aitaren etxea ritorneloak zentzu-atseginak (*jouis-sense*) aktibatzen bazituen, oraingoan kaleko nagusitasuna uka dakieken polizien kontrako konfrontazioa da atsegina (*jouissance*) pizten duena.

4.1.4. GERNIKA, 50 URTE

Gernikako bonbardaketak 50 urte bete zituenean aitaren etxearen errepika ugari agertuko ziren. Chillidak bonbardaketaren biktimen oroimenez diseinatu zuen eskulturatik abiatuko naiz, jarraian euskal nazionalismoaren baitan aitaren etxearen inguruan eman zen kontrobertsia aztertzeko. Ondoren, egun haietan aitaren etxearen gainean egindako aktualizazioak aztertuko ditu, lehen aztertutako hirugarren eragile bati ere erreparatzeko –Euskal Rock Erradikalaren ondotik sortutako mugimendua, hain zuzen ere—.

CHILLIDA, 1988

Jarraian aztertuko dudan bezala, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenean diseinatuta, 1988an Chillidak *Gure aitaren etxea* eskultura kokatu zuen Gernikako Bakearen museoaren parkean. Eskultura hormigoiz osatua dago, bi norabidetan doan horma bat osatzen du, erdialdean 45 bat graduko erpin leunduarekin. Erpin borobildu horretan horma zulatua ageri da, horma bitan banatuz gero –bata norabide batean, bestea bestean— honetan biak batean bihurtzen direla esan daiteke. Biak bat izan litezke, behealdean elkarrekin angelu borobildua osatzen dutelako eta garroak luzatzen dizkietelako elkarri, goialdean ezker eta eskuin hormetako garroek bat egiten dute, bi arku osatuz. Beheko eta goiko arkuek alderantzizko formak dituzte ixte prozesuan baleude bezala. Ezkerraldetik garro berri bat sortzen ari da, egitura berdintsuarekin: behetik gora kiribildua eta eskuinerantz luzatzen da, beste hormarekin topatu nahian. Beste aldean, alderantzizko norabidean, goitik beherantz kiribildua eta gero eskuinerantz luzatzen da. Bi hormek bat egingo dutela dirudi, elkarren artean ehuntzen diren egitura errizomatiko baten moduan (Deleuze eta Guattari 2002, 515–516). Hala ere, bien arteko tarteak leiho bat irudikatzen du, zeinetan eskulturaren barrutik bista zeharkatu daitekeen. Ezker eta eskuin hegietan, goiko aldean, horma bien jaiotza izan daitekeen egitura dago, kiribil moduko hasiera bat, egituraren sorrera balitz bezala. Izan daiteke bertatik bi hegiak jaio izana eta elkarri ehuntzean horma kurbatu baten forma hartzea. Joera simetrikoa dauka zentzu horretan, elkar ehuntzean antzerako joerak agertuko balituzke bezala. Goialdean ere bi garroen arrastoak ageri dira, arkuen bi aldeetan. Honela, erlaitzak eskulturaren indarren agortzea islatzen du: ez da gorantz gehiago haziko: arkuak beherantz begira

daude leihoari itxitura bilatu nahian eta garroen lauki zuzenak beherantz begira daude, ez dute bi garro-amen garaiera gainditzeko joerarik agertzen.

Irudia 16. Gure aitaren etxea, Eduardo Chillida, 1988



Iturria: (Chillida 2015)

Hurbiletik begiratuta, garroek elkar ehundu duten hormetan lerro zuzenak ageri dira, forma bukatu eta egonkortuak lerro zuzenen patua balute bezala, beraz laukizuzenen markak igarri daitezke azala ukituz.

Parkearen sarrera biak harriz egindako ibilbide batekin daude konektatuta eta biek zuzentzen dute obraren barrurantz. Harrizko ibilbidea obraren baitako panorama bihurtzen da, hormen arteko lurra harriz estaliz. Honela, eskultura barrutik ikus daiteke. Eta begiak leihoaren bestaldera zuzendu, bestelako arbolek estaltzen duten Gernikako arbolarentz. Bertara zuzendua egon behar zuen. Baina zergatik ez da arbola ikusten? Ezin zitekeen aurrerago kokatu panorama osotua egon zedin ala horrek, segurtasun arrazoiengatik, Juntetxeko hesia zabaltzen duten momentuan baino ez du ikusgai utziko? Leihoak eskaintzen digun ikuspegia estetika politiko baten baitan sartuta dago. Bere mugak ere baditu: arbola eta eraikin sakratu batekiko distantzia minimoa gorde beharra.

Hormen edo hormaren artean eta atzerantz, beste obra txikiago bat dago. Eskultura ezberdina izanda ere, osotasunaren barruan eskultura diskretu gisa interpreta daiteke. Burdin gorri-ugerraz dago egina, karratu formako zutabe bat da, zutik. Goiko aldean,

zutabearen aldeetatik hanka biko bi egitura altxatzen dira. Bata, zutik hazten bada ere, angelu zuzen batean okertu egiten da kanporantz, une horretan bi hankek bat egiten dute arku bat osatuz. Bestea, zutik ageri da, bestearen bertsio okertu gabea osatuz. Erdialdean, beste hanka biko arku horizontala irteten zaio azken honi.

Bestearen hazkuntza eredia errizomatikoa bazen, honako honena arboreszentea litzateke. Enbor nagusitik hazten da, bertatik adarrak ateratzen zaizkio eta adar batetik, beste adar bat. Arbola izan daiteke edo, hobeto esanda, etxearen tamainarekin alderatuta, kimu bat dela esan daiteke, handituko den arbola. Etxeak babesten du haizetik eta leihoak argi-izpiak pasatzen uzten dizkio hazten jarrai dezan. Beraz, arbolaren kimua barruan ere badago.

Goitik begira, ez da leihorik atzematen, egitura kurbatu bat da eskultura osoa, kurba baino erpina dagoela dirudi, leihoaren gainean okertuta. Beraz, goitik ikusita etxe baten teilatuaren forma hartzen du. Zentzu horretan, barruko aldea bada ikuspegi pribilegiatuarena, obra ikusten ari dena, teilatuaren baitan dago gordeta. Honela, egitura errizomatikoan ehuntzen den joera leundua teilatuaren hegien arteko egitura zorrotza bihurtu da. Kanpotik beraz, egitura zurrunezko teilatua da etxea.

Aldi berean, etxea gezia ere izan daiteke, bere erpina Gernikako arbolarentz zuzentzen duena. Indizea ere bada, Gernikako arbolaren sinbologiarekin bat, subiranotasun politikoaren gunera zuzentzen duena.

Bi alde ditu, baina denak datoz bat erdigune zabal batean, *Gure aitaren etxea* ituna ere bada. Chillidak Berlinen Alemaniako batasunean bi aldeen arteko adiskidetza islatzeko obra egin zuen, *Berlin* hain zuzen ere (Chillida 2002, «Berlin»). Honetan ere bi norabideetatik datozen zutabeen garroek topo egiten dute. Bi zutabeak bereizita badaude –izaera ezberdineko bi Alemaniak– antzekoak dira eta haien garroek elkar ukitzen dute erdialdean. Diferente baina antzekoen arteko adiskidetzea biak norabide desberdinetan bat egiten dute puntu perpendikularrean. Eskultura honen berezitasunean geratu barik, *Gure aitaren etxearekin* aldera daiteke: batetik, norabide biko aldeek bat egiten dute, adiskidetzen dira; bestetik, Gernikan egitura zurrunagoa osatu dute elkarren arteko ehuntze horretan eta bata eta bestearen arteko mugak desagertu dira –etxearen antzina–, Berlinen batasunaren hasiera baino ez denean.

Hemen ere kontraktualismo liberala isla liteke. Bien arteko ituna izan liteke *etxea* eta *koroaren* artekoa⁷⁰. Baina aldi berean bi iturburu badaude ere, garroak elkar ehuntzen dira, horiek elementu amaigabeak dira, elkar ehuntze horretan egitura zurruna osatu dutenak. Errizomatikoa izaki, garroak apenas trata litezke elementu diskretu gisa, sustraien modura hedatzen dira alde batera zein bestera. Belaunaldiak izan litezke eta garroetako irtenak norbanakoak. Nolanahi ere, horma ehunduz osatua dugu etxea.

Irudia 17. Berlin, Eduardo Chillida, 2002



Iturria: (Chillida, 2005)

Etxe bukatu gabea ere bada, oraindik ere garroak mugimenduan baitaude, elkar besarkatzen. Etxea ez da etxe itxia, izaera amaigabeko hormaz osatuta, leiho bat uzten du tartean. Etxe iragazkorra da, bere izaera ez osotuari esker.

⁷⁰ Koroaren eta euskal gizartearen itun gisa definitzen zituen Anasagastik foruak, gero karlistaden ondoko egoeran, gerra zibilean eta franksimoan barneratuko zen Euzko Alderdi Jeltzalearen 90 urteko iragana azaltzeko. *Nire aitaren etxea defendituko dut* poema errezipitatu bukatu zuen, nahiz eta poeta haien alderdikoa ez izan, bere alderdiaren historia laburbiltzen zuelako.

Etxeak arbolaren kimua ernatzen du bere baitan eta, aldi berean, Gernikako arbolaren ikuspegia errazten dizkiote bere leihoek barruan sartzen diren bisitariei. Gernikako Juntetxean ere Gernikako Arbolaren ezkurretatik ateratzen dira kimu berriak, batzuk opari gisa eskaintzen dira bidaia ofizialetan, haietako bat Gernikako Arbola bihurtuko da inoiz. Honela, Arbolaren inguruan familia oso bat ere badago. XIV. mendeko Aita Haritza izan zen inoiz, bere semearen egurra oraindik ere dago ikusgai –Haritz Zaharra— eta haren semeetako bat da egun landatutakoa. Ezkurak ernatzen badituzte ere denak omen dira maskulinoak. Edozelan ere, han familia oso bat dago Haritz nagusi baten inguruan, hura ordezteko prest. Gernikako Arbola bat bakarra da baina asko dira, aldi berean. *Gure aitaren etxeak* ere bere burdinazko haritza du barruan gordeta.

Luxio Ugarteren arabera (1996, 56–57), obra honetan *etxea, herria (País)* eta *aitaren* arteko baliokidetzak sinboliko bat garatzen da. *Etxeak*, euskal kulturako balio gorenak, familia du bere baitan, zentzu horretan, *aitaren etxearen* herrialde osoa sinbolizatzeke balio du.

Goitik ikusita, bisitaria zein burdinazko haritza, etxearen babesean dago. Hormek/ak teilatu bat osatzen dutelako goitik begira. Beraz, egitura itxia izan daiteke goitik begira, urrunekoarekiko babesa eskaintzen du, hormarik gabeko teilatu izanik. Bestetik, gezia ere bada eta herri-subiranotasunaren esparrura zuzendu arazten du begirada.

“Gure” “nire”ren ordezkari erabiltzen du. Artistak sinbolo kolektibo eta bateratua eratu nahi du “familia nazionalistaren” batasuna hain zuzen (Méndez 1995, 209).

GERNIKA, 1987

Chillidaren eskultura Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gernikako Udalak Gernikako bonbardaketan 50. urteurrenaren ganean antolatutako jardueren barruan kokatu zen. Ospakizunean kontrobertsia egon zen, *nazionalismo tradizionalaren* eta *nazionalismo erradikalaren* artean eta kontrobertsia hark bete-betean harrapatu zuen aipatutako eskultura. Lourdes Méndezek sakon jorratu du kontrobertsia hau eta zelan zenbait artelana honen erdigunean kokatu ziren (Méndez 1995).

Batetik, *nazionalismo erradikalak Gernika 1937-1987. Gernika, bakearen eta euskal herriaren eta munduko herri guztien subiranotasunaren sinboloa* izenburupean hainbat jarduera antolatu zituen. Besteak beste, Picassoren Guernica ekartzeko eta

frankismoaren artxiboetara sarbidea edukitzeko eskaera egiten zuten. Horretarako, Bakearen Museoaren inguruan kateatuko ziren.

Bestetik, *nazionalismo tradizionalak* esanguraz beteko duen obra berri bat egiteko enkargua egin zuen, *herri menderakaitz baten sinbolo* gisa. Horretarako, Chillidak *Gure aitaren etxea* egingo zuen.

Bonbardaketek 50. urte betetzen dituela, konfrontazio politikoa dago honen gainean, biek komunean dute obra bien “balio artistikoarekiko indiferentzia” (1995, 205). Hala ere, Méndezen arabera, bi taldeek hirugarren artelan bat ahaztu egingo dute, Arestiren *Nire aitaren etxea* hain zuzen ere, zentzu eta esanahien produkzio-sare baten erdigunean dagoena alegia. Poema honen baitako bi posizio nagusi haragituko dute biek ala biek. Poemaren polisemiaren bertutez, bi posizioak erreklutatze gaitasuna du. Hala ere, 60. hamarkadan Arestik etxearen existentziaren eta hura defendatu behar zelako kontzientzia zabaldu bazuen ere, 1988an Chillida eta bestelakoen aburuz, *etxe* hori egon bazegoen eta, beraz, ez zuen lehen bezala defendatu beharrik, diktadura bukatuta, Euskal herriak (*Pays basque*) baduelako bere Espainiar estatuak aitortutako autonomia propioa:

Nahiz eta bi obrek *etxearen* metafora erabili, euskal instituzio politikoei ez zaizkie 1960 eta 1970ean Arestiren poemak pizten zituen energia sinbolikoen hautaketa komeni. Aktore instituzionalek zein haien aukera politikoak besarkatzen dituzten guztiek ez dute poemaren efikazia sinbolikorik piztu nahi, haientzako «aitaren etxea» defendatzeko behar diren armak erregimen demokratiko baten barruan ez direlako diktadura frankistaren barruan erabili zitezkeen berberak. Kontrara ere, Chillidaren *Gure Aitaren Etxeak* interpretaziorako aukeraz betetako esparru semantiko batez hornitzen du, zeinak liturgiagile instituzionalak –eta Chillidak berak ere (...)– zentzu bakarrean orientatzen saiatuko duten: bakearena eta borroka armatuaren bukaerarena. Euskal herriaren mitoa, historia eta


tradizioak hartzaileei «hitz egin» nahi diete artistak bere eskulturaren inguruan ehundutako diskurtsoaren bidez. (1995, 208)⁷¹

Beraz, bi nazionalismo moduek partekatzen dute *Nire aitaren etxea* espazio sinboliko gisa. Zentzu honetan, batzuk berrinterpretazioa *ex novo* produzitzeko interesa dute, eta beraz, Chillidari eskatzen diote energia sinboliko berriak bideratzeko eskultura egin dezan. Besteek, ordea, 1960-1970. urteetako edo oraindik luzeagoko egoeraren *histeresia* pairatzen dutela esan daiteke eta *Nire aitaren etxea* zentzu literalean defendatuko lukete, gerra zibilean zehar pintatu zen *Guernica* koadroa ekartzea ere eskatuz. Hala ere, azken hau ez da interpretazio zaharretan agortzen, testuinguru berrira ekartzen dute artelana: gerra zibileko –eta ziur aski, Bigarren Mundu Gerrako– sarraskien sinbolo zen koadroa Gernikara ekartzeko aldarrikatuta –*Guernica Gernikara* lelo mamitsua—, haren jabegoa duen Madrilgo gobernuarekin talka egitera darama eta hortik gerra zibileko biktima eta borroeroen nazio-diferentzien inguruan lerratu eta frankismoaren jarraipenaren inguruko eztabaida piztu egiten du. Esan behar da, *Guernicaren* Euskal Herriratzea aldarrikatzea ez zela izan *nazionalismo erradikalarena* soilik, *nazionalismo tradizionalak* honakoa ere eskatu zuen askotan, batik bat Guggenheimenen erakutsita inbertsioa berreskuratuko zukeen amu gisa (Zulaika 1997, 257–261). Hala ere, bietan artelanaren interpretazio diferente samarrak ageri dira, hantustek biak: nazioarteko giza eskubideen urraketa zirkuituko geraleku gisa –Auschwitz, Robben Island– edo nazioarteko museoetako artelanen zirkuituko geraleku gisa –Louvre, MOMA—.

⁷¹ “Malgré le fait que les deux oeuvres font leur la métaphore de *l’etxe*, les énergies symboliques que le poème d’Aresti suscite dans les années 1960 et 1970 ne conviennent plus aux choix politiques des institutions basques. Les acteurs institutionnels et tous ceux qui épousent leurs choix politiques ne veulent pas de l’efficacité symbolique du poème car pour eux les armes qu’il faut utiliser pour défendre «la maison du père» sous un régime démocratique ne sont pas les mêmes que celles que l’on pouvait employer sous la dictadura franquiste. Par contre, le *Gure Aitaren Etxea* de Chillida leur fournit un champ sémantique chargé de possibilités d’interprétation que les officiants institutionnels –et Chillida (...)– vont essayer d’orienter dans un seul sens: celui de la paix et de l’abandon de la lutte armée. Le mythe, l’histoire et la tradition du peuple basque vont «parler» aux récepteurs à travers le discours que l’artiste tisse autour de sa sculpture.”

Gure aitaren etxearen gaineko norgehiagoka sinbolikoa, baina, ez da honekin agortuko. Eusko Legebiltzarrak ETaren kontra eta bakearen alde deituko zuen manifestazioan 1989ko martxoaren 18an *Bakearen alde orain eta beti lelopean*, Chillidak bere eskulturako bozetoetako bat lagako zuen deialdiaren logo gisa. Gogoan eduki ditzagun Chillidak berak instituzio berrietarako eta mugimendu sozialetarako egin zituen logotipo andana: Euskal Herriko Unibertsitatearena, Gestoras Pro-Amnistiena, e.a. Honakoa beste bat, bakearen alde eta ETaren kontra lerratzen dena (Ugarte 1996, 122).

Ezker abertzaletik ikono honi GAL, dispertsioa eta, orokorrean, errepresioaren ikonoak kontrajarriko zitzaizkion (1995, 210).



Iturria: (Méndez 1995)

Méndezen interpretazioren arabera, *Nire aitaren etxea* poema isildua izan den espazio sinbolikoa partekatua izan bada, kasu honetan *etxea* mehatxatzen duten *otsoak* sartzen dituzte markoan. Bozetoa estaltzen duen orria eta aldi berean *Nire aitaren etxearen* espazioa desagertzeaz murrizten duen mehatxua da.

Manifestazioa abiatzen denean, bozetoa izango da bere atzean lagunak lerratuko dituena. Kasu honetan, bi dimentsioetako *Gure aitaren etxea* manifestazioan dabilenak izango dira, ordezkari instituzionalak buru, horma mugikorra eramango dute Bilboko kaleetatik.

Ohar hauen ostean 1987ko apirileko gertaeretara bueltatu gintezke, bonbardaketaren urteurrenaren inguruan antolatutako jarduera. Ospakizun hauei dagokionez, Batzorde Ofiziala eta Herri-Batzordea bereiztuko ditut, beste terminoen faltan hauxe delako elkarri errekonozitzeko erabiltzen dituzten kategoriak –*nazionalismo tradizional* eta *erradikalaren* bereizketa analogoa litzateke–. Espazioa eta denbora partekatzen dituzte bi batzordeen ospakizunek. Gainera, beste hainbat gertaerekin bat egingo zuten ospakizunek, bertan *aitaren etxearen* aktualizazioak aztertzeko aukera emanez:

- Korrika 5. Hendaiatik irtengo zen 12an, igandean, Bilbora heltzeko.
- Aste Santu eta oporrak, 13tik 17ra, Herri-Batzordeak antolatutako kontzertuekin bat egiten dute, igandeko Aberri Egunean bukaera emanez.
- Aberri eguna, apirilaren 19an. Herri-Batzordeak ere parte hartu zuen, bestelako elkarteekin batera Herri Batasunak ere bertan ospatuko zuen Aberri Eguna.
- Bonbardaketaren urteurrena, apirilaren 26an. Aste horretan zehar bi batzordeek hamaika jarduera antolatu zituzten –Herri-Batzordeak denak Gernikan egingo zituen, Batzorde Ofizialak Bilboko Erakustazokan ere jarduera batzuk egin zituen bitartean.

AGIRREBALTZATEGI, 1987

Aktualizazioen artean, kronologikoki lehena Paulo Agirrebaltzategik *Eginen* idatzitako *Gernikaren errima* iritzi-artikulua da, bertan Korrika 5.aren igaroaldia bonbardaketaren urteurrenarekin uztartzen zuen, horretarako aitaren etxearen tropoa erabilgarria suertatuko zitzaion:

1937ko apirilaren 26 hartan erautsi zituzten goitik behera bonbez Gernikako etxeak: Euskal Herriaren hiri sakratua... Gure aitaren etxea! Ez zuten, ordea, arbola sakratua lurreratzerik izan: Euskararen eta euskal kulturaren arbola... «Eman ta zabal zazu munduan frutua».
(Agirrebaltzategi 1987)

Jarraian bi irudi kontrajarriko zituen: batetik, arbola, euskara, eta bestetik, aitaren etxea. Arbolaren metaforari eutsiz, nahiz eta frankismoak sustraietatik erauzten saiatu,

zutik iraun zuen arbolak, ahulduta bazen ere bizirik iraun zuen. Horri esker, arbolaren sustrai eta itzalak mantendu zuen zutik aitaren etxea:

Gernika da Euskal Herriaren berreraikuntzaren sinboloa: Gure aitaren etxearena. Baina ez dago euskal etxea berreraikitzerik euskal arbola sendotu gabe. Arbolaren sustraia, berriz, euskara da. Ez dago Herria berreraikitzerik hizkuntza berreskuratu gabe. (Agirrebaltzategi 1987)

Arbolari esker, beraz, mantendu zen zutik aitaren etxea. Nahiz eta arbola euskara eta euskal kultura dela adierazi, ez du guztiz argitzen aitaren etxeak zer ordezkaten ote duen. Esanahi ezberdinekin erabiltzen du, aitaren etxea askatu beharreko x bat balitz honako balio hauek hartu ahalko lituzke: Gernikako juntetxea, arbolak bizigaia eta itzala eskaintzen dion hori, “herria”, Gernikako hiria, e.a. Beraz, euskal arbolak aitaren etxea zutik iraunarazten badu ere, ezin dugu aitaren etxea ordezka litzakeen elementu guztiak bere gain har ditzakeen beste metaforarik topatu.

Beraz, “aitaren etxea” ez bada beste modu batean definitzen ez den objektu bat da aitaren etxea, hori bai, euskara edo euskal kultura arbolaren menpekoa da. Aitaren etxea ritornelo diferenteak jantzi ditzakeen *aitzindari iluna* litzateke, hau da, errepiketan agertu izanagatik desenmaskaratu ezin litezkeen elementu heterogeneo edota informeak (Deleuze 1968, 429–430; Zizek 2006, 101–103). Ez du den hori azaltzen, ez da biluzten, edo beste era batera esanda, ez du adierazten duen osotasun hori irudikatzeko bestelako biderik topatzen. Haren izaera ezkutua, haren jantzia, da balio sinbolikoa eskaintzen dioena: *aitaren etxea* da datxezkion hitzak edo bestelako hitz posible gehien mobiliza litzakeena, kualitatibo zein kuantitatiboki. Maila kualitatiboan, ezkututzen duen jantzia den neurrian, irudikaezina den objektu ezkutuari erreferentzia egiten diolako eta, beraz, hare desiragarriagoa den objektu bati. Maila kuantitatiboan, formulazio itxiak sortzeari uko egitean, afektu anitzagoak piztu ditzakeelako. Gainera, aitaren etxea ordeztzen duen objektu ezkutu edo jantzia beste objektu baten menpeko bihurtzean –arbola, euskara—intriga berria sortzen du: objektu nagusia konkistatuz gero objektu menpekoa era biluzian ikustekoa. Hurrengo atalerako esanguratsua izango den formulazio bat ere agertuko du norabide horretan:

Esan beharra dago argi eta garbi egun hauetan: Ez dago «aitaren etxea» defenditzerik, «amaren hizkuntza» zaindu gabe. Ez dago Gernikako hiririk, Gernikako arbolarik gabe. (Agirrebaltzategi 1987)

Organikoa eta inorganikoa, defentsa eta zaintza, maskulinoa eta femeninoa, aitaren etxea eta amaren hizkuntza. Honela, aitaren etxearenganako atxikimendua amaren hizkuntzarekiko bihurtu nahi du. Dimentsio pragmatiko batek mugimendu hori errazten du, hizkuntzari izaera konkrituagoa eman dakioken neurrian. Defentsa baino euskarari zaintza dagokio, honela aitaren etxearen antagonista –Bestea—euskararen antagonista bilakatu lezake. Baina bestelako mandatuak da, defentsaren mandatuak beti eskatzen du Bestearekiko mobilizatzea, zaintzaren mandatuan Besteak lausotzeko joera nabarmenagoa mantenduko duen bitartean.

ZARAKONDEGUY, 1987

Aste bete ondoren, *Deia* egunkarian argitaratutako zutabearen, *Gernikatik Gernikara* sekzioan *Aitaren etxea* izenburuarekin sinatuko zuen Zarakondeguyk euskaraz, idatziaren zati handiena gaztelaniaz idatzita bazegoen ere. Apirilaren 24a zekarren gogora, honekin bukatuz –etzanean jatorriz gaztelaniaz zegoena–:

Aita, zer egin duzu? Ezintasunaren aurrean negarra. Gurdiak aurrera egiten zuen ezezagunerantz. Atzean geratzen zen aitaren etxea. Orain ez du nork defendatu. Esku biluziek ez dute ezertarako balio arma intolerantearen aldean. Makina begalariei sua intsuflatzen die heriotzaren Jainkoak. Umeak ez du ezer ulertzen. Eta amets egiten du.

Nire aitaren etxea defendituko dut. (Zarakondeguy 1987)⁷²

Egun hartako hainbat irudi dakartza gogora. Bonbardaketan aitak ihes egiten du gurdian, etxea, aitaren etxea, atzean utzita. Umeak ez daki nora, baina badoaz, ezin diote egoerari aurre egin eta, poeman ez bezala, indargabeak dira “intolerantearen armaren aldean”, bonbardaketen aldean. Inoiz bueltatuko da aitaren etxea eta defendituko du, amesten du umeak. Testuan ez da urterik ageri, egunkari baten gisan hasten da, “Apirilak 24”. Baina bonbardaketaren urteurrena 26an izango zen, gerra zibileko gertaera berberak gogoan dituela badirudi ere. Egun horretan bertan, 1987an, hegazkinek loreak bonbardatu zituzten Gernikaren gainetik (Deia 1987a). Noski,

⁷² “Aita, zer egin duzu? Llanto frente a la impotencia. El carro avanza hacia lo desconocido. Atrás queda la casa del padre. Ya no hay quien la defiende. De nada valen las manos desnudas frente al arma intolerante. El Dios de la muerte insufla fuego a las máquinas voladoras. El niño no entiende nada. Y sueña. Nire aitaren etxe defendituko dut.”

kontrako sinboloak dira bonbak eta loreak, gerrari dagokionez. Baina bonbardaketaren urteurrena ospatzeko modu horrek eszenifikatu egiten den aspektu traumatiko bat adierazten du.

Batetik, sinbolizatzeko zailtasunak direla eta, trauma errepikan bizi da. Artikulatzeko zailtasunagatik, memoriak kale egiten du iragan eta orainaren arteko trantsizioa egiterakoan, traumaren afektuak orainera ekarriz. Bestetik, ekintza honen bitartez biktimek sufritu bide zuten sarraskia distantzia seguruan performatu egiten da. Batean zein bestean, egoera traumatikoaren kausa agertu edo eragiten da, baina bere izaera ez kaltegarria adieraziz: loreak dira ez bonbak zerutik erortzen direnak. Dataren errepika urtearen bariazioarekin gertaeraren errepika kontrolatuaren analogoa da. Egun eta aste hartan bonbardaketa, era batean zein bestean, eszenifikatu zuten jarduerak egin ziren: *Gernika* opera, *Gernika 37-87* antzerkia eta loreen bonbardaketa dira adierazpenik argienak. Zarakondeguyren testuan memoria –fikziozkoa izan ala ez– eta sentimenduak nahastuta ageri dira, traumari dagokion bezala.

RIBERO, 1988

Hilabete batzuk aurrerago, komiki batek poema ekarriko zuen gogora berriro ere. Nahiz eta hurrengo urtean publikatua izan, pentsa liteke 1987ko apiril horrek bere eragina eduki zuela. Euskalduntze eta alfabetatzea errazteko sortutako *Habe Komik* aldizkarian agertu zen (Guereñu 2009), komikiek testua eta irudia nahasteko duten gaitasunagatik erabilgarria suertatu behar zuen ikasteko. 1988ko 31. zenbakian, Riberok *Nire aitaren etxea defendituko dut* (1988) poemako bertsoei binetak irudikatuko zizkien. Izenburuak lehen bertsoarekin bat egiten du eta handik aurrera, fusildun gudariak aurkeztuko dira aitaren etxea defendatuko duten subjektu gisa. Bonbardaketa bat ere tartekatzen da, “aitaren etxea defendituko dut”, emakume batek umetxoa besoetan daraman bitartean, babes bila. Babesa bonbardatua izan zen merkatu-plazako arkua izan liteke. Irudiak defentsaren eta sakrifizioaren hierarkia bat osatzen du: hegazkinak atzeko aldean ageri diren bitartean, emakumeak (ama) umea darama bere aurretik eta gudari bat hegazkinen eta emakumearen artean geratuko da. Jarraian datorrena gerra kontakizuna izan daiteke, guztiak dira fusilak daramatzaten gizonetako gudariak borrokan eroriz doazenak. Ritorneloarekin bukatuko du poemak, “baina nire aitaren etxeak / iraunen du / zutik”, eroritako gorpuetako bat. Ondoren, Gernikako Juntetxeetako irudia. Testu barik, Arbola eta Juntetxeak zutik irauten dute.

Jarraian eta trantsizio barik, Lauaxetaren *Azken oyua* poema, gerra hartako beste kapitulu baten berri emanez, zeinetan poeta, euzko gudarosteko ofiziala, fusilatua izan zen. Poema horrek bere azken unea kontatuko zuen.

CHILLIDA, 1987

Hirugarren kasua lehen aztertutako Chillidaren eskultura berari dagokio, baina oraingoan eskultura osoa eraiki aurretik urteurreneko programaren baitan erakusgai egon zen maketaren inguruko jardueri. Ohizko erritualaren bitartez, izara baten azpian zegoen maketa desestaliko zuten, hilabete batzuren ondoren kokatuko zen eskulturaren atariko. Honela mintzatu zitzaizen Chillida kazetariari:

Aitaren etxea izan nahi du. Munduan gure tokia den espazio hori adierazi, arbola herriarekiko. Zeozer du etxeaz eta itsasontziaz, haritzera aurrera egiten duen branka baten moduan. Absidearen ardatza, bitakora kokatuta egongo litzatekeen tokian, bake, askatasun, tolerantzia proposamena dago. (Eduardo Chillida in Garbati 1987)⁷³

Beraz, aitaren etxea itsasontzi ere izan daiteke, arbolari zuzentzen den neurrian. Oraingoan ere, aitaren etxearen noranzkoak arbolera heltzeko bitartekari bihurtzen du, beraz honen menpeko.

LERTXUNDI, 1987

Aitaren etxea errepikatzen ez badu ere, kasu honetan bere predikatua ekarri zuen Miguel Angel Lertxundi eskultoreak, urteurren bera ospatzeko eskultura Gernikako Udalarari eskaini zionean. *Zutik dirau etxeak* (Deia 1987c) izena emango zion, poemaren bukaera profetikoaren materializazioa egiaztatuz: “baina nire aitaren etxeak / irauen du / zutik”, iraganeko etorkizuna orainaldi bihurtzen du. Batetik, Arestiren poema iraganean kokatzearen ariketa logikoa behar du. Bestetik, aitaren etxean enfasia ipini ordez, aita desplazatu eta etxearen ekintzan bertan ipintzen du enfasia, zutik dirauela alegia. Are gehiago, subjektua perpausaren bukaeran ipintzean, ekintza bera

⁷³ “Quiere ser la casa del padre. Expresar ese espacio que es nuestro sitio en el mundo, el árbol en relación con el país. Tiene algo de casa y de barco, como una proa que avanza hacia el roble. Y en el eje del ábside, donde estaría colocada la bitácora, una propuesta de paz, de libertad, de tolerancia.”

azpimarratu egiten du, honela predikatua da indartua ageri dena. Azken batean, bere asmoa bonbardaketaren aspektu positiboa agerian jartzea zela esango zuen, hau da, euskaldunen iraunkortasuna eta garaipena (1987c).

Proposamena Udalak balora zezan aurkeztua izan zen, baina ez dirudi onartua izan zenik, ez baitut obraren bestelako erreferentziarik topatu.

KORTATU, 1987

Egun horietan *Kortatu* taldeak Amnistiaren Aldeko Batzordeei sostengua emateko singlea aurkeztu zuen, *Gernika 37-87* (Kortatu 1987). Bertan, izen bereko kantua atera zuten Herri-Batzordearen leloa bere eginez – *Gernika, bakearen eta euskal herriaren eta munduko herri guztien subiranotasunaren sinboloa*. Gernikako bonbardaketatik abiatuta, herrien subiranotasuna urratu duten gerra eta sarraskiei egiten die erreferentzia –Palestina, Soweto, bonba atomikoa... Jarraian ekingo zion berriro Gernikako orainaldiko egoerari:

Gernika errea, bonbaketatua / haritz zaharrak zutik dirau, / nahiz eta
usteltzen egon / gaur, paktu faltsuen ikusle / Gernika, gure buruan!
(1987)

Oraingoan ez da etxea zutik dirauena, arbola baizik. Bonbardaketatik bizirik atera zen arbola da zutik dirauena eta, hala ere, usteltze bidean dago –espektakulu politikoa ez duelako gustuko, Chillidaren eskulturako leihotik ikus daitekeena ote da, nolabait, traizionatua izan dena?

AITAREN ETXEAREN IRAKURKETA SINTOMATIKOAK: PUNKIEN ITZULERA

Aktualizazioak aztertu ostean, hauek inguratu zituzten gertakaerei erreferentzia egingo diet. Gernikan bi aldeen arteko gatazka argia egon zen, aitaren etxearen irakurketa sintomatikoak azaleratzen zirenean. Gatazka honetan parte hartu zuten eragile nagusiak, itxituraren bat ematearren, Gernikako Udala, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, punkiak, Gernikako auzotarrak, Alkatea, jeltzaleak, ertzainak, e.a. dira. Gatazka horietan Batzorde Ofiziala eta Herri-Batzordea aurrez aurre kokatuko baziren ere, komenigarria da bi gatazka-gune bereiztea, biak gatazka beraren adierazpide huts gisa kokatu ordez. Nolabait izendatzearen, batetik Gernikako Juntetxean suertatukoa dugu eta bestea Gernikako kaleetan zehar emandakoa.

Lourdes Méndezen analitik ondo uler daiteke Gernikako Juntetxean suertatuko gatazka. Bi gertaeretik abiatuko naiz. Batetik, urteurrenaren bezperan, Herri-Batzordeak anaitasun-ekintza bat egin nahi izan zuen euskal eta alemaniar herriaren artean, Arbola Zaharraren inguruan. Baina jarduera bertan behera utzi behar izan zuten, honako irakurketa hau eginez:

Eman zaigun azalpena sinbolo hori [Gernikako Arbola] erakundeek soilik erabiltzekoa dela eta atera dugun ondorioa berandu hel gintezen itxi zizkigutela atearik, nahiz eta publikoari zabalik zegoen ordutegiaren baitan izan. (Deia 1987b)⁷⁴

Hurrengo egunean, urteurren egunean alegia, Amnistiaren Aldeko Batzordeak Juntetxeetara bertaratu ziren –berriro– barrutia inguratuz, amnistia aldarrikatu zuten, ordezkari instituzionalei –Lehendakaria, Ahaldu Nagusia, Alkatea eta hainbat gonbidaturi– sarbidea oztopatuz. Une horretan istiluak sortu ziren, sarbidea oztopatzen zituztenen eta EGIko kideen zein ertzainen artean. Euskal Kultura Erradikaletik aitaren etxeari egotzen zitzaion bertua egotziko zieten hauek barruti sakratuari, espazio itxia dela, espektakulu instituzionalera mugatua.

Hala ere, Euskal Rock Erradikalaren atalean aztertutakoa gehiago gerturatuko litzateke Gernikako kaleetan zehar gertatutakoekin. Aberri Egunaren aurreko egunetan, Aste Santuko oporrekin batera, musika-jaialdia antolatu zuen Herri-Batzordeak Gernikan. Larunbat hartan, *Deia* egunkariak gizarte sekzioari honako titular honekin emango zion hasiera: “Gernika / Gazte-uholde batek istiluak sortzen ditu hiribilduan”⁷⁵ (Muro eta Zabalgogeaskoa 1987), Alkatearen adierazpenak eta bi argazkiekin batera. *Punki* kategoriaz sozialarekin bat lezozken gazte talde bat ageri ziren goiko argazkian, kresta, kandadu eta larruzko jakekin. Behean, kanpain dendaz jositako zelaia. Prentsaurrekoan Alkateak Herri-Batzordeari leporatzen zion gertatutakoaren erantzukizuna, gertaerak honela kalifikatuz:

⁷⁴ “La explicación que se nos ha dado es que ese símbolo sólo puede ser utilizado por las instituciones y la conclusión que hemos sacado es que cerraron las puertas precisamente para que llegáramos tarde, pese a ser horas de apertura al público.”

⁷⁵ “Gernika / Una avalancha de jóvenes provoca incidentes en la villa”

... guri gustatzen zaigun moduko Ostegun Santu eta Ostiral Santuak nahi zituen Gernikako Udalak, ez genuen 'rockik' nahi egun hauetarako, gurekin bat ez datorrelako, eta are gutxiago, jente honek antolatu duen ezorduetan. (Muro eta Zabalgogeaskoa 1987; Egin 1987a)⁷⁶



Iturria: (Muro eta Zabalgogeaskoa 1987)

Are gehiago, Alkateak Herri-Batzordeari “Gernikako herriaren gogoia suntsitzeko” borondatea leporatzen zion, “arlotan guztietan, auzokoen gogoan, herriaren ordenean”, poliziaren esku-hartzea behartzeko asmoarekin. Lapurretak, zikinkeria, “bandalismoa” izan ziren orduan gertatutakoak. Herri-Batzordeari egozten zitzaion desira bat dator Rock Erradikalaren atalean aztertutako jolas libidoarekin (ikus 4.1.3. Punk desafioa: aitaren etxetikan alde egin, hil ezazu aita, 248-258. orr.).

Herri-Batzordeak, ordea, gertatutakoak Udalaren parte hartze eskasaren zein garbiketa zerbitzuen grebaren ondorio izan zela esango zuen. Bi egun ondoren, profetia bete egingo zen eta polizia Gernikan sartuko zen, berriro ere “istiluak” (IC 1987). Honakoa

⁷⁶ “...el Ayuntamiento de Gernika quería un Jueves Santo y un Viernes Santo como a nosotros nos gusta, no queríamos ‘rock’ para estos días porque no nos va, y además, a las horas tan intempestivas como esta gente lo ha organizado.

hedabideetan agertu zen, baina bada Gernikan zeuden auzoko zein bisitariei eragin zien beste dimentsio bat ere. Irakurketa punkagoa egitea komeni da honen berri izateko, politikak sozialarekiko duen menpekotasuna gaindituz, gertaerak era politiko hutsean kodifikatzeak bestelako afera eta gatazkak ezkutatzeko joera duelako. Kodifikazio horretan, Batzorde Ofiziala zein Herri-Batzordea eroso mugitzen ziren.

Alkateak bere kezka nagusia Ostegun eta Ostiral Santuetan rock jaialdia antolatzea bazen, bereziki goizaldera arte luzatzen zen neurrian, hurrengo egunean aurreikusitako ezbeharrak konfirmatuko zen, “gazte-uholdeak” ekarritako “zikinkeria”, “bandalismoa” eta “lapurreak” azaleratuko ziren.

Auzotar batek antzeko kezka zuen eta *Egin* egunkariari Zuzendariari Gutuna helarazi zion istiluei emandako informazio tratuaz kezu, *Progresismoa ala probokazioa?* (Elorza 1987) izenburupean. Bertan, probokazioa Ertzaintzari leporatzen zion titularra salatzen zuen (Egin 1987c), biolentzia “punkia” eta “automarginatuen” eskutik aspaldi hasi zela argudiatuz:

Biolentzia ez delako soilik fisikoa den horretan ulertu behar, morala ere izan daitekeelako, eta hauxe da gustu onari eta sentsibilitateari erasotzen diona, euskaldunok herri zibilizatu gisa dugun horri, langile apalenetik hasita enplegatu administratiboraino, gazte kezkatu eta iraultzailetik jubilatuko eta errentadunera, ekitaldi horietan orotarikoak egon ziren, eta gainerako guztiek ikusi bezala onartutako eta progresismoaren etiketa faltsua mantentzearen ezkutuan defendatutako barrabaskeri andanak, maiz, gure sentimenturik pertsonalenak gainezka eginda eta erasotuak izan ziren. (Elorza 1987)⁷⁷

⁷⁷ “Porque por violencia debe entenderse no sólo la física sino también la moral y ésta es la que ataca el buen gusto y la sensibilidad que se supone tenemos los vascos como pueblo civilizado, desde el más humilde trabajador hasta el empleado administrativo, desde el joven inquieto y revolucionario hasta el jubilado o el rentista, que de todo hubo en aquellos actos, y que como todos los demás vimos, a veces, desbordados y atacados en nuestros más íntimos sentimientos personales por una serie de gamberradas toleradas y hasta soterradamente defendidas por mantener una falsa etiqueta de progresismo.”

Garai honetako punkien inguruko gizarte-eraikuntza ulertzeko, nahikoa da Bilboko Udalak 1985an Aste Nagusian eman zien trataerari erreparatzea (*Detencion Punks Bilbao Aste Nagusia 1985* 2013), zeinak higiene eta osasun publikoko problema gisa tratatzen zituen. Gutuneko egile honek topika hau erreproduzitu baino ez du egiten, ez soilik punkiei dagokionez, baita jarrera punkia leporatzen dien “punkiak ez diren” horiei ere, hauek kalifikatzeko kategoria sozial egokirik topatzen ez badu ere. Honela, “punk espeziearen” zikinkeria eta ugerra salatzen ditu, baita “kalean bertan galtzak askatzeko duten ohitura sustraitua” eta halako talde bat hondartzan biluzik topatu izana ere, bera familiarekin zegoen bitartean.

Aurreko atalean, *Zaramaren* Rock Erradikalak “kaleak hartu”, “moralak subertitu” eta “zarata atara” aldarrikatzen zuela gaineratu dut eta, azken batean, hauexek dira Alkateari zein auzotar honi gogaikarriak suertatu zaizkienak. Zer da, bada, kalean txiz egitea ez bada etxean egin beharko litzatekeen hori ez dagokion lekuan egitea? Honakoa bota ziezaikeen gutunaren egileak. Berrito ere, kalea da Euskal Rock Erradikalaren tropo nagusia. Edo, agian, lehengo Azagraren irudia ekarrita, gaztetxea da gazteen etxea –“gaztetxea, gure etxea”—, kalearen tropoarekin bat egiten duen espazioa etxe bihurtua.

Gernikako auzotarrak Ramón Zallok aurreko astean argitaratu zuen kolaborazioa ere salatzen zuen, azken honek punkiak egiten zuten horri kultura-estatutua ematen baitzion. Zallok, Gernikako auzotar gisa –LKiko buruzagi ere bazen– honela erantzuten zion gutunari:

Gernika ez da berriro izango Gernika 87ren aurretik zen modukoa. Gernikako gizartea bitan banandu da: iraganeko mito eta tradizioetan ainguratutako Gernika eta kultura-forma ezberdinekin topatzeko zabalik dagoen Gernika. Batzuk inbasioaren kontra oldartzen dira, sinboloen manipulazioaren kontra, Aste Santuaren profanazioaren kontra, gure hildakoen errespeturik gabeko oroitzapenaren kontra. Autoritateek pentsaera hori islatu dute ulertezintasun, zabor eta antolaketa-ostopoa altxatuz. (.../...) Beste Gerniak ongi etorria eman dio gertaerari (...) Gernika zabalak ulertu du arbolak ez dituela gure asaben askatasunak, eskubide historikoak soilik babesten, baizik eta gure autosuntsiketa nuklearraren kontrako oihua ere babesten duela, berriari ongi etorria,

botererik gabekoen matxinada, utopia herri eta bizitza proiektu gisa.
(Zallo 1987)⁷⁸

Bi Gernika horietan, auzotarren banaketa Batzordeen banaketaren analogoa litzateke. Kultura zabala eta itxia bereizten ditu, aitaren etxearena –“asaben askatasunak”, “iraganeko mito eta tradizioak”— eta kalearena. Dikotomia hau bi Batzordeek eta haien inguruan zeuden erakunde eta alderdiek indartua izan zen: batek ordena sortutako anabasari kontrajarriko zion, besteak herritarra ofizialari. Norabide berean doa Herri-Batzordeak ospakizunen gainean egindako irakurketa:

Mundu guztiak ikusi eta konparatu ahal izan du Gernikako 50. urteurrena ospatzeko bi moduen arteko alde handia. Ofizialak, gortearena eta Lehendakariarena, harrera ofizialen Gernika, meza nagusia autoritateekin, opera eta etiketa, Madrileko hiri-martirien kongresu baten atariko. Herritarra oso bestelakoa izan da. Gernika eta bonbardaketaren 50. urteurrena milaka eta milaka pertsonen topagune bihurtu dugu, munduko mugimendu progresistekin loturak sendotu ditugu, herritarren batasuna indartu dugu. Horixe izan da Gernika, Euskal Herri bizi eta egungoaren sinboloa, bakearen eta subiranotasunaren aldeko manifestazioa. (Egin 1987b)⁷⁹

⁷⁸ “Gernika no será lo que era antes del Gernika 87. La sociedad guerniquesa se ha dividido entre un Gernika anclado en los mitos del pasado y la tradición, y un Gernika abierto al encuentro de distintas formas de cultura. Unos claman contra la invasión, la manipulación de los símbolos, la profanación de la Semana Santa, la irrespetuosa conmemoración de nuestros muertos. Las autoridades han reflejado esa mentalidad levantando barricadas de incompreensión, basura y obstáculos organizativos. (.../...) El otro Gernika ha saludado el acontecimiento (...) El Gernika abierto ha entendido que el árbol no sólo cobija nuestras ancestrales libertades, los derechos históricos, sino también nuestro grito contra la autodestrucción nuclear, la bienvenida a lo nuevo, la rebelión de los sin poder, la utopía como proyecto vital y popular.

⁷⁹ “Todo el mundo ha podido ver y comparar estos días la gran diferencia existente entre las dos formas de conmemorar el 50 aniversario de Gernika. La oficial, la de la corte y el Lehendakari ha mostrado una Gernika de recepciones, misa mayor con autoridades, ópera y etiqueta, preludio de un congreso de ciudades mártires en Madrid. La popular ha sido otra

Dikotomia honen bitartez, energia sinbolikoak lubakietako aldeetako batera mobilizatzea lortzen da. Baina oker nengoke aitaren etxearen defentsa aldeetako batekin identifikatuko banu. *Eginen* bereziki agertu izan dira bi Gernika hauen gaineko adierazpenak, zeinetan adierazpen errealaren eta itxurazkoaren artean bereizteko joera egon den:

Bizitzak kalea menderatzen zuen, leherkorra eta desafiatzailea, barruan arbola bat itotzen zen bitartean, etiketa jantzien protokoloak estutua, enkarguko lore-zortak, ordenantzen zirkuluen koadraturak neurtutako pausuak, askatasunen sehaska kaleko haizeekiko babesgune antiereo xume bihurtua, eztrandetan loratu egiten den porlanezko kalea, pozoindutako botere faltsu baten bakardadean haritza usteltzen ari den bitartean. (Abiraneta 1987)⁸⁰

1987ko apiril hartan aitaren etxearen ritorneloa horren errepikakorra izan bazen, testuinguru horretan afektuak erreklutatzeke gaitasuna zuelako da, edo txanponaren beste aldetik: afektuen sintoma gisa ageri den formazio linguistikoa delako.

Aitaren etxea interpelazio baten abiapuntu gisa kokatzen bagenuen, energia sinboliko horiek norabide batean ala bestean mobilizatzeak bariazio batzuk eragingo zituen. 1) Bonbardaketaren urteurrenean, aitaren etxea iragan eta orainaldiaren arteko bitartekari gisa ageri da. Bere seme-alabak bere altzoan biltzen dituen etxe gisa, subjektu gisa. 2) Bonbardaketa Korrikarekin lotuz gero, aitaren etxea amaren arbolak posible egiten duen desio objektua litzateke. Aitaren etxeak defentsa eta sakrifizioa

cosa muy diferente. Hemos convertido Gernika y el 50 aniversario del bombardeo, en un punto de encuentro de miles y miles de personas, hemos fortalecido los lazos con todos los movimientos progresistas del mundo, hemos reforzado la unidad popular. Gernika ha sido eso, un símbolo vivo y actual de Euskal Herria, una manifestación por la paz y la soberanía.”

⁸⁰ “La vida avasallaba en la calle, explosiva y retadora, mientras dentro, un árbol se ahogaba, abrumado por el protocolo de unos trajes de etiqueta, de unos ramos de flores de encargo, de unos pasos medidos por la cuadratura del círculo de ordenanzas, para convertir la cuna de las libertades en un simple refugio antiaéreo de los vientos de la calle, una calle cuyo cemento florece en estallidos mientras el roble se pudre en la soledad de un falso poder envenenado.”

eskatzen bazituen, amaren etxeak zaintza eskatzen du, mendeko perpausa. 3) “Iraunen du zutik” iragan mitikoaren eraginkortasuna performatu egiten du predikatuaren bitartez. 4) Aitaren etxetik aldeetikoa, kalearen inguruan kronotopia berri bat eraikitzeke asmoz.

4.1.5. AMAREN SUA

Aitaren etxea bake eta estatutu bidean interpretatzeko joera bazegoen ere, testuaren literaltasunak eta jatorrian datxekion diktadura testuinguruak eredu sakrifiziala ekartzen jarraitzen du. *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren ondotik euskalgintzan eredu horri lotuta jarraitzen zuen estrategia politikoari aurre egin nahian, lokuzioari bariazioak egingo zizkien zenbaitek.

AMAREN SUA VS. AITAREN ETXEA, 2003

2003ko otsailaren 20an, Auzitegi Nazionalaren aginduz, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zen eta bertako hainbat arduradun atxilotu zituzten, ETArekin lotura zutelakoan. Operazio berean, *Ikastolen Elkarte*, *Argia* astekaria eta *Jakin* aldizkariarekin lotura zuten dokumentazioa arakatu zituzten. Euskal Herriaren sektore zabal batean eta, bereziki, euskalgintzaren inguruan zihardutenen artean, euskarari egindako eraso gisa ulertu zen operazioa. Ez da harritzekoa, kontutan hartuta *Egunkariak* eta *Argia* aldizkariak euskarazko kazetaritza esparru ahuleko produkzio eta erreprodukzio gune nagusiak zirela.

Itxieraren egunean bertan, mobilizazio ugari egon ziren Euskal Herriko herrietan. Euskarekiko eraso gisa ulertu zen, diktadura garaiko aurrekariak gogora ekartzen zituena. Ez zen harritzekoa *Nire aitaren etxearen* eguneraketa berriro ere zirkulazioan jartzea, amorru edota, Juaristiren irakurketarekin bat, melankolia-sentimenduen erantzun gisa: *aitaren etxea* armaz defendatu beharra zegoen, Espainia mehatxu izaten jarraitzen zuen eta.

Tarte horretan, ordea, bestelako irakurketa zabaldu zen eta Jon Sarasuak *amaren sua* defendatu beharraz hitz egin zuen: Martin Ugalde auzipetutako euskaltzalearen emaztearen erantzuna ikusita (Esteban 2004, 76). Hurrengo egunean, *Euskaldunon Egunkariaren* oinordekoa agertu zen kioskoetan ale guztiak agortuz. Joxerra Garziak zutabe hartan esandakoa publikatu zuen, egun horretan bertan, eguneko albistearen

gaineko iritzia sinatzeko (Garzia 2003a; Garzia 2003b). Poema erreztatzen hasten zen, jarraian *Egunkariaren* egoitzan zela “Gabriel Arestiren poema ezagunaren atal horixe buruan jira eta bira” zuela pasa omen zuen goiza.

Nik ez dakit aitaren etxea *jauregi* izatea komeni zaigun, edo *txabola xume* bat aski ote dugun elkarrekin bizitzeko. Horretan Jon Sarasuarekin nago, amaren sua axola zait eta ez horrenbeste *aitaren etxea*. (.../...) *Balizko euskal estatu independente* izan liteke aitaren etxea, akaso. Edo Ibarretzek proposatzen duen *etxe adosatua*. Edo autonomia soileko *txabolatxoa*. Edozein *etxek* balio dit, *amaren suari* bizirik eusteko balio baldin badu, behintzat. Eta, bestalde, *jauregirik dotoreenak* ere ez dit balio bertan amaren sua pizteko modurik ez badago. Esan beharrik ere ez dago: *amaren sua* euskaltasuna dela eta su horren erregaia, berriz, euskara bera. (2003b Azpimarrak nireak dira)

Zenbait berritasun eskaintzen ditu irakurketa honek. Batetik, aitaren etxea hainbat modutan eraiki daitekeela diosku. Izan liteke *jauregia*, balizko independentzia Inperialaz ari dela esango nuke, Azurmendiren irakurketa ekarriz (Azurmendi 2000, 129–131). Izan liteke *etxe adosatua* Ibarretxeren gobernuak proposatzen zuen estatu libre elkartua. Izan liteke *txabolatxoa*, estatutua alegia, norabide honetako *aitaren etxearen* interpretazio ugari agertu dira kapitulu honen hasieran. Oraingo honetan ez da baserrietaz ari, ezta eraikin modu batez. Euskal gizarte osoak autonomia, federalismoa ala independentzia kategorietako batekin egingo luke. Beraz, onarpen zabaleko eraikin mota ezberdinek gorde lezakete amaren sua bizirik. Ez dio hiru formuletakoa bat hobesten. Bestetik, *Amaren suan* babesteko balio diezaiokeena aukeratzen du eta hori *Aitaren etxearekiko* independente da. Aitaren etxea egitura instituzionala da beraz eta *amaren sua* euskaltasuna, euskara batik bat. Operazioa *amaren suaren* kontrako erasotzat hartuko du beraz, eta *Nire aitaren etxea* poemarekin hasiera ematen bazion *Amaren suaren* bertsiorekin bukatuko du:

Bi gauza jakin beharko lukete, ordea. Bata, sorbaldik gabe, bularrik gabe, *Egunkaria* eta *Argia* gabe uzten bagaituzte, arimarekin defendituko dugula amaren sua. Eta bigarrena, sua ez dela gasolinaz itzaltzen ahal. (Garzia 2003b)

Oraingo honetan, aitaren etxea amaren suaren alde baztertu badu ere, antzeko patua dauka: gasolinaz itzaltzen saiatu badira, inoiz baino indartsuago egongo da sua, gasolina erre artean behintzat. Handik bi egunera, Xabier Amuriza bertsolariak erantzuna eman zion egunkari berean. Honela hasi zuen artikulua:

Geure aita-amen etxe defendatuko dugu. Moztuko dizkigute besoak, bularrak, kenduko dizkigute aziendak, basoak... baina geure aita-amen etxea defendatuko dugu... Kenduko dizkigute eskubideak, paperak, moztuko dizkigute giltzak, frekuentziak... baina geure aita-amen etxe defendatu egingo dugu. Kenduko dizkigute zergak, moztuko digute mihia, baina hitzarekin defendatuko dugu geure aita-amen etxea eta hitza euskara izango da eta gure aita-amen etxeak iraunen du zutik (Amuriza 2003)

Garziari poema hura etorri bazitzaion gogora itxialdiaren aurrean, Amurizari “barruak eskatu” omen zion artikulua honela hasteko. Zenbait aldaketa egin zizkion poemari baina, etxea *gure aita-amena* bihurtu da eta Arestiri *harmak, besoak, sorbalda*, e.a kentzen zizkieten horretan herriari kendu ziezazkiokeenak izendatzen ditu eta, aldi berean, euskarazko hitza geratuko zaio. Aipatzen dituen gorputz-adarrak herriaren ondasun kolektiboak dira –lehenengo pertsonako pluralean gauzatzen dira ekintzak—: aitaren etxea defendatzen zuen gorputz indibiduala gorputz kolektibo bihurtuz. Zentzu horretan, itxierari dagokionez:

... ez dela ETaren eta beronen inguru mugagabearen kontrako asalto bereiztua bakarrik, etxe osoaren kontrako ofentsiba antolatua baizik. (Amuriza 2003)

Esaldiaren tonuan dirudi ETA *etxearen* egoiliarra dela eta oraingoan ETaren inguruneari erasotu nahian *etxe* osoa erasotu dutela. Eguneratu duen *etxeak* baina, inplikazio politikoak ditu beste eragileei erantzuteko. Batetik, Eusko Jaurlaritzari aitaren etxea dirua ote duen galdetuko dio. Bestetik, aitaren etxe unitario honen defentsa zelakoa izan behar duen gaineratuko du, kasu honetan Garziari erantzuna ematen dio eta aurrerago agertuko dudan moduan euskalgintzaren baitako talde baten adierazpenei:

Gure aitaren etxea era batuagoan defendatzen ez badugu zimenduak ere jango dizkigute. Euskal Herriaren ahultasuna ez da defendatzeko indarririk edo gogorik eza. Euskal Herriaren ahultasuna da askok, gehienek esango nuke, ez duela ikusten defendatzen ari garen modua egokia, burutsua denik, irabazteko bidea denik. Eta moduaren edo estrategien giltza, hemen eta munduan, sarritan zoritxarrez bada ere, zuzendaritzen eta eragileen gidaritzetan dago. (Amuriza 2003)

Ondorio logikoa dirudi, *aitaren etxea* komunitate organiko gisa hartuta abangoardia bati aitortzea honen gidaritza eta *Egunkariaren* itxieraren kontra dauden horiek gidaritza hori onartzea naturalizat hartzea. Poetaren *Ni*-a gizartea organiko bat bihurtuta berriro ere. Argi dago, gidaritza ez dagokiola Jaurlaritza diruzaleari, bai ordea ezker abertzaleari. Aste bete lehenago aurkeztu zen Autodeterminaziorako Bilgunea hauteskunde-plataforma, Batasunaren ilegalizazioari itzuri egiteko. Eta Amuriza agertuko zen ilegalizatua izango zen zerrenda hartan Bizkaiko ahaldunerako hautagai. Zein bestek, bada, eduki beharko luke gidaritza?

Hiru urte arinago, ETAk Lizarra-Garazin alderdi eta eragile subiranistekin egindako hitzarmenaren ondotik etorri zen azken su-etena apurtu zuen, 1992 urtetik aurrera inoiz baino eraiketa gehiago egin zituen ETAk. Lizarra-Garaziko nostalgiak, alderdiaren ilegalizaziorako mehatxua, ETaren gehiegikeriak eta barne-hausturak –Aralar urte hartantxe aurkeztuko zen aurrenekoz hauteskundeetara— ordura arteko markoaren apurketa eragin zuten.

Mehatxua eta aukera. Ordura arteko joko arauak metamorfosi prozesu batean zeudela, poemaren energia sinbolikoek mitoa berreskuratu zezaketen. Nola frankismoaren gehiegikeriek aitaren etxearen defentsan lerratu zuen herria, *Egunkariaren* itxierak indar horiexek iratzar zitzakeen.

Garziak eta Sarasuak, ordea, sintoma berberak somatizatuta, etxearen forma zurrun eta maskulinoari suaren leuna eta femeninoa kontrajartzen asmatu zuten. Hortik, ortodoxiaren defendatzaileek *amaren sua* bere pare osagarrira bueltatzeko deia egin izana:

Guztiaren gainetik, Lizarrako akordio berri bat elikatzen zuen su mediatikoa eraso dute. Eta, bide batez, gainerako guztia. Aitaren etxea

eraso dute eta horrekin amaren sua itzali dute, egun bereiztezinak direlako hain zuzen ere. (...) Soilik aitaren etxea defendatuz, botere politiko propioa, amaren sua haizatu litezke eten gabe, euskal identitate-zeinuak.⁸¹ (*Gara*, otsailak 26)” (Mario Zubiaga in Mintegi 2003, 146)

Honela, amaren suak aitaren etxearen protesia beharrezkoa du. Honelako deialdien bitartez, *amaren sua* eta *aitaren etxearen* arteko eztabaida, ezker abertzalearen estrategiarekin bat datozen eta ez datozenen arteko eztabaida bihurtzen da. Ezker abertzaleko zenbait *historikok* berriro ere ekin zioten gaiari, euskararen defentsa subiranotasunaren defentsarekin lotu nahian:

Aitaren etxea, amaren sua edota amamaren magala izanda ere, alferrik gabiltza euskara bere ‘hutsean’ defendatu nahian, bera bakarrik ez delako hizkuntza bizia izango lurralderik gabe. Eta lurraldea librea ez bada, haren jabe ez izatea bezala da, beraz subirotasuna, burujabetza dugu ezinbesteko helburu (*Gara*, martxoak 5). (Itziar Aizpurua eta Jokin Gorostidi in Mintegi 2003, 146)

Ez naiz eztabaida politiko hutsaz ari, ziur nago biek lotura zuzena dutela orduko gertaeren somatizazioarekin. Bien eraginkortasun sinbolikoa poemaren botere txamanistikoan datza, egoera bizia poesiaren esperientziatik pasa eta gero interpretazio modu batean orienta liteke (Lévi-Strauss 1996, 223): euskalgintza edota nazio-askapenaren proiektuaren prismatik ikusten da gertaera, eternitatetik alegia, “arimarekin defendituko dugula amaren sua”, “geure aita-amen etxeak iraunen du zutik”.

Hori bai, Chillidaren kasuaren antzera, interpretazio-modu hauek euskal kultura esparruaren baitan zeuden kontrobertsia baten baitan ulertu behar dira. Larunbat horretan manifestazio jendetsua egin zen Donostian, *Egunkariaren* itxiera salatu eta

⁸¹ “Han atacado, sobre todo, la llama mediática que alimentaba la esperanza de un nuevo acuerdo de Lizarra. Y, de paso, todo lo demás. Han atacado la casa del padre y con ello han apagado el fuego de la madre, por la sencilla razón de que hoy por hoy son inseparables. (...) Sólo defendiendo la casa del padre, el poder político propio, podrá avivarse indefinidamente el fuego de la madre, las señas de identidad vascas

atxilotuen askatasuna eskatzeko. Horren eta bertako oihuen harira, Joxerra Garziak beste batzuekin batera *Ikaskizunak* atera zituen. Jada, ez da *aitaren etxerik* edo *amaren surik* aipatzen, baina Amurizaren moduko deialdiei erantzuna ematen zitzaien. “Betiko oportunistak” ibili omen ziren gertatutakoaz bere kausara lerratu nahian. Eta haiek beren bideari ekin nahian: ETAREN neurrigabekeriak estatuarenak salatzen diren beste salatze eskatzen zuten –eta alderantziz– (Lertxundi eta Gimenez Bech 2003).

Artikulu horren sinatzaileak Anjel Lertxundi, Jorge Gimenez, Bernardo Atxaga, Juan Garzia, Joxerra Garzia, Inazio Mujika, Iban Zaldúa eta Patxi Zubizarreta izan ziren. Era honetan, amaren suaren eztabaida euskal kultura esparruan afera politikoa zabalagoen gainean zegoen eztabaida baten berri ematen digu, Amurizak betikoen gidaritza eskatu egiten duen horretan hain zuzen ere. Betikoen gidaritza eta aitaren etxearen defentsa frankismoan egin zen modu berdintsuan, euskal literatura esparruak ETA-V. Asanbladari zilegitasun 70. hamarkada eskaintzen zitzaion bezala.⁸²

Ikaskizunak artikuluaren sinatzaile gehientsuenek –Garzia anaiek salbu– bat egin zuten arinago *El País*en *Egunkariaren* kontrako artikulu bat idatziz (Zaldúa eta Zubizarreta 2003), baina lehenago euren kapital intelektuala erabili zuten ETAREN aurkako agertzeko (Agirre Arriaga et al. 2000), oraingo honetan beste esparruetako euskal intelektual askorekin batera sinatuz –Zubizarreta zen orduan falta zen taldekidea—. Honek talde bateratu baten forma ematen dio, euskal kultura eta politikari buruzko iritzi batzuk partekatuta, ezker abertzaleko zenbait postularekin bat ez etorritz.

Testuinguru zabalagoan, *aitaren etxea* eta *amaren suaren* defentsa esparru-dinamiken baitan uler liteke. Euskalgintza berera ekarri nahi duen esparru politikotik, “euskera bere hutsean” defendatzeko ezintasuna aldarrikatzen dute. Euskara baldin bazen euskal kulturaren esparruaren arlo baten identitate-zeinu, euskarak lurraldea, subjektu subiranoa edo *etxea* behar duela esango dute eta beraz euskararen intelektualei ezker abertzalearen politikarekin bat egiteko deia luzatu. Euskalgintza kultura esparruan

⁸² Honakoa tesiaren beste atal batean jorratu dut. Baina haustura hori 1985an agerikoa egin zen Txillardegia eta Atxagaren artean, bi belaunaldien artean hain zuzen ere (Zaldúa 2012, 82–83).

esparru politikotik askatu nahian dauden hauen ustetan, osterá, euskararen eraso horretan euren tesira bihurtu nahi dituzten “oportunistak” dira besteak. Euskal kultura esparruak bere independentzia eduki beharko luke, hauen iritziz.

Eztabaida hartatik sortutako *amaren suak* bere ibilbidea jarraituko du, ia beti, euskalgintza eta politikagintzaren arteko harremanaz aritzeko. Sarasuak behin baino gehiagotan erabiliko du euskalgintzan jorratu beharreko ildoaz aritzeko, proiektu politikoaren gaineratik, euskal komunitatean lan egiteko deia eginez (Sarasua 2003, 26–35). Joxerra Gartzia ere beste inoiz berreskuratuko ideia bera.

Taula 1. Aitaren etxea eta amaren sua

	Aitaren etxea	Amaren sua
Planoa	Territoriala	Existenziala
Proiektua	Politikoa	Komunitatearen jarraikortasuna
Denbora	Koiunturala	Milaka urtekoa
Tresna	Defendatzeko arma	Besteei zabaltzeko, nahasteko

Iturria: (Sarasua 2003)

Esparruen arteko dinamika horretan eta metaforek dituzten berezitasunez baliatuz, *amaren suaren defendatzaileek* honako ideiak erabiliko dituzte *aitaren etxearen* kontra bereizteko. Hala ere, diferentzien gaineratik, metafora honek arbasoekin lotzen du berdin-berdin:

Sua da niri pasa didatena nire gurasoek, nire aurreko belaunaldiak niri sua pasa dit. Neure helburu pertsonal, politiko, sozial nagusia su hori hurrengoei baldintzetan pasatzea da. Hori da nik egin nahi dudana eta horretara nago. (Sarasua 2003, 35)

Honetan ez da horren diferentea. Komeni da, Mari Luz Estebanek, eztabaida honen harira gaineratu zuen ideia bat ekartzea. Batetik gizonen arteko eztabaida izan zela batik bat *aitaren etxea* eta *amaren suaren* artekoa, eta “eme-sendotasun” baten idealizazioari erantzuten ziola. Bestetik, berak emakumezkotasunari buruz egindako lanarekin lotzen du, zeinetan emakumeei espiritualtasuna eta gizonezkoei materialtasuna egozten zaizkion. Berak jainkoa baino nahiago duelako Alardeko soldadu izan, alegia. Berez, herriren batean halako erantzuna eman omen zion emakume talde batek, “gure amaren etxearen” defentsa aldarrikatuz, etxea

emakumeei ere dagokiola azpimarratzen zuten (Esteban 2004). Lehen aztertutakoaren ildo beretik uler daiteke honakoa, euskal kulturaren izaera patriarkalak hezkuntza eta zaintza *andereñoaren* irudiari lotzen bazuen (ikus 1.4.2. Euskaingintzako genero-espezializazioa, 113-114. orr.), oraingoan ere *amari* dagokio suaren zaintza, hizkuntza bera bizirik mantentzea. Euskal kulturako eztabaida horretan, etxeari dagokion eztabaida politikoan, gizonak gaineratu dira berriro ere, emakume talde batek eztabaida horretan parte hartzeko nahia pankarta xume batez adierazten zuen, Garzia eta enparauek joko poetikoetarako egunkarietan tarte luzeak zituzten bitartean.

OAK TIXERTAK, 2012

Irudia 20. Amaren suaren arropa



Iturria: (Ibañez, d. g.)

Amaren sua eztabaida honetatik haratago iraun du, eta oraindik bizi da, euskal kulturako *freak* giroetan afektuak pizteko gaitasunarekin. Horren adibide da Aritz Ibañezek (Ibañez, d. g.), bere OAK Tixerten artean, “amaren sua” testuarekin jertse beltza diseinatu izana. Gardunak berotu eta sukaldearen erdigunea osatzen du. Gainerako diseinuek, guztiak euskaraz, hitz jokoekin —*Oso mongi*—edo Twitterreko @trinkotzaindia erabiltzaileak ezagun bihurtu dituen aditz sintetiko faltsuekin —#*daflipat*, #*diserdit*, e.a.— OAK Tixertaken lengoian sar daitekeen hizketa da beraz jertsea, euskaratik espazio porodun, ironiko eta

sakrilegoa eraikiz. Sasiaditz sintetikoak dira horren adibide. Gerra aurreko idazleek eta gerra ondoko garbizaleek aditz sintetiko xebreak erabiltzeko joera zuten, hauek euskararen romanizazioaren aurreko forma jatorrak zirelakoan, baina erderakadak osatzeko erabiliak dira oraingoan. Erreferentzia jostalaria izateaz gain, euskal kultura esparruaren patroi zilegiak ondo ezagutzen duen publiko baten berri ematen du. Beraz, amaren suak baditu bere freakiak.

RITORNELOAREN AKTUALIZAZIOAK, GORPUTZA ABIAPUNTU

Aitaren etxearen bariazioak aurkezteko Garzia zein Amurizaren azalpena hitzez hitz hartuz gero, ritorneloaren errepikak gorputz-istantzia du jatorri. Garziak Arestiren poema eduki zuen buruan itxieraren goiz osoan zehar jira-biraka, bere begiek ikusi-irakurri eta bere belarriek entzuten zutenari memorizatutako erantzuna eman bezala, abesti itsaskor baten gisan guztiz artikulatu ezin zuen erantzuna zen. Artikulatzea lortzen duenean, hasierako nukleoarekiko bariazioak egin beharko zizkion. Aitaren etxeak ez du asetzen, amaren suak baizik, esperientzia era erosoan artikulatzea ahalbidetzen dio honek –hasierako artikulazioari lotutako zenbait ondorioetara jo barik–. Sarasuak aurretik azaleratutako lokuzioa da. Antzeko prozesua suposa dakioke, sabelean hausnartzen. Noski, euskararen afera modu berrituetan aurkezteko proiektuari ere erantzungo zion: politikoaren pribilegiotik askatu behar zen behingoz euskara *normalizatu* ahal izateko. Honela, datorkion ritorneloa konjugatzeko gai da, baina politizazio horri itzuri eginez. Bertsolari bikainaren gisan, ritorneloaren erritman konjugatzen du adierazle berberera jo barik.

Deleuzek errepikak poetikoaren bi forma bereizten ditu, errepikak zentzu ezberdinak har ditzakeen hitz baten zerbitzura ipintzen duena, batetik, eta erritmaren bitartez alboko hitzen zerbitzura ipintzen duen hori, bestetik:

... hitzak, zentzu bakarrean hartuta, albokoengan erakartzeko indarra du, grabitazio miresgarria komunikatzen die, alboko hitzen batek

bestearen lekukoa hartu eta errepikapen zentrua bihurtu arte. (Deleuze 1968, 51)⁸³

Hauxe da Sarasuak zein Garziak egiten duten eragiketa, azalpen berriak eskatzen dituen gertaerarekiko erantzun mnemikoa gaineratu ordez, aitaren etxeak inguruan grabitatzten dituen alboko hitzak hartzen dituzte, erritma bera duen baina adierazle berriaren inguruan eraiki den poema berria osatuz. Printzipioz, kontrako adierazleak hartzen dio lekukoa adierazle zaharrari. Amaren suak poemaren ritorneloaren indarra bere horretan gordetzen du, desioa beste inora bideratzen du desioaren egitura bere horretan mantenduz.

Amuriza ere bertsolaria da, baina bere erantzuna, ordea, “barruak eskatzen” ziona zen. Ez daukat argi bi gorputz-operazioen artean alde handirik ote dagoen, baina hitzez hitzeko interpretazioa jarraituz zenbait ñabardura atzeman litezke. Garziari, gorputzak artikulatutako erantzun mnemikoa blokeatzen zion *buruak*, horregatik zuen poema jira-biraka, irten ezinik. Amurizak, ordea, erritmak aldatzen ditu ritorneloaren zerbitzuan: Arestiren poema aktualizatu beharra sortzen duen gertaeraren aurrean eman beharreko erantzuna Arestiren garaiko erantzun bera izaten jarraitzen du. Oraingoan etxea amarena ere bada eta kolektiboagoa da lehen baino (“gure aita-amen etxea”), baina etxeak jarraitzen du izaten defendatu behar den hori.

4.1.6. PREKARIETATEAREN IRONIAK

Aitaren etxea ritorneloa zabaldu ahala, poemak zein aktualizazio berriek mobilizatzen dituzten energia sinbolikoak bideratzeko saiakerak ikusi ahal izan dira, aitaren etxearen tropoa ordeztu dezaketen zenbait ritornelo berriren saiakera ere *–kalea, amaren sua–*. Jarraian aztertuko ditudan aktualizazioak apalagoak dira, umorezkoak, baina aurrekoen zenbait aspektu argitzeko lagun dezakete.

⁸³ “... la palabra, tomada en un solo sentido, ejerce sobre sus vecinas una fuerza de atracción, le comunica una prodigiosa gravitación, hasta que una de las palabras contiguas releve a la otra y se convierta, a su vez, en centro de repetición.”

MORAU TA AGOTAK, 2008

Morau ta Agotak Iparragirre eta Aresti autobide hertzean abestian, autore bien poema ezagunen kantu berrituak egiten dituzte. Iparragirrek *Ara non diran* bertsoan mendiak, arbasoen lurrak eta belardi gozoak nonahi ikusten zituenean, kantu honen letrak haien gabezia adierazten du: “Ez daukat etxerik / Ez arbasoen lurrik ...”. Jarraian eta honen ondorioz honako Arestiren poema ekarriko zuten:

Horregatik / Nire aitaren autoa defendituko dut / Sikateriaren kontra /
Lukurreriaren kontra / Defenditu egingen dut nire aitaren autoa

Altzairuzko baratzak / Porlanaren aberrian / Autobide hertzea / Da
egun nire etxea / Ta kamioi batek hil zuen / Herenegun gure aita zena

Horregatik / Nire aitaren autoa defendituko dut / Legearen kontra /
Otsoen kontra / Defenditu egingen dut nire aitaren autoa. (Morau ta
Agotak 2008)

Poemaren irudi indartsuenak hartu eta etxea autoarekin aldatzen dute. Etxerik gabe, autoa baino ez zaio geratzen *Ni*-ari. Poemaren egitura eta bertso nagusiak bere horretan mantenduz, defendatuko duen hori aitaren etxearen ritorneloaren errepikan gauzatuko dela aurreratzen badu ere, etxea autoan bilakatzen da behin eta berriro. Honela, etxearen hutsa, okerra, sumatu egiten da, silaba berberekin osatutako autoa ageri den horietan. Jarraian *Ara non diran* bertsoan Iparragirre liluratzen dituen horien kontrakoa ageri dira – “altzairuzko baratzak”, e.a.–. Ez da paisaia idilikorik ageri, aita hil zuen errepideak, eta Niari geratu zaion ondare bakarra autoa da. *Zaramaren* kantua ere gogora dakar, honako honetan *Iparragirre eta Aresti autobide hertzean* kokatzen baditu, autobidean haien poema sedentario eta idiliko hutsala adieraziz, *Zaramak* “bidea eratu” beharra adieraziko zuen, aitaren etxetik ihes egiteko bidea hain zuzen ere. Kalearen ordeaz, oraingoan errepidea da tropo nagusia. Tonu umoretsuagoan, gizagaixoa da *Ni*-a, etxe higiezin auto mugikorra baino ez du, sustrairik gabeko etxean bizi da.

ALGORTAKO BATZOKIA 2.0, 2008

Norabide berean, etxebizitza eskubidearen aldeko mugimendua zabaldu zen garaian, gazteen enpleguaren egoera salatzeko prekarietatea hitzetik hortzera zegoen unean, itxuraz Algortako Batzokian honako pintada hau agertu zen (del Moral 2008).

Hurbiletik ikusita pintada ordenadorez egin dagoela ikus daiteke. Horretan guda zibila gogora dakarren irudi eta euskarazko testuari gaztelaniazko pintada kontrajartzen zaizkio.

Algortako batzokiak aspalditik eduki du “Nire aitaren etxea defendatuko dut” testuaren inguruan irudikatuko murala. Lehen ez zen sarreran ageri, kaleari ematen zion horma batean egindako muralean baizik. Bertan, poemarekin batera gudari bat ageri zen emazte eta haurrari agur esanez. Aurrerago mural hori kendu eta horren ordez, argazkian ikus daitekeen kartela ipiniko zuten batzokiko atarian. Antzeko irudia da zaharrarekiko: emazteak musu ematen dio gudara doan gudariari eta haurrak besotik heltzen dio etxetik joan ez dadin, ikurrina baten aurrean. Gerra zibileko une sakrifiziala agertzen du irudiak, ziurrenik gudariak bizia eman zuen gudan eta horregatik hura da eskura dagoen aitaren azken irudia. Aitaren etxea defendatzera doa, emaztea eta haurrari babesa ematen dien etxea. Hurrengo belaunaldiari zuzendutako mezua da, haurrari, baliteke haurra izatea “Nire aitaren etxea defendatuko dut” dioena, bere aitaren heriotza alferrik gal ez dadin eta bere seme-alabek aitaren etxean bizitzen jarrai dezaten.

Irudia 21. Algortako batzokiko murala eta “pintada”



Iturria: (del Moral 2008)

Baina spraiaren antzera idatzitako mezuak oso bestelako norabidean mugiarazten du poemako lehen bertsoa. Erantzun egiten dio, etxeari balio sinboliko guztiak erauziz eta etxearen materialitatera bueltatuz: “hala beharko zenuke, dituzten prezioak izanda”. Beraz, elkarrizketa horretan etxea-sinboliko etxea-material bihurtzen da. Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan botere instituzional gehien zuen alderdiko egoitza batean, etxe sinbolikoak alde batera utzi eta etxe materialak defendatzeko deia luzatzen zion. Gainera, gaztelaniaz egiten dio, euskararekiko erabat profanoa den hizkuntzan.

IRONIAK BOTATAKO AITAREN ETXEA

Serio hartu dute aitaren etxearen tropoa haren lepotik barre egin ahal izateko, haren literaltasunean. Ironiaren bitartez lortzen dute aitaren etxea adierazle huts bihurtzea, aurkariaren ritorneloa hartu eta honen adierazlearen hutsezko izaera agertzen duen testuingurua aldatzen dute (Martínez de Albeniz 2003, 362-363). Lehenak, etxearen ordeaz autoa erabiliko du, errepidearen tropoan kokatuz. Bigarrenak, poemari erantzun egingo dio balio sinboliko sakratua merkatu prezio profanoari kontrajarri.

Biak ageriko ziren etxebizitzaren burbuila zulatzen ari ziren unean, 2008an. Arestik José Luis Arrese Ministroak Otxarkoagan agindutako etxebizitzak salatuko bazituen, Ministro horren leloa –“Propietarioen herri bat nahi dugu, ez proletarioena”– kokatuko zen Espainiako etxebizitza-politikaren arazoaren erdigunean (La Sexta Columna 2012). Arestik berak poema hura tartekatuko zuen jauntxoaren zinismoa salatzeke orduan (ikus Gizonaren alde, 181-186. orr.), oraingoan ironiaren bitartez aitaren etxea adierazle huts bihurtzen dute, aurretik aztertutako energia sinbolikoak bideratuko ez balitu bezala, eta horrek salatzen du bere izaera biluzia. Hau da, ritorneloak ez luke ezer jantziko adierazle-kateatze huts bat baino. Horrek bihurtzen ditu errepika hauek barregarri.

4.2. HARRIA

Bere poemaz osatutako hiru liburuetan *harri* eta *herri* hitzen antzekotasun fonetikoak erabili zituen Arestik izenburuak osatzeko: *Harri eta herri*, *Euskal Harria* eta *Harrizko herri hau* (1964b; 1967a; 1970a). Honela, ohizkoa da hiru liburuetan “Arestiren harriak” zein “Harriaren ziklo” gisa izendatuak izatea. Harriaren erabilerak, herriarekiko

desplazamendu paradigmaticoa egiteaz gain, deszifratu litekeen enigma gisa jokatu izan da, literatura esparruan eta, batik bat, Arestiren poetika azertu dituztenen artean. Hauek literatura unibertsalean zein euskal kulturaren baitan kokatzen diren hizketa-ekintzetako jatorrietatik errepikatzen den hitza dela gaineratzen dute, Arestiren poetikaren genealogiarekin batera, harriarekin esan nahi zuen horren arrastoaren bila. Horrekin batera, Arestiren liburuen berrargitalpenen azalean zeozer irudikatzeko beharraren aurrean, harriak irakurketa horiei jarraituz irudikatu dira, inprimaketa teknikak eta liburuen merkatua sofistikatu egin den neurrian.

Arantzazuko santutegiarekin duten lotura gaineratu da maiz. Oteiza mitogilearen saiakera estetikoaren lehengaia edo produktua izan litezke, *Harri eta herrin* hari eskainitako poema luzea gogora ekarriz –“... baina hainbeste bider ikusi ditut haren harriak, / haren apostoluak, / (...) kamino gaitz horretako bazterretan / eroririk...” (1964b, 112)– baina baita Oteizak irinspiratu omen zuen Arantzazuko ingurugiro bera ere, kareharrizko euskal mendiek ere –“Harria, / edonundikan / harria” (1964b, 82)—. Harri Aroa zen, hain zuzen, Barandiaren ikerketetan atzeman zitekeen euskaldunen urrezko aroa (Anjel Lertxundi in Uribe, Lertxundi, eta Alberdi 2014). Luis Haranburuk prestatu zuen *Harria* bilduman, *Harri eta herri* Chillidaren eskultura batekin irudikatzen bazuen ere, gainerakoak irudikatzeko Harri Aroari legozkiokeen harri labratuetara jo zuen.


Irudia 22. Harria bildumako azalak, Luis Haranburu, 1979-1983



Iturriak: (Aresti 1983; 1979a; 1979b)

1986an Susa argitaletxeak Arestiren obra guztiak argitaratzeko hiru artistek irudikatu zituzten Arestiren harriak. *Harri eta herriren* azalean Oteizak Arestiren omenez egin zuen eskultura hilarria irudikatu zuten. *Euskal Harriari* Agustín Ibarrolak libururako prestatutako grabatuez gain, harri-ukabil formako arbola egingo zuen azalerako. *Harrizko herri haun*, ostera, Eduardo Chillidak Arestiri eskaini zion hilarrira joko zuten. Edizio horretan pilatutako irudikapenen kapital sinbolikoak Arestiren poesia eskulturaltan bihurtzen dute.

Irudia 23. Arestiren literatur lanen harrien azalak, Susa, 1986



Iturriak: (Aresti 1986g; 1986d; 1986h)


Karmelo Landak (1999) Milia Lasturkoren eresian topatu zuen analogia “zerutik erori gabeko harria” (Aresti 1967a, 29) eta “lausu da cerurean arria, / aurquitu dau Lastur-en torre barria” (Ezezaguna XV-XVI). *Harri eta herriko Apur dezagun katea* poeman ere, halakoa topa daiteke: “Zutik dator harria” (Aresti 1964b, 50).

Arestiren itzulpenen arrastoa jarraitu izan da bere *unibertso poetikoaren* zenbait irudi ulertzeko asmoz, horien artean T.S. Elioten eragina nabarmenduz (J. Juaristi 1983; Arkotxa 1993, 84–95; Aldekoa 1998). Anjel Lertxundik Arestik berak itzuli zituen *Four quartetseko* (1943) harri zaharrei erreferentzia egiten zien, eraikin berri bat jasotzeko – Arestiren itzulpenean: “Harri çaharra edificio berriraco, egur çaharra su berrietarako” (Eliot 1983)–. Era analogoan Arestiren poetikan “harri zaharrarekin, hizkuntza

zaharrarekin eraikin” berria osatu nahia zegoen (Anjel Lertxundi in Uribe, Lertxundi, eta Alberdi 2014), etxearen eta harriaren arteko lotura agertuz:

Ni bizi naizen exea / hain da zaharra... / Euskal mendietako / lehendabiziko harriaz / zen labratu (1967b, 38)

Irudia 24. Euskal Harriaren liburuko azala, Orain, 1995



Iturria: (Aresti 1995)


Hizkuntzalaritzan estrukturalismoa nagusitzen joan zen neurrian, etxea eta etxea osatzen zuten harri zaharraren arteko konexioa errazagoa zen. *Hibai ugaria* poeman aztertu bezala (ikus Euskara klaroa, 135-137. orr), ibai ugariak labratuko zukeen euskal harria. 1995ean *Egin* egunkariarekin batera oparitu zituzten *Euskal Harriaren* birrargitalpeneko azalek halako harrien irudiak eskaintzen dituzte (Aresti 1995). Harri borobilduak, urak leunduak baleude bezala, *Hibai ugariak* leunduak hain zuzen ere. Gainerako liburuetakoko azalekin alderatuta, hauxe da koloretsuena, harriak pluralean irudikatzen dituen bakarra.

Juaristik *Harri eta herri* izenburuan ETAr egindako “erreferentzia kriptikoa” atzematen du. *Zutik* da, hain zuzen ere, ETaren aldizkaria eta *Nire aitaren etxea* poemako azken hitza. Izenburuan “eta” lokailuak ETA erakundeari lehen erreferentzia bat eman ziezaiokeen. Harria gogorra eta erresistentea, garaiko poesia antifrankistan ohizkoa zen metafora zen – Raimon eta Celso Emilio Ferreiro aipatzen ditu— eta arma ere izan zitekeen. Honela, “sintagma osoa, slogan edo konsigna ia telegrafiko bezala uler dezakegu”: *Harri eta herrin*,

harria-erresistentzia, “eta” akronimoa, eta herria bera. Ildo horretatik, *Euskal Harria* euskal erresistentzia litzateke. *Harrizko herri hau*, Miguel Hernándezen *Vascos de piedra blindadari* erreferentzia eginez, herri gerraren teoria marxistek eta ETAREN bilakaerak bat egiten dute izenburuekin: aurrena, harria eta herria bananduta daude, “eta” lokailuak bien arteko lotura osatzen du; jarraian, euskal erresistentzia hasten da, Euskal Harria, Txabi Etxebarrietaren heriotzarekin batera, bertan “ETA aipatzen du hutsunen bitartez, edo ausentzien bitartez” eta, bukatzeko, harriak eta herriak bat egin dute, Burgosko epaiketarekin batera. Aresti, ETAREN intelektual orgainkoa ez bazen ere, sinpatia handiz ikusi zuela erakundearen sorrera eta bilakaera (Jon Juaristi in J. Juaristi, Landa, eta Alberdi 2014).

Karmelo Landak (Karmelo Landa in J. Juaristi, Landa, eta Alberdi 2014) harriaren esparru semantiko berberean dauden metaforetatik interpretatzeko tartea zabaltzen du, Ondarroan (1960) emandako hitzaldia zein *Euskal Harria* poema abiapuntu: mailua “herri lokartu baten kontzientzia kolpatu eta iratzatzeko tresna” gisa jarduten duen bitartean, euskal burgesiak harria jan egiten duen itogina da. Honetan ere, harria kanpo erasoekiko erresistentzia gisa uler daiteke.

Irudia 25. Harri eta herriren liburuaren azala, Susa, 2008



Iturria: (Aresti 2008)

Susa argialetxeak 2008an egin zuen berrargitalpenean (Aresti 2008), *Harri eta herriri* irudi bat egokitu nahiean, mailua ipiniko zuen azalean eta kontrazalean liburuko poema laburra baino ez zuten agertuko, beste publizitate-kakorik behar ez balu bezala: “Esanen dute / hau / poesia / eztela, / baina nik / esanen diet / poesia / mailu bat dela.” Koldo Izagirrereren hitzaurrean Sarasolaren “mailu guztiak poesia dira, baina ez poesia guztiak mailu” bertsoa ekarriko zuen gogora, jarraian ageriko mailuaren izaera obrerista eta astintze iraultzailearen interpretazioari “euskal poesiaren autonkontzientziaren” sinbolo izaera gaineratuz (Izagirre 2008, 14–15).

Harria enigmak interpretazio berrien beharra eskatzen du etengabe, *Harrien zikloaren* gakoa desenmaskaratzeko saiakerak harriak esan nahi duen horretara bideratzen diren neurrian, Arestiren harriaren errepikak bermatzen dituzte, hauek testu berriekiko harremanetan kokatuz: literatura unibertsala, euskal kultura eta politika edota Arestiren poetikan esparru semantiko horri dagozkion hitzekin harremanetan jarriz. Hala ere, harriaren itzulpen prozesuaren izaera murrizta onartuko balute bezala, interpete hauek interpretazio berriak eransteke saiakerak egiten dituzte, aurrekoak ukatzeko saiakerarik egin barik, interpretazio ezberdinen elkarbizitza inplizituki onartuz. *Nire aitaren etxea* poemarekin ez bezala, ezin esan liteke interprete hauek interpretazio definitiborik topatzeko saiakerak egiten dituztenik. Irakurketa ezberdinak, bata bestearen alboan kokatzen dituzte haienak plazaratzerakoan, harriaren interpretazio azkenik ez balego bezala.

Azken batean, harria-ritorneloak errepiketako bakoitzean afektuak adierazleari lotzen dizkion jantzia da, baina ezin da biluztu, ezin du bere baitan gordeko lukeen determinazio azkenik topatu. Joku fonetiko da, aurrena, *Euskal Herria* hitzematzen du *euskal harriak*, baina tartean promesa hori hautsi egiten duen *a* tartekatzen da *e*-ren tokian. Bukaeran kokatzen den ritorneloa izanik, *Euskal Harria* poema irakurriz gero zaratari esleitu dakioken gaizki-ulertua alboratzen du fonemen errepikari esker— “harria”, “oinarri”, “gilzarri”, “zimentarria”— zein beste hitzen esparru semantikoari — “ongi labratua”, “arbolaren itsura emandako / harria”, “eta ur-tantak / jan hau”— erreparatuz gero.

4.2.1. ARESTI HARRIZTATUA

Arestik *Maldan beheran* euskal literaturako belaunaldi ezberdinak landare eta arbolen bitartez bereizten bazituen, bere burua, Aresti, Hariztian kokatuz, harria Arestirekiko haustura definitzeko baliabidea ere izan da. Honela, Atxagaren *Etiopian* hareak harriaren figura analogoa beteko luke, harria-herria elkarketari desertua-harea kontrajarriko litzaioke (Kortazar 1989, 71–72): harriaren izaera zurrun, astun eta trinkoari, harearen izaera iheskor, arin eta birrindua. Zentzu honetan, Arestik erabilitako metaforari zein bere poesiari esleitu dakizkiokeen ezaugarriekiko haustura metafora berrian laburbildu dute Atxagak-Kortazarrek. Hauxe izan zen Edorta Jimenezek bere omenezko txango kulturalen, Mintza Barullo elkarteak landatu zuen arbolaren eta kokatu zuen harriaren aurrean, gogoraraziko zuena: *Maldan beherako* arbolen ondoren zetorren Harriaren aurrean –Hariztia: “arbolaren ixura emandako / harria” (Aresti 1967a, 29)—. Zenbait pertsonalitatearen omenez, parentesi artean jaiotze eta heriotze datekin hilarria gogora dakarren oroitarria ipintzeko joera ohizkoa bada, are nabarmenagoa da Arestiren kasuan, bere omenez kokatutako oroitarriak daude Ean, Zorrotzan eta Casilda Iturrizar parkean (ikus 3.2. Euskal kulturako totem, 206-215). Aresti harriztatua ageri da totem horietan. Eta hilarriak egin dizkiote bere omenez elkarren arerio izan ziren euskal eskultorerik kontsokratuenek, Chillidak eta Oteizak, beraz museoetan ere badu bere tarte harriztatua.

Kortazarrek Atxagak euskal identitatearen gainbehera adierazten zuela esango zuen: “Harea dekadentzia da, erorketa, utzipenaren susmo urruna, Utopiaren paradisuatik urrundutako gizonaren adierazpena da” (1989, 72). Harekin batera kokatuko zuen Sarrionandia, Arestiren harriak gorpuzten zuen izaeraren ukapen gisa. Sarrionandiak ere *Harriak eta herriak* gogora ekarriko zituen poema batean:

Harriak ditugu baina ez dugu herririk. / Harriak ditugu / boltsilo
zulatuetan, baina ez dugu inon eraikiko / betirako etxerik. / Harriak
ederragoak al dira / harresian? (Sarrionandia 1999, 27)

Deserrian –“ez den herrialdearen / kartografoak gara”—harriak fikzio huts dira, poltsikoetatik alde egiten duten harea. Arestik ere, Euskal Harriari Erdal Harea kontrajarri zion, Bilbo industrializatuan alde egiten duen hori adierazteko: “Euskal

harria / urrun / dago. / Edo ez / dago, / nire hacamarren artean bihurtu baitda /erdal / harea” (Aresti 1970a, 50).

Haustura-erreferentzia hauetaz gain, Aresti harrian asimilatu edo berdintzeko joera ageri da. Maskarada antzerki-taldeak eta Oskorrik, omenaldia egin nahi izan zionean *Harrizko Aresti hau* (Panera Mendieta 1986) izenburua erabiliko zuten. Lehen aipatutako Eako poesia egunetan, Arestiren omenez urtero egiten den omenaldiarekin batera, *Harrikadie Poesia egunetako berripapera* atera ohi ditu Herrijeri Emon Arnasa Kultura Taldeak eta Gabriel Arestiren Etxeak, egingo dituzten jardueren berri emateko. *Harrikad-ie* kolorez bereiztuta, bertako euskerarekin bat herriaren izena *-le-* harrikadarekin elkartuta, euskara batuko *harrikada* osatzen dute, jarduerak jaurtikitako harriak balira bezala: gaztelaniazko *pedrada*. 2011tik elkarre berberak *Zaldiarri* aldizkaria ere argitaratzen dute bertaratutakoei banatzeko, honakoa ere *harri* hitzaz osatuta. Emandako errezitaldi edo hitzaldietako testu bat argitaratzen da zenbakietako bakoitzean. Besteak beste, Iratxe Retolaza eta Danele Sarriugarte *Gabriel Arestiren imaginario poetikoa eta genero-eraikuntzen* gainean emandako hitzaldiaren testua (Retolaza eta Sarriugarte 2015) eta Lucien Etxezaharragaren *Poesia mailu eta fereka* (Etxezaharreta 2014), zeinetan Arestiren *Esanen dute* zein *Euskal Harriari*, beste hainbeste poemekin batera, erreplikak egiten zaizkion.

4.2.2. PERUHARRI

Iñaki Perurenak *Harri eta herri* izeneko hitzaldiak eman ditu noizbehinka (J.A.M. 2013), harrijasotzaile ohiak harriak eta herri-kirol honek Euskal Herriarekin duten harremana aztertzen du. Horretaz gain, Inazio bere semearekin batera harriari dedikatu diote Peruharri izeneko parkea Leitzako baserrian, Iñakik berak egindako eskulturekin zein aita-semeek altxatutako harriekin osatutako museoa, kirolaren historian murgiltzeko aukera emanez.

Bilbovisiónen *Manu a Manu* programak elkarrizketa bat egin zionean, bideoa birala egin zen berehala, elkarrizketatzailearen galdera naifei Perurenak euskara, Nafarroa eta Euskal Herriaren arteko lotura azaltzen zelarik (Perurena 2010). Iñaki Martínez de Albenizek bideo horri ipini dio arreta identitatearen analisia bere erreprodukzio teknikoaren garaian aztertzeko, harriari erreparatuz. Perurenak Manu Monterori harro erantzuten dioenean, kamerak Peruharriko baserrian dagoen inskripzioa irakurtzeko

aukera ematen du: *Harrien mintzoa*. Bere analisisan, harriaren bi deklinazio proposatzen ditu. Batetik, Perurena Sisifo baten gisan aritu liteke, nor garen etengabe galdetu eta tautologikoki erantzuten, diskurtso historikoaren narratibara joz: Sisiforen itxura dauka Peruharriko muinoan kokatuta dagoen Perurenaren eskulturak. Baina Perurena “Sisifo birmoldatua” ere bada, Peruharria identitatea sortzeko sistema sozioteknikoa baita: euskal identitatea izatetik egitera pasatzen da honela (Martínez de Albeniz 2011).

Irudia 26. Peruharriko harrijasotzailearen eskultura



Iturria: (Plazaola Patzuergo Turistikoa 2014)

Zentzu horretan, Perurena aita-semeek mintzarazten diete harriei. Aurrerago, hamaika parodia ekarriko zituen iragarkia ere grabatuko zuen Peruharrian. Danonek Danacol kolesterolari aurre egiteko produktua promozionatzeko, Perurena ipini zuen bertsoan lur eta harriarekin dituen loturak azaltzen zituen bitartean (Lardín 2012), hasierako iragarkiaren lelo nagusiak –bere ahoetan gaztelerazko *funziona* hitza hedatu aurretik– bigarren deklinazio hori dakar gogora: “Harriak jasotzeko ez dut laguntzarik behar, nire

kolesterola murrizteko bai”⁸⁴. Euskal idenitateari eta harri-jasotzaileari indarra eta txuletoia esleitzen zaizkio, euskal harriaren autosufizientzia eta independentzia, baina aldi berean ezinbestekoa omen du kolesterola murrizteko osatutako produktu sozioteknikora jotzea. Iragarkiak harri-tradizioekin bizi litekeela adierazten du, kapitalismo eta zientziaren abantailek bizia luzatzen laguntzen eta harriaren ibilia ziurtatzen duten bitartean.

4.2.3. HARRI, HIRI ETA IRRI

Zenbat Gara eta *Gabriel Aresti* elkarteek Gernikan antolatutako errezitaldi musikatuan, Gotzon Barandiaranek harri eta herriren arteko hitz-jokoaren aktualizazio berria eskaintzen zuen (Barandiaran et al. 2013). Bigarren pertsonan zuzentzen zitzaion Arestiri, bere poesiako bertso eta metaforak egoera politiko eta sozial garaikidean txertatuz. Bezperan Iruñean terrorismoa leporatzen zitzaaien gazte batzuen atxiloketei aurre egiteko, erreperitorio berri gisa zabaldu zen *herri harresia* osatu zuten. Gotzon Barandiaranek *herrizko harresi* deituko zion horri, *harrizko herriaren* bokalen eta esanguren desplazamendua osatuz. Harrizkoa zen herria herrizkoa zen harri, harresi, bihurtu zuen. ETAk estrategia armatua alboratzeko hautuaren berri eman ostean eta Espainiako gobernuaren estrategiak bereari eusten ziola ikusita, erreperitorio berria zabalduz joan zen atxiloketak salatu nahi zituztenen artean. Lehen aipatutako Juaristiren interpretazioari jarraituz gero, harriak (ETA) eta herriak *Harrizko herri haun* zein Burgosko epaiketan bat egiten bazuten, oraingoan herriak harriaren lekukoa hartuko zukeen: harriz osatu beharko litzatekeen harresia, herriz osatzera pasa zen, espainiar legalitatea onartzen ez zuen *aske gunea* babestuz. Aske gunean izandako milaka lagunak kamiseta laranja adreiluz osatutako hesiaren bitartez irudikatzen zuten herria; polizia herria, harresia, bertan behera bota nahi zuen eragile gisa aurkeztuz.

Egoera honetara heldu aurretik, Julio Medemek euskal gatazkaren indarkeriaren gaineko dokumentalari *Euskal pilota: harria larruaren kontra* izena emango zion (Medem 2003). Dokumentalaren zenbait unetan alegoria diskurtsoari gaineratzen zaio,

⁸⁴ “Para levantar piedras no necesito ayuda, para reducir mi colesterol sí.”

une horietan mende erdi arinago eta frankismoan zehar euskal kulturaren ikonografian eragin nabarmena eduki zuen *Ama Lurrekin* (Basterretxea eta Larruquert 1968) aldera daiteke. Noski, Laboaren *Baga biga higa* entzuten den bitartean ahari-topeka, soka-tira, zesta-punta edo estropadek, euskal herria irudikatu baino, euskal gatazkaren izaera biolentoa, egoskorra ere irudikatzen dute. Pilotalekua da tropo nagusia, izenburuarekin jarraituz, euskal gatazka pilota jokoa da, baina harria frontisetik datorrenean larruaren kontra, azalaren kontra, kolpea, zauria, heriotza sortzen ditu talkak, jokoak aurrera jarraitzen duen bitartean. Medemek harria erauzi nahi duela esan daiteke, jokoa beste medioen bidezko jokora itzul dadin. Hizketa-diskurtsoari dagokionez, zeinek eta Bernardo Atxagak hasi eta bukatu egiten du dokumentala. Hasieran, euskal herria artxipiela delako esaten badu, amesten duen Euskal Hiriarekin ematen dio itxiera dokumentalari:

Bueno, nik Euskal Hiriarekin egiten dut amets. Gainera hitz-jokoak mesede egiten dit, euskaraz hitz egiterakoan, “Euskal Herria” “euskal herri” [*pueblo vasco*] eta “Euskal Hiria” “euskal hiria” [*la ciudad vasca*] izango litzateke. Zibilizazioen edozein hiztegitan hiria hitzak oiartzun hobea du, nik uste. Hau da, hiria, printzipioz, ez da inorena eta guztiena da. Ez du jatorririk, ezin dezake inork esan: “Hiri hau nirea da, ni aurretik heldu nintzelako”. Ez, hiri hau heldu diren guztiena da eta eraiki duten eta eraikiko duten guztiena. Printzipioz, gainera, hiriak jende anitza onartzen du, hori hiri guztietan ikusi dugu. Eta nire ideala aurreneko, jatorrizko nortasuna dagoela dirudien espazio batetik, ba nortasun asko dauden batera igarotzea da. Horien artean, noski, parte naizen hori, “euskal” nortasuna deitutako hori. Hau da, nire alabekin hitz egiten dudana hizkuntzaz egiten den auzo on bat egotea nahiko nuke, bai, ezta? Euskara, idazten dudana hizkuntza hori, ezta? (Bernardo Atxaga in Medem 2003)⁸⁵

⁸⁵ “Bueno, yo sueño con la ciudad vasca. Además el juego de palabras me favorece porque, hablando en lengua vasca, “Euskal Herria” es “pueblo vasco” y “Euskal Hiria” sería “la ciudad vasca”. Creo que la palabra ciudad en cualquier diccionario de civilizaciones tiene mejor eco. Es decir, que la ciudad, en principio, no es de nadie y es de todos. No hay un origen, nadie puede decir: “Esta ciudad es mía, porque yo llegué primero”. No, esta ciudad es de todos los que han llegado y de todos los que la han construido y la van a construir. En principio, además, la ciudad

Harririk aipatzen ez badu ere, frankismo garaiko euskal kultura esparruan dominante izan ziren Aresti, Oteiza zein Barandiaranen erregimen epistemologikoarekin apurtzearekin amesten du. Hirurak herri-harriaren hiru deklinazio posibletan laburbil litezke: poesia-mailuak forma ematen dion euskara zaharra, neolitoan euskaldunek trikuharrietan eskuratu zuten osotasun estetikoa zein euskaldunen jatorria, Santimamiñeko kobazuloetan; noski, ETA-harria ere tartean dela. Harria ere harresia delako, itoginaren azpian *landatuz gero*, jan egingo du iragazi ahala. Ados, ez da harririk inplizituki ageri, baina Aresti-Atxaga haustura hona ekarriz gero, Arestiren harri-herria Atxagaren hare-hiriari kontrajarri dakioke. Baten *rr* zorrotzak, bestearen *r* leunei.

Eta, hala ere, euskal kultura esparruko apustu nagusiekiko jarraikortasunean ageri da euskal hiria: urbanoa nahiago duena herria baino, bere artxipielagoa euskararen gainean definitzen duena. Oraingoan ere, Arestiren hitzaldia dakar gogora euskararen artxipielagotik euskal herria-hiria terminoek dituzten berezitasunak azaltzerakoan: euskal kultura euskaratik definitzeko saiakerak biak (ikus 2.2.4. Euskararen hasperena: Mektub!, 146-150. orr.).

Jarraian, harria aipatuko ez badu ere, harriaren ezaugarriak ekarriko ditu, herritik hirirako igarobidea aztertzean:

Nik uste dut inoiz gertatuko dela eta igarriko dugu jendeak, zoruaren gainean ibili ordez, apur bat, 20 zentimetrotara ibiliko delako, apur bat lebitatuko duelako, ezta? ez eskandalatzeko, baina lebitatuko duelako gainetik kenduko dugun zamagatik. Orain zama handia dugu eta sorbaldan, ezta? (Bernardo Atxaga in Medem 2003)⁸⁶

admite gente muy diversa, eso lo hemos visto en todas las ciudades. Y mi ideal sería que pasáramos de un espacio donde parece haber una identidad primera, original, pues a un espacio donde haya muchas identidades. Entre ellas, desde luego, aquella de la que yo participo, la identidad llamada “vasca”. Es decir, que yo sí quisiera que en esa hubiese un buen barrio que hablara la lengua que yo hablo con mis hijas, ¿no? Euskera, la lengua en la que escribo, ¿no?”

⁸⁶ “Yo creo que algún día se producirá y que lo notaremos porque la gente, en vez de andar un poco por el suelo andará como a 20 centímetros, un poco levitará, levemente, ¿no? para no

Harria zama ere bada, horren astun, horren jatorri eta horren *rr.* Harea, hiria: zama arinduz gero, lebitazioa hasiko da, amesteko garaia, gaindiezina zirudiena gainditzeko moduan. Une horren enkoadraketari erreparatuz gero, paisaiaren alegoriak ere harriaren presentzia indartzen du: kare-harrizko mendia du atzealdean, gainean, jatorria, zurruna. Arindu nahi duen zama, lursorutik 20 zentimetrotara aldentuko da zama hori arinduz gero. Ezkerrean bidea du, irtenbidea, zama arinduta, ibiltzeari ekin ahalko dio.

Irudia 27. Bernardo Atxaga, Euskal pilota: larrua harriaren kontra filmeko framean



Iturria: (Medem 2003)

Aurretik agertu eta landu zuen hitza izan bazen ere (Atxaga 2007), une hark eman zion difusiorik zabalena eta, horrekin batera ere, kritikak egin zitzaizkon, Atxagak asmatutako terminoa Eusko Jaurlaritzaren azpiegitura-politikarako kontzeptu-klabea ere bilakatu delako. Esango nuke, zenbait proiekturen zilegitasunaz haratago, kontzeptu horren definizio, garapen eta materializatzeak eraginik eduki duela lurralde eta azpiegituren planifikazioan aritu den aktore-sarean. Planifikazio horretan kontrobertsia eragin duen azpiegitarik badago, hura Abiadura Handiko Trena da, *euskal Y*-a –ETArekin hitz-jokorako tartea ere zabaltzeaz gain—, indarkeria-marko bertsua mobilizatu izan duena. AHTren kontrako mugimenduak izan dira *Euskal Hiria* kontzeptua gehien erasotu dutenak, Xabier Montoiak *Euskal Hiria sutan* liburuko

escandalizar, pero levitará porque del peso que nos quitaremos de encima. Que ahora tenemos mucho peso, ¿eh? sobre los hombros”

lehenengo ipuinean “Euskal Hiria: kapitalismoaren joko taula berria. Txikizioa gelditu. AHTrik ez” lelodun pintada zuen abiapuntu (Montoia 2007, 7). Eusko Jaurlaritzako 2009ko Aurrekontuen Memorian honela azpimarratzen zen AHTren garrantzia:

... aurreikusitako jarduketek “Euskal Hiria” kontzeptua indartzen lagunduko dute, euskal lurraldearen benetako abantaila konpetitiboetan oinarritzen den etorkizuneko proiektua hain zuzen ere, garraio eta logistika azpiegiturei dagokionez, Ardatz Atlantikoan Euskadik duen kokapen estrategikotik abiatuta. (Eusko Jaurlaritzaren Jurado 2009)⁸⁷

Atxaga bera erabilera hauetatik desmarkatu izan du berak amestutakoa (2007), baina hala ere harriaren tropora bueltatzeko aukera ematen du, azpiegitura hauek gaitzesteko bestelako tropora jo da: zementura. Zementuaren tropoak modernitatearen *–desarrollismoaren–* ametsak har litzake bere gain: material likidoa da, malgua, forma berriak osatzeko eta, aldi berean, lehortuta zurruna bilakatzen da, harri berria. Beraz, ez da harrizkoa kareharrizko zulaketek zein zelai berdeen profanazioen kontra *Euskal Harriaren* aldeko aldarrikapenak bueltatzea: Joseba Azkarragaren *Euskal harriak* (2011) liburua da *desarrollismoaren* kritikaren adibide. Zentzu honetan, lehen aipatutako *Morau ta Agotak* taldearen *Iparragirre eta Aresti autobide hertzean* kantuan porlanaren tropoak harriaren tokia hartzen du: aitaren etxea (Aresti) auto bilakatuta eta asaba zaharren baratzak (Iparragirre) “altzairuzko baratzak / porlanezko aberrian” (ikus 4.1.6. Prekariatatearen ironiak, 287-290. orr.). “Porlanezko aberria” “harrizko herriari” kontrajarri dakioke.

Eta oraindik ere, Euskal Hiriaren harira, hirugarren tropo bat ere topatu daiteke: *euskal irria*. *Euskal Hiria* Eusko Jaurlaritzak urtero antolatzen dituen kongresuak ere badira, horietako batean Igor Ahedok *Euskal Irria* kontzeptua proposatu zuen, harriaren eta hiriaren arteko artikulazio gisa, Ipar Euskal Herriko departamentu propio baten aldeko mugimendutik abiatuta.

⁸⁷ “las actuaciones previstas contribuirán al impulso del concepto de “Euskal Hiria”, que es un proyecto de futuro que se apoya en las auténticas ventajas competitivas del territorio vasco en cuanto a infraestructuras de transporte y logística, dada la situación estratégica de Euskadi en el Eje Atlántico”

Azken batean, *Herriari* uko egin barik, Iparraldeko euskal nazionalismoa *Herria* eta *Hiriaren* arteko dialektika faltsuarekin apurtzen duen proiektu kontraktuala artikulatzeko gai izan da. Eta utopiarako bidea erakutsi dute, bai gizarte-eredu berri bati zein euskal autonomia politiko gehiagori dagokionez, estrategia biolentoari uko eginez, estrategia erradikal, disruptibo eta sortzaileen bidez zilegitasuna pilatzea lortzen duena. Horregatik, kontzeptua sortu duenaren borondatea okertzen duen *Euskal Hiriaren* utopiaren kontra, bai *Herrian* oinarritutako konponente oro ijeztu zein euskal izaera goitik behera marketing estrategietan artikulatzeko, Iparraldeko esperientzia *Euskal Irri* baten utopiara gehiago gerturatzeko dela uste dugu, zeinetan ekintza disruptiboek sortzen duen irria behetik gorako estrategia bakar batean elkarlotzen dituzten *Herria* eta *Hiria*. (jatorriz euskarazkoak letra etzanean Ahedo Gurrutxaga 2012, 287–288)⁸⁸


Irriak harriaren *rr*-ei eutsi egiten die, hiri eta herriaren arteko sintesian. Hala ere, elementu berria dakar, jolasa hain zuzen ere. Gotzon Barandiaranen *herrizko harriaren* mozorroa nagusi bazen polizia nahasteko asmoz, *harrizko herriaren* hil ala biziko strategiari kontrajartzen zitzaion. Hemen, era analogoan, harria irri bihurtzen da, jokia jolas.

Beraz, harriaren gaineko bariazio fonetikoek inplikazio ezberdinak dituzten hitz-joko eta jolasak ahalbidetzen dituzte, euskal nortasunaren definizioari dagokionez. Aurrena, hare-hiriaren arintasun fonetikoa harri-herriren zurruntasunari kontrajartzen zaio.

⁸⁸ “En última instancia, sin renegar del Herria, el nacionalismo vasco de Iparralde ha sido capaz de articular un proyecto contractual que rompe con la dialéctica falsa entre Herria e Hiria. Y han mostrado un camino para la utopía, bien sea la de un nuevo modelo de sociedad, bien sea la de una mayor autonomía política vasca, que renunciando a la estrategia violenta consigue acumular legitimidad por medio de estrategias radicales, disruptivas y creativas. Por ello, frente a una utopía que pervierte la voluntad de su creador utilizando el concepto de Euskal Hiria, bien para laminar todo componente basado en el Herria, o bien para articular lo vasco de arriba abajo en estrategias de marketing, creemos que la experiencia de Iparralde se ajusta más a la utopía de una Euskal Irria, en la que desde la sonrisa que provoca la acción disruptiva se logra imbricar en una única estrategia, de abajo a arriba, al Herria y a la Hiria.”

Atxagaren utopiak zama arindu nahi du, hain zuzen ere, zorutik 20 zentimetrotara ibil gaitezen. Bitartean berak proposatutako Euskal Hiria Eusko Jaurlatizak lotura sistema berri bat osatzeko erabili izan du, *euskal Y* delakoa, euskal erresistentzian oinarritutako ETak –*harrizko herria*, biek bat eginik ageri dituen fikzio gisa– azpiegituraren kontrako erailketa eta atentatuak eginez. *Y*-Hiriari eta ETA-Harria kontrajartzen zaio, euskal nortasunaren lokailuaren inguruko ika-mikan. ETaren ekintza armatuaren bukaerarekin batera, bada beste oposaketa berri bat, pertinentzia berria sortarazten duena: jolasa jokoari gaineratzeko saiakerak (ikus Hertzainak, 1985, 256-258. orr.). Zentzu horretan, hitz-jokoan aurrean baino, hitz-jolasen aurrean gaudela esan daiteke. *Harrizko herriak herrizko harriari* tartea zabaltzen zion herri-harresiena, Gotzon Barandiaranen hitzalditxoan bezala: herri harresiko kideek ez dituzte atxiloketak saihestuko, ikuskizun bihurtuko dute, poliziarri traba egin nahian mozorratzen diren bitartean. Beste horrenbeste esan daiteke Igor Ahedok proposatzen duen *euskal irriari* dagokionean: herria eta hiriaren nahaste inpertinentean, irri bihurtu du ordura arte serioa zena. Eta, hala ere, biek ala biek *rr* zurrunetan ari dira jolasean. Arestiren euskal harriak itoginaren azpian jana izateko arriskua bazuen, Axularren esaera kontrajarri dakioke Arestiri: dabilen harriari goroldiorik ez.

Irudia 28. Harriaren inguruko joko eta jolas fonetikoak



4.3. EGUN DA SANTI MAMINA

Lehen Arestiren ahots poetikoari oso loturik ageri den *Nire aitaren etxea* poemaren eta *harrien* aktualizazioak aztertu badituz, oraingoan ahots herrikoia, anonimoa ia, duen *Egun da Santi Mamina* poemaren aktualizazioei erreparatuko diet. Poema musikatuaren jatorritik abiatuko naiz horretarako, jarraian Bilboko Aste Nagusiko txupinean edukitako presentzia aztertzeke.

4.3.1. KANTU HERRIKOI

Lehen aztertu bezala, Gabriel Arestiren poesian topatu zituzten euskal kanta berriko musikariek kantuak egiteko letra egokia, koplagingintza eta bertsoaritzaren tradizioen estiloa garaian pil-pilean zeuden aferei lotzeko gaitasuna zuelako. Zentzu horretan, Mikel Laboaren *Urtsuako kanta* diskoan (Laboa 1966) *Egun da Santi Maminari* doinua jarriko zion, *Harri eta herrin* argitaratu eta bi urtera. Mikel Laboaren kantagintzak musika herrikoia zein abangoardia nahasteko joera zuen horretan, *Apur dezagun katea* zein *Egun da Santi Mamina* kantuek herri-kantaren traza hartu zuten. Gitarrarekin lehen akordeak perfilatu eta jarraian, Mikel Laboaren ahots biluziak kantatzeari ekiten zion. Kantua errepikatu egiten den estrofa nagusiaren inguruan osatzen da, estrofa aurreko pasartei itxiera eta pasarte berriei hasiera ematen die.

Baina doinu honek poema ezagun bihurtu bazuen ere, Xabier Amurizaren aburuz (2013), Arestik beste kantu baten gainean osatu zuen poema, Bizkaian *Santa Ageda* kantatzeko erabiltzen den ohiko doinuan pentsatuta dago. Kantu herrikoi horretan ere, estrofa nagusi horrek pasarteen arteko ritorneloa litzateke. Zentzu horretan, koroan makilkaden soinuaz kantatzekoa da. Kantuak hamaika aldaera ditu, eta ritornelo honetatik abiatuta, bertsoak botatzeko aukera ematen du, kantariak eskean daudenean.

Santa Ageda, Ageda, / geure martiri maitea / etxe honeri emon eiozu /
zoriona ta bakea. (Ezezaguna in Larrinaga Zugaldi 2007, 192)

Egun da Santi Mamina / benetan egun samiña. / Goiko zeruan gorde
dezala / luzaro neure arima (Aresti 1964b, 76)

Abestia, noski errito jakin bati loturik ageri da. Ageda Kataniako santuari bere santutegiaren bezperan eskaintzen zaion kantua bada ere, euskal nazionalismoak 20. hamarkadatik aurrera esanguraz bete duen errittoa izan da, koruen inguruan euskal identifikatzaile etnikoak agertuz (Homobono Martínez 2012, 62). Frankismo garaian, euskal nazionalismoak kutsu erlijiosoko jaialdi hauek baliatuko ditu isilpeko komunitatea bizirik iraunarazteko.

Hala ere, egun ezagunen egin duen doinua bestelakoa da, tritikitixa eta panderoarekin jo ohi dena. Letrak dioenaren gaineratik, Trantsizioaren ondotik sortutako jai-ereduarekin bat datorrena. Gabonetan, Santo Tomasetan, herriko jaietan, Athletic eta Errealaren arteko derbietan, edota tabernak gainezka egoteko arrazoiren bat dagoen horietan, trikiti eta panderoaren errepertorioan ohizkoa da oso.

4.3.2. BILBOKO ASTE NAGUSIKO TXUPINA

2011ko abuztuaren 20an Bilboko Aste Nagusiari hasiera ematen zion Txupineko pregoian Gabriel Aresti aipatua izan zen pregoiani. Urtero aukeratzen dira txupinera eta pregoilaria. Konpartsak ordezkaten dituen emakumezkoa da txupinera: jaiiei hasiera emateko txupina piztu, bai txupin nagusian zein goizero egiten den txupinean. Pregoilaria, nolabait, jaietako ordezkari lana egiten du, berari dagokio Aste Nagusiari hasiera ematen dion pregoia irakurtzea, Jai Batzordeak aukeratzen du urtero Bilboko pertsonaia ezagunen artean, nolabait euren lanari aitortza bat emateko. Bi ikur hauek, urtero agertzen den Marijaiarekin batera, jaietan zehar eta harekin batera joan ohi dira egunean zehar egiten diren jarduera inportanteenetan parte hartuz.

Txupinaren errituala zentrala da Bilboko jaiiei hasiera emateko, honek ematen dio hasiera programazioari eta lehenengokoz agerrarazten du Mariajaia publikoaren aurrean, honek ahalbidetzen baititu, hain zuzen, hurrengo hastapenak: Marijaia arduratzen da txoznen irekieraz. Eta behin Areatzara jaitsita, egunero ibiliko da alde batetik bestera, parrandan, gauerdian Arriaga plazan "lo egiteko" geratu arte.

Txupinak berak urtero dauka antzeko zeremonia, 1978tik abiatutako jaiak eredu hartuta. Arriaga antzokiko balkoitik egiten da, jendea Arriaga plazan eta inguruetan pilatuz. Gainerakoa 2011ko eredu jarraituz deskriba daiteke: Bilboko Jaietako Zinegotzia, gorrentzako interpretea, konpartsen ordezkaria, txupinera eta pregoilaria

balkoira irteten dira zeremoniari hasiera emateko. Pregoilariak pregoia irakurri egiten du, txupinerak suziria piztu eta honen eztandaekin batera, txanpaia botilak ireki egiten dira, Marijaia balkoitik irteten da gainerako lagunak txikiagotuz, Aste Nagusiko ereserkia entzuten den bitartean. Hauxe da eferbeszentzia kolektiboko gune gorena.

Erritual honen barruan, pregoilariak Marijaia sakratuaren agerpenaren eta eguneroko bizitzaren artean bitartekari lana egiten du. Horregatik ez da harritzekoa nolabaiteko sona duen pertsona bat aukeratzea, badaukalako ezagunak duen distantzia-hurbiltasun ezaugarri hori, aura banalizatu bat. Aldi berean, bere lanagatik ezaguna izanda, egunerokoari dagokion lana islatu egiten du eta gizarte-arrakasta lan hori izan ohi du oinarri. Kirolariak, euskaltzainak, zinegotzi ohiak, artistak, musikariak, aktoreak, sukaldariak, kazetariak, enpresariak, e.a. izan dira pregoilari. Urte horretan, Kirmen Uribe idazleari egokitu zitzaion, 2009an "Bilbao-New York-Bilbao" (Elkar, 2008) nobelagatik Espainiako Literatur Sari Nazionala jaso zuen, moda-modako euskal idazlea beraz. Berari zegokion, pregoia idatzi eta esatea. Balkoira atera bezain pronto:

Iritsi da egun handia. Bueno, aurten ni aukeratu naute pregoilari, baina nik uste dut idazle guztiok izango garela pregoilariak, batez ere euskal idazleak. Horregatik, bi olerki esango dizkizuet, buruz, gogoratzen banaiz. Idatzi ditut Bilboko bi euskal idazleren... Bueno, *euskal*... Bilboko bi idazleren omenez, bata Gabriel Aresti eta, bestea, Blas de Otero. Bueno, badoa lehenengo olerkia: (Uribe 2011)

Ohizkoa da pregoilariak bere talde korporatiboari aitortza bat eskaintzea eta, nolabait, bere burua talde horren irudiaren ordezkari hartzea. Kasu honetan idazle guztiak, eta zehatzago euskal idazleak. Egokitu zaion erronka horretan, bi idazleei egiten die omenaldia. Idazleok hiru iruditan aipatzen ditu: idazle, euskal idazle, Bilboko idazle. Irabazitako Sari Nazionalak badu hemen bere pisua eta pregoilari-idazleari arrakasta kontraesankorra haragitzea tokatu zaio. Honakoa irakurri zatekeen bere liburu sarituaren harira:

Kezkatzen nau euskal kritikagintzak diskurtso kritiko propioa sortzeko duen ahuleziak, eta kanpoko instituzio eta eragile literarioek euskal liburuen gaineko diskurtsoak sortzeko duten indarrak. Badakit kulturen arteko hartu-emanaren ezinbestekoa dela, baina euskal literaturan

harreman hori desorekatua dela iruditzen zait, eta desoreka hori handituz doala. (Retolaza 2009)

Hauxe da liburua aztertzeko hartzen duen abiapuntua eta aipatzen den desoreka euskal literatur esparruak espainiar literatur esparruarekiko duena da, euskal kulturak espainiarrarekiko duenaren metonimia. Kirmen Uribek haragitzen du kontraesan hori, unibertsal-arrotzaren eta lokal-propioaren artean, espainiar literatura eta euskal literaturaren artean, New York eta Bilbaoren artean. Denek egin behar lukete bat Bilboko panteoi literarioarekin, eta panteoi horretan topatuko ditu Blas de Otero eta Gabriel Aresti, Unamuno alde batera utziz, Bilboko Udaleko branding literarioa erreproduzituz. Bilbo: Aresti "gizonaren alde" paratuko zuten *Zorrotzako portuan aldarrika* poemako Gilen eta Antonek, batak birauak euskeraz, gaztelaniaz besteak, Blas de Otero eta Aresti bera. Hautua eginda, *lapsus linguaeak* harrapatzen du Uribe eta zuzendu egin behar du esandakoa: "Bueno, *euskal*...". Zuzenketa horrekin okluitzen du euskal literatur esparruko gatazka eragilea –"euskal" literaturako definizioa— Bilboko literatura panteoira zuzenean jotzeko. Agerian dago, hitz-jarioan dagoen erreferenteen joan-etorria: "idazle guztiok", "euskal idazleak", "bi olerki", "bi euskal idazle", "bueno, *euskal*", "Bilboko bi idazle"...

Eta horren ostean dator omenaldia. Omendu baino, idazle biak interpretatu egiten ditu, beren olerki moldeak hartu eta errezipatu egiten ditu pregoia osatzeko. *Egun da Santi Mamina* poema-bertsoaren aktualizazioa egiten du. Herrikoi bihurtutako doinua erabiltzen du, koplak handiaren neurriarekin jarraituz eta orijinalaren leloa bere horretan mantenduz. Bertsoaren arauak ere jarraitzen ditu bertsoen barne-egiturari, oina da efektu eta golpea, bertan topatzen dute zentzua aurreko puntuek. Puntuz puntu, jaiak eta elkarrekin parranda egiteko gonbita, bizikidetzaren giltza elkarri entzutea dela, Kukutza gaztetxearen aldeko aldarria, euskalgintzaren aitortza, erasoaren kontrako aldarria Bilbon zein New Yorken eta txupinerari txupina pizteko eskaera. Bertso pare bakoitzeko, leloa kantatzen du berriro. Makila alde batera eta bestera, ezker erakuslea gora eta behera eraginez eta entonazioa etenez jendeak jarrai diezaion, plazako lagunak interpelatu egiten ditu leloa kantatu dezaten. Heterogeneoak interpretatzen ditu: pregoilari, Kirmen Uribe, Gabriel Aresti eta Blas de Otero.

Erritual honek lortzen duen elkarrekintzen bateratzea, elementuen arteko nolabaiteko koherentzia ulertzeko ritorneloa erabilgarria suerta dakiguke (Deleuze eta Guattari 2002, 317–358). Kolore, zarata eta usain anabasa dugu: pregoilariaren hori kolorea eta bikornio beltza, txupineraren gorria eta txapela, konpartsen kamisetak, jaietako zapi urdinak, edarien usaina (xanpainarena batik bat), Marijaiaren alkandora koloretsua, amnistiaren aldeko kartelak, okupazioaren aldekoak, ikurrinak, bandera palestinoak, Euskalteleko txanoak, serpentina zuri-gorrien goranzko jaurtiketa eta beheranzko hegaldia... Ritorneloaren bitartez, espazio-denbora bat sortzen da, jaien hasiera.

Ritorneloak funtzio katalitiko bat betetzen du, elkarrekintzak azeleratu eta elementuen anabasa horri masa antolatua ematen dio. Armiarmak armiarma-saretik euliaren ritorneloa zain daukan modu berean, zain dauzka elementu guztiak xanpain botilak ireki, serpentinak jaurtiki eta jaiari hasiera emateko. Balkoitik txupina botatzen denean, kontrapuntua xanpain botilen eztanda txikiak eta xanpainak gainezka egitearekin batera, dantza Aste Nagusia ereserkiaren sinkronizatu egiten da. Errepikapenak eskaintzen duen bilakaera autonomoari esker, sinkronizazioa ematen da behean dauden lagunek, armiarmaren moduan, ritorneloan atzematen dutelako.

Txupinak eta ereserkiak duten efektu berbera dute pregoiaren bertsoek, besteen simulazioa eta antizipazioa dira. *Egun da Santi Mamina* bilakaera autonomoa izan duen ritorneloa da, *Harri eta Herritik*, Mikel Laboaren *Euskal kanta berrira*, eta horren ostean garatu den erritmo herrikoi tankerara, eta honen zabalkundera.

Baina zer oinarri dauka ahots ezberdinen bat egite horrek? Abesten duten lagunek, inoiz inon gorpuztu dute aurretik *Egun da Santi Mamina*, ezaguna dute behintzat leloa, poteo musikatuetan ohizko doinua delako, zeinetan taldekideek kantatu egiten duten. Kasu horietan trikitixaren doinuak pizten du ritornelloa eta abesten dutenen ahotsak amplifikatu, soinuek propio duten joera horretan, kalean zehar zabaldu egiten da ritorneloa, taberna ezberdinetara sartuz eta koadrila ezberdinek osatzen duten lurraldeak agentziatu edo lurralde horien paisaia izatera pasa daiteke. Maila ezberdinetan aktiba ditzake, koadriletako kideen ahotsak erreklutatu edo, lurraldea birragentziate aldera, koadriletako kideak euren artean ozenago hitz egitera behartuz.

Ez da harrizkoa, beraz, ezaguna duten horiek abesteko gonbite modura hartzea. Kirmen Uribe laguntzen die, zuzentzen ditu nolabait, interpelazio zuzenak eginez:

doinuaren bariazioak eta keinu zuzenak publikoari. Azken batean, bera da pregoilaria balkoian gorpuztu egiten duena.

Gero suertatuko den eztandaen atariko, pregoiaren bertsoak hartzen du jai-lurralde osoa. Batetik, ritorneloak lagun berriak erreklutatzen ditu. Bozgorailutik entzuten den ahotsak bere paisaia melodikoarekin bat egiten du, plazako ahots anitzekin alegia, eta hauek guztien indarrak lurralde gero eta zabalagoa hartzen dute. Bestetik, bertsoaren egiturak berak, erritualaren parte den kontzientzia kolektiboa izaki, lagunak arreta eskatzen du. Erritmo eta bertso-neurri ezagunak, puntuetan antizipazioa errazten du. Zentzu horretan, errimen eta silaben egiturak funtzio fatikoa ahalbidetzen du nobelak egiten duen bezala (Barthes 2009c, 260): nobelako ekintzek tramarekin duten harremana bezala, ahoskatutako silaba bakoitzak hurrengoaren itxaropena eragiten du, kasu askotan gorpuztak diotso lagunak bati erabiliko duen oinaren zati bat, efektu hori ematen da publikoaren parte delako, makinaren beste atal bat. Hala uler daiteke, bertso honetan ahots askok pregoilariak esango zuena antizipatzea:

“Bizitza ez da lan hutsa / alaitu behar da gorputza / irtenbideak aztertu eta / salba dezagun Kukutza”(Uribe 2011)

Koplak hiru puntu ditu, zortzi silabakoa bakoitza eta beste lerro bat hamar silabakoa, bertsolaritza kodean 8A/8A/10/8A egitura du. Ohizkoa denez, oinak egituratzen du bertsoa, hor pilatzen da ideia nagusia eta hortik abiatzen dira gainerako puntuak. "Hutsa" eta "gorputza" errima du lehenengo bi puntuetan, beraz oinak "utza"/"utsa" errima eduki beharko luke. Edukiari dagokionez, lanaz gain bizitzak alaia izan behar duela esaten du –eta honek bat egiten du pregoiak Aste Nagusian egiten duen mugarri funtzioarekin–. Hirugarren lerroan, "irtenbideak" aztertzeko deialdia egiten du, hauxe izan zen egun horietan Kukutza gaztetxearen aldeko mugimenduak egiten zuen deialdia: Udalak gaztetxea kaleratzeko agindua bete behar zuela argudiatzen zuen eta gaztetxearen aldekoek bestelako "irtenbideak" bilatu behar zirela. Udaren hasierarekin batera eztabaida hori egon zen kalean zein hedabideetan. Aste Nagusian gaztetxearen aldeko aldarriak presentzia handia edukiko zuen. Laugarren lerroa hasita, silaba batean edo bestean, ahots batzuk gehituz doaz silaba eta erritmo ezberdinetan "sal-ba-de-za-gun-Ku-ku-tza". Pregoilariak, gainera, astiro ahoskatzen ditu gaztetxearen silabak, plazako lagunak harekin egitera gonbidatuz. "Utza" errima edukita eta gaztetxearen

aldeko aldarriak martxan jarrita, antizipazioa erraztu egiten da. Bertso honen ostean, errepikatu egiten da leloaren ritorneloa: “Egun da...”.

Gorputzak alaitu egiten ditu bertsoak, eta inoiz baino gehiago dantzatu egiten da bertso honen ostean. Batetik, dantza egiteak gaztetxearen alde lerratzea inplika dezake. Baina, horretaz gain, bertsoaren egiturak duen funtzio fatikoak berak eta aldarriaren aldeko mobilizazioak, nolabaiteko katarsia sortzen du publikoarengan eta horrek eferbeszentzia kolektiboa areagotu egiten du.

Errepara diezaiozun katarsiaren funtzionamenduari, Aristotelesen Poetika eta Ricoueren Mimesiaren ikuspegitik (Kearney 2001, 129–142). Mimesia berregitea (*reenactment*) da. Kukutzaren gainean eman diren azalpenak eta bertso-moldeak prefiguraturako bertsoa sinesgarri egiten dute. Hau da, bertsoa bera ulertzeko konpetentzia parametro horietan ematen da (euskara ulertze hutsetik aurrera) eta parametro horiei esker bertsoak zein testuinguruak osatzen dute ritorneloa. Horrela funtziona dezake testu kantatuak, konfiguraturako testuak, aurrez ezarritako bertso-moldearen eta diskurtsoaren mimesi gisa. Eta, azkenik, hura birfiguratu egiten da, mimesia oina antzipatu eta ahoskatu egiten dutenen eta dantzan egiten dutenen ekintzek osatzen dute. Mimesi honek efektu katartikoa dauka, balkoiaren eta publikoaren arteko distantzia apurtu egiten da, heroi eroriaren eta publikoaren artean apurtu egiten den bezala.

Kukutzaren bertsoa hartu dut mimesiaren funtzionamendua nahiko ondo azaltzen duelako, pil-pilean zegoen gaia zelako, errimari aberatsena erabiltzen duelako eta, horregatik ziurrenik, efektu handiena izan zuena izan zelako. Hala ere, beste edozein bertso hartu nezakeen, mimesiaren eta ritorneloaren eragina azaltzeko.

Gabriel Arestiren beste aktualizazio bat izan da honakoa. Urtero ematen den errito batean inskribatua, Aste Nagusiari hasiera ematen dien mugarrira. Erritoak performatibo alaia ahalbidetzen du, jaiei hasiera ematen diona, baina horretarako gorputzutako errittoa izan behar du, testuinguru jakin batean ahots autorizatu batek esana. Autoritatea elementu ezberdinen bateratzetik datorkio –xanpain botilak, pregoilariaren eta txupineraren jantziak, jendetza, suziria, e.a.— edo, hobeto esanda, hauek guztiek duten funtzionamendu makinikotik, hortik heldu diot ritorneloari elementu ezberdinei izaera bateratua emateko gaitasuna duelako.

Bestetik, pregoilariak berak gorpuzten duen figura dago, Kirmen Uribe. Euskal literatur esparruak ematen dio autoritatea pregoilari izateko, esparruan okupatzen duen posizioa eta esparruaren historia bera gorpuzten ditu, bere instantzia nominatibo propioaz gain (“Kirmen Uribe”). Bilboko bi idazleren omenezko pregoia egiteko aukera egiten du, aurretiaz ezarritako Bilboko panteoi literariora jotzen du: Miguel de Unamuno, Blas de Otero eta Gabriel Aresti. Hortik, poeta euskalduna eta poeta erdalduna interpretatu, bere liburu ezagunaren zein elebitasunaren alde bikoiztuaz baliatuz.

Irudia 29. 2011ko Aste Nagusiko txupina, Bilboko Arriaga plazan



Iturria: (Bilboko Konpartsak 2015)

Prefiguratutako elementu guzti hauek, gehiago sartzea lar luzatzea litzateke, ritorneloaren bitartez ematen den konfigurazioan aktibatu egiten dira eta norabide eta efektu propio bat sortu. Horrela, elementu guztien funtzionamendu makinikoak mimesien jokoan ematen den katarsia ahalbidetzen du eta, errito mailan, eferbeszentzia kolektiboa.

Beste elementu askorekin nahasten da Gabriel Aresti eta haren obra, aktualizatu egiten da haiekin batera. Hauxe da mimesiaren beste maila batean ematen dena: birfigurazioa, hau da, zelan bertan egon diren lagunek zein hedabideetatik ikusi

dutenek pasa duten errito honetatik euren existentzia. Hor argi dago, batetik, performatibo alaia dela txupina, “0” unea markatzen du jaiei hasiera emateko, jaien eta egunerokoaren arteko mugarri. Baina, horretaz gain, erritoaren erreproduzio hutsaz gain pasa diren elementu berriek denbora-espazio propioa sortu dute: Aste Nagusia 2011.

Elementu berri horien artean dago Gabriel Aresti eta bere ere aldatu egin da, nolabait. Bere bertsoa ez zen jada bere bertso berbera musikatu eta poteo *herrikoien* parte denetik, oraingoan mantenduko zuen doinua –beste inork ahalbidetu zuen aktualizazioa– eta leloa –doinutik baztertu ezin den bertsoa– bere poemari esangura berri bat emateko, bertsoan orduko gaiak sartuz eta Aste Nagusiari hasiera emanez. Sare guzti horretan funtzionatzen du Arestik, konexio zaharrak indartuz eta berriak sortuz intentsitate ezberdinetan eta,aldi berean, konektatu barik geratzen diren elementuak publikoaren prefigurazioaren menara utziz, batzuk konekta eta beste batzuk konekta ez ditzan. Eta horrek ahalbidetzen ditu, berriro ere, konfigurazio berriak posible egingo dituzten birfigurazio anitzak. Eta hor has daiteke berriro jolasa.

4.4. ONDORIOAK

Barthesek poesia eta mitoa aurrez aurre ipini ditu, lehenak infrasignifikaziorako joera duen bitartean, bigarrenak ultrasignifikazioa bilatzen duelako. Hau da, poesiak hitzen zeinu izaera gainditu nahiko balu bezala jokatzen du, kontzeptuen abstrakzioa eta zeinuaren arbitrarrietatera zabaldu egiten da (Barthes 2005, 227–229). Kasu honetan, harri eta herriren arteko gertutasun foniko arbitrarioa kontzeptu berria sortzeko erabili daiteke, aitaren etxea iragan eta orainaldiaren arteko topika sakrifizialean kokatu, aitaren-etxe hitz-elkarketaz gaindiko kontzeptura bideratzeko, edota *Egun da Santi Maminak* hitzen silaba eta erritmak sakabanatu egiten dira koplak handiaren melodikarekin bat etortzeko. Hala ere, poesia mitoaren ukapena den neurrian, mitoak poesiaz jabetzeko joera du: “poesiaren erresistentziak berak mitoaren harrapakin ideala bihurtzen du: zeinuen itxurazko desordena, orden esentzial baten aurkezpen poetikoa, mitoak bere egiten du, poesia signifikatzeko balio lezakeen adierazle huts bilakatzuz” (2005, 228). Eta halakoa suertatu da behintzat, aitaren etxearen eta harriaren kasuetan, abertzaletasunek bere egin izan dituzten neurrian.

Baina aztertutako hizketa-ekintza horietan afektuak deitu ditugun energia intentsitate askeak izan dira elementu aurresemilogikoak. Zentzu horretan, infrasignifikaziorako joera horrek biluztu gabeko errepikara gerturatzen dituela dirudi, iruditze horretan dihardu afektuak katalizatzen dituen ritornelo gisa, ritorneloan parte hartzen duten gorputzekin harreman diferenteak osatuz.

Aitaren etxea *topika* da, gorputzek lurraldearekin osatzen duten harremana. Aitaren etxearen defentsan, gorputz-lurraldea lurralde nazionalarekin berdindu daiteke, mutilatu egiten den niaren bitartez, poemaren errepika errepika traumatiko bihurtzen da. Ritorneloak katalizatutako afektu horiek hiritarrak sortzeko bideratu zituen Garaikoetxeak, *aitaren* etxeak eta aitaren *etxeak* eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz, Gernikako estatutuaren lurralde sasiestatalean txertatuz. Bitartean, deklinazio ezberdinak zabaldu zituen Gernikako bonbardaketaren urteurrenak, trauma historikoaren errepika gisa, energia sozialak norabide ezberdinetan bideratu nahi ziren norgehiagoka politikoan. Lotura horietatik askatu nahian, topika berriak formulatuko ziren. *Zaramak* aitaren etxetik alde egiteko deia luzatzen zuen, maila ezberdinetan, kalea aldarrikatuz. *Euskaldunon Egunkariaren* ondotik errepika traumatikoa beste nonbaitera bideratu nahian, *amaren sua* aldarrikatuko zuten euskaltzale batzuk. Desplazamendu paradigmatico hauei, dezplazamendu sintagmatiko ironikoak gehitu zaizkio, etxebizitza burbuilaren eta prekarietatearen arazo sozialak aurrera egin ahala: energiak bideratu baino, ritorneloa barregarri bihurtu dute.

Harriaren kasuan *fonika* da gaineratzen dena, gorputzek ahoskerarekin osatzen duten harremana. Arestik harri-herri gertutasuna ustiatuz, euskal harriaren deklinazio berrietarako tartea zabaldu zuen, harri-herri adituak deszifratu beharreko enigma bihurtuz. Honekin batera, joko eta jolas fonikoak aktibatuko ziren arlo ezberdinetatik euskal izaerako elementu dominanteak definitzeko norgehiagokan.

Egun da Santi Maminak, ordea, melodikan jotzen du, gorputzek erritmoarekin osatzen duten harremana. Erritmo musikala eta erritmo sozialek katalizatzen dituzte afektuak, Santa Ageda bezperatik Aste Nagusiko txupinera.



Ondorioak

Ikerketa honen helburua, Arestiren produkzio-testuingurutik abiatuta, hura euskal kultura eta gizartean era ezberdinetako agerraldiak ziurtatzen dituzten bitartekariak aztertzea zen, bitartekari horiek bere obra eta figuran eragiten dituzten errefrakzioei ere erreparatuz. Bitartekaritza horien analisisan gai oso ezberdinak agertu dira, horrek ikerketa-objektua begi bistatik ez galtzeko azalean geratzera behartu banau ere, badira ikerketan zehar gailendu diren kontu batzuk, lau topologia eta kapitulu banatan agertzen den lanarekiko izaera transbertsala dutenak. Horiek dira ondorio hauetan jorratu nahiko nituzkeenak.

Aurrena, frankismo garaian euskal kultura esparruan gauzatu zen bilakaerak bizirik dirau instituzio ezberdinen jarduerari esker. Arestiri esleitzen zaion izaera fundazionala da horren lekuko. Testuinguru jakin baterako erabilgarri suertatu ziren zenbait postulatu mantendu egiten dira oso bestelakoa den testuinguruan, histeresi egoera bati esker. Hauen indarraren gainean eta uste horiek Aresti eta enparauek borrokatu zuten kontserbadurismoarekiko era analogoan zenbateraino diharduten galdegingo dut.

Ondoren, euskal gizarteak Aresti zein bere obrarekin osatzen dituen harremanak historia hurbilean suertatutako transformazioen argitara jorratuko ditut. Arestiren heriotzetik gaur egunera doan aldia bitartekari horien gaineko narratiba osatzeko aukera ematen dit. Zenbait gertaerek poeta eta honen lana ulertzeko interpretazio berriak eskatuko dituzte, bestelako irakurketen beharra dagoen neurrian.

Bukatzeko, auzio soziologikoagoa jorratuko dut, aurrera egin ahala ikerketaren hondar gisa pilatu izan zaidana, afektuen auzia hain zuzen ere. Omenaldi eta aktualizazioen analisisa orrialde hauetan islatu ahala, edozein artikulazio-praktikan ezinbestekoa den elementu bati jo behar izan dut. Elementu hori izendatzeko afektu hitza erabili dut, ahalbidetzen dituen artikulazio horiei itzuri egiten dion hori kontutan hartu ahal izateko.

EUSKAL KULTURAREN HISTERESIA

Gabriel Arestiren idazketa-testuingurutik abiatu naiz ikerketa honetan. Euskal literaturaren definizioa euskaraz idatzitako literatura gisa gaineratuz joan bazen ere, berez ezin esan liteke euskal literatura esparruaz hitz egiteko baldintzarik ematen

zirenik. Ez zegoen irizpide amankomunak markatzen zituen merkatu linguistiko bateraturik, euskara bera landu eta irizpide batzuk adosten aritu behar izan ziren horretarako. Argitaletxeen merkatuak berezitasun asko zituen, mezenazgo kolektibo bati esker funtzionatuz. Azken batean, euskal literaturak euskal kulturaren azpiesparru gisa ziharduen, esparru honetako dinamika euskaltasuna definitzeko saiakeren bitartez gauzatzen zen. Disziplina anitzek –eskultura, antropologia, historiografia, besteak beste— parte hartzen zuten definizio horren inguruko norgehiagokan, baina euskal literatura izango zen dominantea, diferentziazio-faktore nagusi gisa inposatzen den elementuari, euskarari alegia, *forma* emateko zuen gaitasunagatik. Euskal literaturaren autonomia faltaren adierazgarri, bereziki hasieran, euskal literaturaren balorazio-irizpide nagusiak publikazioen forma edota edukiak euskal kulturari egiten zion ekarpenaren arabera neurtzen ziren: forma, euskara bera lantzen dutelako; edukia, euskal folklorea, bizimodua, e.a. islatzen zituztelako. Apurka-apurka, forma izango da gaineratuko dena, euskara, euskal kulturaren elementu definitzaile gisa, instituzio askoren bultzada eta sorrerari esker, hizkuntzaren sustapena bultzatuko zuten euskal kulturaren produkzio eta erreprodukzio guneei alegia.

Arestik instituzio horietako askotan parte hartuko zuen –Euskaltzaindia, Lur argitaletxea, Kriselu antzerki-taldea, e.a.– euskarazko literatura tradizioaren joera kulturnista eta populista gisa izendatu zituenak gainditzen saiatuz. Bere belaunaldiko beste hainbat idazlek bezala, euskara (forma) lantzeko aukera egin zuen, “gizonen egiaren” berri emanaz (edukia). Bere posizio-hartzeen batasun-printzipioa bi dimentsioren bitartez gauzatzen zen, berak “mandatu” gisa kalifikatu zuena: euskal literatura tradizioaren birfundazioa eta “gizonaren aldeko” egien transmisioa. Hortik abiatuta narrazioa, antzerkia, artikulua, literatura kritika eta, noski, poesia bezalako genero ezberdinetan parte hartzera eramango zuten posizio-hartzeak uler litezke.

Posizio-hartze horiek, aurrena, belaunaldi zahar eta berriaren arteko hausturan kokatu behar dira. Belaunaldien arteko ika-mika euskarazko ortografian *h*-a sartzeko eztabaidan zertuko zen. *H* letrak, euskaldun gehienentzako fonemarik gabeko letra, edukirik gabeko forma den neurrian, ondo baino hobeto islatzen du belaunaldi zaharraren eta berriaren arteko haustura. Norgehiagoka eduki unibertsalak bere egin zitzakeen formaren alde egiten duen belaunaldi berriaren eta berezko hizkuntza berezko edukiekin uztartu nahi zituen belaunaldi zaharraren artean ematen zen. Era analogoan, *h*-a, edukirik gabeko forma, belaunaldi berriaren estandarte bihurtuko zen,

belaunaldi zaharrarentzako hizkuntzaren okerbidea zen bitartean. Zentzu honetan, Arestik parte hartzen zuen belaunaldi berriak euskal kulturaren balizko eduki esentzialetatik deslotu nahi zuen euskara, eta beren idazketarekin huste-prozesu bat egiten bukatzen zuen hizkuntza berriari forma emate aldera, birrapropiazio berrietara, artikulazio-praktika berrietara, zabalik dagoen adierazle hutsaren alde («significante vacío», Montero 2012) egiten zuten, betiere hauek euskaraz izatearen baldintzapean.

Euskal literaturak euskal kulturarekiko zuen heteronomia egoera euskaltzale-idazlearen, euskararen militantearen, emergentzian adierazten zen: euskara ikastearen trantzetik igaro eta honen batasunaren lehen hastapenen zama bere gain hartu zuen hura. “Hausturaren belaunaldi” gisa talde-batasuna eman zaie idazle hauei, beren habitus autodidaktaren disposizioei balioa ematen jakin izan zuten, aurrekoen habitus erlijiosoaren aurrean, literatoak bestelako euskaltzaleei nagusitzea ahalbidetu zuen eskriturizazioaren pribilegioaren bitartez.

Hala ere, belaunaldi honen disposizioak fraide-anaiarte edo apaiztegi-tako ni-aren teknologien era analogoan gidatzen jarraitzen zuten. Gizonek soilik parte hartzen zuten –Lourdes Iriondoren salbuespen esanguratsua eta Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox?* 1979ko eleberria kenduta– hausturaren idazleen estoizismoa bere literaturaren izaera desharagituan adierazten da. Euskararen sustapenaren gorputzez gorputzekoa andereñoen eskuetan geratzen zen, emakume idealizatu bezain ikustezinen esku. Itxaro Bordak Arestiren poesiako gorputzak sufritzaileak direla salatu du, atseginerako tarterik apenas dutenak. Baliteke azken urteetako bilakaerak Arestiren poetikarako irakurketa irrigarri eta gozagarrietarako tartea zabaltzea. *Egun da Santi Mamina* abestiak martirologio kristauari hertsiki lotutako letrak baditu ere, bere erritmoetan jaia zartatzen du: Santa Agedako bezperaren ospakizunetik erauzitako kantuak ospakizun laikoen gehiegikeriei bidea zabaltzen die. Euskal Harri, Herri zein Hiriaren seriotasunari, Igor Ahedok sintesi bitxia kontrajartzen dio: Euskal Irria. Azken aldiko, *aitaren etxearen* apropiazio ironikoek, euskal irria askatzeaz gain, identitate prekarietatearen testuinguruan irudimenezko babesleku gisa diharduten tropoak birpentsatzeko aukera ematen dute.

Azken batean, identitate prekarietatea nostalgiaren forma hartzen duen euskal kulturaren produkzio eta erreproduzio guneetan gauzatutako borroken histeresiarri esker mantentzen da. Histeresi hau euskararen izaera sakralera itzultzen da, erabilera

profanoagoei oztopo eginez. Hezkuntza-erakundeei hertsiki lotutako hizkuntza dugu, zeinak zuzenkeriara gidatzen du honen erabilera, liratekeen hitzunei segurtasun linguistiko ezara eramatea lortzen ez duen horietan. Ez dago merkatu linguistiko bateraturik asmatzeko beharrik, egon dagoelako, beraz ez da ezinbestekoa euskaldun guztiek euskalkiak menderatu eta hausturaren belaunaldiak irentsi behar izan zuen literatura tradizio osoa irentsi beharrik. Merkatu linguistiko orok kapital linguistikoaren banaketa asimetricoa dakar –betiere eredu nagusi batekiko—, baina asimetria honek ez luke zertan hiztuenen segurtasun linguistiko eza sortu. Hauek, noski, euskaldun orok menderatzen duen bestelako hizkuntza dominante batean babesten bukatuko dute, segurtasun ezaren aurrean, lurralde profanoan eroso mugitzeko aukera ematen duena: gaztelania edo frantsesa. Hori bai, euskararen aurkako ageriko eraso ematen den kasu apur horietan, komunitate euskaltzaleak bere burua antzeman dezakeela dirudi. Zeran nago pentsatzen, Gaizka Garitanok, Eibar Kirol Elkarteko entrenatzaileak, prentsaurrekoa euskaraz hasteagatik kazetariak errieta egin ziotenean, eman zen bat-bateko erantzun irmoan. Euskal Autonomia Erkidegoan euskaltasunaren definizio administratiboa ezarri bada ere eta definizio honekin bat egiten duten biztanle gutxienak euskaldun badira ere, euskara euskal gizarte osoak duen altxor gisa mantentzen da, azken lotura soziala izango balitz bezala. *Gure esku dagok* Euskal Herriko estadioetan egindako ekitaldia ere datorkit burura, bertan ezin izan zuten hain arestiarra den “euskara da euskaldun egiten gaituena” mantra errepikatzea saihestu, nahiz eta ekitaldiaren helburua erabakitzeke eskubidearen aldeko sostengua lortzea izan; euskaldunen zein komunitate abertzale-euskaltzaleaz haratagoko lazo soziala bilatzeko saiakera, hain zuzen ere. Euskara euskaltasunaren eduki bihurtu da, horregatik, baliteke gailendu egin diren Aresti eta enparauen letrak traizionatzeko garaia heldu dela, berriro ere haien musikaren tonua berreskuratzeke.

Testuinguru honetan, Aresti igaro beharreko puntu bihurtu da berak egindako apostu asko instituzioek bere egin duten neurrian. Gainera, hausturaren ondorengo belaunaldiarentzako pertsonaia karismatikoa izan zen, haren inguruan Saizarbitoria, Sarasola eta Urretabizkaia bezalako idazle entzutetsuak inguratuz. Saizarbitoria edo *Txillardegiri* nobelagintzan esleitzen zaien izaera modernizatzailea, Arestiri esleitzen zaio poesigintzan. Beraz, euskal poesiarako gerturatzeak Arestiren gainditzearen terminoetan neurtzera pasa dira, Ibon Sarasolarekin, aurrena, eta Bernardo Atxagarekin, ondoren, gertatzen den moduan. *Harri eta herriren* (1964) izaera

herrikoiaren aurrean, belaunaldi aurrerakoi eta euskaltzalearen sinbolo bihurtua eta modatik pasata zegoen poesia sozialaren adierazgarria, batzuk *Maldan behe* (Aresti 1960e) poema sinbolistari hautsa kendu ahal izango diote, obra “zaila” izanda oiartzun eskasa izan zuen horri, euskara batua existitu aurretik batuan idatzitako lehen obratzat hartuz.

HARTZAILEEN ETA AKTUALIZAZIOEN HISTORIA BAT

Arestiren omenaldi eta haren poemen aktualizazioak hizketa-ekintza unitario gisa, diferentzia sortarazten duten errepika gisa hartzeaz gain, hizketa-ekintza hauen arteko zenbait jarraikortasun eta haustura identifika litezke, bilakaera sozioekonomiko eta politiko zabalagoekin harremanetan aztertzen diren neurrian. Hiru mugarri nagusiren inguruan eraikiko dut irakurketa sinkroniko hau: 1985, 1997 eta 2011.

Lehen, Arestiren heriotzaren ondoren euskararen sustapenerako eta euskal literatura esparru propio baten azaleratzea ahalbidetzen duten hainbat tresnaren garapenarekin bat eginda, Aresti euskal kulturako igaro beharreko puntu bihurtzen da. Aldi berean, idazle gurtua izatera pasatzen da. Hain zuzen ere, Arestiren literaturaren adierazgarri den Bilbo industrialaren gainbeherarekin bat egiten du prozesu honek, 1985ean Euskaldunako ontziolaren itxieran kokatu daiteke prozesu horren mugarria. Garai honetan, euskal nazionalismoaren bi familia nagusien hegemonia eskuratzeko norgehiagokan, *Nire aitaren etxea* poemak norgehiagoka horretan nagusitzeko adierazle higikor («significante flotante», Laclau eta Mouffe 1987, 230–234) gisa arituko da, artikulazio-saiakera diferenteen aurrean.

Diktaduraren bukaera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gernikako Estatutuaren garapenarekin batera, Garaikoetxea Lehendakariak interpelazio berriari ekin zion, zeinetan euskal hiritartasun berria aitaren *etxeko* egoiliar izatetik definitzen den – Estatutuarekin bat eginez– baina euskal nazioa osatuko lukeen “herri zaharraren” erreferentzia bistatik galdu barik, *aitaren etxea*. Aitaren etxea Estatutu berriarekin nahasten da, aberriaren egikaritzea den aldetik. 1983ko uholdeetan, Bestehondamendiaren aurrean osatzen den balizko kontsentsuaren aurrean, bere gorberruaren ildo nagusien berri ematen zuen: aitaren etxearen berreraikuntza eta baketzea. Baina tropo poetiko honek norgehiagokan ari diren bi nazionalismo formen

ringetako bat ere izango da. Norgehiagoka horren agerraldirik nabariena Gernikako 50. urteurrenean emango zen, ospakizuna egiteko bi eredu kontrajarriko zituzten Herri Batzordeak eta Batzorde Ofizialak, bi narratiba kontrajarriz, baina Arestiren poema berbera errepikatuz. Estatutuaren mito berria edo borroka antifrankistaren mito zaharra, tropoa bi familiek artikulatzeko saiakerak egiten dioten adierazle higikorra bihurtu da, hegemoniaren gaineko borroka zabalago batean.

Gernikan, ostera, desindustrializazioaren hondarretatik eratorritako beste joera berri batek ere parte hartu zuen. Herri Batzordeak antolatutako jardueren artean, euskal kanta berri zaharraren eta Euskal Rock Erradikal berriaren kontzertuak ere zeuden. Aitaren etxea artikulatzeko norgehiagokari tropo berria gehitzen zitzaion, kalea, *Zaramak* ondo baino hobeto adieraziko zuen eredu hori, “aitaren etxetikan ihes egiteko” dei egiten duenean (Sáenz de Viguera Erkiaga 2008). Ordena sozioekonomikoan, lantegietako borroka kalera desplazatu egiten da, bertara bota dituzten gazte kopuru esanguratsuaren bitartez. Ordena politikoan, kalea sortu berri diren erakunde politikoei kontrajartzen zaie. Ordena kulturalen, kaleak hartu egiten dira, kontzertuen erritualetan batik bat. Eta ordena sinbolikoan, bi familiek eztabaidatzen duten mitoari uko egiten diote, aitaren etxetik alde eginez eta kaleko *errealitatera* zabalduz.

Urte horietan ere instituzio berrituek, Bilboko Udalak bereziki, omendutako pertsonaia bihurtzen dute Aresti. Arestiren heriotzaren 10. urteurrena ospatzea “ahaztu” izanagatik gaitzespena jaso eta urtebete ondoren, 1986an, Bilboko Udalak jardunaldi batzuk eskaintzen dizkio eta Bilboko Hiribilduko Ipuin Sariak Gabriel Aresti Sari gisa birbataiatzen ditu, poetaren ohorez, Susa argitaletxeak bere obra guztiak eta Maskarada eta Oskorri taldeek antzerki-omenaldia eskaintzen dioten une berean. Hain zuzen ere, Arestiren Bilbo eredu ekonomikoaren bilakaerarekin batera gainbeheran dagoen unean bertan ematen da, Euskaldunako gudu galdua eta Guggenheim ikur hartuko zuen Bilboren plangintzaren atarian. Literaturan kotsakratua, Aresti euskal kulturako totem bihurtzen hasi da.

Bigarren mugarrria 1997 urtearen inguruan koka daiteke, urte horretako bi gertaerek Arestiren bizitza eta obrarako interpretazio-markoetan eragin nabarmena dute eta. Batetik, Guggenheim Bilbao Museoaren ateak zabaltzen dira, hiribildu berriaren bandera-ontzia, hiri-brandingaren praktikak hiru literato nagusien omenaldietara

lerritzen diren bitartean –Aresti, Otero eta Unamuno– haien omenezko egun instituzional bana osatuz. *Guggenheim efektuarekin* arrakastatsu suertatu den *branding*-paradigmaren nagusitasunak, arkitekturazko Bilboz haratago, Bilbo literario bat ere proiektatuko du.

Bestetik, Miguel Ángel Blanco zinegotziaren erailketarekin batera, ETAren kontrako mobilizazio-zikloa abiatu egiten da, bere ekintzen gizarte-deslegitimazioa eta bere “ingurunea” delakoaren kontrako neurri legal, judizial eta polizialen intentsifikazioarekin batera. Arestiren adierazle poetikoen hainbat desplazamendu ematen dira, hauek euskal identitatea eta borrokarekiko dituzten inplikazioak gainditu nahian, lan honetan aztertu ditudanak *harria* eta *aitaren etxea* izan dira. Estrategia *zaharraren* aldeko apustua mantenduko duten horiek, jatorrizko adierazleak berrezarri nahi zituzten neurrian, hauek interpretazio-marko zaharrarekin duten ainguraketa indartu egingo dute.

2003ko *Euskaldunon Egunkariaren* ezusteko itxierak aitaren etxearen errepikak agertarazi zituen, Gernikako bonbardaketaren urteurrenaren antzera. Oraingoan, baina, Jon Sarasua eta Joxerra Garziak beste inora bideratu nahi izan zuten, *amaren sua* formulazioaren bitartez, euskararen defentsaren eta Euskal Herriarentzako marko propioaren arteko lotura gainditu nahiean. Bi adierazleen arteko norgehiagoka euskal kultura eta politikaren harremanaren zein ETAren eta ezker abertzalearen gizarte-legitimazioaren inguruko tira-birara eratorriko zen.

Urte hartantxe estrenatuko zen *Euskal pilota: harria larruaren kontra* dokumentala, Euskal Herriko indarkeri eskenatokia gainditzeko ahaleginetan. *Harria, herriarekin* duen gertutasun fonetikoagatik Arestiren hiru poesia-liburuei izenburua ematen zien adierazlea, gainditu nahi duen proposamena pazaratzen zuen Bernardo Atxagak dokumentalean. *Pott banda* lehen euskarazko literatura abangoardiaren kide, Atxagari esleitzen zaio, frankismoaren bukaeran, Arestiren paradigma identitarioa gainditu nahia: euskal identitatearen adierazlea zen Arestiren *harriaren* ordeztan, *harea* kontrajartzen dio itzaltzen ari zen identitate zurrinari aurre egiteko, edukitzaileari esker batuta mantentzen den edukia da *harea*. Kontsakratu eta nazioarteratutako Atxagak ematen dio hasiera eta itxiera dokumentalari, amesten duen Euskal Herria proiektatzen du, Euskal Herriari hain zuzen ere kontrajartzen zaion Euskal Hiria, biziko balitz “gainetik kenduko dugun zamari esker” igarriko litzatekeen hori. Honela,

Atxagaren *harea* eta *hiriaren* eta Arestiren *harria* eta *herriaren* arteko jarraikortasun fonetiko eta semiotikoa atzeman daiteke, Euskal Hiria eta Euskal harriaren arteko oposizio berria sortuz. Termino honek, baina, kontrako erantzunak jasoko zituen Euskal Herri-harriarekiko atxikiak, bereziki Ardatz Atlantikoaren konformazioan Abiadura Handiko Trenaren eraikuntzarako *Euskal Yaren* eraikuntzarako kontzeptu klabea bihurtu zen neurrian. Euskal Hiriaren hezurmamitze horrek, baina, mugimendu ekologistaren mobilizazioak eta ETAREN ekintzak izango zituen aurrez aurre.

Hirugarrenaren mugarrria 2011n koka daiteke, ETAK bere ekintza armatua behin-betiko uzteko erabakia jakinarazi zuenetik alegia, baina bestelako bilakaerekin duen harremana –krisi ekonomiko eta instituzionalean ari naiz pentsatzen— zein edukiko dituen ondorioak oraindik ikusteke daude. Adierazle poetikoak ironiazko eta jai apropiazioetara zabaltzen dira, *Harri eta herriren* 50. urtemugarekin biderkatzen diren omenaldiekin batera. Euskal kulturako pertsonaia eztabaidea zena, eztabaidatua izaten hasten da, hain zuzen ere, posizio feministetatik, euskal kulturak oraindik bere horretan mantentzen dituen izaera patriarkal eta desharagituari zuzenduta.

Orain arte nagusitu egin diren interpretazioen seriotasuna arrakaltzen dituzten aktualizazio irrigarriagoak agertu dira azken urteotan. Eusko Jaurlaritzaren proiektu desarrollistarako Euskal Hiriaren apropiazioaren kontra, Igor Ahedok Euskal Irria proposatzen zuen, *hiria* eta *herriaren* erdibideko bariazio fonetiko gisa, identitatea era gozagarri eta irrigarriagoan bizitzeko gonbidapena luzatzen du, Arestiren harri zein AHTren modernitate desarrollistako tropoa den hormigoi astun eta zurruna desaktibatuz. Era analogoan, aitaren etxearekiko hurbilpen ironikoak ageri dira, etxebizitzaren arazoa edota prekarietataren izaera nomada mahai gainean jartzeko.

IRUDIKAPENETATIK AFEKTUETARA

Azken kapituluan afektuak jorratu ditut ritornelo poetikoek –topiko, foniko eta melodikoak– beren errepiketari askatzen duten horretaz aritzeko. Freudek pultsioak bi eratan azaleratu zitezkeela zioen, afektu edo irudikapen gisa (Laplanche eta Pontalis 1996, 12–13). Ritorneloa bien bitartean dagoela esan daiteke, irudikapenak zein afektuak piztu ditzake, batean zein bestean. Hortik Barthesek poesian infrasignifikaziorako joera topatu izana, izaera horrek, aldi berean, mitoak ezartzen

duen gainsignifikazioaren ohizko harrapakin izatea (2005, 227–229), ritorneloa beste adierazi baterako adierazle bihur liteke, kontzeptu mitiko baten forma. Aitaren etxearen aktualizazio ezberdinetan ikus daitekeen joera dela dudarik ez dago, interpelazio berrietarako adierazle bihurtzen den neurrian, Garaikoetxea Lehendakariak egiten duen bezala. Era berean uler liteke ere ezker abertzaleak iraganeko borrokaren modu bertsuan mantendu nahian adierazlea egonkortzeko saiakerak egiten dituenen. Ahaidetasun-lotura duten irudikapenak badira ere, biak dira adierazleak mito diferenteetan finkatzeko saiakerak, baina afektu bertsuak mobilizatuz.

Horregatik, hain zuzen ere, aldi berean eta *azpitik*, (gizarte) irudikapenaren egonkortze mitikoari kontra jartzen zaion beste polo bat atzeman daiteke: eferbeszentzia (kolektiboa) askatzen duen erritua. Honela ritorneloak, aztikeria, sorginkeria gisa jokatu lezake, erritua aktibatu eta gidatuz. Agian, erarik argienean *Egun da Santi Maminaren* kasuan ikus liteke, estrofa nagusiak estrofen segida aurreratu eta ahots eta dantza berriak erreklutatu egiten ditu. Jarduera ekonomikoaren egunerokotasunarekin hautsi egiten duten jaialdiek bezala, jai-erritmoek taldearen ospakizuna sinkronizatzea lortzen dute, barreiatuak zeuden energia sozialak erritual eferbeszentzean elkartuz (Durkheim 2008, 242–243).

